

7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi
Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi
Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*
Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*
Escritores euskéricos
contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi
Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi
Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*
Xiberoko antzertia edo pastorala. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*
Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi
Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*
Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*
Zubererazako istorio, alegia eta ipuin
irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charritton*
Le fondement moral des droits culturels
de l'homme. (Kultura eskubideen oinarri
etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*
Bahnar deitu salbaia. 2014
25. *Mongongo Dussanza*
Albaitaritzako idazlanak (1692-1892).
2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*
Euskara barrutik. Estudios de lingüística
vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*
Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*
Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo
Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*
Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gabiteguy*
Laborantza. Laborantzatik hobeki
bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*
Joakin Berminghamen solasak.
2020
32. *Emil Larre*
Emil Larre 1926-2015.
Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*
Ozaze Jaurgainian. 2020
34. *Jon Casenave*
Euskal literaturaren historiaren historia.
Gurea nola konda? 2020
35. *Jabier Kaltzakorta*
Zerbitzari lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez,
arrazoirik ez / Recueil de versification.
Sans rimes ni raisons (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratxabal*
Blanca eta Viana.
Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros (1957-2021)*
Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022
39. *Henrike Knörr (1947-2008)*
Idazlan hautatuak/Textos escogidos. 2022
40. *Adolfo Arejita*
Faktoriako geziak. Egungo gizarte-
kontzeptu berriak euskaraz nola eman:
hautuak eta arrazoiak. 2022
41. *Jose Maria Agirre Egaña*. Lizardi
Bihotz-begietan eta gainerako olerkiak.
2023

EUSKALTZAINAK izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA




LIZARDI

BIHOTZ-BEGIETAN ETA GAINERAKO OLERKIAK

Paratzailea

KARLOS OTEGI LAKUNTZA



KARLOS OTEGI LAKUNTZA
(Donostia, 1940)

Filosofia eta Letretan (Filologia Saila) doktore (Deustuko Unibertsitatea, 1991), eta 1983az gero euskaltzain urgazle.

Irakaskuntzan, Batxiler Institutuko katedradun ("Euskal Hizkuntza eta Literatura") (1980-1990), eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle ("Literaturaren Teoria"), bitarteko (1990-1995), eta titular (1996-2008). Geroztik erretiroa hartua.

Argitaratutako lanen artean: *Pertsonaia euskal nobelagintzan* (1976); *Lizardi. Lectura semiótica de "Bihotz-begietan"* (doktore tesia, 1993); *Jose Maria Agirre. Lizardi. Olerkiak* (edizioa, 1994).

Elkarlanean osatzen ari den *Euskal Literaturaren Antologia* (1, 2015; 2, 2019) lanaren koordinatzailea.



EUSKALTZAINDIA

JOSE MARIA AGIRRE EGAÑA

LIZARDI

BIHOTZ-BEGIETAN
ETA GAINERAKO OLERKIAK



Jose Maria Agirre Egaña, *LIZARDI*
(Zarautz, 1896 – Tolosa, 1933)

JOSE MARIA AGIRRE EGAÑA

LIZARDI

BIHOTZ-BEGIETAN
ETA GAINERAKO OLERKIAK
(euskara batura hurbilduak)

Paratzailea: Karlos Otegi Lakuntza

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2023

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hitzaurreen eta oin-oharren hizkuntza-orraketa:
Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Liburu hau Euskaltzaindiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko lankidetzaz egin da.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

1994ko edizioa:

© Karlos Otegi Lakuntza

© Euskal Editoreen Elkarte / Elhuyar Kultur Elkarte

1994ko edizioa, 2022an berrikusia, osatua eta egokitua:

© Karlos Otegi Lakuntza

© Euskaltzaindia

Hasierako Lizardiren argazkia (1932): Indalecio Ojangurenen argazkia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzapekoa. Jatorrizko argazkian Lizardiren ondoan Nikolas Ormaetxea *Orixé* eta beste bi pertsona ezezagun daude; moldaketa honetan, Lizardi bera bakarrik ikusteko moztu da. (CC BY-SA 3.0).

Gainerako argazkiak, margoak eta eskuizkribuen irudiak Lizardiren familiaren jabetzapekoak dira.

Maketazioa eta inprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-127506-0-7

Lege-gordailua: BI 01386-2023

AURKIBIDEA

Edizio egokituari sarrera. Lizardiren olerkiak euskara batura hurbilduz	11
Lizardiren olerkigintza	29
Bibliografia	75
I. <i>BIHOTZ-BEGIETAN</i> baino lehenago argitaratu, eta bertan jaso ez ziren olerkiak.	77
Nire lehenengo maite-ibilketa	79
Eusko mendia	87
Zelai urdina.	92
Habiatxo	96
Nire maiteak ditu –edo– “Axeria dantzan...”	103
Maitasunaren hileta	105
Maiteder	108
Maiteizaneri	114
Ahaztu, bihotz horrek!...	116
Izarkitako sua	118
Gaiztoen itzala	121
Euskara	123
Idazkia.	126
Gaztearen otoitza	133
Amona.	136
Otoitza.	138
Ihesi...	140
Goiz-ibiltze	142
Udazken.	145
Har huts.	146
II. <i>BIHOTZ-BEGIETAN</i>	149
Jaun errukiorra	152
Ohea	154

Mendi-gaina	161
Zeru-azpia	164
Aldakeria	167
Xabiartxoren heriotza	175
Neskatxa urdin-jantzia	185
Bultzi-leihotik	190
Parisko txolarrea	192
Otartxo hutsa	196
Agur!	199
Bihotzean min dut.	203
Zuhaitz etzana.	210
Urte-giroak ene begian	214
I - Bizia lo.	214
II - Sagar-lore	217
III - Baso itzal.	222
IV - Hondar gorri	228
Eusko bidaztiarena	234
Asaba zaharren baratzea	241
Izotz ondoko eguzki	248
Gure mintzo	254
III. <i>UMEZURTZ OLERKIAK</i> eta beste poema batzuk.	259
Etxeko sagastia.	261
Argi egidazu.	264
Hegamin	266
Etxeko kea	271
Arrats gorri	274
“Maitea”ren apurñoak.	279
“Maitea”. Poema-haria	279
Lehenengo jalkia: Oporraldi hasikinak.	282
Ama Gau beltxaran... ..	282

Gazteren esnatzea	292
Liorko	296
Amona	299
Muno Txiki	304
Gora-dei	307
Bigarren jalkia	309
Onkiren bila	309
Hondartz-abestia	312
Laugarren jalkia	314
Maitale berriak	314
Euskal Pizkundera	319
ERANSKINAK	323
I. Hiztegia	325
II. Pertsonak eta leku-izen bereziak	341

EDIZIO EGOKITUARI SARRERA

LIZARDIREN OLERKIAK EUSKARA BATURA HURBILDUZ

1. Lizardiren olerkien lehenengo edizioa 1932an agertu zen, *Biotz-begietan*. *Olerkiak* izenburuaz, Bilboko Verdes Achirica argitaletxean. Ondoren, 1956an (Itxaropena), 1970ean (Itxaropena), 1983an (Erein), 1994an (Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak bilduma), 1995ean (Egin) eta 2021ean (Susa) publikatu dira. Zazpi edizio, beraz, olerki kopuru desberdinez osatuak. (Ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 4. atala: “Olerkien edizioak”).

Aipatutako edizio horien artean jatorrizkoa 1932koa izanik, 1994koa –jada agortua– izan da osoena: bertan ordura arte ezagutzen ziren Lizardiren olerki guztiak jaso ziren, hitzaurre zabalaz eta oinohar argigarri ugariz hornituz. Hori dela eta, aurkezten den edizio berri honetarako, azken edizio hori hartu da oinarritzat: oinarritzat, zeren edizio berri hau ez baita 1994ko horren kopia edo berrinprimatze hutsa; 1994koa da, baina berrikusia, gaurkotua, eta, batez ere, egokitua.

2. 2023ko edizio berri honetan jasotzen da:

1) 1994ko edizioan bildutako olerki guztiak eta, gainera, orain arte argitaratutako zazpi edizioetan jaso ez, eta berriki berreskuratu diren beste bi olerki: “Habiato” eta “Goiz-ibiltze”. Iñigo Agirre Zubiak, Lizardiren bilobak, izan du bi olerkion eskuizkribuak eskuratzeko zori ona eta gordetzeko ardura; hari zor zaio biak edizio honetara biltzeko aukera.

2) 2023ko edizio egokitu honetarako sarrera.

3) 1994ko edizioko “Hitzaurrea”, edizio berri honen eskakizunetarako berrikusia, “Lizardiren olerkigintza” izenburuaz.

4) 1994ko edizioko oin-oharrak, berrikusiak eta orraztuak.

5) 1994ko “Hiztegia” eta “Pertsonak eta leku-izen bereziak” eranskinak.

Horrez gainera, edizio honetan, Lizardiren olerki guztiak euskara batuan jarri dira, edo, zehatzago esanik, ahalik eta gehien idatzizko euskara batuaren eredura hurbildu. Egokitzapen honen helburu funtsezkoenatariko bat, behinena segur aski, hau da: euskara batuan ohitu eta trebatu den irakurleari Lizardiren olerkiak bertsio gertuagoan, gaurkotuagoan, eskaintzea; ezohiko edo arrotz samar gerta dakioken idazkera moldatuz, poemetan murgiltzeko hizkuntzaren aldetiko trabak leuntzea.

1932, 1956, 1970, 1983, 1994 eta 1995eko argitalpenetan, neurtitzak—grafiazko ukitu batzuk salbu—jatorrizko idazkeraz, jatorrizko ortografiaz, agertu ziren. 2021ekoa izan da Lizardiren olerki sorta bat euskara estandarrean jartzeko lehenengo saioa. Edizio horretan, poeta jaio zeneko (1896-04-18) 125. urteurrenaren kariaz, egileak berak liburu gisa argitaratzeko hautatutako poemak biltzen dituen *Bibotz-bebietan* liburua berrargitaratu da. Bilduma horretako hogeita bat poemak euskara batuan datoz, sarrera mamitsu eta adierazkorrez, eta oin-ohar gutxi batzuek hornituak.

Kasik argibiderik eskaintzen ez duen edizio soil batek izan ohi dituen abantailak eta gabeziak gorabehera, 2021eko horren asmoa txalogarria da: formatu erakargarria, poemak ortografia estandarrean ekartzea, neurtitzak bitartekaririk eta ia-ia osagarririk gabe irakurleari gertu-gertutik dastatzera gonbidatzea, hain zuzen, “Lizardiren poetikari irakurleak batzeko gogoz”. Xedea, ahalegina eta lorpenak estimagarriak badira ere, testuekiko leialtasuna ez da beti behar bezala zaintzen: behin baino gehiagotan, neurtitzak euskara batuan jartzearren, jatorrizko neurkera edo hoskidetasuna hautsi egiten da. Ehun alditan baino gehiagotan gertatzen den hauste horren bizpahiru adibide, “Hondar

gorri” poematik aletuta: jatorrizko *Ikus bezat, Yauna, bein ta berriro / (...)* / *Ikus bitzat arako irusta-sallak*, hamaika silabako neurtitzak, batuan jartzean, hamabiko bihurtzen dira, *Ikus ditzadan, Jauna, behin ta berriro / (...)* / *Ikus ditzadan barako hirusta-sailak*. Hoskidetasunean, berriz, *Adiskide Urretxindor il zaizute* neurtitzean, “zaizue” jarriz, hautsi egiten da *zaizute* : *zaramate* errima. Horrelako egokitzapenez, ulermenaren, gertutasunaren edo estandarizazioaren aldetik irabazi egiten da, baina neurtitzen benetakotasunaren ikuspuntutik galdu.

2021eko argitalpen horretan, liburuaren gehigarri gisa, 1932ko jatorrizko edizioaren faksimilea jasotzen duen liburuxka bat erantsi da. Horrela irakurleak olerkiek, euskara batura ekartzean, izan dituzten aldaketak, moldaketak, aurki eta egiazta ditzake. Aipatutako hausketak argitzeko azaleko konponbidea izan liteke, baina hausketak ez dira olerkietatik desagertzen: testuetan txertatuta diraute, testu dira jada.

Izan ere, neurtitzak euskara batuan jartzeko bide bat baino gehiago har daiteke. Lau, besteak beste. Horietako bat litzateke neurtitzak, modu gordinean eta besterik gabe, euskara batuan jartzea, neurriari, errimari eta hoskidetasunari jaramonik egin gabe. Konponbide traketsa eta onartezina. Lizardiren poesia librea balitz, erritmo askekoa, neurririk eta errimarik gabe taxutua, euskara batuan jartzeko ahalegina, alde batetik bederen, erosoagoa, bideragarriagoa, litzateke. Baina bere poesia xeheki zizelkatua da: neurtua (maiz bertso-lerroa zesuraz, barne etenaz, bi hemistikiotan banatua), errimatua eta hoskidetasun ugariz jantzia. Baliabide horiek errespetatu nahi badira, egokitzapena egitura horiek ezartzen dituzten mugetara moldatu beharra dago. Euskara batuaren arauak eta poemaren egitura finkoek talka egiten dutenean, poemaren alde egin behar da. Egokitzapena jatorrizko testuaren zerbitzuan da, ez alderantziz. Hortaz, Lizardiren olerkien idatzizko euskara baturako egokitzapena ezin da nolana bete; ezin da erabatekoa izan. Egokitzapen mugatua, neurrikoa izan behar du, baina baita aurrera egin daitekeeneraino eramana ere. Aipatutako 2021eko egokitzapenak errespetatu egiten ditu, oro har,

bertso-lerroen neurria eta hoskidetasuna, gorde egiten du neurtitz gehien izaera metriko-fonikoa. Behin baino gehiagotan, ordea, ez.

Lizardiren neurtitzak egokitzeko beste bide bat litzateke egokitzapenak, hots, gehitzeak, ezabatzeak eta bestelako aldaketak, testuetan grafia desberdinez markatzea. Gehitzeak seinala litezke, *arki* > *aurki*, *hontan* > *bonetan*. . ., baina ezabatutakoak, *aunditasun* > *banditasun*, *udaberriero* > *udaberriro*, *mundutikan* > *mundutik*, nola adierazi testutik desagertu badira? Testuak, bestalde, adabakiz josiko lirateke.

Hirugarren aukera bat litzateke neurtitzak beti euskara batuan jartzea baina neurriari, errimari eta hoskidetasunari eutsiz, hau da, trebetasun edo sen poetikoa erabiliz, neurtitza eta euskara batua uztartzea, bata besteari ahokatzera erabat. Lan nekeza, arras korapilatsua, eta poetaren neurtitz ugari bihurritzea, bortxatzea edo –kasurik onenean– nabarmenki aldatzea ekarriko lukeena.

Lizardiren neurtitzen egokitzapenerako, edizio honetan, laugarren bide bat hautatu da: neurriari, errimari eta hoskidetasunari eustez gain, neurtitza apenas bihurritzen, aldatzen duena. Azalpena, segidako atalean.

3. Lizardik bertso-lerroaren neurria zorrozki zaintzen du, eta horretarako neurri arau zehatzak betetzen ditu (ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurrea, 3.4.3. 1) azpiatala). Egokitzapenak neurtitzaren silaba kopuruari eutsi behar dio. Batzuetan, ordea, testua egokituko balitz, neurtitzari silaba bat erantsiko litzaioke [+1]: *Izotzak estali zun* neurtitza, adibidez, “zuen” egokitzapenaz zazpi silaba izatetik zortzi izatera pasatuko litzateke; edo *arren, aiskide urruna* bertso-lerroan, “adiskide” egokitzapenak ere silaba bat gehituko lioke neurriari. Beste batzuetan, egokitzapenaz, neurtitzak silaba bat galduko luke [-1]: *Udaberriero* neurtitzak, esaterako, “Udaberriro” egokitzapenaz silaba bat gutxiago izango luke; *oiloei maitasuna* lerroan, “oiloei” egokitzapenak silaba bat kenduko lioke neurtitzari; edo, adibidez, *Maitetasun bazia* lerroak, “Maitasun” egokitzapenaz, silaba bat galduko luke. Zenbaitetan, egokitzapenak neurria lortzeko erabili den sinalefa deuseztatuko luke eta, ondorioz, bertso-

lerroari silaba bat gehituko lioke: *nire bidexka izkutuak* neurtitzean, esaterako, “ezkutuak” egokitzapenak “-a i-” sinalefa desegingo luke.

Neurria ez ezik, Lizardik errima ere arretaz lantzen du. Egokitzapena gauzatzeak, batzuetan, errima hautsiko luke: esaterako, “dan : artean” bikotean “den” egokitzapenak, edo “baitziran : etengabea” erriman “baitziren” egokitzapenak errima apurtuko lukete. Besteetan, errima hautsiko ez balitz ere, murriztu edo aldatuko litzateke: adibidez, “garaiean : bazterrean” erriman “garaian” egokitzapenak, edo “itzaiaik : erraiak” bikotean “itzainak” moldatzeak errima ahuldu edo laburtuko lukete.

Azkenik, zenbaitetan, egokitzapenak neurtitzaren edo estrofaren barneko hoskidetasuna, hotsen kate esanguratsua desegin edo murriztu lezake: “giza erlauntza : haruntz-honuntza” segmentuen loturan, errimaz gain, “-za, -auntza, -aruntz, -untza” hotsen katea, hoskidetasuna, ageri da; “harantz-honantz” egokitzapenak ez errima bakarrik, baizik eta hoskidetasuna ere ahulduko luke nabarmenki.

Hortaz, neurria (bertso-lerroaren etena barne), errima eta hoskidetasuna aldarazten duten egokitzapenak ez dira aplikatu, baina bai testuetan markatu. Egokitu ezin izan den hitzari, testuan, izartxo bat (*) erantsi zaio. Izartxoak esan nahi du hitza ezin izan dela egokitu, eta, poemaren bukaeran erantsitako “Egokitu gabeak” ataltxoan, ezintasun horren zergatikoa argitzen dela. Testuetan, beraz, zenbakitxoaz oinoharrak adierazten dira, eta, izartxoaz, egokitu gabeak.

Kasu bakar batean soilik hautsi da bertso-lerroaren neurria aldarazten duen egokitzapena ez gauzatzeko erabakia: egokitu gabe utziz gero, hitzaren forma gordinegia, nabarmenegia, gelditzen zela ikustean. Gehienetan, silaba bakarreko hitzak: *jun gaitian* > *joan gaitezen*, *ai zera* > *ari zara*, *nire autik* > *nire abotik*, *ein dezadan* > *egin dezadan*, *beriz e* > *berriz ere...* Salbuespenok “Egokitu gabeak” oharrean argitzen dira.

Egokitu gabeen zergatik horiek oinoharren multzotik kanpo jartzea hautatu da, poemaren bukaeran, poema eta bere oinoharren ondoren. Funtsean, zehaztaperen linguistikoak, olerkigintzaren teknikari

dagozkionak dira eta, segur aski, interesatzekotan, bereziki, horrelako xehetasunez arduratzen direnei interesatuko zaizkie; ez irakurle orori. Poemak ulertzeko eta dastatzeko jakingarri beharrezkoak ez direnez, aparte jartzean, irakurketari trabak ahalik eta gehien gutxitzea bilatu da.

Neurria, errima edo hoskidetasuna aldarazten ez duten egokitzapenak, berriz, gauzatu egin dira besterik gabe, testuan inolako seinalerik jarri gabe: *nere* > *nire*, *laño* > *laino*, *bear* > *behar*, *abots* > *abots*, *yoria* > *joria*, *ezpaitun* > *ez baitun*, *ixilla* > *isila*, *iñarak* > *enarak*. . . Irakurleak non egin den egokitzapena jakiteko interesa badu, aurreko edizioetara jo beharko du.

Egokitzeko lanean, lehenengo sei olerkietan (1917-1918) bertso-lerroaren neurria lortzeko Lizardik darabilen ezohiko sistemak gehigarriko arazo bat sortzen du. Horretaz, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurrean, 3.4.3.1) azpiatala.

4. Edizio honetarako hartu den olerkiak egokitzeko erabakia eztabaidagarria da, eta ez da arriskutik libre.

Egokitzapenez jatorrizko testua aldatu egiten da. Halaxe da, baina egokitzapenerako hemen hautatu den ereduan, aldaketa azaleko mailan gertatzen da, ortografiaren arloan nagusiki. Testuak, funtsean, berak dira; olerkiak bere horretan mantentzen dira. Are gehiago, poetak egindako hautapen poetiko-linguistikoko berezi batzuk ere gorde egiten dira. Horien artean, esaterako, Lizardiren poesian ezaugarrietariko bat den sabaikari adierazkorren erabilera, edo lexiko mailan ageri diren hitz ezohiko zenbait.

Egokitzapenak, bestalde, gehienetan hitz soilaren mugen barruan gertatzen dira. Banaka batzuk besterik ez dira muga horiek gainditzen dituzten egokitzapenak. Kasu horietako batzuetan, sintagma labur baten moldatzeak, neurria eta errima errespetatuz, testua euskara batuan jartzea ahalbidetzen du. Horrela, esaterako: *Gurtu gatzaiion* > *Gur gatzaiokion* (biak bost silabakoak); *zelaiean baitzun* > *zelaian baitzuen* (sei silabakoak); *barkatu zaiozu* > *barka iezaiozu* (sei silabakoak); *maiera iguzkia* > *mabaira eguzkia* (sei silabakoak); edo *Zerek zelai urdiñan* > *Zerk zelai urdinean* (zazpi silabakoak). Batzuetan, ordea, poeman nagusi den bertso-lerroen etenak galarazi

egiten du egokitzapen mota hau. Ikus, esaterako, “Ahaztu, bihotz horrek!...” poemaren azken estrofako adibidea.

Olerkiak euskara batura ekartzea ez da Lizardirekiko desleialkeria. Aitzitik, euskara batuan jartzen saiatzea bat dator Lizardik berak hizkuntzaz zuen jarrerarekin. Poetaren bilakaera poetiko-linguistikoa arretaz aztertuz gero, garbi sumatzen da hizkuntza lantzeko eta normalizatzeko egiten duen aurrerapena. Euskara batu baterantz jotzen du: grafia eta ortografia bateratuz, hitzak osoki erabiliz, deklinabidea eta aditza estandarizatuz, Lizardiren praktika bide-erakusle gertatzen da. Gaur egun biziko balitz, Lizardi, zalantzarik gabe, idatzizko euskara batuaren sustatzaile sutsua izango litzateke. Hizkuntza larreakoa *noranabikoa*: / *jakite-hegoek igoa* nahi zuen; euskara gaitua, *zernahitarako* apaindua, *gizaki guztien alderdi ta asmo* adierazteko trebatua behar zuen; *garoz jantzia* eta *soina zahar* bai, baina baita ere *berri gogoa* (“Asaba zaharren baratzea”).

Lizardik berak, hitz askotan alternantziak baliatzen ditu; maiz, hitz bat bi modutan (edo gehiagotan) idazten du. Erabilpen bikoitz (edo anizkun) hori poetaren bilakaera linguistikoaren, eta neurriaren eta errimaren eskakizunen harira esplikatzen da. Poetak, idatzizko bilakaera horretan, baturanzko bidea egiten du; alternantziotan, formetariko bat gaurko euskara batuan, edo ia batuan, dago. Esaterako, badarabil “aiskide” eta “nausia” baina baita “adiskide” eta “nagusia” ere. Era berean, silaba metriko baten aldearekin: “par / parre”, “nun / nuen”, “jun / joan”, “zaizka / zaizkio”, “zaut / zaitut”, “maitetasun / maitasun”, “iñular / ilunabar”, “legun / leun”, “biyotzan / biotzean”, “isla / isla”, “ta / eta”... Orobat, bokal edo kontsonante baten alternantzia soilez: “iñarak / enarak”, “iñun / iñon”, “iguzki / eguzki”, “nere / nire”, “gaiztuen / gaizto”, “goruntz / gorantz”, “zegoan / zegoen”, “zan / zen”, “det / dut”, “itxon / itxoin”, “bezin / bezain”, “gaba / gaua”, “suba / sua”, “edur / elur”... Honek guztiak euskara baturako lana errazten du eta egokitzapenean aurrera egitera akuilatzen.

Egokitzapenak, dena den, badu arriskurik, eta ezinegona ere sorlezake irakurlearengan. Kezka iturri izan litezke, besteak beste: testu berean egokitutako hitzen ondoan egokitu gabeak, egokitu ezinak, ikustea; areago, testu berean, hitz bera bi moduz aurkitzea, egokituta eta egokitu gabe, *Enarak / inarari / enarok* (“Aldakeria”), esaterako; hitz-elkarketaren arloan gerta litezkeen zalantzak edo inkoherentziak sumatzea; egokitzapenaz, poetaren euskalkiaren eta idiolektoaren ezaugarriren bat edo beste galtzea eta abar. Olerkiak euskara batuan irakurtzeko ezinbestean ordaindu beharreko bidesaria da.

Hautapena egin behar izan da: olerkiak orain arte bezala, hots, jatorrizko bertsiotan berrargitaratu ala jatorrizko bertsiota euskara batura egokitu. Bigarren aukeraren alde egin eta ezinbesteko galdera: testu osoa ezin bada euskara batuan erabat jarri, neurtitz batzuk ezin badira egokitu, baztertu egin behar al da ahal den neurriko egokitzapena? Edizio honek ezezko erantzuna ematen dio galderari. Olerkietako zatirik zabalena, gehiena, jada jatorriz euskara batuan dagoenez edo egokitu daitekeenez gero, abagune horretaz baliatzea da edizio honen asmoa.

Olerkiak idatzizko euskara batuan baino jatorrizkoan jasotzea edo euskalkiaren berezitasunak zehazkiago dastatzea nahiago duen irakurleak badu bertsiotik original hori non aurkitu eta non irakurri. Aurretiko sei ediziotan, grafiazko aldaketaren bat salbu, jatorrizko bertsiota argitaratu da. Bertsiotik hori, beraz, askitan jaso da. Egokitutako edizio osoa falta zen. Irakurleak begi aurrean dauka.

5. Edizio honetan, olerkien antolamendurako, 1994koan erabilitakoa mantendu da.

Lizardiren berrogeita hamasei poemak sortu ziren hurrenkera kronologikoaren arabera bana daitezke; orobat, publikatu ziren ordenaz. Gaien, hizkuntza-erabileraren edo beste zenbait harien arabera ere antola daitezke, poetaren barne bilakaera poetikoari jarraituz. Hemen, poemen argitalpenen hurrenkera eta, horrekin batera, “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.1. atalean azaltzen diren arrazoiak kontuan izanik, *Bibotz-begietan*-ek Lizardiren poesiagintzan duen nortasun berezian oinarritutako

banaketa egitea hautatu da. Poema bilduma hori antolamenduaren ardatz gisa hartuz, hiru multzo:

1) Lehenengo olerkiak: *Bibotz-begietan* baino lehenago argitaratu, eta poema bilduma horretan jaso ez ziren poemak. Sail honetan biltzen dira *Euzko-Deya*-n publikatutako hamaseiak, hurrenkera kronologikoan –"Jaun errukiorra" eta "Ohea" bigarren multzorako utziz–, eta eskuizkribuetako bi konposizioak, "Habiato" eta "Goiz-ibiltze"; baita ere, "Udazken" eta "Har huts" olerkiak. Hau da, zerrendako lehenengo hogeiak.

2) *Bibotz-begietan* bilduma hogeita bat poemekin, zerrendako 21.etik 41.erainokoen, alegia, Lizardik bildumarako aukeratu zuen ordena gordez, poema bakoitzaren sortze-dataren arabera. Hogeita bat poema hauetatik hemezortzi, "Zuhaitz etzana", "Izotz ondoko eguzki" eta "Gure mintzo" ez beste guztiak, poema bilduman agertu baino lehenago argitaratuak zeuden jadanik aldizkarietan.

3) *Bibotz-begietan* publikatu eta geroago azaldutako poemak, hots, zerrendako gainerako guztiak, 42.etik 56.era. Aurrena "Etxeko sagastia", hau da, agertu zen lehenengoa, eta jarraian, *Umezurtz olerkiak*-en azaldu baino lehen aldizkarietan kaleratu zirenak, "Argi egidazu", "Hegamin", "Etxeko kea" eta "Arrats gorri", ordena kronologikoan. Hurrena, "«Maitea»ren apurñoak" sortakoak. "Agur!" poema, poetak berak erabaki zuenez, *Bibotz-begietan*-en mantendu da. "Gazteren esnatzea", nahiz eta aurretik *Yakintza*-n agertu, "Maitea" bere sailean kokatu da. Azkenik, bilduma itxiz, "Euskal Pizkundera".

6. 2023ko edizio hau, 1994koa bezala, ez da edizio kritikoa, hitzaren zentzu hertsian. Hemen, ez dira poemak argitalpenetan agertu diren aldaera guztiak banan-banan jasotzen, ez eta aukeratu diren bertsiok guztiak osagarri kritiko zehatzez justifikatzen ere. Oin-oharretan, dena den, aldaera esanguratsuenak jaso dira.

Oin-oharrak, oro har, ez dira interpretazio mailakoak, argigarriak baizik. Oin-oharrek ez dute testuaren interpretazioa ematen, hau da, ez dute esanahi konnotatiborik eta sinbolikorik jasotzen. Oin-oharren

bidez argitu nahi dena da testuetan ulerpen zaileko edo eskuratzen ez hain errazak diren hitzen, segmentuen edo datuen hitzez hitzeko esanahia, hots, lehen mailako irakurketari dagokion esanahia.

Lizardiren edizio hau oin-ohar ugariz hornitua da. Jakina, maila askotariko irakurleak daude, bai euskararen ezagutzari eta gaitasunari, eta bai irakurtzeko esperientziari eta trebetasunari dagokienez ere. Hortaz, oin-oharrak argibide osagarriak eta testuek jartzen dituzten oztopoen arabera erabiltzekoak direnez, irakurle guztiek ez dute modu eta neurri berean ohar horien beharrik izango. Irakurle batzuek ez dute oin-oharren inolako premiarik sumatuko; areago, agian, sobera daudela iritziko diote. Beste batzuek testuinguru korapilatsu bakanetan nabarituko dute oharren beharra; gainerakoetan, alferrikakoak izango dituzte. Baina irakurle askori oin-oharrak baliagarri gertatuko zaizkie sarritan, eta bati baino gehiagori ia-ia gehienetan.

Testuak euskara batura hurbilduz eta oin-oharrak oparoki ezarriz bilatu nahi da Lizardiren olerkiak irakurle trebatuen esparrutik harantz eramatea, ahalik eta euskaldun gutxien geldi daitezen poemok dastatu eta gozatu gabe, ulertze arazoengatik. Hitz batez esateko, transmisioa erraztea eta indartzea. Noski, langa bat jarritz; sarbidea izateko gutxieneko ezagutza eta gaitasuna eskatuz. Esaterako: *Txindoki! (. . .) / goriak astundutantai harrizko* zatian, ez dira “goriaz / astundu / harrizko” terminoak argitzen, baina bai “tantai”; eta, bide batez, neurtitz honetan, lerro osoa idazkera samurragoz adierazten, “bero guztiz handiak astundu duen harrizko erraldoi”. Axular parafraseatuz, oin-oharrak ez dira “letratu handientzat” egin, eta ez “deus ez dakitenentzat ere”.

Nolanahi ere, oin-oharren, egokitu gabeen azalpenen eta bestelako argibideen beharrik ez duen irakurleak beti du aukera osagarri horiek saihesteko eta testuak beren soiltasunean, adierazpide hutsean, eta makulurik gabe jaso eta gogoan erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, alde batera utzitako argibide horietan, maiz ñabardura baliotsuren bat edo norberaren irakurketa kontrastatzeko abiapuntu akuilagarriren bat aurki dezake. Oin-oharrak baliatuko dituen irakurleak, berriz, oso kontuan

izan behar du poesia testuetan dagoela, ez oin-oharretan: testuak poesia dira, oin-oharrak ez. Oin-oharrak lehenengo urrats bat dira, bitarteko batzuk, interpretazio orokorrerako ibilbidean makulu lagungarriak, ulertzea errazten dutenak. Ez dira poemen ordezkioak, eta helburutzat hartuz gero, testua bera desitxuratzeko, beronen pluraltasuna mugatzeko arriskua dago. Beharrezkoa denean, testuak amore ematen ez duenean, alegia, edota norberaren irakurketarekin alderatzeko erabili behar dira.

Azken interpretazioa, beraz, irakurlearen lana da, berari dagokion urratsa. Irakurleak hitzez hitzeko irakurketa soila gaintitu eta maila sakonagoetaraino iritsi behar du. Lau urtaroen inguruko poema aldeaniztuna, “Asaba zaharren baratzea”, “Izotz ondoko eguzki” edo “Arrats gorri” bezalako poemek interpretazio sinbolikoa eskatzen dute irakurlearen aldetik.

Oin-oharrak lau motatakoak dira:

1) Testuko hitz edo zati laburren sinonimo edo sintagma ahalik eta baliokideenak eskaintzen dituztenak; hauetan, ez da testua errepikatzen.

2) Ulertzen aski nahasiak gerta daitezkeen segmentu zabal samarren parafrasiak, irakurketa errazagoak, aurrekoak baino libreagoak, baliokidetasunez ez hain zorrotzak proposatzen dituztenak; oin-ohar hauen hasieran, behar izanez gero, parafraseaturiko zatia ipintzen da, parentesi arteko etenpuntuz laburtuz.

3) Hitz edo datu bereziei buruzko informazioak, azalpenak edo definizioa ematen dituztenak; oharrok argitu beharreko terminoarekin irekitzen dira.

4) Testuaren aldaerak jasotzen dituztenak, parentesi artean jarritako urteak, bertsiak, aldaera nondik hartu den adierazten duelarik; aldaera benetan muntadunak, esanahian eragin garbia dutenak (morfologiko eta lexikalak bereziki) biltzen dira.

Beraz, irakurleak, hiru motatako datak topatuko ditu bilduman zehar. Poemaren bukaeran, ez beti, ageri den data: olerkia ondu zeneko data, poetak berak adierazia. Oin-oharretan, parentesi artean, aipatzen den aldaeraren data: edizio honetarako erabili ez, eta osagarri moduan

erantsitako edizioaren data. Eta, hirugarrenez, edizio honetarako baliatutako bertsioren data, hau da, “Lizardiren olerkigintza” sarrerako 1. atalean seinalatutakoa: *Bibotz-begietan*-eko olerkientzat 1932a; *Umezurtz olerkiak*-entzat 1934a, eta gainerakoentzat, atal horretan adierazten dena. Esaterako: “Mendi-gaina” poema 1920an sortu zuen poetak; oin-oharretan aipatzen diren aldaerak *Argia*-n 1925ean argitaratutako bertsiokoak dira; eta edizio honetarako jasotako bertsiota 1932koa da (*Bibotz-begietan*-ekoa), egokitua, jakina.

7. Lizardiren olerkiak ahal den neurrian idatzizko euskara batuan jartzeko, bidezkoa denez, idatzizko euskara batuko arauak eta praktikak erabili eta aplikatu dira, hau da, Euskaltzaindiak orain arte plazaratu dituen arauak, gomendioak eta irizpenak. Horiek guztiak bilduta daude “Euskaltzaindiaren Arauak” sailean, *Euskara Batuaren Eskuliburu-an (EBE)* (2018), eta aplikatuak batik bat *Euskaltzaindiaren Hiztegi-an* (2016, 2. arg.; ondorengo eguneratzeak, 2022ko uztailekoa azkena, barne). Hiztegi hau zenbait oin-ohar zehazteko baliatu da. Oinarrizko erreferentzia gisa, *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987) ere erabili da.

Hortaz, jomuga eta baliabideak garbi daudelarik, ez da ikusten egokitzapenaren xehetasunak emateko beharrik. Euskaltzaindiak sustatu eta euskalgintzak bereganatua duen idatzizko euskara batua da helmuga. Dena den, helmuga horren harira, eta adibide gisa, hona hemen argibide bakar batzuen lagin osagarri bat. Abiapuntutzat jatorrizko bertsiok hartuz –1932ko *Biotz-begietan*-ekoa batik bat–, segidan (=) forma bakoitzaren gauzatzea eta azkenik (>) euskara batuko egokitzapena.

I) Grafia zaharren egokitzapena

1970eko ediziotik jada hasita, grafia zaharrak baztertu eta gaurkotu egin dira:

* \bar{t} = tt > t, tt, it : $\bar{l}\bar{o}tuta$ = *lottuta* > *lotuta*; $\bar{i}\bar{t}urri$ = *itturri* > *iturri*; $\bar{d}\bar{i}t\bar{u}$ = *dittu* > *ditu*; $\bar{k}\bar{u}\bar{t}\bar{u}na$ = *kuttuna* > *kuttuna*; $\bar{g}\bar{a}\bar{t}\bar{e}zen$ = *gattezen* > *gaitezen*; $\bar{m}\bar{a}\bar{t}\bar{e}tasun$ = *mattetasun* > *maitetasun* . . .

* \bar{d} = dd > d : $\bar{i}x\bar{i}l\bar{d}u$ = *ixilddu* > *isildu*; $\bar{b}i\bar{l}\bar{d}ur$ = *bilddur* > *beldur* . . .

* \bar{I} = ll > l, ll, il : $\bar{i}\bar{l}aun$ = *illaun* > *ilaun*; $\bar{i}\bar{l}unik$ = *illunik* > *ilunik*; $\bar{e}\bar{r}\bar{o}sk\bar{i}\bar{l}a$ = *erroskilla* > *erroskilla*; $\bar{s}\bar{a}\bar{l}a$ = *salla* > *saila* . . .

* \bar{r} = rr > rr : $\bar{p}\bar{a}\bar{r}\bar{e}$ = *parre* > *barre*; $\bar{u}\bar{r}\bar{e}$ = *urre* > *urre* . . .

* \bar{a} = aa > a, aha : $\bar{u}\bar{d}\bar{a}k$ = *udaak* > *udak*; $\bar{x}\bar{a}\bar{r}$ = *xaar* > *xahar* . . .

* \bar{e} = ee > e, ehe : $\bar{k}\bar{e}a$ = *keea* > *kea*; $\bar{l}\bar{e}n$ = *leen* > *leben*; $\bar{b}\bar{e}ko$ = *beeko* > *bebeko* . . .

* \bar{u} = uu > uhu : $\bar{z}\bar{u}\bar{r}$ = *zuur* > *zubur* . . .

2) Bokalen egokitzapena

Idatzizko euskara batura egokitu dira: *dan* > *den*, *banekialako* > *banekielako*, *nere* > *nire*, *det* > *dut*, *iguzki* > *eguzki*, *egunoro* > *egunero*, *nun* > *non* . . .

Bokala ixtean, forma estandarizatuan jarri da: *ia* > *ea*, *betiak* > *beteak*, *bidia* > *bidea* . . . *gozua* > *gozoa*, *arranua* > *arranoa* . . .

3) Kontsonanteen egokitzapena

Idatzizko euskara batura egokitu dira, esaterako:

* Leherkariak: $\bar{p}\bar{a}\bar{r}\bar{e}$ = *parre* > *barre*; $\bar{k}\bar{a}\bar{r}\bar{a}x\bar{i}k\bar{a}$ = *karraxika* > *garrasika* . . .

* Leherkari sudurkariak: \bar{n} letra adibidez: $\bar{s}\bar{o}r\bar{g}\bar{i}\bar{n}\bar{a}$ = *sorgiña* > *sorgina*; $\bar{o}\bar{n}\bar{a}k$ = *oñak* > *oinak*; $\bar{a}\bar{n}\bar{e}z\bar{k}\bar{a}$ = *añezka* > *anezka* . . .

* Leherkari igurzkarriak: \bar{y} - letra esaterako: $\bar{y}\bar{a}k\bar{i}n$ = *yakin* > *jakin*; $\bar{y}\bar{a}n\bar{z}\bar{i}\bar{a}$ = *yantzia* > *jantzia*; $\bar{y}\bar{a}i\bar{a}$ = *yaia* > *jaia* . . .

* Frikariak: $\bar{-y}$ - letra, esaterako: $\bar{o}r\bar{o}y\bar{a}$ = *oroya* > *oroia*; $\bar{a}l\bar{a}y\bar{a}$ = *alaya* > *alaia* . . .

Orobat: *gezal = gezal > gesal; euzko = euzko > eusko; kozkortzen = kozkortzen > koskortzen; gaste = gaste > gazte; ixilla = ixilla > isila...*

* *H* letra estandarizatu egin da idatzizko euskara batuaren arabera, bai hitzaren hasieran, bai bokalen artean behar denean. *H* letra ez da bertso-lerroaren silaben neurketan kontuan izan behar; horretan, ez balago bezala jokatu behar da. Adibidez: *i = i > hi; au = au > hau* (silaba bat)... *âl = aal > abal* (silaba bat); *bêtik = beetik > bebetik* (bi silaba); *mêñoa = meeñoa > mebeñoa* (hiru silaba) ... *nai = nai > nabi; mai = mai > mahai; eun = eun > ebun* (silaba bat)... *bear = bear > behar; oiu = oiu > oibu* (bi silaba)... *legor = legor > lehor* (bi silaba); *igesi = igesi > ibesi; ogean = ogean > obean* (hiru silaba)...

* Afrikatuak: *prantzesez = prantzesez > frantsesez; ames = ames > amets; itxaso = itxaso > itsaso; yetxi = yetxi > jaitxi...*

4) Bestelako egokitzapen batzuk

Hitzen formak, testuak aukera ematen duen heinean, idatzizko euskara batura ekarri dira, hitzak osatuz edo inausiz.

Batzuetan, egokitzapenak, dela gehitzeak, dela ezabatzeak, ez du bertso-lerroaren neurrian eraginik, ez du neurria aldatzen: *arki = arki > aurki; bezin = bezin > bezain; ipui = ipui > ipuin...* *laister = laister > laster; aunditasuna = aunditasuna > banditasuna...* *igaz = igaz > iaz; burni = burni > burdin(a)...*

Beste batzuetan, gehitzeak edo ezabatzeak badu eraginik neurtitzean: *ditun = ditun > dituen; dardar = dardar > dardara...* *iletea = iletea > hileta; zedukan = zedukan > zeukan; ostutzen = ostutzen > osten; amağandikan = amağandikan > amağandik...* Hauek, neurria lehenetsiz, egokitu gabe utzi dira.

Bi epentesi mota kimatu dira, letra/hotsa epentetikoak ezabatuz edo ordezkaturik. Batetik *-y*-ren epentesia, “*-iya-*, *-iye-*, *-iyo-*” multzoetan: *mendiya = mendiya > mendia; ontziya = ontziya > ontzia...* *nekiyen = nekiyen >*

nekien... ziyoten = ziyoten > zioten; bijotzeko = bijotzeko > bibotzeko... Bestetik, -b-ren epentesia, “-uba-, -ube-” multzoetan: suba = suba > sua; neguba = neguba > negua; nubena = nubena > nuena...

Apostrofoa (‘) ezabatu egin da, salbu *t’ez* eta *zu’re* formetan, azken hau, “zu ere” moduan egokituz gero neurtitzari silaba bat erantsiko litzaiokeelako. Horrela: *ba’neki = ba’neki > baneki; ba’ninduzu = ba’ninduzu > baninduzu; Paris’ko = Paris’ko > Parisko; Onki’re = Onki’re > Onkiren...*

Hitz-elkarketa oso ugaria da Lizardiren olerkietan. Bere hizkera poetikoaren ezaugarrietariko bat da. Beharrezkoak ez diren osagai morfologikoak inausiz, baliabide honek poesiaren trinkotasuna eta zehaztasuna areagotzen laguntzen du. Hitzen arteko lotura batzuek eduki semantiko aberatseko multzo lexikalak sorrarazten dituzte.

Lizardik ohiko hiru moldeak erabiltzen ditu hitz elkartuak idazteko. Elkarketa horietako batzuk, gutxienak, aske eta marratxorik gabe ageri dira: *ordu bete, zuaitz lagunak, untzi geriza, Andre Luñak...* Beste batzuk, gehiago, unitate batean loturik: *goizaldea, aldegiñik, sutondoan, onginaia, gizalaba, atsegintokia, besalagun...* Eta gehienak, multzorik oparoena osatuz, elkartutako hitzak marratxoz lotuz: *lore-sorta, askatasun-egunaren, lerden-aski, ñir-ñir, bide-ertz, an-or, dantzari-talde, bigundu-beárez, azken-aguía, mañubi-lapur, etxeko-andre, bazterik-bazter...*

Hitz elkartuok, eta bereziki marratxoz loturikoak, egokitze, edizio honetan *Euskaltzaindiaren Hiztegi*-an ageri den praktikari jarraitzen ahalegindu da. Bidea ez da erraza, ezta beti argia eta erabat zehaztua ere.

Praktika horri helduz, hitz elkartu batzuk Lizardik idazten dituen moduan mantendu dira: *Andre Lurrak, atsegintokia, ñir-ñir, ban-bor...* Beste batzuk egokitu egin dira, askotan marratxoa ezabatuz: *Ordu bete = Ordu bete > Ordubete; etxeko-andre = etxeko-andre > etxekoandre; aldegiñik = aldegiñik > alde eginik; azken-aguía = azken-agurra > azken agurra; bigundu-beárez = bigundu-bearrez > bigundu beharrez; lerden-aski = lerden-aski > lerden aski; bazterik-bazter = bazterrik-bazter > bazterrik bazter; ote-aiz = ote-aiz > ote baiz; al-dan = al-dan > al den...* Zalantza-koetan, jarraibide edo eredu garbirik ikusi ez denean, arlo honetan Lizardiren idazkerari eutsi zaio, batik bat

elkartearen lehenengo osagaian morfema nabarmenen baten inausketa antzematen denean: *sebaska*[ra]-*alderaturik* / *jaiotza*; *irentsi*[tako]-*lagunak*; *bakan*[etan]-*ibil*[itako]-*ertzetan*; *joan*[dako]-*elurte gaitzaren*...

Eta abar. Egokitzapenari buruzko adibide eta argibide zenbait, besterik ez. Gainerako xehetasunak poema bakoitzean gauzatu dira. Azken finean, beraz, ahal denean, idatzizko euskara batuaren formak.

Ohar bat Lizardiren neurtitzen ahoskatzeaz. Egokitzapena idazkerari, idatzizko formari dagokio. Idatzizko zeinuen ahoskera irakurlearen esku geratzen da. Zeinuen ebakera edo gauzatze fonikoa testuaren hartzaileak zertuko du, euskararen eta euskal testuen ahoskeraz duen gaitasunaren eta praktikaren arabera, eta hizkuntza erakundeek ortografia-marken ebakera fonikorako eskaintzen dituzten argibideak eta erabakiak onartuz edo saihestuz.

Dena den, irakurleak ez du ahaztu behar poemok Lizardirenak direla, eta Lizardik sabaikari adierazkorrak oparoki erabiltzen dituela. Hitzak euskara batuan idatzita egonik ere, ahoskatzerakoan, ortografia-markak ahoz gauzatzekoan, hots sabaikariak lehenetsi beharko lirateke, poetaren joerari jarraitu nahi bazaio behintzat. Palatalez jasota dauden hitzez gain (*xomorro*, *ttantta*...), bestelako hitz batzuk ere bustiduraz ahoskatu beharko lirateke. Horrela, esaterako: “isila” idatzi baina “ixilla” [iʃiɬa] ahoskatu beharko litzateke; “baina”, “baña” [baɲa]; “jakin”, “yakin” [ʝakin]; “ilaun”, “illaun” [iɬaun]... *H* letra, neurkerarako kontuan hartu behar ez den bezala, neurtitzak ahoskatzean ere, ez litzateke gauzatu beharko, batez ere gauzatze horrek neurria aldaraziko lukeen kasuetan.

8. Badira zenbait salbuespen. Euskara batuaren kariaz egin beharreko egokitzapen batzuk ez dira gauzatu, ez eta “Egokitu gabeak” oharrean azaldu. Batzuetan, ugari direnez, errepika nekagarriak saihesteko; bestetan, poetaren lizentzia barkagarri gisa har daitezkeelako, edo bere poesiari jite eta kolore berezia itsasten diotelako.

Eutsi zaio, esaterako, “eta/ta” alternantziari. Lizardik biak erabiltzen ditu, maiz neurriaren eskakizunen arabera, silaba bat gehiago edo gutxiago lortzeko. *Ta* barra-barra ageri da: *eta* gisa egokituko balitz, silaba bat erantsiko litzaioke neurtitzari. Egokitzapenaren ezintasuna behin eta berriz adierazten ibili beharko litzatekeenez, errepika astun hori saihestearren, *ta* bere horretan mantentzea erabaki da. Beraz, testuetan “eta/ta” alternantzia.

Sabaikari adierazkorrez ñabarturiko hitzak ugariak dira Lizardiren poemetan; eite berezia ezartzen diote bere poesiari. Horietako asko *Euskaltzaindiaren Hiztegi*-an jasota daude: *axeri, otxan, txoro, kuttun, ximel, haizeño, bixigarri, goxo, xuxen...* Beste batzuk, hiztegi horretan agertzen ez badira ere, kasu bereziren bat izan ezik, *Orotariko Euskal Hiztegi*-an bilduta daude: *ixar, bixkortu, xital, boxkirri, barre-antx, baxaran, muttil...* Adierazkortasun hori kimatzea Lizardiren poesiaren izaera kamustea litzateke. Hortaz, sabaikari adierazkor horiek dauden-daudenean utzi dira, idazkera aldatu gabe. Inoiz, oin-oharren bidez nabarmendu dira. Ez dira gorde aurreko *-i-* bokalaren eraginez sortutako adierazkortasunik gabeko bustidurak: *geldittu, nittun, ikusitta, itturri...* Hala ere, goraxeago azaldu denez, ahoskatzerakoan egokia litzateke bustidura hauek ere, gainerakoak bezala, gauzatzea. *Zuri/txuri* aldaerak, testuinguru bakanen batean salbu, egokitu egin dira *zuri* forma batua lehenetsiz, horixe baita, bestalde, poetak alde handiz gehien darabilen forma; *xuri* adierazkorra mantendu egin da zenbait testuingurutan.

Deklinabidean, ez dira egokitu zenbait arau-urratze edo erabilera ezohiko. Lizardik behin baino gehiagotan artikulua ezabatzen du, baita gramatikalki beharrezkoa den testuinguruetan ere: *isil bandi; eskuan burruntzali; Leiboan / apar zuri motela / itsatsi zegoan; Kanta ditzagun bango gau luze; Gorputzean osasun, / ariman bakea;...* Pertsonifikazioetan badira zalantzak, agian neurria zehazteko beharrak eraginak. Jatorrizko testuetan, izen pertsonifikatua batzuetan artikulurik gabe dator eta besteetan artikuluz (*Udaberri / Udaberriari, Baso / Basoa*). Bestalde, zenbaitetan izena letra larriz hasten da eta beste batzuetan letra xehez (*Iguzki / iguzki*). Oro har,

bere hartan utzi dira. Kasu instrumentalean zalantzazko zenbait erabilera sumatzen dira. Batzuetan, adibidez, bereziki bokalez amaitutako hitzetan, mugagabea edo plurala dirudiena singularrari dagokion atzizkiaz (-az) ageri da: *gozatua baitu gaur / ezti bereziaz; esku sendoaz idazten hibarduan; Begiaz dut, alferrik, / jo baren bidea; bil nauela, barrea, / maitagarri batek...* Lizardik forma hauek lizentzia gisa baliatzen ditu, neurria eta errima osatzeko. Egokitzapenek bertso-lerroaren neurrian edo estrofaren erriman eragina izango luketenez, aplikatu gabe utzi dira.

Aditzaren arloan, hau ere lizentziatzen hartuz, ez da egokitu Lizardik, bertso-lerroaren neurria eta trinkotasuna edo estrofaren errima lortzearen, maiz egiten duen partizipio morfemaren (-i, -tu) inausketa edo elisioa: *ibil obi direnak; ni ikus ta; buka baino leben; Sar eta...; isil zen; galde diot...* Kimatze hau ugaria da olerki bilduma osoan zehar. Batzuetan, ez dago gramatikalki erabat garbi morfema behar den ala ez, eta, gainera, ia beti morfema ezartzeak eragina izango luke neurrian eta, inoiz, erriman ere. Halaber, idatzizko euskara baturako jaso eta arautu ez diren arren, mantendu egin dira Lizardik erabiltzen dituen zenbait adizki trinko: *dadat, dotoigu, daves, darrait [jarraitzen dut], damesgun, dohar, dager, naroi, damakio, deten...*

Lexikoan, nahiz eta, oraingoz bederen, hiztegi baturako bildu ez diren, gorde egin dira molde honetako hitzak: *malkotza, arnasegai, hondardi, egute, entzuki, erakarki, itsasto, hurbilgo, pozkun, izarki, iñular, izukoi, basalur, begamin...* Halaber neologismo, aranismo, zenbait: *bakalduntza, bidekatu, eresintsu, gaudi, geldu, gentza, itsasozti, estuntza, gotzon, zorun, geznari...*

Sarrera hau itxi aurretik, eskertu nahi dizkiet bereziki: Maribi Legarra Sarasolari, egitasmoaren sorreran eta ibilbidean emandako bultzada eta adorea; Iñigo Agirre Zubiari, poema berriak eskuratzeko oparitutako aukera; Bakartxo Urruzola Arratibeli, testuen zehaztapenerako moldatutako ohar eta zuzenketa baliotsuak.

Karlos Otegi
Zarautzen, 2021eko udaberrian moldatua
eta 2022ko neguan berrikusia

LIZARDIREN OLERKIGINTZA⁽¹⁾

I. Olerkiak

Berrogeita hamasei —edo berrogeita hamahiru— dira, oraingoz, behinik behin, ezagutzen diren Lizardiren olerkiak. “Urte-giroak ene begian” izenburupean bildutako lau testuak poema bakar eta banaezintzat hartzen badira, orduan berrogeita hamahiru dira; lau testu horiek lau poematzat jotzen badira, berrogeita hamasei. Bada arrazoi aski ikuspuntu biotarako.

Alde batetik, poetak, 1932ko edizioan lau testuak multzo batuan, poema bakar gisa, aurkeztu zituen, eta, arretaz irakurrita, “Urte-giroak ene begian” biribilki jositako eraikuntza poetiko bakarra eta aldeaniztuna dela antzematen da: atal bakoitzak osotasunaren alde bat, izadiaren zikloaren fase bat konfiguratzen du (I, II, III, IV); lau testuetan zehar osagarri zenbait errepikatu edo luzatzen dira, atalak hari gidariz, barne loturaz elkartuz (mendia, basoa, pagoa, haritza, arro behea, bide-ertza, orbela, urrea, Eguzki, Itzal, Kilker...); udazkenaren amaieran, zikloa osatzean, poetak lau urtaroak elkarganatu eta osotasunari zentzu sakona eransten dio: *Hiru giro izanok (...) / nork zeuen saria ekardazute / (...) / Oro bebar zaituzte ene bihotzak*; eta abar.

⁽¹⁾ Hitzaurre honetan Lizardiren olerkigintza da aztergai bakarra. Poetaren datu biografikoei, ingurumariari eta gainerako idazlanei buruzko xehetasunak ezagutu nahi izanez gero, ikus, besteak beste: Jose Maria AGIRRE, “LIZARDI”, 1995 [1929-1933], *Euskera aundiki-soñekoz*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte / Labayru Ikastegia (Klasikoak bilduma, 70. zenbakia). [Edizioa: Lourdes Otaegi]. Lourdes OTAEGI, 1994, *Lizardiren poetika*. Donostia: Erein.

Bestaldetik, ordea, nahiz eta, agian, aurrekoak baino pisu gutxiagokoak izan, badira lau testuak autonomo gisa ere hartzeko aukera ematen duten arrazoiak: lau testu horiek behin baino gehiagotan izan dira bereiz argitaratuak eta erabiliak; poema bakoitzak ezaugarri propio eta nabarmenak ditu (izenburua, egitura, eraketa metriko-fonikoa, barne erritmoa, sinbolismoa...); Tolosako Euskal Olerti Jaian, 1931n, hirugarren atala soilik saritu zuten, “Baso itzal”; 1932ko jatorrizko edizioan, “Hondar gorri” poemaren gaztelaniazko itzulpena aurkeztean, “Había titulado yo la traducción de esta poesía” dio Lizardik; eta beste.

Bi ikuspuntuok ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Aztertzaileek eta iruzkingileek ere bi modutan aurkezten edo lantzen dituzte testu hauek: batera eta bereiz. Badira, lau testuok multzo bakartzat hartuz, *Bibotz-begietan*-en hemezortzi poema biltzen direla espresuki diotenak: I. Urdanibia (Egin, 1995); J.-B. Orpustan (Izpegi, 1996); A. Lertxundi (Susa, 2021)... Badira, halaber, lau testuak, edo horietakoren bat, bereiz aipatu, aztertu edo iruzkintzen dituztenak: Orixe (Verdes Achirica, 1932); J. Haritschelhar (Deustuko Unibertsitatea, 1981); J. M. Lekuona (*Jakin*, 1983); K. Otegi (ASJU, 1993)... Lizardik berak lau atalez osatutako konposizio bakar baten egituran aurkeztu zuen “Urte-giroak ene begian” Tolosako Euskal Olerti Jaira, baina, aurretik jada argitaratua zuen “Bizia lo”, “Negu” izenburuz eta poema autonomo moldez, *Euskal-Esnalea*-n.

Hortaz, lau atalok konposizio batua, estuki artikulatua, sinbolikoki josia osatzen dute, baina bereiz ere irakur eta erabil daitezke. Testu bakoitzak zentzu betea osotasun poetikoan hartzen du, baina badu halaber berezko esanahia eta autonomia nahiko. Ataletan banaturik egonda ere, ez da hori gertatzen, esaterako, “Habiatxo”, “Zeru-azpia” edo “Xabiartxoren heriotza” olerkietan. Horietan, atalak ezin bereiziko loturaz eta jarraitutasunez daude egituratuak eta ezin dira aparte irakurri eta taxuz ulertu. “Urte-giroak ene begian” poema konplexuaren zentzu sakonaz hobeto jabetzeko lau testuak elkarrekin txirikordatuta irakurri beharra dagoela jakinda ere, hemengo jarduerarako, hots, Lizardiren

olerkien zenbatze-, zerrendatze- eta identifikatze-lanerako, lau testu horiek lau poematzat hartzen dira. Beraz, *Bihotz-begietan* bilduman hogeita bat poema zerrendatzen eta bereizten dira, eta, ondorioz, Lizardiren poemagintza osoan berrogeita hamasei. Kopuru horretan ez dira sartzen *Bihotz-begietan* poema bildumaren atarian ipinitako lau lerroko bertsoa, ez eta *Argia* aldizkarian, 1928an zehar, “Berriketak” izenburupean, prosazko testu batzuen osagarri moduan txertatuta agertu ziren bertso jostagarri eta zirikatzaileak⁽²⁾.

1.1. Lizardiren lehenengo olerkia *Euzko-Deya*-n azaldu zen, 1917-04-16ko alean. Poetak hemezortzi olerki argitaratu zituen aldizkari horretan. Horietako bi, “Jaun errukitsuboi!...” (*Euzko-Deya*, 41, 1917-12-16, 2) eta “Oia” (*Euzko-Deya*, 73, 1919-04-16, 5), Lizardik berak *Bihotz-begietan* poema bilduman jaso zituenez gero bertso berri eta behin betikoz, bilduma horren barruan kokatu eta zenbakitu dira.

Beraz, olerkien zerrendatzeari hasiera emateko, *Euzko-Deya*-ko hamaseiak eta, tartean, garai honi dagozkion berriki berreskuratutako bi eskuizkribuetako olerkiak:

- 1) “Nire lehenengo maite-ibilketa” (*Euzko-Deya*, 28, 1917-04-16, 4).
- 2) “Eusko mendia” (*Euzko-Deya*, 29, 1917-05-01, 5).
- 3) “Zelai urdina” (*Euzko-Deya*, 33, 1917-07-01, 2).
- 4) “Habiato” (Eskuizkribua, 1917-09).
- 5) “Nire maiteak ditu —edo— «Axeria dantzan...»” (*Euzko-Deya*, 53, 1918-06-16, 4).
- 6) “Maitasunaren hileta” (*Euzko-Deya*, 63, 1918-11-16, 6).
- 7) “Maiteder” (*Euzko-Deya*, 66, 1919-01-01, 3).
- 8) “Maiteizaneri” (*Euzko-Deya*, 70, 1919-03-01, 1).
- 9) “Ahaztu, bihotz horrek!...” (*Euzko-Deya*, 72, 1919-04-01, 5).

⁽²⁾ Xabier LIZARDI, 1987 [1927-1933], *Kazetari-lanak*. Donostia: Erein, 75-98. [Edizioa: Lourdes Otaegi].

- 10) “Izarkitako sua” (*Euzko-Deya*, 78, 1919-11-16, 3).
- 11) “Gaiztoen itzala” (*Euzko-Deya*, 79, 1919-12-01, 6).
- 12) “Euskara” (*Euzko-Deya*, 80, 1919-12-16, 4).
- 13) “Idazkia” (*Euzko-Deya*, 81, 1920-01-01, 4).
- 14) “Gaztearen otoitza” (*Euzko-Deya*, 82, 1920-01-16, 2).
- 15) “Amona” (*Euzko-Deya*, 83, 1920-02-01, 4).
- 16) “Otoitza” (*Euzko-Deya*, 87, 1920-04-01, 1).
- 17) “Thesi...” (*Euzko-Deya*, 88, 1920-04-16, 2).
- 18) “Goiz-ibiltze” (Eskuizkribua, datarik gabea).

1.2. *Euzko-Deya*-n azken olerkia argitaratu zuenetik *Bibotz-begietan* (1932) agertu zen arteko epean, Lizardik olerkiak publikatzen jarraitu zuen, hainbat aldizkaritan. Horietako zenbait, ukituren bat edo beste eginez, *Euzko-Deya*-n azalduetariko batzuen errepikapena ziren: “Amona” (*Argia*, 214, 1925-05-24, 3), “Gastearen otoia” (*Argia*, 221, 1925-07-12, 1) eta “Igesi” (*Argia*, 225, 1925-08-09, 1).

Gainerakoetatik, guztiak berriak, bi *Bibotz-begietan*-etik kanpo gelditu ziren:

- 19) “Udazken” (*Euzkadi*, 1926-11-03, 1).
- 20) “Har huts” (*Euzkadi*, 1927-10-20, 1).

Beste guztiak, gehienak, alegia, poetak bere poema bilduman jaso zituen.

1.3. 1932ko ekainean, Lizardik *Bibotz-begietan*⁽³⁾ argitaratu zuen, bizi zelarik publikatutako poema liburu bakarra. Bertan, hogeita bat olerki bildu zituen, sortuak izan ziren hurrenkera kronologikoaren arabera aurkeztuz; gehienak, ikusiko denez, aurretik aldizkari edo egunkarietan azalduetakoak⁽⁴⁾:

⁽³⁾ LIZARDItar X., 1932, *Biotz-begietan. Olerkiak*. Bilbo: Verdes Achirica.

⁽⁴⁾ Atal honetan, parentesi artean, *Bibotz-begietan*-en agertu baino lehen olerkiok izan zituzten argitalpenak adierazten dira.

- 21) “Jaun errukiorra” (*Euzko-Deya*, 41, 1917-12-16, 2).
- 22) “Ohea” (*Euzko-Deya*, 73, 1919-04-16, 5).
- 23) “Mendi-gaina” (“Mendi-gallurra”, *Argia*, 213, 1925-05-17, 1).
- 24) “Zeru-azpia” (*Euzkadi*, 1927-10-12, 1).
- 25) “Aldakeria” (*Euskal-Esnalea*, 306-307, 1929-06/07, 105-109⁽⁵⁾).
- 26) “Xabiartxoren heriotza” (*Argia*, 297, 1926-12-26, 1).
- 27) “Neskatxa urdin-jantzia” (*Euskal-Esnalea*, 303, 1929-03, 39-41).
- 28) “Bultzzi-leihotik” (“Bultziko leiotik”, *Euskal-Esnalea*, 312, 1929-12, 221).
- 29) “Parisko txolarrea” (“Parisko txolarre”, *Eusko Olerkiak*, I, 56-63⁽⁶⁾).
- 30) “Otartxo hutsa” (*Eusko Olerkiak*, I, 64-69).
- 31) “Agur!” (*Eusko Olerkiak*, I, 52-55⁽⁷⁾).
- 32) “Bihotzean min dut” (“Biotzean min det”, *Euskal-Esnalea*, 319, 1930-07, 145-149).
- 33) “Zuhaitz etzana”.
- “URTE-GIROAK ENE BEGIAN”
- 34) “Bizia lo” (“Negu”, *Euskal-Esnalea*, 316, 1930-04, 66-67; *Euzkadi*, 1930-05-08, 5, Lizardiren “Erdi-bearra” artikuluan; “Bizia lo”, *Eusko Olerkiak*, II, 2-5⁽⁸⁾).
- 35) “Sagar-lore” (*Eusko Olerkiak*, II, 6-11).
- 36) “Baso itzal” (*Eusko Olerkiak*, II, 12-19; *Euskal-Esnalea*, 332-334, 1931-07/10, 187-189; *Euzkadi*, 1931-09-29, 7); *Euzkerea*, 3, 1931-10-15, 730).
- 37) “Hondar gorri” (*Eusko Olerkiak*, II, 18-25).
- 38) “Eusko bidaztiarena” (*Euzkadi*, 1931-11-24, 5).

⁽⁵⁾ Olerki honetan kontaktzen den istorioa Lizardik prosazko ipuin gisa argitaratua zuen urte batzuk lehenago (*Euzko-Deya*, 26, 1917-03-16, 6).

⁽⁶⁾ *Eusko Olerkiak*, I. Donostia: Euskaltzaleak, 1930.

⁽⁷⁾ Geroago, *Umezurtz olerkiak* hilondoko bilduman agertu zen, “Maitea” poema luze bukatugabea, “Onuzki erotu. Agur” izenburuaz.

⁽⁸⁾ *Eusko Olerkiak*, II. Donostia: Euskaltzaleak, 1931.

- 39) “Asaba zaharren baratzea” (*Euzkadi*, 1931-12-6, 6).
- 40) “Izotz ondoko eguzki”.
- 41) “Gure mintzo”.

1.4. *Bibotz-begietan*-en argitalpenaren ondoren honako poema hauek agertu ziren aldizkarietan:

- 42) “Etxeko sagastia” (*Argia-ren Egutegia*, 1933, 43⁽⁹⁾; *Argia-ren Egutegia*, 1935, 21-22⁽¹⁰⁾; *Yakintza*, 14, 1935-03/04, 95).
- 43) “Argi egidazu” (*Yakintza*, 2, 1933-03/04, 90).
- 44) “Hegamin” (*El Día*, 1933-03-19, 6, J. Zubimendiren “Egamin” artikuluan; *Yakintza*, 3, 1933-05/06, 178).
- 45) “Etxeko kea” (*Yakintza*, 3, 1933-05/06, 179).
- 46) “Arrats gorri” (*El Día*, 1933-03-22, 1, Orixeren “Posthuma. El Día y la Noche” artikuluan; *Yakintza*, 6, 1933-11/12, 414-417, Orixeren “Lizardiren azken olerkiak” hitzaldian).

Bigarren liburu batean, hots, 1934ko *Umezurtz olerkiak* hilondokoan⁽¹¹⁾, aipatutako 31, 43, 44, 45 eta 46. olerkiez gain, “«Maitea»ren apurñoak” sortan jasotakoak argitaratu ziren:

- 47) “Ama Gau beltxaran”.
- 48) “Gazteren esnatzea”⁽¹²⁾.
- 49) “Liorko”.
- 50) “Amona”.
- 51) “Muno Txiki”.
- 52) “Gora-dei”.
- 53) “Onkiren bila”.
- 54) “Hondaurtz-abestia”.
- 55) “Maitale berriak”.

⁽⁹⁾ *Argia-ren Egutegia*. Donostia: Iñaki Deunaren Irarkola, 1933.

⁽¹⁰⁾ *Argia-ren Egutegia*. Donostia: Iñaki Deunaren Irarkola, 1935.

⁽¹¹⁾ AGIRREtar Joseba Mirena, “Lizarditar Xabier”, 1934, *Umezurtz olerkiak*. Donostia: Euskaltzaleak.

⁽¹²⁾ Olerki hau aurretik ere agertu zen: *Yakintza*, 1, 1933-01/02, 27.

Azkenik, *Bibotz-begietan*-en hirugarren edizioan (1970), berreskuratutako olerki bat argitaratu zen:

56) “Euskal Pizkundera”.

Berrogeita hamasei olerki hauetan, guztira, 3.474 bertso-lerro biltzen dira. Agian, berez, 3.478 beharko zuten izan, baina “Maiteder” olerkian, hamabosgarren ahapaldian, neurtitz bat falta da, eta, beharbada, beste hiru “Ama Gau beltxaran”en, bi hamabosgarren estrofan, eta bat, hamaseigarrenean.

2. Izenordeak

Jose Maria Agirre Egañak, *Lizardik* (Zarautz, 1896-04-18 / Tolosa, 1933-03-12), lau izenorde erabili zituen bere olerkiak izenpetzeko.

Hartu zuen lehenengoa “Samaiko-zulo” izan zen, eta honekin *Euzko-Deya*-n, 1917an, argitaratutako lehenengo hiru olerkiak izenpetu zituen. Eskuizkribuz gordetako “Nire lehenengo maite-ibilketa” olerkiaren bertzio bat ere honela ageri da sinatuta. Izenorde hori Lizardirena denik zalantzarik ez dago: batetik, lekukoek, Aitzolek adibidez, hala adierazi dutelako; bestetik, geroago *Bibotz-begietan*-en “Aldakeria” poema bihurtuko zen izenburu bereko ipuina, *Euzko-Deya*-n azaldua, “Samaiko-zulo” izenordeaz izenpetua dagoelako. Olerkariak aurrena ipuina prosaz idatzi eta, ondoren, 1925ean, neurtitzetan ipini eta bilduman jaso zuen.

“Samaiko-zulo”, berez, Zarauzko toponimo bat da. “Zamariko-zulo” hondartzaren mendebaldeko ertzean, Narros jauregiaren eta ondoko Santa Barbara mendixkaren artean kokaturiko itsas txoko edo kai txiki bat zen, zamak jasotzeko toki eta ontzietarako gune gisa erabilia. 1865ean, Getariarako errepideko lanek eta mendixkako luiziek estali egin zuten.

“Zarautz’ar Sabin” izenordeaz *Lizardik* *Euzko-Deya*-n argitaratutako gainerako olerki guztiak sinatu zituen. Bigarren izenorde honetan, poetak

jaioterriaren izena, eta aukera abertzale eta euskaltzaleari oinarria eman zionarekiko, Arana Goirirekiko alegia, oroitzapena eta aitortpena lotu zituen. Lizardik biziki maite zuen Zarautz eta Sabino Arana Goirirekiko zorra behin eta berriro aitortu zuen, “Gure mintzo” poeman eta beste zenbait artikulutan egiazta daitekeenez.

Oraingoan ere, lekukoak bat datoz izenorde hau Lizardiri atxikitzean. Erreferentzia puntu ziurtzat *Bibotz-begietan* harturik, testuek ere gauza bera erakusten dute: bilduman jasotako bi olerki, “Jaun errukiorra” eta “Ohea”, azalduak ziren lehenago *Euzko-Deya*-n, bata 1917an, bestea 1919an, eta han zeramaten izenpea “Zarautz’ar Sabin” zen.

“Txolarre” izenordeaz poetak 1925ean *Argia* aldizkarian argitaratutako lau olerki izenpetu zituen: “Amona”, “Gastearen otoia”, “Igesi” eta “Mendi-gallurra”. “Txolarre” Lizardiren izenordea dela begibistakoa da: olerki horietako lehenengo hirurak agertuak ziren jadanik *Euzko-Deya*-n, ikusi denez, poetarena den “Zarautz’ar Sabin” sinaduraz, eta “Mendi-gallurra” geroago *Bibotz-begietan*-en azaldu zen, “Mendigaina” izenburupean.

Laugarren izenordea, ezagunena, “Lizardi’tar Xabier” da: zenbaitetan “Lizardi’tar X.”, *Bibotz-begietan*-en adibidez, edo “Lizardi”, *Eusko Olerkiak, II*-n esaterako, bihurtzen da. Olerki baten sinadura gisa, lehenengo aldiz, 1926ko “Udazken” olerkian azaldu zen, eta urte honetatik aurrera poetak honela izenpetu zituen poema guztiak.

Antza denez, olerkariak “Lizardi” osagaia Elizak beneragarri deklaratu duen Julian Lizardi jesuita gipuzkoarraren izenetik hartu zuen. Asteasuko Urtzuriaga baserrian, Andazarrete inguruan, 1696-11-30ean jaioa, misiolari ibili zen Hego Amerikan, Bolivia lurraldeko indiar txiriguarrek 1735-05-17an geziz hil zuten arte. Bere gorpuzkiak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez herriratuak, 1902-05-25az gero Asteasuko parroko sakristian daude ehortzirik. Poetaren aitona eta aita, Aiakoak jatorriz, misiolariarekin senidetan harremanez loturik zeudenez, Julian Lizardi izan zitekeen izenordearen oinarria.

“Xabier” osagaiaren aukeraketari dagokionez, segur aski, zerikusi handia izango zuen poetaren seme hilaren, Xabiartxoren oroitzapenak. “Xabiartxoren heriotza” poema seme maite haren gomutan, *maiteñoaren oroiz*, sortua da. Nahiz eta “Udazken” olerkia izan izenorde horrekin argitaratutako lehenengoa eta “Xabiartxoren heriotza” bigarrena, azken honen hedadura luzeari erreparatuz, “Udazken” baino lehen hasia izan zitekeela dirudi, eta, beraz, sorrerari begira, “Lizardi’tar Xabier” izenordeaz izenpetutako lehenengoa izan. Bestalde, nabaria da poetak “Xabier” izenari, edo Frantzisko Xabier santuari, zion atxikimendua: lehenengo semeari, hilari, eta ondoren jaiotakoari “Xabier” izena ipini zitzaien.

Lau izenorde hauetatik azkena izan da besteei, baita idazlearen berezko izen-abizenei ere, nagusitu zaiena, guztiak estali eta poeta izendatzeko ohiko bihurtzeraino. “Xabier Lizardi”, gaztelaniaz idatzitako zenbait artikulua edo lan izenpetzeko erabilia, eta “Lizardi” forma laburtua dira gaur egun olerkaria aipatzeko molderik erabilienak eta ezagunenak.

Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco-ko sail berezia den *Eusko Bibliographia*-n, “A-Biblia” lehenengo liburukian, 1970eko edizioko 55. orrialdean, honako argibide hau dator: “Aguirre, José María de (“Xabier de Lizardi”, “Mendi Lauta”) (1896-1933)”; eta “Larrun-Navarniz” bosgarren liburukian, 1974ko edizioko 378. orrialdean, beste hau: ““Mendi-Lauta” (seudónimo de Aguirre, José María)”. Oker edo nahasketa bat da, Lizardik ez baitzuen inoiz, ez poemarik, ez eta beste inolako lanik izenpetzeko honelako izenorderik erabili. Izenorde hori, *Eusko Bibliographia*-k bosgarren liburuki berorretako 382. orrialdean modu zuzenez argitzen duenez, Domingo Arruti idazle zarauztarrari dagokio: “«Mendilauta» (seudónimo de Arruti, Domingo)”.

Bat baino gehiago dira “Mendi-Lauta” izenordea Lizardirena ez dela ziurtatzen duten datuak. Lizardik olerkietariko bat, “Idazkia” hain zuzen, “Mendi-Lauta”ri, adiskide eta herrikide zuen Domingo Arrutiri zuzendu eta eskaini zion (ikus aipatutako olerkia eta bertako 1. oinoharra). Poetak idatzitako eskutitzen hartzaile ugariren artean, bestalde,

“Mendi-Lauta” izenordedun bat ageri da eta hitz lauuko artikulua zenbaitetan ere harekiko aipamenak egiten dira⁽¹³⁾. Gainera, “Mendi-Lauta”k eta Lizardik *Euzko-Deya*-n argitaratutako idazlanak, neurtitzetan egindakoak bereziki, irakurriz gero erraz egiazta daitekeenez, beraien idaztankera, hizkera poetiko eta kalitatea arras desberdinak dira.

Nahasketa, beharbada, A. M. Labaienek *Bihotz-begietan* bildumaren 1970eko edizioan egindako “Azken-adierazpena”n erabili zuen iruditik dator: “Zarautz-ko “Samaiko-zulo”ko ilunpetatik hasi eta “Mendi-Lauta”ko hondartza eguzkitsuen argitasunera, Lizardik errones bide luzea egin zuen”. “Samaiko-zulo” Lizardiren egiazko izenorde delarik, uste izan da, agian, “Mendi-Lauta” ere hala dela. Baina, lehenengoa poetaren benetako izenordea izanik ere, Labaienek adierazpen horretan ez ditu bi izen horiek izenorde moduan erabiltzen, beraien konfigurazio geografiko-fisikoagatik Lizardiren garapen poetikoaren ibilbidea azaltzen eta sinbolizatzen duten Zarauzko bi toponimo, bi leku adierazkor gisa baizik.

3. Ezaugarri poetikoak

3.1. Lizardiren lan poetikoak 1917 inguruan hasi eta 1933an amaitzen den denbora tarteak besarkatzen du, hots, lehenengo olerkia argitaratu zuenetik haren heriotzarainokoa. Urte horietan zehar kaleratutako poemetan, jorraturiko gai eta motiboetan, hartutako jarrera eta erabilitako baliabideetan, hau da, mintzaira poetikoan, badira elementu iraunkorrak eta, aldi berean, elementu aldakorak, bilakaera jasaten dutenak. Amonaren irudia, kasurako, ibilbide osoan zehar ageri da, baina berorren tratamendua balio afektibo eta sinboliko berrien ekarpenaz aberastuz doa etengabe.

⁽¹³⁾ Ikus: Xabier LIZARDI, *Kazetari-lanak*. Aip. lib., 135, 171, 180, 255 eta abar.

Hala ere, guztiz bidezkoa da Lizardiren poesiagintzaren ardatz gisa *Bibotz-begietan* hartzea. Poema bilduma honetan, egilearen poesiarik aukeratuena, adierazgarriena, jasotzen da. Badira, noski, honetaz aparte ere, kalitate maila berdintzura iristen diren olerki osoak, hala nola “Etxeko kea”, “Arrats gorri” edo “Euskal Pizkundea”, edota han-hermenka aletutako segmentu poetiko landuak; baina poetaren sorketarik muinena, gorena, bilduma horretan dago. *Bibotz-begietan*-eko olerkiak dira poetaren azken zigilua, azken onarpena, daramatenak; horiek dira, hain zuzen, poetak, heldutasunaren talaiatik, lanaren erakusgarri hoberen gisa, liburu batean bilduak izateko gaitzat jo zituenak. Poema horiek dira egilearen lekukorik leialenak, bere lan eta hautapen poetikorik helduen eta kontzienteena.

Poetaren paperen artean aurkitu eta haren berrikuspenik gabe hilondoko moduan argitaratutako edo soilik aldizkarietan agertutako gainerako olerkiei, *Bibotz-begietan*-eko poemek duten azken bermea, egilearen erabateko oniritzi hori falta zaie.

Dena dela, bereizketa hau ahaztu gabe, Lizardiren poemagintza osoa hartu behar da kontuan; garrantzia maila desberdinez hornituak egon arren, kalitate poetikoaren aldetik gorabeherak sumatzen badira ere, olerki guztiak dira Lizardiren emaitza, baita *Bibotz-begietan* baino lehen argitaratu eta bilduman jaso ez zituenak eta liburua baino geroago agertutakoak ere.

1917-1920. urteetako aldiari dagozkion olerkiak, oro har, ez dira *Bibotz-begietan*-eko poema gehienen kalitate eta lirismo mailara iristen: mintzaira poetiko zuzenegia, iradokizun eta arrisku eskasak, balio sinboliko murrizta nabari zaie. Adierazpen belaxka, bigunegi eta gogoeta topiko, arrunt, ugari dago. Egilearen jardunaren hastapenetan kokatutako olerkiak dira; dagoeneko, geroago bere poesia ezaugarrituko duten tasun bereziak sumatzen diren arren, poetak oraindik ez ditu ikuspen eta nortasun poetiko bereziak taxutu.

Apalagoak badira ere, ezinbestekoa gertatzen da olerkiok argitaratzea. Aurren-aurrena, Lizardiren olerkigintza osoari zor zaion leialtasunagatik.

Egilearen lan poetiko guztia, ez aukeratuena soilik, jaso nahi delarik, ez litzateke zintzoa, zuzena, izango poema dotoreenak bildu eta eskasnak baztertzea, ezkutatzea. Olerki guztiak dira poetaren historiaren atalak, eta edonoren historian ikus daitezke alde argitsu eta ilunak, emaitza duin eta kaskarrak. Horretaz gain, olerki horien irakurketak balio dezake bai adierazle bai adierazi mailan poetak burutu zuen aurrerapen nabarmena egiaztatu eta neurtzeko. Aurrerapen hori *Bibotz-begietan*-en bertan ere sumatu arren —nahikoa baita lehenengo orrialdeetako poemak eta 1929-1931 artean idatzitakoak alderatzea—, ageriago ikusten da bildumaren irakurketa 1917-1920. urteetako olerkienaren ondoren egiten bada. Hasierako olerki hauek behin betiko, erabateko emaitza moduan, Lizardiren historiatik kanpo irakurtzen badira, oro har, ahulak, eskasak irudi dakizkioke irakurleari; baina, poesiaren arloan haztamuka, lekua bilatzen ari den poetaren ikaste, trebatze gisa irakurriz gero, haren garapenean betetzen duten egiazko funtzioaz jabe daiteke.

Bibotz-begietan argitaratu ondoren kaleratutako olerkiei dagokielarik, berriz, bi sail bereizi behar dira: “«Maitea»ren apurñoak” sorta osatzen duten bederatzi olerkiak eta gainerako seiak. Lehenengo bederatzi horiek, gehienak, kontakizun tankerakoak dira, eta, dirudienez, multzoaren hasieran ezarritako poema-hariak aditzera ematen duenez, Lizardik taxutzeko asmoa zuen “Maitea” poema narratibo luzearen osagaiak besterik ez dira. Beste molde bateko forma poetikoa dute: trinkotasunez apalagoa, unibertsaltasunez motzagoa, eta sinbolikotasunez eta benetakotasunez urriagoa. Bestelako irakurketa jarrera bat eskatzen dute, erlaxatuagoa. Gainerako seietatik, batzuk *Bibotz-begietan*-ekoen parekoak dira.

Ezagutzen diren olerki guztien argitalpenak, Lizardiren urratsak eta iraunkortasun guneak hobeto ikustea ahalbidetzeaz gain, testu horietan barna dauden testuartekotasun eremuak atzemateko ere aukera ematen du.

3.2. Gaztelaniaz idatzitako “El poeta” artikuluan (*El Día*, 1930-06-05, 2)⁽¹⁴⁾, Lizardik era honetan definitzen du poeta: “El poeta, vagamente hablando, es un hombre dotado de una visión especial, que, mirando a través de un prisma sublimador los elementos del panorama de la vida, nos los presenta de forma sorprendente”. Poeta, beraz, ikusmen berezi batez jantzi edo hornituriko gizakia da, bizitzaren panoramako edo ikuspegiko elementuak prisma sublimatzaile baten bidez begiraturaz, modu harrigarritz aurkezten dizkiguna. Lizardik, definizio honetan, laburki, prozesu poetikoa zertan datzan biltzen du; modu trinkoz sorketa poetiko propioaren urratsak adierazten ditu.

3.2.1. Lizardik, sorketa poetikoari buruz duen ikuspuntuaren arabera, poesiaren edukirako lehengaitzat hurbileko errealitate ezaguna hartzen du, hau da, inguruan aurkitu eta barnean esperimendatzen dituen “bizitzaren panoramako elementuak”. “Parisko txolarrea” eta “Eusko bidaztiarena” olerkietan txertaturiko xehetasun kosmopolita gutxi batzuk salbu, bere poemetako mamirik oinarritzkoena, primarioena, zentzumenen bidez jaso, ondotik arretaz behatu eta kontenplatu, eta barru-muinean hausnartutako errealitatea da: ingurune geografikoa (Urkizu, Oresa, Zarautz, Aralar, Txindoki...); tokiak eta paisaiak (baratzea, basoa, gurdibidea, mendiaren gailurra, eusko lurreko urtaroak...); animaliak (kilkerra, urretxindorra, txitxarra, erlea...); zuhaitzak eta landareak (haritza, pagoa, sagarrondo, otalorea...); etxea (sukaldea, laratza, balkoia, sehaska...); pertsonak (Xabiartxo seme hila, seme-alaba biziak, emaztea, amona, Onuzki adiskidea...); sentimenduak (heriotzarekiko samina, edertasunak eragindako poz-dardara, adiskidetasunaren gozamina...); bizipen politiko-kulturalak (euskararen biziraupena, abertzaletasuna...); eta abar.

Neurtitzetan jasotako errealitatearen eta testuz kanpoko errealitate objektiboaren artean, berbaldi poetikoan agertu eta jokatzeko duen

⁽¹⁴⁾ Xabier LIZARDI, *Kazetari-lanak*. Aip. lib., 304.

“ni”aren eta Lizardi autore enpiriko, errearen artean, ez dago erabateko berdintasunik, bi mundu eta entitate baitira; baina bai, ordea, elkarren arteko korrespondentzia maila nabarmena.

Lizardik errealitate hori bihotzaren eta begien bidez, *bihotz-begietan* zehazkiago, atzematen du. Honela dio poema bildumaren atariko olerkitxoan:

*BIHOTZ-BEGIETAN zatzaidate sortu:
bihotzeanago batzuek; besteak
betsein-betseinotan. . . Bihotz gabe eta itsu,
nork, izan ere, bil olerti-loreak? . . .*

Lizardiri poesia bihotzean eta begietan jaiotzen zaio. Olerki batzuk, izadiari dagozkionak batez ere, “Neskatxa urdin-jantzia” edo “Urtegiroak ene begian” multzokoak, esaterako, begietan izan dute bereziki sorgunea; beste batzuk, berriz, egoera afektibo edo gertaera mingarriekin zerikusia dutenak batik bat, bihotzean, hala nola “Agur!”, “Xabiartxoren heriotza”, edo “Bihotzean min dut”. Dena den, maila desberdinetan bada ere, begien eta bihotzaren eragina, ekintza, poema guztietan sumatzen da.

3.2.2. Lizardik *Bihotz-begietan*-eko poemetan jasotzen duen errealitatea, lehenengo une batean, hasierako planteamenduan, bihotz-begietan hartutako aurreneko inpresioan, iluna, ezkorra, mingarria da. Olerki gehienetan, gabezia-, absentzia-, oinaze-egoera batetik abiatzen da. Errealitatea heriotzak eta denboraren ekintza hondatzaileak markatua, joa dago. Horrela, zenbait poema maite den pertsona baten heriotzarekin irekitzen dira: *Amonatxo bat nun: gaur, enarak / etorri-garaiez, alde egina* (“Bihotzean min dut”); edo adiskidearen adimenaren heriotzarekin, *alde egina baiz urrun, lagun bibozbera, / adi-mugaz barantz-erbeste itzalera* (“Agur!”); edo hasten da, halaber, Jainkoari egindako hobenak sortutako galera espiritualarekin, *lobidi biguingarrian / narras dut gogoa* (“Jaun errukiorra”).

Izadia, orobat, olerki batzuetan, hasierako aurkezpenean, egoera beltz eta hitsean murgildua, heriotzak zigortua azaltzen da: *Zubaitz bat, urtezua,*

lurrera botea... (“Zuhaitz etzana”); fruiturik gabeko makalaldian, *Bideertzean, ez marrubi / ez belar gizenik* (“Bizia lo”); edo gainbeherak astindua, *Andre Lurra jaulki ditu igaliak; / zurbil dauka aurpegia, itzal begiak* (“Hondar gorri”).

Aberria, tradizioa eta hizkuntza ere, ahuldu, erori, galdu eta desagertzeko zorian aurkitzen dira: *Zabal-narrea nuen baratza, / gaur hain estu, gaur haingabe!* (“Asaba zaharren baratzea”); *Izotzak estali zun / gure Euskal Herria* (“Izotz ondoko eguzki”); *Bazterrean ikus nirea, / ene eta asaben ohar-ezak botea...* (“Gure mintzo”).

Beste poema batzuk, nahiz eta giro argitsu, baikor, gozatsuz hasi, modu ilun eta garratzez amaitzen dira: txori maitatua leiho-harrarian jausten da hilik (“Aldakeria”); Udaberri, gazte eta distiratsua, desagertu egiten da poeta kezkatu utziz (“Neskatxa urdin-jantzia”); olerkariak bere lurra eta bertako soro, sagarrondo eta mendiak uztera behartu aurkitzen du bere burua (“Bultzi-leihotik”); zeruaren goialde ezkutua ikustea amesten duen haurra amaren malkoen artean hiltzen da (“Zeruzpia”); Parisko txolarreari buruzko poema burutapen ezkorrez ixten da (“Parisko txolarrea”); eta abar.

“Sagar-lore” eta “Baso itzal” bezalako poemak ere, urtaroen bizia eta fruitu oparoa abesten dutenak, urte-sasoien ziklo osoaren argitan interpretatu behar dira, beraien garapenean gertatzen den igotzean eta jaistean, gora eta beheran. “Eusko bidaztiarena” poemak ere poetaren kezka sakon bati erantzuten dio: euskara baserri giroko esparruan murriztuta, herdoilduta, geldituko delako beldurra. “Ohea” olerki jostagarri eta epikurotarra litzateke poema bilduman erabat baikorra den bakarra.

Oro har, *Bihotz-begietan*-en bereziki, gizakiak, izadiak, herriak eta tradizioak ilunpeetako errealitate erradikalaren eraso jasaten dute etengabe. “Ni” poetikoa bera ere, horren mende dago, *zalantza dut zabartu naizelakoa...* (“Hondar gorri”). Gabezia, eskasia, babesgabetasun-, mendekotasun- eta murriztasun-joerak nabari dira.

Egoera ezkor, mingarri, arriskutsu honen presentzia poema bilduman ukaezina da. Lizardiren poesia biguna da, baina baita latza ere; ez dira existentziaren arazo larrienak ezkututzen, eta, askotan, gauekotasunean ezartzen da sorketa poetikoaren abiapuntua. Poemak mehatxu beltz eta erasotzaileari emandako erantzun poetikoak dira.

3.2.3. *Bibotz-begietan*-en azpimarratzen den ezaugarri giltzarri hau ageri da hasierako olerkietan ere. Horietan, maizenik erabilitako gaia maitasunarena, amodioarena da: hoge olerkietatik zortzi amodiozko sentimenduaren ingurukoak dira. Inoiz modu jostagarri, axaleko, tolesgabez tratatua bada ere –“Nire lehenengo maite-ibilketa” adibidez–, gehienetan mineria, nahigabea eta bihozmina dira nagusi. “Ni” poetikoak ikusten du bere amodioak ez duela itxaron duen erantzuna lortzen, ezin duela igarotako maitasuna berreskuratu. Amodio harreman mingotsak dira, eta zalantzak, galdutako maitasunaren oroipenak, saminezko malkoak sorrarazten dizkiote, *Samin-eztia* zaren oroia (“Maiteizaneri”). Denboraren joanak eragin kaltegarria izaten du amodioan: zauritu, desagerrarazi eta hiltzeraino ere irits daiteke, *Hil zinen, gaixoa!* (“Maitasunaren hileta”). Amodiozko gaia, *Bibotz-begietan*-en “Aldakeria” olerkian soilik jasoko da.

Bestalde, hasierako olerki hauetan jadanik, geroago poema bilduman tratamendu eta garapen aberatsagoa, zainduagoa, lortuko duten gaiak azaltzen dira. Aberriaren gaia “Eusko mendia”n ageri da, jarrera dramatikoaren ikuspuntutik eta herriaren hondamendia nahi duen etsaiaren aurkako defentsarako deia eginez; “Otoitza” olerkian, poetak aberriaren azken eta betiko salbazioaren alde erregutzen dio Jainkoari. Batzuetan Arrese Beitia, besteetan Arana Goiri gogorarazten duten tonuak sumatzen dira. “Eusko mendia” eta “Maiteder” –zorigaiztoko amodioz ukituriko elezahar ederra– olerkietan, euskara, topikoki, hizkuntza garbi, bigun gisa dago ikusia; “Euskara”n euskal mintzairaren jatorri misterioitsua aipatzen da eta behialako denboretan, gizadiaren lehen aldietan, kokatzen. Hala aberriaren tratamendua nola euskararena, goiaren –garaipen, jatortasun eta kutsagabetasunaren eremua– eta

behearen –giro arrotz eta lohikeriaren tokia– arteko kontrakotasun dikotomikoaren esparruan ezartzen da.

Gai honekin loturik, “Amona” olerkia aipatu behar da; hor, amonaren irudia, *Antzin-Orain-arteko zubia*, agertzen baita lehenengo aldiz. Irudi honek, aurrerago, “Asaba zaharren baratzea” eta “Euskal Pizkundera” poematan batez ere, garapen aukeratuagoa hartuko du, tradizioaren eta herri-kontakizunen gordailu gisa azalduz.

Hastapenetako olerki hauetan, gai eta tonu hauez gain, bada bestelakorik. Batetik, ironia, erabilia bereziki Lizardik “Mendi-Lauta” adiskideari zuzendutako “Idazkia” konposizio zirikatzailean. Bestetik, gogoetazko eduki sententziaduna, filosofia tankerakoa, bost olerkitan gauzatua: “Zelai urdina”, “Gaiztoen itzala”, “Gaztearen otoitza”, “Udazken” eta “Har huts”. Hauetan, giza existentzia ikuspuntu ezkor eta benazkotik dago ikusia, errealitate igarokor, suntsikor, fidagaitz eta ezdeusa balitz bezala, *aurkitu dut gogoa / goizegi zahartuta...* (“Gaztearen otoitza”). Jarrera hau, *Bihotz-begietan*-en, “Mendi-gaina” poeman eta beste segmentu poetiko labur eta isolaturen batean besterik ez da agertuko.

Beraz, denbora eta heriotza presente daude hasieratik jadanik Lizardiren poesiagintzan, eta amodioa, hizkuntza, tradizioa eta giza bizia inarrosi eta hondatzen dute.

3.2.4. *Bihotz-begietan*-en ondoren argitaratutako poemei begira, berriz, “«Maitea»ren apurñoak” egitismo poetikoan, tonua, abiapuntua, erabat aldatzen da. Oraingoan, familian, adiskide giroan, jaioterrian lortutako atsedena, gozamina, asetasuna da gai nagusia. Poetak gaztaroan Zarautzen igaro ohi zituen oporraldietako kronika narratiboaren zirriborroa izan nahi duen honetan, desagertu egin dira alde ilunak, eta poesiari poza eta atsegina dario lerro guztietatik. Denboran atzera egitea da, gazte garaiko axolagabetasun eta alaitasunezko urteetara itzultzea, zorion osoko une haiek berreskuratzeko asmoz.

Etxeko ingurugiro samur hau, beste zenbait poematan ere atzematen da: “Etxeko sagastia”n, non poetak familian gozatu eta atsedena hartzen duen; “Etxeko kea”n eta “Arrats gorri”n, zeinetan berriro amodioaren

gaiari heltzen zaion, orain sentimendu artifizialetatik urrun, maitasunezko betetasuna, heldua, bizituz.

Haatik, heriotzaren zorigaiztoko presentzia nabarmena da azken poema hauetan ere. Presentzia hori bortizki nabari da maitearen sentsazio dardartian, *Beldur naiz, eneño, arrats gorriotan / herio-hoxkirria dabiltzun zainetan* (“Arrats gorri”), eta berorren bat-bateko heriotzan (“Etxeko kea”). Agian, poetak hurbil sumatzen zuen heriotza, *nik lehenen / dezaket alde egin!* (“Etxeko sagastia”). “Euskal Pizkundera”n, heriotzak, amona berarekin eramatean, herriaren tradizioa deuseztatzeko mehatxu egiten du.

3.3. Osotasunean hartuta, Lizardiren poesia, eta *Bihotz-begietan*-ekoa bereziki, funtsean inguruko errealitateari lotuta egon arren, ez da errealitate horren kopia hutsa, paisaiaren argazki soila, bertsoz egindako autobiografia edo bizipen pertsonalen isla mimetikoa.

Errealitatearen sumaketari edo hautemateari, hots, prozesu sortzailearen lehenengo urratsari, eraldaketa darraio. Lizardik transformatu egiten du poetikoki hurbileko eta barruko mundua. Bigarren urrats batean, poetak “bizitzaren panoramako elementu” horiek “harrigarritzko moduan” antzaldatuz aurkezten ditu.

Lizardik eraldatu egiten du errealitatea, bertan, ilunekin nahasturik, gauezkoekin gurutzaturik, txertatuta dauden alde argitsuak, egunezkoak, aurkituz; desirak eraginda, transformazioari ekiten dio sortuz, gainera, mundu irudizko-sinbolikoa, iradokorra eta askotarikoa, konplexua.

3.3.1. Lizardik poemetan azaltzen dituen jarreraren artean desirazkoa da egiazkoena eta eraginkorra. *Bihotz-begietan*-eko poemarik gehienak zuzen edo zeharka adierazitako funtsezko nahi batez amaitzen dira. Poema bilduman jaso gabeko olerkien artean, bukaera egiaztatzaile soila edo narratibo hutsa maiz erabiltzen da: *ta artzainek diote / oraindik dutela / maiterik Maiteder, elkar gorrotatu gabe* (“Maiteder”); *Ta, inoiz, hiltzat / jo nun suak, / ustekabe, / berriz nindun erre!..* (“Izarkitako sua”); *Zerraldoa dagon etxetik, / hura bezain beltza... kea!* (“Etxeko kea”); *hura baita ebule / zahar-zaharrenik ban* (“Onkiren bila”); eta abar. Hala ere, ez dira gutxi desiozko adierazpen batez burutzen direnak: *abal babinduket nik berpiztu!*

(“Maitasunaren hileta”); *Ta, arren, argitu / nire etorkizuna!*... (“Gaztearen otoitza”); *Ai, baneki nik begatzen!*... (“Ihesi...”); *Argi egidazu / bizi nadin arte!* (“Argi egidazu”); *egun begi-urdirin betoz ugariak / gure elkarmin honen gainezkagarriak!*... (“Arrats gorri”).

Desirazko jarrera hau hainbat bidez agertzen da. Lizardik *Bibotz-begietan*-en adierazten dituen nahi konkretu biziak, bortitzenak, honako hauek dira: goieraren eta argiaren desira, *Maite ditut gailurrak / argiak ez beste...* (“Mendi-gaina”); bere lurrarekin identifikatzeko desira, *Oi, ene lur, / baninduzu zeurea* (“Bultzi-leihotik”), eta izadiarekin bat egitekoa, *Hiru giro izanok, nik dei ta atozte, / nork zeuen saria ekardazute* (“Hondar gorri”); eta, batez ere, edertasunaren, *Begi eder-goseok, / ase zakidate!* (“Neskatxa urdin-jantzia”), eta biziaren desira, *ederra baita bizia!* (“Hondar gorri”).

Lizardirengan edertasunaren desira gartsua nabari da: horren eraginez, errealitatea, izadia bereziki, behatzean, antzaldatu egiten du, eta antzaldaturik kontenplatzean, “Neskatxa urdin-jantzia” poeman ikus daitekeenez, oraindik irrika handiagoz desiratzen du. Poetak ederragotu egiten du ederra dena, eta okerra, zatarra, bikaintzen, edertzen saiatzen da.

Baina poetarengan nagusi den desira, oparoena, beste guztien sustraia dena, biziarena da: bizia bete-betean. Pertsonaren bizia nahi du, bere buruarentzat eta maite dituenentzat, *Nik ez nabi eguna / biburtzerik gau!* (“Hondar gorri”); bizia izadiarentzat, *batak itxaro, besteak berpizte, / birugarrenak bizitza-indar bete* (“Hondar gorri”); orobat aberriarentzat, *baratz zabarra baratz berri!* (“Asaba zaharren baratzea”), eta hizkuntzarentzat, *soina zahar, berri gogoa* (“Eusko bidaztiarena”).

Poemetan errealitateaz jasotzen den lehenengo inpresioa iluna, mingarria, denboraren herdoilaz eta heriotzaren segaz eraso bada ere, azkenean, poema gehienetan, hasierako zartada hori gainditua, sublimatua gertatzen da biziaren desiraz. Bukaeran bizia ateratzen da garaile. Askoz gutxiago dira heriotzaren, desengainuaren edo halabehar ezkorren nagusitasunaz ixten edo erabakitzen diren olerkiak. Horrelako gehienak lehenengo urteetakoak dira: amodio penatuari

buruzkoak eta gogoeta tankerakoak, “Gaiztoen itzala” edo “Har huts” kasurako, eta “Maiteder” elezaharraren amaiera dramatikoa. *Bihotz-begietan* baino geroago argitaratutakoen artean, “Etxeko kea” poemaren azken une beltza, hasierako samurtasun eta gozamenari kontrajartzen zaiona, aipatu beharko litzateke.

1) Zorigaiztoko errealitatearen aurrean, Lizardik proposatzen dituen irtenbideak askotarikoak dira. Poetak bere buruarengan nabaritzen duen gainbehera geldiezinari, eta baita gizakiaren eta, batez ere, maite dituenen heriotzari ere, goialde bikainen bila eragindako mugimendu dinamikoak adierazten dituen irudi sinboliko eraldatzaileez erantzuten die; subjektu poetikoak goiko lekuetara igo nahi du, gordeleku bereziak, heriotzatik eta denbora-joate hondatzailetik babestuko duten geriza atsegin eta berogarriak atondu: *goiko abaro atseginan / nengoenaren aldean* (“Zelai urdina”); *zeure ezti nahi dut / ezti goitar-gozoa* (“Gaztearen otoitza”); *Ai, begaztia banintz, / gainik gain nenbilke!* (“Mendi-gaina”); *Gorantz egik, bihotza* (“Bihotzean min dut”); *ontzi geriza huntan nahi haut igaro...* (“Baso itzal”); *Nire sagasti bontan / egurastu nadin* (“Etxeko sagastia”); *Han dun bero, ta han dun bizi...* (“Etxeko kea”); eta abar. “«Maitea»ren apurñoak” sorta osoa, adibidez, oroitzapenari esker, *Oroitzapen maiteenen / ontzia* (“Gora-dei”), ingurune atseginen, abegitsuan murgiltzen da. Igoera, hegada mugimenduak dira, maiz, bizinahia eta heriotzaren eta denboraren gainditzea sinbolizatzen dutenak: toki gozo eta babestuetara iristeko mugimenduak, zoritxarra eta neke existentziala menderatzen eta ahazten laguntzen dutenak.

Lizardik heriotzarekiko eta denborarekiko hartzen duen jarrera ez da konfrontazio bortitz edo oldartze antitetikoarena, baina ezta etsipen edo onartze hutsarena ere. Poetak bere eta bere ahaideen heriotza eta gainbehera sinesmen erlijiosoan oinarritutako eskaera fidakorrean eta gora egiteko desira indartsuan gainditu nahi ditu. Heriotzaren aurrean poetak ez du bere burua axolagabekeria edo etsipenean itotzen uzten, ezta larritasunean edo beldurrean ere; ez du, ezta ere, hemengo bitzta erabat arbuiatzen. “Hondar gorri” poeman ageri den errebeldia unea

salbu, *Nik ez nahi eguna / bihurtzerik gau!*—ez errebeldia mingotsa, baizik eta gainbehera pertsonala onartu nahi ez duenaren barne protesta—, poeta, heriotza topatzean, onartze mintsua eta itxaropen adoretzua uztartzen saiatzen da. “Bihotzean min dut” poema da jarrera honen adierazgarriarik garbiena.

2) Izadia ere ez dago heriotzatik eta higaduratik edo hondamenetik libre: *Biluzik zen basoa / negu hondarrean* (“Neskatxa urdin-jantzia”); *zurbil dauka aurpegia, itzal begiak* (“Hondar gorri”).

Baina, izadiak berak hondamenari ematen dion irtenbideari esker, poetari, gizakiari azken finean, gainbehera eta heriotza garaitzeko bide berri bat eskaintzen zaio. Izadiak bere erorialdiari zikloaren, jokabide ziklikoaren, etengabeko itzuleraren bidez egiten dio aurre. Izadiak urteroko berpizte ziklikoaz erantzuten dio heriotzari eta denborari.

“Urte-giroak ene begian” poema multzoan moldaturiko lau urtaroen bizi prozesua da jarrera horren adierazpenik beteena, osoena. Urtaro bakoitzak, iluntasunari, heriotza arriskuari, modu desberdinez erantzuten dio. Neguak leku ezkutu eta babestuetara biltzeko joera hartzen du: *O, zein baizen eder loa: / (...) / bizitzazko ur loa!...* (“Bizia lo”). Udaberriak egunezko igoera bizkor eta argitsuaren bidez egiten dio aurre: *Sor zait barruan larrera-mina, / ta, aspaldi ez ta, mendialdi* (“Sagar-lore”). Udak bateratze grinatsuaren, fruitu heldu eta elkarganatze gozatsuen bidez: *geldiak gizendu, egonak goza, / (...) / ta, ai, zein gozo gauden, ahopekotan!...* (“Baso itzal”). Udazkenak —gauezkoa, iluna, berez— gainerakoak josten dituen azken erantzuna ematen du “Hondar gorri” poemaren bukaeran: *eraberritze ziklikoa, Ikus bezat, Jauna, behin ta berriro, / otalore ezin egona... / Bekusat sagasti gazte elur-giro / (...) / Entzun bezat inoizko olerkaria (...).*

Izadia, beraz, erantzun berezi, originalaren bidez —urtero eraberritzen baita, heriotza orokorra garaituz—, paradigma edo eredu bihurtzen da gizakiarentzat. Honek, izadian, berari falta zaiona aurkitzen du: gainbehera garaitzeko eta biziaren ibilbidea berriz hasteko, bizi-zikloari berrekiteko ahalmena. Bere burua izadiarekin identifikatzean, izadian

murgiltzean, “ni” poetikoak izadiaren denborazko prozesuan txertatu nahi du bere burua, eta harekin batera birsortu, birjaio, etengabe, sekulako. Denboraren babesean jokatu, izadia bezala, udaberrian berriro jaio eta gazte izan, udan heldutasunera iritsi, eta udazken eta neguan lo egon ondoren, ez hilda, berpiztu bizitzara.

Jarrera lizardiarra, beraz, idealista da, baina indartsuki bitalista. Biziaren erabateko betetzea, sinesmenak esaten dionez, jainkozko betean izango da, *Ta udazken hatsarreko goiz batean / esnatu nadin Jainkozko Betean!* (“Hondar gorri”). Poetak espero duen berpizkunde baten desirari eta itxaropenari eusteko gai den jarrera adorea erakusten du.

3) Azkenik, aberriak, tradizioak eta hizkuntzak jasaten duten ahultze-, moteltze- eta desagertze-arriskuari Lizardik argiztatze-, zabaltze-, igotze-, askatze- eta berpizte-joerekin erantzuten dio. Horrela egiten du, esaterako, hastapenetako “Eusko mendia”, “Otoitza” eta “Amona” olerkietan, baina, batez ere, *Bibotz-begietan*-eko “Asaba zaharren baratzea”n, “Izotz ondoko eguzki”n eta azkenik argitaratutako poeman, “Euskal Pizkundera”n, tradizioaren gordailua sinbolizatzen duen amonaren eta izotz latzaren ondoren distirutzen duen eguzki askatzailearen irudiak landuz. Aberriarentzat eta tradizioarentzat badago berpizte itxaropenik; ez da guztia bukatu.

Azken arlo honetan, erantzunik originalena “Eusko bidaztiarena”n ematen da, 1919ko “Euskara” olerkian jadanik erabilitako zenbait elementu garatzen dituen poeman. Hizkuntza, euskara, makalduta, ezinduta, eta gero eta esparru estuagoan murriztuta gelditzeko arriskuan dago. Poema, ezkontza-bidaiaren irudi sinboliko konplexuan oinarritua, joera progresiboaren, aurrerakoiaren arabera taxututako erantzuna da. Neurtitzotan, aurreratze-, hedatze- eta unibertsaltasun-jarrerak sumatzen dira. Euskarak leku *—nabi haunat ere noranabikoa—*, garai *—azal horizta, muin betirakoa—* eta gai guztietarako *—Apaindu zernahitarako—* prestatu, gaitu behar du bere burua.

Poema honetan, beste poemetan ikusten ez den bezalako mugahausketak eta aurrera-egite zuhur baina ausartak topatzen dira: *Dagigun arraun Izotz herrira / (...) / goazeman zerura igoz, / izar urdinetarainoko asmoz!* Euskara kanpora ateratzen da, mugarik gabe aurrera egiten du, mundu eta errealitate berriak aurkitu, jaso eta abesteko.

3.3.2. Prozesu eraldatzaile, konnotazio sortzaile indartsu honetan, irudiek, hots, metaforek, konparazioek eta batik bat pertsonifikazioek oinarritzko zeregina betetzen dute. Ez dira apaindura hutsak, eta poemei munta handiko esanahia eransten diete. Poemak balio sinbolikoz hornitzeko, errealitatea edertu eta sublimatzeko bitarteko bitxiak dira.

Pertsonifikazioa da, kopuruz eta tratamenduz, Lizardiren poemetan imajinarik bereizgarriena. Bizidunei eta/edo gizakiei dagozkien nolakotasun eta ahalmenak eranstea, baliabide honek aberastu, biziarazi, gaitu egiten ditu izaki poetikoak komunikazio-harreman afektiboetarako. Pertsonifikazioak jantzen ditu izaki bizigabeak (itzala, gaua, Txindoki, negua, eguna, eguzkia, euskara, kea, haizea...) edo bizidun ez-gizatiarrak (otalorea, kilkerra, urretxindorra, armiarma, zuhaitza, hegatzia, huntza, pogo, txoria...), izatez, bereak ez diren ezaugarriak eta bizimoldez. Izakiek tasun edo izaera berriak hartzen dituzte: kea mutil alaia da; udaberria, neskatxa; kilkerra, olerkari arlotea; zuhaitza, arbaso bakezalea; mendia, adiskide urruna; txitxarra, alfer ederra; euskara, ezkontide zuria; armiarma, ehulerik zaharrena; eta abar. Jarduera berriak bereganatzen dituzte, hala nola: errekatxoak negar dagi, egunak aharrasi egiten du eta zalantza da, eguzkiak besoa sartzen du leihotik, zuhaitzak idatzi egiten du, izarrek barre egiten dute, haritzak egarri daude, itzala neska koskortzen ari da, pogo jantzi egiten da, goiza jai, haizea haserretu eta abar. Antzaldaketa honek guztiak edertasuna, bizia eta elkarren arteko komunikazio giroa sortzen du.

Pertsonifikazioaz gain, metafora ere, askotariko egituraz antolatua, garrantzizko baliabidea da Lizardiren poemetan. Molderik erabiliena metafora purua edo *in absentia* deiturikoa da, hots, elementu erreala ezkutatu eta irrealia soilik azaltzen duena: *lore bigun bat aurki buen* (“Ahaztu,

bihotz horrek!...”); *negar-haran beltz boni / kendu nazakiok!* (“Mendi-gaina”); *bona lau sagarño* (“Etxeko sagastia”), adibidez. Iradokitzaileena da, hala ere, elementu erreala eta irreala aposizio egituran lotzen dituen: *Neguz ontzi lirain, laino gainean, / Txindoki!* (“Baso itzal”); *Uda!, gar zoragarri, suzko itsaso* (“Baso itzal”); *zilarrezko / negarra* (“Maiteder”); *aldiaren sitsa* (“Asaba zaharren baratzea”); edo *Oroitzapen maiteenen / ontzia* (“Goradei”), esaterako.

Konparazioa ere nahiko maiz txertatutako baliabide eraldatzailea da, bai *tertium comparationis* delako osagaia ezkutatuz, *Nekazari, / gizandi bat iduri* (“Bultzi-leihotik”), bai agerian azalduz, *Leiboak lauso dira, / eguraldiaren / antzo* (“Parisko txolarrea”), *hura bezain beltza... kea!* (“Etxeko kea”). Lizardik, konparazioaren bidez, edertasun eta iradokizun une bikainak lortzen ditu, burutik egina dagoen Onuzki adiskideari zuzendutako irudi samur honetan bezala: *Ai, nik abal banezaik, nik abal (eztiago / loak bar basoan ilargia baino) / ene oibu hau sar bihotz hileraino!* (“Agur!”).

Errealitatea antzaldatu eta sublimatzeko diren irudien joko hau, *Bihotz-begietan*-en iristen da maiztasun eta bizitasun gorenera. Hasierako olerkietan erabilpena urriagoa da, baina, hala ere, txertatzen dira, jadanik, geroago poema bilduman, askotariko testuinguruetan, berriro agertuko diren irudiak. Honela, itsasoaren irudia, *Mugageko zelai bare gelgarri urdin berdina!* (“Zelai urdina”), “Eusko bidaztiarena” poeman jasoko da; tximirrika, “Har huts” en iragankortasunaren sinbolotzat ikusia, esanahi honekin azalduko da ostera “Xabiertxoren heriotza”n eta “Otartxo hutsa”n; “Ihesi...” olerkiaren bukaeran datorren hegadaren irudia “Mendi-gaina”n –data bertsuan idatzia– erabiliko da; errauspetan itzalitza jotako eta berriro piztutako suaren irudia (“Izarkitako sua”) dimentsio berri batez jantziko da “Asaba zaharren baratzea”n eta, batik bat, poema bildumatik kanpo, “Euskal Pizkundera”n; eta abar.

Bihotz-begietan-en jasotako zenbait irudi edo irudizko elementu, halaber, geroagoko poemetan luzatzen dira. Amonaren irudia, esaterako, hasieran jadanik erabilia, bilduman irauteaz gain, ondoko poema batzuetan ere ageri da, “Amona”n eta “Euskal Pizkundera”n;

sagarrondoarena (“Sagar-lore”) eta bizitzaren katearena (“Bihotzean min dut”), “Etxeko sagastia”n azaltzen dira; “Maitale berriak”eko haur loarena, “Xabiartxoren heriotza”n erabili da aurretik; eta abar.

Beraz, Lizardiren emaitza poetikoan zehar iraun eta joan-etorritz dabilen irudien korrante bizia atzematen da. Sortutako imajina eta eraldatze gehienak ulerpen errazekoak dira. Badira, bai, segmentuak, ñabardura kromatikoak eta imajina zenbait, hunkipen eta oihartzun zehaztugabeak, lainotsuak, sorrarazten dituztenak, sinbolismo irekia dutenak; baina, oro har, zehaztasuna eta argitasuna darie. Irudiaren osagai poetikoen artean ez da tankera irrazional edo ilogikozko tarterik, ustekabezko eta gaindiezinik nabari.

Imajinen originaltasuna erlatiboa da. Asko Lizardi baino lehenago erabiliak izan dira, hala euskal tradizio poetikoan nola unibertsalean. Haatik, pertsonifikazioaren tratamenduan, egiatan, originala da. Ez zaio, bestalde, indar-iradokitzaile handiko imajinarik falta: *Heriotzak dakar besalagun, / bere buruz ez baita gai* (“Asaba zaharren baratzea”), esaterako.

3.3.3. Errealitatearen antzaldaketa lan honetan, Lizardik, oso maiz, apostrofea darabil: “ni” poetikoak errealitate honetako elementuekin jarrera komunikatiboz hitz egiteko eskuratzen duen apostrofea. Poesia lizardiarrean, *Bihotz-begietan*-en bereziki, berbaldi poetikoa, funtsean, “ni” poetiko baten enuntziazio-ekintzaren ondorioa da, enuntziazioaren subjektu gisa eta enuntziatuan pertsonaia-aktore gisa jokatzeko duen “ni” batena. “Ni” poetikoa, ekintzen subjektua da: *Udaberri, uste ezik, / aurki dut basoan* (“Neskatxa urdin-jantzia”); *bide-ertz honetan nadin eseri, / hiri begira, sagastia...* (“Sagar-lore”); *Joka nagokik atea* (“Asaba zaharren baratzea”); *Bebetik nator, ibarrak / izoztuta utziaz* (“Izotz ondoko eguzki”). Ekintzen subjektua izateaz gain, “ni” poetikoa igorlea ere bada, poeman sortu, txertatu eta presente dauden “zu” edo “hi” ugariri zuzentzen zaien subjektua. Pertsonifikazioak poetari hartzaile horiekin apostrofez mintzatzea ahalbidetzen dio. Hartzaile horiek ez dute erantzuten, “ni” poetikoaren apostrofea, azken finean, bakarrizketa baita; baina bakarrizketa hori irekia da, besteari zuzendua. Lizardik ez du oheaz

—oheari buruz, alegia—, mendi-gainaz, udaz, euskaraz eta abarrez hitz egiten, baizik eta ohearekin, mendi-gainarekin, udarekin, euskararekin, eta beste izaki ugarirekin. Horrela, harreman —hitzezko hurbilpen— abegikor eta afektiboa ezartzea lortzen du: *Ez hadi beldur, nire Maiteder* (“Eusko bidaztiarena”), *Arbaso bakezale agurgarri borrek* (“Zuhaitz etzana”), *Hara zuzen nazak, luzatu gabe!* (“Baso itzal”). Beraz, baliabide honetan, desira, errealitatearen eraldatzea eta hurbiltasun afektiboa batera biltzen dira.

Hasierako olerkietan, “ni” poetikoaren presentzia erabat nagusia da jadanik. Hirugarren pertsonaz eta egitura narratiboz antolatutako “Eusko mendia”, “Maiteder” eta “Gaiztoen itzala” salbu, gainerako olerkiak “ni” horretatik abiatuz, “ni” horren arabera, daude taxutuak, eta gehienetan beste izakiei apostrofez mintzo zaie, dela maitea, dela Jainkoa, amona, “Mendi-Lauta” adiskidea eta abar. “Ahaztu, bihotz horrek!...” olerkia, esaterako, “ni”a esplizituki agertzen ez bada ere, bihotzari zuzendutako apostrofe bat da osoki.

Aberastasunik eta intentsitaterik gorena, ordea, *Bihotz-begietan*-en lortzen du apostrofeak. “Zeru-azpia” eta “Xabiartxoren heriotza” poemaz kanpo, ez da inoiz “ni” poetiko pertsonal horren apostroferen bat falta. Zenbaitetan, “Mendi-gaina”, “Agur!”, “Zuhaitz etzana” edo “Eusko bidaztiarena”n, kasurako, poemaren ardatz-egituratzaile bihurtzen da, poemarako aukeratutako eduki eta jarrera biziki afektibo eta zuzenak hala eskatuta.

Poema bilduman zabaldu egiten da nabarmenki apostrofea jasotzen duten subjektuen zerrenda: ohea, otartxo, Onuzki, euskara, nekazaria, loa eta abar. Naturako izakiak dira bereziki “ni”aren bihotz-isuriak gainezka hartzen dituztenak: sagastia, txoria, Txindoki, baratzea, itzala, udaberria, lurra, zuhaitza, izotz ondoko eguzkia eta abar.

Apostrofearen bidez, subjektu poetikoak areagotu egiten du afektuen adierazpena, *Adiskide laztan, ehun bider gaixoa* (“Agur!”); galderak egiten ditu, *Nik bamestan bezala / ote baiz, mendi-gaina?* (“Mendi-gaina”) eta desirak azaltzen, *nabi haunat ere noranabikoa* (“Eusko bidaztiarena”), *Oi, ene lur*

nereal... (“Bultzi-leihotik”); halaber, harridurak, *Eder haunagu*, *mintzo joria* (“Eusko bidaztiarena”), *saminak*, *leber hadi*, *bibotz!* (“Bihotzean min dut”), edo itxaropenak, *Zigor hontaz*, *Uda*, *ba al duk aterpe?* (“Baso itzal”), kanporatzen ditu.

Bibotz-begietan-en ondoko poemetan, oro har ikusirik, urriagoa da “ni” enuntziatzailearen eta pertsonaia-aktorearen presentzia; horrekin batera, urritu egiten da, halaber, apostrofearen erabilera. “Ni” poetikoa mintzo zaie seme-alabei, *Nire poza zareten / karnaba kutunak* (“Etxeko sagastia”), urrutiko izarrari, *Argi egidazu, / izarño dardarti* (“Argi egidazu”), maiteari “Etxeko kea” eta “Arrats gorri” poemetan, sukaldeari, laratzari, aulkiari eta suari “Euskal Pizkundera”n; baina, orain, hirugarren pertsonaz jalgitako kontakizuna da nagusi, batez ere “«Maitea»ren apurñoak” sortan, non, “Gora-dei” eta “Hondaurtz-abestia”n izan ezik, apostrofea apenas ageri den. Poema narratiboak dira, “Aldakeria” eta “Xabiartxoren heriotza”ren modukoak, tankera biografikoago eta errealistagokoak, eredu eta irizpide narratiboaren arabera aztertu eta balioetsi beharrekoak.

Baina, oro har, Lizardiren poesian, apostrofea “ni”aren ekimenetik sortzen den baliabidea da. Apostrofeari esker, poema “ni” eta “zu”/“hi” horien arteko topagune bihurtzen da; topo-egite hori era kontenplatibo edo afektiboan gertatu da, poema bihurtu baino lehenago. Poeman, harreman hori bermatua gelditzen da, eta irakurketaren bidezko gauzatze bakoitzean berriro daiteke.

3.4. *Bibotz-begietan* atzeman eta gero eraikuntza irudizko-sinbolikotan antzaldatutako errealitatea, hirugarren urrats orokor batean, egitura linguistiko-poetiko, hau da, metriko-foniko eta lexiko-sintaktiko egoki eta aukeratutan moldatzen da.

3.4.1. Lexiko lizardiarra aberatsa da, askotarikoa eta zehatza. Nabaria da poetaren gaitasun linguistikoa, kontzeptuetarako forma eta hitz berriak aurkitzeko ahalegina, eta terminoak zorrozki taxutzeko nahia. *Bibotz-begietan*-en bereziki, nagusi dira kontzentrazioa, hau da, giltzarri diren lexema gutxi batzuen errepika (“begi”, “lur”, “txori”, “bihotz”, “goi”...) eta sakabanatze edo dispertsioa, hots, lexema kopuru handi

bat, gehiengoa, apenas errepikatua, oso maiztasun txikiz agertzen dena. Hiztegiaren bariazio hau, hitz-elkarketaren eta eratorpenaren ugaritasuna, eta mami beteko lexema edo hitzen hautaketa dira poesia honi berezkoa zaion trinkotasuna eransten dioten faktoreetariko batzuk.

Poema bilduman, izena da gramatika-kategoriarik ugariena, eta aditza hurrengoa. Izenean, poetak errealitateetik jaso dituen izakiak moldatuta agertzen dira linguistikoki, izadiari dagozkion izenek toki aukeratua betetzen dutela (“lur”, “txori”, “lore”, “eguzki”, “baso”, “argi”, “elur”...). Aditzetan, berriz, poetak errealitate horretan aurkitu dituen ekintza, sentsazio eta erreakzioak biltzen dira, mugimendu-ekintzak bereziki –igoera, adibidez–, jaiotze- eta berritze-ekintzak, edota ikusmenari dagozkion sentsazioak.

Lizardik adjektiboa maiztasun neurtu eta erlatiboz erabiltzen du. Poema bilduman, adjektiboa ondoan hartzeko gai diren izenetatik laurden batek hartzen du adjektibo kalifikatzailea, hau da, lautatik bat kalifikatzen da adjektiboz. Behar logikoari begira, ia adjektiboen erdia da beharrezkoa esaldiaren ulerpenerako; gainerakoak, beste erdia, alde batera utzita ere, esaldiaren edo esaldi-zatiaren funtsezko mamia aldatu gabe gelditzen da. Ekarpen semantikoaren aldetik, bost adjektibotatik batek bakarrik azpimarratzen du kalifikaturiko izenari berez, modu intrintsekoz, dagokion nolakotasun bat: *habi goxoa, Giltzape beltzean, laztan eztiak, uso zuriak, ortzi zabala...*, adjektibo topikoak, alegia. Baina bostetatik lauk bertsorako aberasgarri den eduki kalifikatzailea eransten dute, eta ekarpen semantiko mamitsuko adjektiboak dira, hala nola *txori baldarra, negu gau oskarbien, odol eri batek, hitz emeak, Oihal ilaun, beso bigun...*

Poema bildumaren barruan, lexikoak, batez ere adjektiboak, poemetan ardatz diren hiru hari semantiko zirriborratzea, hiru arlo tematikotara hurbiltzea, ahalbidetzen du. Oinarrizko hiru balio dira, guztiak positiboak, bildumaz kanpoko beste olerkietan ere eragina dutenak. Lizardik nabarmentzen duen balio nagusia, muntazkoena, gorago nabarmendu den bere desira gartsuenaren arabera, “bizi-betetasuna” da; lexikoak ere, batik bat, bizia adierazten du, indar berritzailea, sorketa

eta zabaltasuna, “bizi”, “gazte”, “jaino”, “berri”, “argi”... terminoetan. Bigarren isotopia edo ardatz tematiko errepikatua, “gozotasun pozgarria” edo “poz gozoa” da, “bihotz”, “gogo”, “barre”, “poz”, “muinkatu”... hitzetan oinarritua, hau da, leuntasuna, maitasuna, samurtasuna adierazten duten lexemetan. Lexikoari darion hirugarren balioa “edertasun bikaina” da, harriduraz, mirespenez, argitasunez, distiraz inguratua dagoen edertasuna, eta “begi”, “ikus”, “egon”, “itzal”, “eder”, “zuri”, “urre”... hitzetan eraikia.

Positibotasuna, alde argitsua, da azken finean garaile poema bilduman, baina, azpimarratu denez, Lizardik ez du ezezkotasuna, negatibotasuna, ezkututzen. Heriotza, mina, gainbehera, erorialdia edo hondamena hor daude, poemetan ageri dira. Lexiko mailan ere, betetasunari estutasuna, hustasuna eta urritasuna kontrajartzen zaizkio; gozotasun pozgarriari, mina, tristura eta laztasuna; edertasun bikainari, iluntasuna, itsustasuna eta doilorkeria. Hala ere, bizia eta berpizkundea ateratzen dira irabazle.

3.4.2. Lizardik poemen lexikoa trinkotasunaz eta zehaztasunaz nabarmentzen diren egitura morfosintaktikotan artikulatzen du: elipsia, hitz-elkarketa, justaposizioa, eta aniztasun eta progresio sintaktikoa, besteak beste.

Lizardirengan laburrerako zaletasuna ez da moztasuna, murriztasuna; ez eta sentimendu, imajina edo ideien eskasia. Elementu morfosintaktiko behargabeen inausketa da. Poetak ahalik eta material linguistikorik gutxienarekin ahalik eta mezu semantikorik handiena, aberatsena, adierazteko ahalegina egiten du. Testuaren ulerpenerako derrigorrezkoak ez diren elementu erredundanteak ezabatu egiten ditu elipsiaren bidez. Horrela, Lizardik, trinkotasun adierazkorra lortzeaz aparte, neurri silabikoa zehaztea, errima originala taxutzea eta zenbait hitz azpimarratzea ere bilatzen du.

Elipsiaren praktika hitz-elkarketa oparoan azaltzen da, hor, deklinabide edo lotura morfemak ezabatzen baitira: *zilar-begieki, lan-izerdiak, maitasun-edermen-zitu, Poz-oinaze kateak* elkarketetan, adibidez. Lizardik, maiz, artikulua kentzen du, ez bakarrik testuinguru ohikoetan,

hautazkoetan, baizik eta baita arautuetan, derrigorrez behar dutenetan ere, *Kanta ditzagun bango gau luze* neurtitzean (“Eusko bidaztiarena”), esaterako. Aditzean, zenbaitetan, partizipio-morfema inausten du, *bordia antzo sar nauzu* (“Bihotzean min dut”); besteetan, laguntzailea, *Gebien borrexek hiri zor* (“Zuhaitz etzana”), edota aditz osoa ere bai, *Erreska bi gizonek / argizai horiak; / gorputza lau bilobok; / atzetik andreak* (“Bihotzean min dut”).

Poetak, orobat, justaposizio-egitura ugari erabiltzen ditu, lotura sintaktiko askoren ezabaketa ahalbidetzen dutenak; inolako loturarik gabe, bata bestearen ondoan jartzen ditu, hasi aposizioan dauden izen-sintagma laburretatik, *Uda!, gar zoraigarri, suzko itsaso* (“Baso itzal”), esaldi edo proposizio osoetaraino, bi puntu soilez lotuz, *Haizea dabil, busti setatia: / lurrari daragio hots negartia* (“Hondar gorri”), edo kate moduan pilatuz, “Bihotzean min dut” poemaren bigarren estrofan bezala.

Poesia lizardiarraren trinkotasun eta laburketaren eragileak dira orobat: aditz sintetikoa, *Haren barrea dadat* (“Izotz ondoko eguzki”); etenpuntu iradokitzaileak, *Arrats gorria bil da. . .* (“Arrats gorri”); harridura bilduak, *amets!* (“Etxeko kea”), *Errukarri!* (“Asaba zaharren baratzea”), *Noizbait!* (“Ohea”); galdera erretoriko laburrak, *Bibar? . . .* (“Ohea”), *Eskatu? . . .* (“Zuhaitz etzana”), *Ametsetan?* (“Euskal Pizkundera”); eta beste zenbait baliabide eliptiko ere.

Bestalde, maila sintaktikoan, aldaketa eta progresioa errepikari eta paralelismoari nagusitzen zaizkie. Lizardiren poesia ez zaio modu estuz paralelismo sintaktikoari atxikitzen; paralelismoaren eta errepikaren legea indartsua da maila fonikoan, ez, ordea, sintaktikoan. Poeta hizkuntzaren malgutasunaz baliatzen da osagai sintaktikoen ohiko ordena aldatzeko eta ustekabeko hiperbatonak edota esaldiaren antolamendu bereziak taxutzeko. Honela, neurria eta errima zehazteaz gain, esaldien egituraketan aldatze aberatsa lortzen du, eskema higatuak hautsi, hitz muntadunak nabarmendu, eta ohiko ordenatik saihesten den diskurtsoari dinamismoa eta originaltasuna emanez. Era honetako joko sintaktikoak nabari dira, esaterako, honako segmentuetan: *Egur*

bezearen kea / goiak du kolore (“Bizia lo”); *baurtzaroko / lurrrak irentsi-lagunak. . .* (“Asaba zaharren baratzea”); *Orain laurogei urte, / kale pozgabeok / eguzkiak zitun ta / zure haur jolasak / alaitzen* (“Bihotzean min dut”). Aldaketarako joera hau eraikuntza sinonimo eta baliokideei muzin egin, eta segmentu semantikoki progresiboak erabiltzearekin dago lotua. Lizardiren poesian, lerro bakoitzean, urrats semantiko berri bat ematen da.

3.4.3. Eraikuntza lexiko-semantikoak, hots, poemetan adierazitako unibertso semantikoaren euskarri linguistikoak, zehatz-mehatz ordenatutako molde metriko-fonikotan josten ditu Lizardik. Zorrozkirantz neurtu eta errimatutako poesia da. Honako hauek dira erritmoaren oinarritzko faktore osagarriak: neurri silabikoa eta, beraz, bertso-lerroa, neurtitza; errima; puntuaren eta estrofen arabera egindako bertso-lerroen multzokatzea; bertso-lerroko eta estrofako etena; eta bertso-lerro bi edo gehiagoz osatutako puntuaren eta estrofaren mailan, neurri silabikoaren eta unitate sintaktikoaren arteko lotura edo bat etortzea.

1) Lizardiren poesian, ia bertso-lerro guztiak neurtuak daude euskarantz multzokatze edo zatikatze silabikoa gidatzen duten arau linguistiko-fonikoen arabera, eta poetak onartutako arau metrikoak zehazki beteaz. Arana Goirik “La fonética en el metro del verso” (*Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*) atalean⁽¹⁵⁾ emandako arauak leialki betetzen ditu Lizardik. Honela, elkarren ondoan dauden bi bokalak berdinak direnean (ahal) edo bigarrena itxia (bai, gau) –bi silabatan banatzen den /iu/ bikotea (bi/hur) izan ezik–, silaba metriko bakar batean lotzen dira. Aldiz, lehenengo bokala itxia bada –silaba bakarrean biltzen den /ui/ bikotea (i/puin) salbu– edo ukipena bokal ireki edo erdi irekien artean (a,e,o) gertatzen bada (lo/a, ke/a), orduan silaba metriko desberdinetan banatzen dira. Idazkian, “ia”, “ie” edo “io” agertzen direnean, “i” hori bokala bada, bikotea bi silabatan banatzen da (i/az, diz/ki/e, zo/

⁽¹⁵⁾ Sabino ARANA GOIRI, 1896, in *Obras Completas* [1965]. Donostia: Sendoa, 1980 (2. arg.), 925-930.

ri/on); aldiz, “i” hori [y] frikari sabaikari ozena bada, bikotea silaba bakar batean biltzen da (ga/ra/ia, go/ie/ne/an, ka/io/la). Hau guztia aplikatzen da bai hitzaren barruko bokalen arteko ukipenean, eta baita hitz baten bukaerako bokalaren eta hurrengo hitzaren hasierako bokalaren arteko ukipenean ere: sinalefa egiten da, esaterako, sei silabako *i/tsa/so/a i/du/ri* neurtitzean, baina bokalak bi silabatan banatzen dira, adibidez, beste sei silabako *ar/gi/ e/gi/da/zu* neurtitzean.

Lizardik zorrozki betetzen ditu arau hauek. Salbuespen bakarrak lehenengo hiru olerkiak dira, *Euzko-Deya*-n, 1917an (28, 29 eta 33. zenbakietan) argitaratutakoak: konposizio horietan, batzuetan, aipatutako arau horietatik desberdinak diren beste arau metriko batzuei jarraitzen zaie. Esaterako, poetak, batzuetan, silaba bakar batean biltzen du bokal itxiz hasten den, edo bi irekiz edo erdi irekiz osatutako bokalen bikotea. Adibidez, “Nire lehenengo maite-ibilketa” poemako bost silabako neurtitz hauek: *Ge/zur/ti a/len/bai; dan/tza/ra/ goa/zen; e/maz/tea/ ni/tzat; Hu/ra a/ro a/la/ia; En/tzun,/ ba/da, en/tzun*. “Batzuetan”, beti ez baitu horrela jokatzen: zenbaitetan, arau nagusien arabera; eta, beste zenbaitetan, arau berezi hauen arabera. Duda-muda hau dela eta, hiru olerkiotan, horrelako bokal-bikoteak agertzen diren neurtitzetan, ez da erraza izaten silaben neurketa garbia eta zehatza egitea, batik bat bertso-lerroa luzea denean, “Eusko mendian” edo “Zelai urdina” konposizioetan, kasurako. Adibidez, bost silabako neurtitzez osatutako “Nire lehenengo maite-ibilketa” olerkian, nola neurtu zehazki hurrengo lerro hauek: *Ni, or/de/a,/ ben-/ben* ala *Ni,/ or/dea,/ ben-/ben ?*; *ho/ri e/sa/te/an* ala *ho/ri/ e/sa/tean ?*; *u/rru/ti an/tze/an* ala *u/rru/ti/ an/tzean?*

Dena den, Lizardiren ibilbide poetikoan korapilo edo zalantza hau berehala askatu zen. Olerki horietako hirugarrena, 1917ko uztailean argitaratu zen *Euzko-Deya*-ko 33. zenbakian. Hurrengo zenbakian, 34.ean, aldizkariak “olerki edo bertso gehiegi” jasotzen ari zirela adierazi zuen; euskarak bere legeak dituela olerkiak idazteko, eta lege horiek ez dituztela beti olerkariak betetzen. Aurreratu zuen, gainera, hurrengo zenbakietan bertso-lerroen neurketa metrikorako arau batzuk jakinaraziko zituela.

Euzko-Deya-k 1917ko abuztuko eta iraileko 35. eta 36. aletan eman zituen arau horiek: Arana Goirik ezarritakoak, oro har.

Oraindik zalantzaren bat edo beste sumatzen bada ere, Lizardik, hortik aurrera, olerkiak arau metriko horiei jarraituz moldatu zituen. Hasteko, jada, eskuizkribuan gorde den “Habiatox” olerkia, 1917ko irailean datatua. Ondoren, *Euzko-Deya*-ko 41. zenbakian (1917ko abendua) argitaratutako “Jaun errukitsuboi!..”, *Bibotz-begietan* bilduman agerturiko “Jaun errukiorra” konposizioaren lehenengo bertsioa. Zalantzak ez dira erabat desagertzen 53. zenbakiko “Nire maiteak ditu —edo— «Axeria dantzan...»” eta 63.eko “Maitasunaren hileta” olerkietan (biak 1918koak), baina 1919ko 66. zenbakian kaleratu zen “Maiteder” poematik hasita, poema guztiak arau metriko berrien arabera neurtu ziren. Datu esanguratsua: Lizardik “Jaun errukitsuboi!..” konposizioarekin hasita, “Samaiko-zulo” izenordea baztertu eta “Zarautz’ar Sabin” sinaduraz izenpetu zituen olerkiak *Euzko-Deya*-n. Arau metriko berrietarako, izenorde berria.

2) Neurtua izateaz gain, Lizardiren poesia errimatua da poema guztietan, eta errima ordena edo molde zehatz baten arabera dago antolatua, “Maitasunaren hileta” eta “Bizia lo” poemetan izan ezik. *Bibotz-begietan* poema bildumari erreparatuz gero, adibidez, hiru bertso-lerrotatik bik daramate errima gutxi gorabehera; hamaika poematan, bildumako neurtitzen erdietan ia, neurtitz guztiak dira errimadunak.

Arruntegia edo arras aberatsa izan gabe, oro har, aberastasunera jotzen duen errima da. 1917-1920. urteetako olerkietan errima-molde nagusia soinu edo hots batez, edo biz, osatutakoa da; hiru edo lau hotsetakoak oso gutxi dira, “Idazkia” delarik olerkirik oparoena. Nahiz eta *Bibotz-begietan*-eko errima guztiaren % 55 soinu bakar batez —bokalikoa, derrigorrez— edo biz moldaturikoa den (/ -B/ : / -B/ (maitE : ningokE), edo, / -BB/ : / -BB/ (maitEA : lorEA), / -KB/ : / -KB/ (maiTE : arTE), / -BK / : / -BK/ (zimUR : lapUR)), beste % 45 hiru (aLDI : geLDI), lau (aIAI HAU : bAIIHAU), bost (mALDAN : AL DAN), sei (gARRETAN :

adARRETAN) eta zazpi (zornA BERRIAK : udABERRIAK) hotsez ere osatua da. Errima kontuan, “Sagar-lore” da poemarik aberatsena: berpiztutako izadiaren gaztetasunari eta bizitasunari egindako kantu poetiko hau errima oparotasun apartekoz dago hornitua; adierazitako edertasunaren eta distiraren zerbitzuan jartzen da errima.

Bihotz-begietan-en, errima aberastasunerako joeraren seinaleak dira, halaber: errima guztien erdia gutxi gorabehera bertso-lerroaren azken silabaz harantz ailegatzen dela, gehienetan hitzaren lexemaraino, eta errima kopuru osotik seiren bat soilik dela hitzaren azken morfematik aurrera iristen ez dena.

Oro har, bi lerro-bukaera hoskide lotzen dituen errima moldea da gehien erabilitakoa.

3) Lizardik askotariko neurtitz-moldeak darabiltza, silaba bakarreko lerrotik, *Hots!* (“Bihotzean min dut”), hamabost silabakoraino, *Txoriari, kanta zezala goizetan eztiro* (“Zuhaitz etzana”), diren guztiak. *Bihotz-begietan*-en, zazpi, sei eta zortzi silabakoak dira gehien azaltzen diren neurriak, hurrengoak hamaika eta hamarrekoak izanik; gainerakoak maiztasun gutxiagokoak dira, baina berorien erabilpenak aldaketa metriko nabarmenerako aukera ematen du. Antzeko aniztasuna sumatzen da 1917-1920ko olerkietan; ez, ordea, 1933tik aurrera argitaratutakoetan. Azken hauetan, bost, sei, zazpi eta zortzi silabako neurtitzen nagusitasuna ia erabatekoa da; bi poema dira bakarrik, “Arrats gorri” eta “Maitale berriak”, bestelako neurritan, hamabi eta hamahiru silabakoetan, oinarritzen direnak.

Errimak ahapaldietan hartzen duen antolamendua ere molde askotarikoa da. Poesia lizardiarrean, errima-segmentu bakarraren errepikan oinarritutako estrofa da nagusi (bARRE : gorazARRE : IARRE : batzARRE) (“Izotz ondoko eguzki”). Bukaeren banaketa, ordea, hainbat formatan egiten da estrofan zehar: segmentua bitan errepikatzen delarik, AA, -AA, --AA, -A-A, --A--A, ---A---A, -A--A, --A-A, edota bitan baino gehiagotan, AA-A, AA--A, -A-A-A-A (arestian

aiapatutakoa, esaterako), -A-AA-A, -A-AAA, -A--A-A-A, AAA(AA) eta abar. Gutxiago dira bi, hiru edo lau errima-segmenturen errepikan oinarritutako estrofak, nahiz eta hemen ere aldaketa nabarmendu: hasi pare soiletik AABB(CC)(DD) eta forma konplexuagoetaraino iritsiz, ABBA, ABAB, AABAB, --ABAB, ABCABC, AABCCB, -A-B-B-A-C-C eta abar.

Neurriaren eta errimaren antolatze askotariko honetatik, eta azken finean hau da benetan muntaduna, estrofen aniztasuna eta txandaketa harrigarria sortzen da. Luzeegia litzateke poetak erabiltzen dituen ahapaldi mota guztiak banan-banan adieraztea. Oro har, hala *Bihotz-begietan*-en nola 1917-1920ko olerkietan, laukoa da gehien agertzen den estrofa, bere moldean neurrien eta errimen konbinazio desberdinak etengabe bilatzen direlarik; poema bildumaren ondorengo poemetan, aldiz, sei lerro edo gehiagoko estrofak nagusitzen dira, hamabi lerrokoraino iritsiz, “Ama Gau beltzaran”en adibidez. Lizardi ahalegintzen da estrofa-moldeak poema batetik bestera ez errepikatzen. Lehenengo urteetako olerkietan 10 / 8a / 10 / 8a estrofa lau olerkitan eta 14 / 13A / 14 / 13A bitan erabiltzen ditu. *Bihotz-begietan*-en barruan, salbuespen bakar bat izan ezik -7 / 6a / 7 / 6a moldea, “Neskatxa urdin-jantzia” eta “Mendi-gaina”ren lehen eta azken estrofetan ageri dena-, ez da beste estrofa-molderik errepikatzen; poema bakoitzak berea edo bereak ditu; eta aurretiko olerkiekin alderatuz gero, 10 / 8a / 10 / 8a eta 7 / 7 / 7 / 6a / 7 / 7 / 7 / 6a ahapaldi egiturak bakarrik errepikatzen ditu. Poema bildumaren ondorengo poemetan, antzeko aniztasuna ikusten da: 6 / 5a / 6 / 5a / 5a / 6 / 5a estrofa, bi poematan, eta 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a, jadanik *Bihotz-begietan*-en erabilia, hirutan errepikatzen ditu; lehenago ere agertutakoetatik 7 / 6a / 7 / 6a eta 12A / 12A / 12B / 12B estrofak dira berriro azaltzen diren bakarrak.

Lizardik berrogeita hamasei poemetarako berrogei estrofa-molde baino gehiago darabiltza: kontuan izanik poema gehienak isostrofikoak direla, hots, hasieratik bukaeraraino ahapaldi egitura bera dutenak, poematik poemara dagoen aniztasuna, hau da, poemen arteko poliestrofismoa nabarmena da. Poema bakoitzari egitura estrofiko propioa, egokien zaiona, ematen saiatzen da poeta; ahapaldi-moldeak nahita, olerkiaren edukiaren eta tonuaren arabera, aldatzen ditu. Oro har, neurri luzeko estrofa tankera benazko, gogoetazko, gaietarako da aproposa, ideien azalpen zabal eta oparorako, “Agur!” poeman, esaterako; hedadura ez luze eta ez motzeko estrofa, erdikoa, gai goren, bizi, distiratsuetarako da baliagarria, “Sagar-lore” edo “Eusko bidaztiarena” poemetan, adibidez; eta neurri laburreko estrofa poema narratibo eta inpresio edo bizipen labur eta xumeetarako, “Ohea”, “Neskatxa urdin-jantzia” edo “Bultzi-leihotik” poemetan, kasurako. Horrela, 1933tik aurrera azaldutako poemetarako, neurri labur eta ertaineko (bost, sei, zazpi eta zortzi silabako) eta bertso-lerro ugariko (sei, zazpi, zortzi, bederatzi eta hamabi lerroko) estrofa oso egokiak dira, poema horietatik gehienak kontaketa moldean egituratuta baitaude.

4) Lizardik bertso-lerroak estrofatan antolatzen ditu, eta, estrofen barruan, puntutan. “Puntua”, lan honetan bederen, hau da: bertso-lerro bat, bi edo gehiago besarkatuz, errimaz amaitzen den edo errima batetik hurrengora luzatzen den segmentu poetikoa. *Bibotz-begietan*-en, zehazki, estrofa eta bertso-lerro bukaerako etena edo geldiunea, eta, beraz, baita puntu bukaerakoa ere, beti sistematikoak dira. Bestalde, erritmo metrikoaren eta sintaktikoaren arteko lotura edo bat etortzea ia-ia erabatekoa da bertso-lerro biz edo gehiagoz osaturiko puntuaren eta estrofaren mailan; alegia, azken bi hauen bukaerak ia beti bat datoz esaldi baten edo esaldi-atal baten bukaerarekin. Honek ez du esan nahi lerro bakarreko puntuak esaldi edo esaldi-atalarekin batera ez datozenik; gehienetan bai, bat datoz, eta nahikoa da horretarako ikustea “Zuhaitz etzana” poema osoa, lerro bakoitzean, adostasun metriko-sintaktikoz

antolatua dagoela; baina poema bilduman zehar ez da adostasun eza eta zangalatraurik falta.

3.4.4. Ez modu erabat sistematikoz, baina bai ohiko osagarri gisa, erritmoaren taxutzean parte hartzen duten faktore eragileak dira, baita ere: hemistikioa eta neurtitzaren erdia, eta honi dagokion etena edo zesura; eta bertikalki, neurtitzen artean, eta horizontalki, neurtitz berean, lantzen den errima aurrekoa eta aliterazioa.

Lizardik, *Bibotz-begietan*-en, zesura hamar silabako bertso-lerroetatik aurrera egiten du, eta hauen artean, ez beti modu iraunkor eta zorrotzez; bilduma horretan, hamazazpi baldin badira zesura onartzen duten neurtitz multzoak, hirutan soilik betetzen da zesura erabateko erregularitasunez; gainerakoetan, beti gelditzen dira lerroak, zenbaitetan bat soilik, zatikatu gabe, “Agur!” olerkia delarik neurtitz guztietan zesura daraman poema bakarra. Neurri silabikoaren eta unitate sintaktikoaren arteko lotura, hemen, hemistikio eta bertso-lerro mailan, jadanik, ez da beti zehatza, zorrotza, izaten. Bi segmentu horien bukaera batera dator esaldiaren edo esaldi-atalaren bukaerarekin gehienetan, baina ez beti.

Errima aurrekoa eta aliterazioa ere, bai goitik beherakoa, bai zeharkakoa, iraupen handiz daude landuak. Bertikala, adibidez, errima aurreko aberatsez hornituriko bi neurtitz hauetan:

behin ta berriz uka maitasunak baitIK
t'ez eskain bizitzak behazuna baizIK

Hoskidetasunezko aliterazioa ere ugaria da: *kilker olerkari; sagasti gazte; gure inguru lurra lurrun-JARIO, / urre urtuzko jasak baitarAGIO.*

3.4.5. Orokorki hartuta, Lizardiren poesia, funtsean, erregularra da, gehiago neurriaren eta errimaren mailan, sintaktikoarenean baino. Ohikoa erregela da, baina erregularitasun hau egituren eta eskemen aldaketa aberats batez eta erritmo haustura neurritsu, leun batez dago ñabartua. Ez dira erabilera eta baliabide errepikatuegiak edota uniformetasun-zantzuak falta, zenbaitetan errima bukaera bera errepikatzea, esaterako; baina badira, orobat, nahiz eta modu arin eta bigunez, nolabaiteko

hausturaren edo, gutxienez, bariazio baten seinaleak: “Bizia lo” poeman, erritmoaren egitura atipikoa, adibidez; poema bilduman hau da neurkera eta errimaren ikuspuntutik bereziena, eskema finkoak, zurrinak, baztertzen dituen.

Hausketa neurtu eta apal honen adierazgarria da, halaber, eten edo ebaketa ez-sistematikoaren erabilera: *Laztan dut. Bera, barrituta, / begi-begira dagokit* (“Asaba zaharren baratzea”); *Bular joritik ez haut, / ene! ikusiko / zalapartan edaten* (“Xabiartxoren heriotza”). Hausketarik adierazgarriena, hala ere, zangalatraua da, Lizardiren emaitza poetikoaren aldi guztietan agertzen dena. Hastapenetako olerkietan jadanik badira horrelako etendura metriko-sintaktikoak, baita neurri luze eta ertaineko bertso-lerroetan ere: *Hamaika nekien saritzat, nire / emazte eta seme-alabatxok ez dira / izango gose...* (“Zelai urdina”). *Bihotz-begietan* bilduman, bertso-lerroaren bukaerako etenean zangalatraua bertso-lerro multzo osoaren ehuneko bostean gertatzen da; bertso-lerroaren erdiko etenean, zesuran alegia, ehuneko hogeita bostean, lautatik batean, beraz. Errimarik gabeko neurtitzen edo lerro bakarreko puntuen bukaeran gertatu ohi da, baina ez lerro bi edo gehiagoko puntuen amaieran, salbuespen bitxiren bat salbu, *Izotz ondo. Neguak / barre eme. Gizadi / larria gailurrerantz, / muinoak mailadi* (“Izotz ondoko eguzki”); hauetan, eta estrofan, adierazi denez, bat etortze metriko-sintaktikoa erabatekoa da praktikan.

Azken poemetan ere iraun egiten du zangalatrauaren erabilera. “Euskal Pizkundea”n, esaterako, aipagarria da aditza eta laguntzailea bereizten dituen, *jaio / zen; belaunikatu / nintzen; esnaraz / nindun*. Zangalatrauak genitiboa eta izena bereizten ditu, *Nire Tabor mendi, nire / baratz zabarraren antzalda!* (“Asaba zaharren baratzea”); izena eta adjektiboa, *gure herriaren olerki / garaia, norbaitek lebenbailehen begi!* (“Eusko bidaztiarena”); erlatibozko perpausaren erlatiboa eta ondokoa, *asabeakaz abaztuta dagon / herri errukigarriari...* (“Eusko mendia”); hitz-elkartua, *badela hire obe- / atorra?...* (“Idazkia”), *Lehengoa daitekek, zakarki elur- / pera egotzi hauena?* (“Aldakeria”); eta abar.

Lizardik ebaketa sintaktiko hauen bidez hitzak nabarmendu, esaldi-atalak azpimarratu, testua desautomatizatu eta neurtitz bakoitzari arreta eskaintzera behartzen du, axaleko irakurketa galaraziz. Fenomeno hauek eta beste batzuek adierazten dute aldaketa aberats eta hausketa neurtu batek poesia honen erritmo erregularitasuna ñabartzen dutela. Erregularitasunaren eta beronen erabateko onarpen ezaren arteko tirabira nabari da; erritmoaren molde erabiliegiak, higuatuak, aldatzeko ahalegina, ausardiaraino iristen ez den ahalegina sumatzen da.

3.5. Lizardiren poesia ez da bakarrik poetaren berezko izaeraren eta aukera pertsonalaren fruitua, baizik eta baita ingurumari soziokulturalak ezartzen dituen baldintzen ondorioa ere. Beraz, zuzen interpretatu nahi bada, egilearen lanketa poetikoa kontuan izateaz gain, aldi berean, mende honetako lehenengo hereneko esparru zabalean kokatu behar da.

3.5.1. Gizakiaren heriotzari buruzko poemetan Lizardik ematen duen erantzun transzendentala bere kristau sinesmenetik dator, eta ingurunean nagusi den ikuspegi eta praktika erlijiosoan errotzen da. Bere poesia ez da, berez, erlijiosoa, gai erlijiosozkoa, baina une giltzarrietan Jainkoarengana jotzen du; zeruko betiko bizitzaren aipamena erabakigarria zaio.

Izadiari buruz duen ikuskera idealista da. Izadi bikaina, noblea, bizia aurkezten du; gizakia, pertsona, berriz, baldarra, doilorra, hilkorra da. Goialdeko munduak (mendia, lurra, soroa...) atsedena, edertasuna eta asetzen duen fruitua eskaintzen ditu; behealdekoa, hiria, aldiz, presazko zereginez, harantz-honantz zorabiatzailez betea dago. Izadia aukeratzeak, ordea, ez du esan nahi, Lizardirengan, hiriko mundua eta bertako jarduera erabat arbuiatzen denik. Hirian bete behar da aberriarekiko eta hizkuntzarekiko premiazko lana. Beheko munduari susmo txarra hartzen zaio zenbaitetan, neurri batean, eta baserritarra gorai patzen, *Nekazari, / gizandi bat iduri / soroan zut: / bejondeizula zuri!*... (“Bultzi-leihotik”), baina ez dago baserritarkeriarik, landa giro itxirik, ez eta jarrera bukoliko eztegirik. Poemen objektua, gaia, ez da baserria, izadia baizik. Izadia nahiago izatea poetaren barne-joeren ondorioa da, Lizardi izadizalea baitzen, baina baita inguruko, garaiko ikuskera

soziokulturalarena ere: mende honen hasieran euskal balio tradizionalak krisian, larriunean, ikusten ziren, eta beharrezkotzat jotzen zen, orduan, baserri mundua aupatzea, baserri mundu hori euskal herriaren arima eta ezaugarri jatorren biltokitzat hartzen baitzen.

Garaiko eta inguruneko seme izanik, Euskal Herriarekiko ikusmoldean ere, Lizardirentzat abertzaletasuna da ekintza politikokulturalak gidatu behar dituen jarrera. Bizipen honetatik sortua da Euskadiren berpizkundeari eta biziari buruzko poesia. Orduko jokabideen artean zorrotzenetarikoa bereganatuz, Lizardirentzat euskara da Euskal Herriaren ezaugarri bereizleena, jarduera euskaltzaleen ardatza; euskararen ikasketa, gaitzea eta erabilpena bultzatzen ditu. Esparru linguistikoan, euskara literario bateratuaren defendatzailea da; soziolinguistikoan, hizkuntza hedatzen eta kultura modernorako egokitzen saiatzen da; literatura arloan, libertatea eta pluralismoa eskatzen du. Eredu poetiko bakar bat ez, aldibereko aniztasuna, estilo desberdinen erabilera gomendatzen du. “Eusko bidaztiarena” eta “Gure mintzo” poemak dira jarrera eta helburu hauen oihartzun poetikorik zuzenenak.

3.5.2. Lizardiren poesia zuzen uler dadin, euskal poesiaren tradizioan eta bilakaeran ere kokatu behar da. Poetak, bere poesia gorenean, hots, *Bibotz-begietan*-en, ez du erabat hausten aurreko euskal poesiarekin, edukietan eta baliabideetan; baina ez dio orpoz orpo ere jarraitzen tradizioari. Heriotza-biziaren, izadiaren eta aberria-hizkuntzaren tratamenduan, aurreko poesiak erabilitako argudioak eta formak ere erabiltzen ditu; hala ere, baztertu egiten ditu, gaindituz, beste batzuk. Izadia, adibidez, ez du, jadanik, imajina eta sinboloen iturri soil gisa ikusten, ez eta gai nagusi baten ingurumari osagarri modura, aurreko poesiak egiten zuen bezala; orain, gai poetiko berezitzat hartzen du, poema bildumaren zati handi baten objektu gisa. Izadiarekiko Lizardiren poesia azpigenero tematiko berria gertatzen da euskal poesiaren tradizioaren barruan; azpigenero berri baten sorreratzat hartu behar da.

Harremanetan jarri beharra dago, era berean, gainerako serie poetikoekin, eta bereziki auzokoekin, hau da, espainiar eta frantsesarekin. Lizardiren poema batzuetarako iturri edo ahaidetasun zenbait proposatu izan dira: “Bultzi-leihotik” harremanetan jarri izan da Paul Verlaine, Juan Ramón Jiménez, Azorín eta Antonio Machadoren testuekin; “Bihotzean min dut” Gustavo Adolfo Bécquerren “Cerraron sus ojos” rima ezagunarekin; “Eusko bidaztiarena” Charles Baudelaire-ren “L’Invitation au Voyage” poemarekin; eta abar. Gogo-bihotzez, konposizioen gaiez eta tonuez, sintoniarik nabarmenena Antonio Machadoren *Soledades, galerías y otros poemas* (1907) eta *Campos de Castilla* (1912) bildumetako zenbait poemarekin sumatzen da.

Proposaturiko eraginak, iturriak edo ahaidetasunak, eta poetaren paperen artean aurkitutako eskutitz, liburu, apunte edo ikasketa-programak hala nola lekukoengandik jasotako testigantzak aztertu ondoren, honako hau baieztatu daiteke: “Zeru-azpia” eta “Eusko bidaztiarena”z aparte, ez da Lizardiren poemekin harreman garbi eta ziurra duen testurik aurkitu. Poetak berak ere, hain zehatza izanik bere lanetan, ez du honetaz erreferentzia argirik utzi, aipatutako bi poema horiei dagozkienak izan ezik. “Zeru-azpia”ren kasuan, Lizardik berak esaten du itzulpen libre bat dela, Besse de L. poetaren testu frantses batetik egina; testu hori “L’envers du ciel” da, eta poeta, inprobisatzaile iaio bat berez, Alfred Besse de Larzes, 1848an Marseillan jaioa. “Eusko bidaztiarena” Lizardik poemaren hasieran jartzen dituen aipu eta eskaintzaren bidez esplikatu daiteke. Lizardik Etxepare aipatzen du, *Euskara, jalgi hadi kanpora! / Euskara, babil mundu guztira!*, eta Unamunori eskaintzen dio, “gure ausardia gorriaz jabetu dadin”. Lizardik poema honetan egiten duena hauxe da: Etxeparek, orain laurhunetsu urte, euskarari, esparru mugatutik mundu zabalera irten zedin egindako gonbidapen hura garatzea. Poemaren baliabide nagusietariko bat, bidaia, Etxepareren bertsoen bidez uler daiteke.

Honekin ez da ukatzen zenbait azterlarik aipaturiko harremanak egiazkoak izateko aukera, baina datu gehiago beharko lirateke, harreman konkretu eta zehatz horiek bermatzeko.

Dena den, Lizardiren poemak ez dira ingurune literario eta soziokulturaletik isolatuta sortu. Poesia hori poetak egindako irakurketen eta ikasketen, eta izandako harremanen emaitza da; ezagutzen eta bizi zuen errealitateetik jaioa da. Eta, batez ere, Lizardiren gaitasunaren eta sentsibilitatearen, lanketa literario eta linguistikoaren ondorioa da. Poetak sakoneko eragin hauen araberrako molde poetiko pertsonala taxutu zuen.

3.5.3. Lizardiren poesiak gehiago du poesia klasikotzat hartzen edo ulertzen den eredutik, ez-klasikotzat hartzen den moldetik baino: tradizioa errespetatu, sentimendu-irudimen-pentsamenduaren arteko oreka gorde, perfektzioa bilatu, errealitate bikain eta koherentea jaso, eta okerra eta osatugabea konpontzen eta sublimatzen ahalegintzen da. Poetak jarrera argitsu eta kontzientea mantentzen du errealitatearekin; irudimenaren agerraldiak ez dira iradokizun aske edo kontrolagaitz bihurtzen; bulkada afektiboak modu neurritsuz konpontzen dira; ukitzen dituen gaiak larriak eta funtsezkoak dira gizakiarentzat, eta benetan, zentzuz, azaltzen ditu. Oro har, Lizardik ez du denbora-pasa edo alferrikako poesia, jolas edo teknika poetiko hutsa den poesia egiten; poesia aukeratu, dotore, trinkoa da berea. Ezaugarri klasikoak dira nagusi, beraz.

Hala ere, tradizioa errespetatu arren, ez da tradizionalista; orekatua, perfektziozalea izanagatik, ez da hotza, ez da gogoeta luzeetan murgiltzeko zalea; errealitateari atxikia bazaio ere, ez da konformista; bere errealismoa ez da errealismo arlotea, eta bere idealismoa ez da idilismoa. Lizardi ez da erabat tradizionala, ezta erabat puskatzailea ere. Tradiziotik hartutakoarekin eta berak erantsiriko baliabide eraberritzaileekin taxututako sintesi edo birsorkuntza da berea. Molde poetiko hau bereizi egiten da, jadanik, kualitatiboki, bertsolarien edo bertsolarien eta poeta landuen tartean ari diren sortzaileen eredutik eta jardunetik.

3.5.4. Ulerpenari dagokiolarik, Lizardiren poemek ez dute aparteko zailtasunik. Hala ere, zenbait gune edo segmentutan, lexiko aukeratuak, joskera bihurria eta elipsia batera gertatzen direnean bereziki, oztopoak ager dakizkioke irakurleari. Hala erritmo erregularraren elementuen erabilerak, nola erritmo horren hausketa-faktoreen txertaketak erakusten dute Lizardiren neurtitza, batik bat poema bildumarena, ez dela erraza, arrunta: ez da arinki idatzitako poesia, baizik eta xehetasunez zizelkatua, sintaktikoki zaindua, eta, beraz, irakurketa arretatsua eskatzen duena.

Poetak *Bihotz-begietan*-en lehenengo edizioan eskaini zuen gaztelaniazko itzulpenak, eta bigarreanean eta hirugarrenean azaldu ziren beste poema batzuenak erraztu egin dezakete ulerpena, eta zenbait zalantza eta puntu ilunetarako argibide izan. Gainerako olerkietarako ez dago honelako laguntzarik, eta korapiloak askatzea nekezagoa da.

Lizardiren poesiak, ezbairik gabe, balio adierazkor eta semantiko garrantzitsuak ditu; balio hauek dira poesia honen kalitatearen egiazko oinarria. Besteak beste: lexiko hautatu eta eraberritua, esanahi sinbolikoa, pertsonifikazio eraldatzailea, aberastasun metriko-fonikoa, lirismo sublimatzailea, izadiarekin bat-egite afektiboa, zehazki zizelkatutako bertso zati oroigarriak, hizkuntzaren erabilpen eliptikoa, bizinahi sutsua, “ni”aren benetakotasuna, poetizatutako izakiekin lorturiko elkarrizketa gozatsua, edo neurtitzaren sendotasuna, dotoretasuna eta trinkotasuna.

Poemak beren genero poetikoaren barruan ikusi, azaldu diren garaian kokatu eta aurretiko euskal poesiarekin alderatuz gero, ezaugarri horiek, eta beste batzuek, oraindik munta handiagoa hartzen dute. Balio hauek dira poesia lizardiarraren iraupena, iraupen erlatiboa, jakina, bermatzen dutenak.

4. Olerkien edizioak

Lizardiren poemak aldizkarietan modu soltez azaltzeaz gain, liburu gisa ere argitaratu izan dira.

Liburu moldean azaldutako lehenengo bilduma, poetak berak hogeita bat poema bilduz argitaratu zuena izan zen, hots, *Biotz-begietan. Olerkiak* 1932ko edizio originalean (Verdes Achirica), gaztelaniazko itzulpenaz hornitua (ikus hitzaurre honetako 1.3. atala). 1934an, poeta hil eta gero, hamalau poemako sorta publikatu zen, *Umezurtz olerkiak* (ikus 1.4. atala). *Bibotz-begietan* 1956an berrargitaratu zen (Itxaropena), lehenengo ediziotik lau poema kenduz, “Jaun errukiorra”, “Aldakeria”, “Izotz ondoko eguzki” eta “Gure mintzo”, eta *Umezurtz olerkiak* liburutik hartutako bi erantsiz, “Arrats gorri” eta “Etxeko kea”. Bilduma honen hirugarren edizioa 1970ean kaleratu zen (Itxaropena) eta, bertan, bigarrenean baztertutako lau poemak berreskuratu eta erantsitako biak mantentzeaz gain, “Euskal Pizkundera” agertu zen lehenengo aldiz. 1983an beste argitalpen bat publikatu zen (Erein), laugarrena: *Bibotz-begietan*-en 1932ko bilduma originala –gaztelaniazko itzulpenik gabea–, *Umezurtz olerkiak* sortan azaldutakoak eta “Euskal Pizkundera”, hau da, hogeita hamabost poema orotara.

1994an, bosgarren edizioa argitaratu zen (Euskal Editoreen Elkarte), ordura arte ezagutzen ziren berrogeita hamalau poemak bilduz, 1983koari artean liburu gisa jaso gabe zeudenak erantsiz, hau da, “Etxeko sagastia” olerkia eta *Euzko-Deya*-n eta *Euzkadi*-n agertutakoak (ikus 1.1. eta 1.2. atalak). Edizio honen prestaketan, lagungarri gertatu zen 1983an “Erein” argitaletxerako Juan Mari Lekuonak, Anjel Lertxundik eta Xabier Letek moldatua zuten argitalpena. Testuetako zenbait pasartetan abiapuntu argigarri gisa edo ikuspuntua kontrastatzeko baliagarria gertatu zen. Halaber, Patxi Altuna irakasleak argibideak eskaini zituen joskeran eta esanahian sortutako buruhaute batzuk konpontzeko.

1995ean (Egin Biblioteka), *Bibotz-begietan* poema bilduma publikatu zen, gaztelaniazko itzulpena barne. Lizardi jaio zeneko 125. urtemuga zela eta, 2021ean (Susa), Zarauzko Udalaren babesaz, *Bibotz-begietan* bilduma soila, euskara batura ekarria, berrargitaratu zen (ikus liburu honetako “Edizio egokituari sarrera”, 2. puntua).

Irakurleak begi aitzinean duen 2023ko edizio berri honek Lizardiren olerki guztiak biltzen ditu. Neurtitzak, ahal den neurrian, euskara batura egokituta datoz. (Ikus “Edizio egokituari sarrera”, osorik).

Karlos Otegi
Gasteizen, 1994ko udaberrian idatzia eta
Zarautzen, 2022ko neguan berrikusia

BIBLIOGRAFIA

I. Lizardiren olerkien edizioak

- LIZARDITAR X., 1932, *Biotz-begietan. Olerkiak*. Bilbo: Verdes Achirica.
- Agirretar Joseba Mirena, “LIZARDITAR Xabier”, 1934, *Umezurtz olerkiak*. Donostia: Euskaltzaleak.
- LIZARDITAR X., 1956, *Biotz-begietan. Olerkiak*. Donostia: Itxaropena.
- , 1970, *Biotz-begietan. Olerkiak*. Zarautz: Itxaropena.
- Xabier LIZARDI, 1983, *Olerkiak*. Donostia: Erein. [Edizioa: Juan Mari Lekuona, Anjel Lertxundi, Xabier Lete].
- Jose Maria Agirre, LIZARDI, 1994, *Olerkiak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte / Elhuyar (Klasikoak bilduma). [Edizioa: Karlos Otegi].
- , 1995, *Biotz-begietan*. Donostia: Egin Biblioteka.
- Xabier LIZARDI, 2021, *Bibotz-begietan*. Zarautz: Susa / Zarauzko Udala.

2. Lizardiren poemagintzari buruzko oinarrizko bibliografia

- ALDEKOA, Iñaki, 1989, “XIX-XX. mendeetako euskal poesia. Tradizioa eta eraberriketa”, *Jakin*, 52, 5-23.
- , 2008 [2004], “Errepublikara garaiko olerkari belaunaldia: Aitzol, Lauaxeta, Lizardi eta Orixe”, in *Euskal Literaturaren historia*. Donostia: Erein, 185-216.

- AULESTIA, Gorka, 1990, “Lizardi, poeta lírico y culto”, *Muga*, 72 (martxoa), 24-39.
- , 2011, “José M^a Agirre, “Xabier de Lizardi””, in *Escritores euskéricos contemporáneos*. Bilbo: Euskaltzaindia, 61-76.
- HARITSCHELHAR, Jean, 1981, “Biotz begietako Euskal Herria Lizardirengan”, in ZENBAITEN ARTEAN, *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 369-392.
- KORTAZAR, Jon, 1990, “Jose Maria Agirre, Lizardi”, in *Literatura Vasca: Siglo XX*. Donostia: Etor, 66-75.
- LETE, Xabier; Anjel ZELAIETA; Anjel LERTXUNDI, 1974, *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Arantzazu / Oñati: Jakin.
- MICHELENA, Luis, 1960, “Entre dos siglos. La poesía”, in *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro, 145-148.
- MUJICA, Luis Mari, 1979, “José María Aguirre, *Lizardi*, máxima voz de nuestra lírica”, in *Historia de la literatura euskérica*. Donostia: L. Haranburu, 362-379.
- , 1983, *Lizardi-ren lirika bideak, I-II*. Donostia: L. Haranburu.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste, 1996, “La poésie jusqu’à «Lizardi», «Lauaxeta» et «Orixe»”, in *Précis d’histoire littéraire basque, 1545-1950*. Baigorri: Izpegi, 259-280.
- OTAEGI, Lourdes, 1994, *Lizardiren poetika Pizkundearen ingurumariaren argitan*. Donostia: Erein.
- OTEGI LAKUNTZA, Karlos, 1993, *Lizardi. Lectura semiótica de “Biotz-begietan”*. Donostia: Anejos del *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*, XXXI.
- ZENBAITEN ARTEAN, 1983, “Lizardiren olertia” [hainbat artíkulu], *Jakin*, 29, 5-117.

- I -

BIHOTZ-BEGIETAN
baino lehenago argitaratu,
eta bertan jaso ez ziren olerkiak



Lizardik marraztutako irudia (1913)

Nire lehenengo maite-ibilketa

Hura aro alaia
ta axolagabe⁽¹⁾
hamabost urte
nitun* garaia!

Gizondu guraz,
bururatu zat*
andregaitxo bat
bilatutzea^{(2)*}.

Hiritik⁽³⁾ bertan
ohi zen, urtero,
erromeri* bat
ezin alaigo* ...

Joan* naiz, bada, apain,
ta ernai begia,
edozein neska
zoratzeko lain.

Halako pozkun^{(4)*}
osagarririk!...
Baina nik banun,
bai, zereginik!

⁽¹⁾ Jatorrizkoan: *ajolikabe*.

⁽²⁾ Jatorrizkoan: *billatutia*.

⁽³⁾ Jatorrizkoan: *Urittik*. Eskuizkribuan: *Erritik*. Olerkiaren jatorrizko bertsiio gisa *Euzko-Deya*-koa (1917) hartu da, hor baitzen argitaratu lehen aldiz. Olerkiaren eskuizkribua ere gorde da gureganaino iritsi diren Lizardiren paperen artean.

⁽⁴⁾ pozgune, poztasun.

Lagun-dei-hotsa
non-nahitik dantzut⁽⁵⁾.

Batzuek: —Agur!

Besteek: —Nora hoa?

Jaramon ezik,
darrait⁽⁶⁾ aurrera,
jakiz beteta
mahaien artetik;

ur gozoa⁽⁷⁾ hemen...,
han erroskilla...

Ni, ordea, ben-ben⁽⁸⁾,
andregai bila!

Aurkituko ez nun
etsi zorian,
neska bat dakust*
zuhaitz-itzalpian*...

Gelditu nintzen
eta aztertu nun:
matrail gorridun
neska ederra zen...

⁽⁵⁾ entzuten dut.

⁽⁶⁾ jarraitzen dut. “Jarraiki” aditzaren “darrait” adizkia, berez, “zaio” (hura niri) aditz motakoa da (jarraitzen zait). Hemen, “darrait” forma “jarraitu” aditzaren harira dago erabilia, objekturik edo “nor” osagarriarik gabeko “du” (nik) adizki motaren eredura.

⁽⁷⁾ “Ur gozo”: azukrez eta arrautzaren zuringoz egindako ore zuri, harro, belaki tankerakoa uretan sartu eta urtuz lortzen den ur gozatua. Oreari “boladu”, “lokotx”, “burutxa” edo “azukerrezau” izena eman ohi zaio.

⁽⁸⁾ serio-serio; bene-benetan.

Hura aukerako
 emaztea nitzat*!...
 Beste halako bat
 ahal nun idoro?...

Nire bihotzan*
 (bat-batez, noski)
 ugar bat, ezti,
 piztu zitzaidan.

Mingaina ikaraz
 ta aurpeian* lotsa,
 geldi-geldika,
 hurreratu naz*.

.....

—Matrail gorridun
 neska motz hori:
 nire ahotik* entzun
 hitz laburtxo bi.

—A zein loretxo
 bota didazun!...
 lotsarik ez dun
 mutil koskortxo!...

—Zelai-lilitxo
 lirain apaina...,
 gotzon antzeko⁽⁹⁾
 maitagarria!...

⁽⁹⁾ *Euzko-Deya*-ko bertsioan, *gotzon-antzedun* dator. Olerkiaren eskuizkribuan, berriz, *gotzon antzeko*, errimari eusten diona. Eskuizkribukoa lehenetsi da.

—Hauxe den mutil
barregarria!...

— ... Estutxo nabil
andregai bila...

—Ez, ba, larritu,
maitati hori, arren:
bila baituzu
andregai hemen!

Algara zegin^{(10)*}
hori esatean;
ni pozez, bainan*,
nengon*, ta atsegin.

.....

—Beraz, nirekin,
dantzara zatoz?...
—Izerdiz zagoz⁽¹¹⁾,
pixka bat itxoin...

.....

Ta barre zegin
nire mintzatzez...,
ta, noizean behin,
zain balego lez,
atzeko aldera
begiratzen zun.

.....

⁽¹⁰⁾ zegin, egiten zuen.

⁽¹¹⁾ zaude.

—Urrezko iledun
zoragarria,
nire loretxo,
nire kuttuna!...
—(Hauxen da lana!...
Ez da⁽¹²⁾ etorriko?...).

—Entzun, bada, entzun,
nire bildotsa...
—Ederki ari* zara:
jardun, bai, jardun.

—Ttunttuna hasi zan^{(13)*}:
dantzara goazen...
.....

Ta, halako baten,*
urruti antzean:
—Manttoni⁽¹⁴⁾, atoz ia*,
dantza gaitezen,
ttunttun joaldia
buka baino lehen!...
.....

⁽¹²⁾ *Euzko-Deya*-ko bertsoan *ote* dator eta olerkiaren eskuizkribuan, aldiz, *da*. Eskuizkribukoa lehenetsi da. Hasierako olerki hauetako ezohiko neurkeraz, hautatutako bertsoiak bertso-lerroa bost silabako neurriara makurtzera ahalbidetzen du “-a e-” bokalak silaba batean bilduz.

⁽¹³⁾ *Euzko-Deya*-n: *basi da*. Eskuizkribuan: *basi zan*, errimarako egokiagoa.

⁽¹⁴⁾ Mari Anttoni.

Begiratu zun
deia dantzurantz⁽¹⁵⁾,
ta esan dit: —Agur!
Dantzazera nua*.

—Nor da hori baino*?
(galde diot nik).

—Nor neu-bihotzeko^{(16)*}
jabea baizik!

Dantzaz nekatu
ta egarri izan da:
joan denean, zu
azaldu zara.

—Ta hain benaz⁽¹⁷⁾ esan...

Gezurti alen* bai!!
Zugan andregai
bila nuela^{(18)?}...

—Hori bai, noski!,
zeurea ez, baino;
mutiltzar sendo
horrena baizik!...

Agur, ba, gazte,
ta esker ugari...

—Inakaz⁽¹⁹⁾ niri?
Ez zaitut maite!!!

.....

⁽¹⁵⁾ entzu(te)n duen/zuen deiaren alderantz. Eskuizkribuan: *dantzurantz*. *Euzko-Deya*-n: *dantzunantz*.

⁽¹⁶⁾ neure bihotzeko.

⁽¹⁷⁾ benetan, zinez.

⁽¹⁸⁾ bilatu(a), aurkitu(a) nuela.


⁽¹⁹⁾ isekaz, trufaz, burlaz.

Ta algara zegin
 hori entzutean...
 Ta arin baino arin
 joan ziren dantzan!...

* * *

Hona hemen, bada,
 nire lehenengo
 zorigabeko
 maite-ibilketa.

1917ko epailaren 2a



"Nire lehenengo maite-ibilketa" olerkiaren eskuizkribua

NEURRIA eta ERRIMA:

5a / 5b / 5b / 5a eta 5a / 5b / 5a / 5b (txandatze askez). Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

nitun: nituen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bost silabako bertso-lerroari. Gauza bera, 5., 9., 10., 11., 15., 22. eta 27. estrofetako adizkiak (*nun, dun, zun*: nuen, duen, zuen) egokituz gero. Gainera, gehienetan, estrofako errima hautsiko litzateke]. *zat*: zait. [Egokitzapenaz, “zat : bat” errima hautsiko litzateke]. *bilatutzea*: bilatzea. [-1: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *erromeri*: erromeria. [+1]. *alaigo*: alaiago. [+1]. *Joan*. [Jatorrizko *Juan* silaba bakarrekoa denez, *Joan* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ebaki behar da. Orobat, “-oa-” multzoa silaba batez neurtu eta ahoskatu behar da 6., 25., 29. eta 33. estrofitan agertzen diren adizkiotan: *ua* > *hoa*, *guazen* > *goazen*, *juan* > *joan*, *juan* > *joan*]. *pozkun*: pozgune. [+1; “pozkun : bainun” errima hautsiko litzateke]. *dakust*: dakusat. [+1]. *zuhaitz-itzalpian*: zuhaitz-itzalpean. [“Zuhaitz” ala “-pian” bukaera silaba bakar batez neurtu eta ebaki behar da. “Itzalpean” egokitzapenaz, “zorian : itzalpian” errima hautsiko litzateke]. *emaztea nitzat*: emaztea niretzat. [Jatorrizko *emazia* hiru silabakoa denez, *emaztea* egokitzapena ere hiru silabaz neurtu eta ebaki behar da. “Niretzat”: +1]. *bibotzan*: bihotzean [+1]. *aurpeian*: aurpegian. [+1]. *naz*: naiz. [“ikaraz : naz” errima hautsiko litzateke].

abotik. [Jatorrizko *autik* bi silabakoa denez, *abotik* egokitzapena ere bi silabaz neurtu eta ebaki behar da]. *zegin*: zegien. [+1; “zegin : atsegin” errima hautsiko litzateke. Orobat 21. eta 33. ahapaldietan]. *bainan*: baina. [“esatean : bainan” errima hautsiko litzateke]. *nengon*: nengoen. [+1].

ari. [Jatorrizko *ai* silaba bakarrekoa denez, *ari* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ahoskatu behar da]. *zan*: zen. [“zan : antzean” errima hautsiko litzateke]. *baten*: batean. [+1; “goazen : baten” errima hautsiko litzateke]. *Manttoni, atoz ia*: Manttoni, zatoz ea. [Batetik, “-i a-” bokalen lotura posiblea oztopatu, eta, bestetik, “ia : joaldia” errima hautsiko litzateke]. *nua*: noa. [“dantzurantz : nua” errima hautsiko litzateke]. *baino*: baina. [“baino : bihotzeko” errima hautsiko litzateke. Hiru estrofa aurrerago ere, errima hautsiko litzateke]. *bibotzeko*. [Bertso-lerroaren neurriak hiru silabaz neurtzea eta ebakitzea eskatzen du]. *alen*: alaien. [+1].

Eusko mendia

Lehen arranoak bizi ziraden*
zure harkaitz gogor arteetan⁽¹⁾,
gau eta egunez, begi zoliaz⁽²⁾,
Eusko Aberria zainketan. . .

Arrotz-gudoste⁽³⁾*-burdin distira
urrun-ibarran sortzean,
Euskal Herriko gaztigu-deia⁽⁴⁾
arrano-oihua ohi omen zan*.

Ta agure, gazte, eme eta ume,
hots hori entzunik, batian*,
zure harkaitzetan, Aberriarren⁽⁵⁾,
garaiezinak ei ziran*! . . .

Ta arranoekin elkartzen ziren,
berok be⁽⁶⁾* arrano baitziren. . . ,
erromatarren arrano⁽⁷⁾ gainez
eusko arranoa hega baitzen! . . .

* * *

⁽¹⁾ harkaitz gogorren tarteetan, hots, haitzarteetan.

⁽²⁾ zorrotzaz, argiaz.

⁽³⁾ gudaroste(aren), gudari taldeen multzo(aren).

⁽⁴⁾ abisu-deia.

⁽⁵⁾ Aberriarengatik, Aberriaren alde.

⁽⁶⁾ bere, ere.

⁽⁷⁾ "Arrano": hegaztiak gain, erromatar legioen ezaugarri edo entseina, arrano irudikoa. Hedadurazko adieraz: erromatar legioak.

Gaur, zure haitzetan, arrano-oihuak
isildu ziren osoro...

Bele zitalak, zure gain-jabe,
hega ta krazka⁽⁸⁾ dagi harro...

Berdin arrotzak, bele idurian,
gure gain dabiltz* txit ernai,
Euskal Herria hilotz ustela
noiz bihurtuko denik zai*!

Eusko belarriak gortu dira...
Mendi-arranoa aldendu zan*...
Banakaturik gabiltz euskoak*,
batuta egon beharrean!...

* * *

Mendi-isurkiko⁽⁹⁾ errekatxoak
tamal⁽¹⁰⁾ horren berri ez daki;
ta lore-janzkiz, jaiio berria,
beherantz dihoa*, lasterki...

Mendi-garaiko zuhaizpe-gerizak
estaltzen duen iturri bat,
euskara garbiz abes dagina^{(11)*},
du errekatxoak amatzat...

Ta, hala doala, loreei musuka,
hemen iheska ta hor jolasti,
amagandikan* ikasitako
eusko hots gozoaz dabeski⁽¹²⁾...

⁽⁸⁾ karranka (beleen oihua).

⁽⁹⁾ "Isurki": isurialdea, mendi aurpegia; mendian behera ura jaisten den aldapa.

⁽¹⁰⁾ nahigabe, zorigaitz.

⁽¹¹⁾ abes dagiena, abestu egiten duena.

⁽¹²⁾ dabesa, abesten du.

Baina, bat-batez, zelaira helduta,
bertan lotu⁽¹³⁾ da, geldurik⁽¹⁴⁾,
berak ulertzen ez ditun* hitzak
eusko ezpainetan entzunik...

“Ai!... Ahal banuke* ezina dena...
Gorantz ihesi ahal banuke!...
Nire ur garbiak ahal banituzke
maite-iturrian berriz gorde!...”

Ta, horixe esanda, goiko lainoaz
bere ur argia geriztu^{(15)*} du...
Ta, isil-isilik, ikaraz doa,
zorion-oroiaz⁽¹⁶⁾ negartsu...

Hiritik⁽¹⁷⁾ zehar sartu da gero,
hortik lohituta⁽¹⁸⁾ aldendu da...
Ta atsedean guraz, azkenik, dario
itsasoan bere malkotza⁽¹⁹⁾.

Itsasoak, berriz, uhintzar⁽²⁰⁾ astunaz,
zigorka dihardu, izugarki*,
asabeakaz⁽²¹⁾ ahaztuta dagon
herri errukigarriari...

* * *

⁽¹³⁾ gelditu, geratu.

⁽¹⁴⁾ harriturik, zurturik.

⁽¹⁵⁾ gerizatu, babestu, gorde.

⁽¹⁶⁾ oroipenaz, gomutaz.

⁽¹⁷⁾ Jatorrizkoan: *Urittik*.

⁽¹⁸⁾ zikinduta.

⁽¹⁹⁾ malko ugaria.

⁽²⁰⁾ olatu gaitz, izugarri.

⁽²¹⁾ asabekin, arbasoekin.

Eusko mendian, hori ikusita,
olerkariak negar dagi...
Baina, bat-batez, bihotz ikaraz,
jaiki da, arrano hotsa entzunik!

“Euskadi duzu zure Aberria:
esna zaitez, ba, Euskal Herri...
Ta elkaturikan*, iaz⁽²²⁾ bezala,
ekin zaiozu* arrotzari!”.

Zutik mendian, ero-poz-garraz,
olerkariak be hots egin du!...
Oihartzun hotsak, gain guztietan,
erantzun dio, argi-sutsu...

Ta, beheko ibarra begiaz jorik,
horko zarata ulertzen du...
Lotan zegoen Euskal Herriak
bere logura astindu du!

⁽²²⁾ lehen, antzina.

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 8a / 10 / 8a. Hamar silabakoak, bat izan ezik (7. estrofan), zehazkiago: 5+5. Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoaren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

ziraden: ziren. [-1: egokitzapenaz, hamar silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke].
gudoste: gudaroste. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako neurtitzari].
zan: zen. [Egokitzapenaz, “sortzean : zan” errima hautsiko litzateke]. *batian* (...) *ziran*:
 batean (...) ziren. [“batian : ziran” errima hautsiko litzateke]. *be*: bere. [+1; orobat azken-
 bigarren ahapaldian].

dabiltz: dabiltza. [+1]. *zai*: zain. [“ernai : zai” errima hautsiko litzateke]. *zan*: zen. [“zan :
 beharrea” errima hautsiko litzateke]. *Banakaturik gabiltz euskoak*: banaturik gabiltza euskoak.
 [Egokitzapenak bertso-lerroaren neurriari eutsiko lioke, baina hautsi egingo litzateke (4+6)
 poema osoan zehar nagusi den hamar silabakoen etena (5+5). Beste horrenbeste, aurrerago,
 “*asabeakaz abaztuta dagon*: asabakaz ahaztuta dagoen” egokitzapena gauzatuz gero.

diboa: doa. [-1]. *dagina*: dagiena. [+1]. *amagandikan*: amagandik. [-1]. *ditun*: dituen. [+1].
banuke: banu. [-1; orobat hurrengo bi lerroetan: banu, banitu. Estrofako errima ere hautsi
 egingo litzateke]. *geriztu*: gerizatu. [+1]. *izugarki*: izugarriki. [+1].

elkarturikan: elkaturik. [-1]. *zaiozu*: iezaiozu. [+2].

Zelai urdina

Joseba Erraztiri⁽¹⁾

Mendi-goitxo batean,
izerdiz, itzalpe bilaka ibili ta gero,
haize hotzantzaren⁽²⁾ musu osasungarria aurpegian,
eserita nago.

Nire begi-aurrean
dagerren⁽³⁾ edertasuna! Jainkoaren ahalmena!...
Mugageko* zelai bare gelgarri⁽⁴⁾ urdin berdina!
Itsasto⁽⁵⁾ zabala!...

Hemendik ikusita,
lehorra bezain gelditun⁽⁶⁾ ta egonkor dirudizu:
ta, margo argitsuagoaz, lehorreko ibaiei be*
antzematen diezu^{(7)*}.

Zelai amaige* urdina:
zeuk ere ba ote dituzu nekazariak?...
Baitakust^{(8)*} zure gain laua izontzitzoz⁽⁹⁾ beteta...
Berok bai txikerrak⁽¹⁰⁾!

⁽¹⁾ Joseba Maria Erraztiri: 1916tik 1923ra arte, Bilbon, *Euzko-Deya* hamaboskaria argitaratu zuen Euskeltzale-Bazkuna-ko kidea. 1921ean EAJ/PNVn gertatutako zatiketaren ondoren sortutako Aberri alderdiari atxikirik, BBBko idazkaria eta Bilboko Eusko Gaztedi/Juventud Vasca-ko bokala izan zen.

⁽²⁾ hozkirriaren, freskoaren.

⁽³⁾ agertzen den; ageri den.

⁽⁴⁾ miragarri, ikusgarri.

⁽⁵⁾ Itsaso handi, ozeano.

⁽⁶⁾ mugimendurik, higidurarik gabeko.

⁽⁷⁾ *margo (...)* *diezu*: hau da, lehorreko ibaiei ere, itsasoratzen diren lekuetan (bokaleetan), margo argitsuagoaz nabaritzen, bereizten, igartzen dituzu. (?)

⁽⁸⁾ Ikusten baitut.

⁽⁹⁾ itsasontzitzoz.

⁽¹⁰⁾ txikiak; ñimiñoak, txikitxoak.

Jostailu irrigarriak,
 itsas amaigabeen iltzez josita letxe^{(11)*!}!...
 Goiaz elkar jotzen dun* ibar amesgarrian⁽¹²⁾
 zerbait ba al zarete?...

“Gure txikitasuna!...”,
 ikuskizun hori dela-ta oldoztilun⁽¹³⁾ diot...
 Ta nik, neure burua goitxo hontan* dakusdalako⁽¹⁴⁾,
 hala baderitzot,

Goi-goikoaren⁽¹⁵⁾ aurrean
 gizonak, nahiz goienak⁽¹⁶⁾ be, zertzuk ote gara?...

Argia, hiltzen, urre-hil-janzkiz, sartalderantz baitoa⁽¹⁷⁾...
 Beherako garaia.

Kai ondotik noala,
 bateltxo bat dator zapia zabal-zabalik...
 Berton datorren itsastar⁽¹⁸⁾ bizkar-sendo bakarrak
 hau dio abesturik:

“Ni naiz, ni naiz,
 zelai urdin, zure nekazaria!...
 Ni naiz, ni naiz

⁽¹¹⁾ legetxe, bezalaxe.

⁽¹²⁾ *Goiaz (...)* amesgarrian: Zeruertzean, horizontean goiarekin, zeruarekin elkar jotzen duen ibar amesgarrian, itsasoan, alegia.

⁽¹³⁾ gogoeta ilunetan, goibeletan murgilduta.

⁽¹⁴⁾ ikusten dudalako.

⁽¹⁵⁾ Jaungoikoaren.

⁽¹⁶⁾ bikainenak, nabarmenak, nagusiak.

⁽¹⁷⁾ *Argia (...)* baitoa: Egunaren, eguzkiaren argia sartalderantz, sartaldean hiltzera doalarik, urre koloreko bihurtzen da, urrezko hil-janzkiz ageri da.

⁽¹⁸⁾ itsasgizon; hemen, arrantzale.

Jaungoikoari eskerrik degiodana⁽¹⁹⁾;
zelai urdinaren emaitza ugariak
maiteki eskuratu dizkidanari...

Ni naiz, ni naiz
zabal urdin hauetan nekazari...
Hamaika nekien* saritzat, nire
emazte eta seme-alabatxok* ez dira
izango gose...

.....

Ni naiz, ni naiz
zelai urdineko nekazaria!...
Goiko Jaun onari esker eta aintza!"

.....

Oi, ni naizen zoroa!...
Zure kaltez oldozka⁽²⁰⁾ goiko abaro atseginan*
nengoenaren aldean⁽²¹⁾, neke larriz zenbiltzanoi^{(22)*}
handiagoa zinan*!...

Handiagoa bai, zinez,
Jaungoikoaren begietan, neu gertuago egonik⁽²³⁾,
itsas-zelai urdineko nekazari kementsu
beldurgabeko hori...

⁽¹⁹⁾ egiten, ematen diodana.

⁽²⁰⁾ gogoetaka; gogoeta, pentsaketa eginez.

⁽²¹⁾ *Zure (...)* aldean: Zure (aipaturiko itsastarraren) kaltez gogoetan, pentsakizunetan goiko babesgune atsegin honetan nengoenaren aldean, hots, nire aldean, nirekin alderatuta.

⁽²²⁾ zenbiltzan itsastar hori.

⁽²³⁾ neu Jaungoikoarengandik hurbilago egonik ere (aurreko gogoetak egiterakoan, zerutik hurbilago dagoen mendi-goitxo batean, goiko abaro atseginan, bainengoen).

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 14A / 15 (?) / 6a eta, tartean, 4 eta 11 silabako lerroen multzoa. Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoaren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

Mugageko: mugagabeko. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamabost silabako (?) bertso-lerroari. *be*: bere. [+1; orobat lau ahapaldi aurrerago]. *diezu*. [Jatorrizkoan *antz-emateiezu* denez, sei silabakoa, *diezu* egokitzapena bi silabaz neurtu eta ebaki behar da]. *amaige*: amaigabe. [+1]. *Baitakust*: Baitakusat. [+1; orobat, bi ahapaldi aurrerago, *dakusadalako*: dakusadalako]. *itsas (...)* *letxe*: itsaso (...) legetxe. [+2: bi egokitzapenok silaba bana erantsiko liokete hamalau silabako neurtitzari]. *dun*: duen. [+1]. *bontan*: honetan. [+1].

nekien: nekeen. [-1: egokitzapenez, hamaika silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *alabatxok*: alabatxoak. [+1]. *atseginan*: atseginan. [+1; “atseginan : zinan” errima hautsiko litzateke]. *zenbiltzanoi*: zenbiltzan hori. [+1]. *zinar*: zinen. [“atseginan : zinan” errima hautsiko litzateke].

Habiatxo⁽¹⁾

I

Oihanean Udaberria⁽²⁾

Oi, zu zaren zoragarria, Udaberri hori,
hosto berriz jantziriko zuhaizti-gerrion⁽³⁾!...
Eguzki itzul berriaren* musuaz dirudi
oihana, atsegin-ikaraz, barrez ote dagon*...

Beroni⁽⁴⁾ daragiozun abarrots⁽⁵⁾ biguna
eresintsua⁽⁶⁾ da, hotsa ia-ia be* izan ezik⁽⁷⁾...
Egunez, izarrak ager baleude bezala,
oskarbia dakust*, orridiak xehaturik⁽⁸⁾...

Ta, aintzira balitz lez zuhaizpeko lorekia,
argi-jarioak, eguzki-hauts urretsuaz,
sorturiko begi zoli geldiezinakaz⁽⁹⁾
antzartuta⁽¹⁰⁾, berton dabil⁽¹¹⁾ izarron islea*...

⁽¹⁾ Eskuizkribuetan: *Kabitxu*. Olerki honen bi eskuizkribu gorde dira: bata, olerkariaren zuzenketez eta oharrez moldatua; bestea, garbira ipinia. Lehenengo eskuizkribuan ageri den data (1917-09-7/8a) kontuan izanik, “Zelai urdina” (1917-07-01) konposizioaren ondoren jarri da hemen.

⁽²⁾ Irakurleak aise atzemango duenez, neurtitz hauetan, geroago “Neskatxa urdin-jantzia” olerkian garatu eta bikainduko diren irudiak, motiboak, eta ametsezko edo lilurazko giroa sumatzen dira: *Udaberri hori, hosto berriz jantziriko, Eguzki itzul berria, orridiak xehaturik, izarron islea, begi zoli...*

⁽³⁾ arboladiaren barru honetan, zuhaitzez landatutako espazioaren erdigune honetan. Eskuizkribuetan: *barruon*.

⁽⁴⁾ Hots, oihanari.

⁽⁵⁾ eragiten, aterarazten diozun harrabots, soinu burrunbatsu.

⁽⁶⁾ melodiatsua, doinuz atsegintsua.

⁽⁷⁾ izan gabe. Hau da; hain da biguna, leuna, ezen kasik, ia-ia ere, ez baita hots izatera heltzen.

⁽⁸⁾ *Egunez (...)* xehaturik: Egun-argiz izanda ere, hostailan zehar oskarbia ikusten dut, hostailak xehatua, hosto piloak zatikatua, zatiok izarrak balira bezala, agerturik baleude bezala.

⁽⁹⁾ geldiezinekin.

⁽¹⁰⁾ antza hartuta, antzeratuta.

⁽¹¹⁾ Eskuizkribuetako batean: *dakust*.

Ta, hau gutxi balitz lez inori* zorarazteko,
 horra zelan ingumatxo⁽¹²⁾ zuri bat datorren,
 niganantz, lorerik lore⁽¹³⁾, emeki ta astiro,
 oroi laztana gogora ohi den bezalaxen*...

Zu zaren, bai, maitagarria, Udaberri hori!...
 Zuhaizti-gerrian, egun-distiraz jantzita,
 jostatzen bila zaitudan neska geltsu hori⁽¹⁴⁾...
 nork, egokiz, esan zu zaren zoragarria?...

II

Habia

Hori nion nik
 zure edertasuna, huts barik⁽¹⁵⁾,
 gorald⁽¹⁶⁾ nuelakoan.
 Bat-batez, baina,
 txori-abes-hotsak basoko isila,
 zuhaitz muturrean, nire gainean,
 deten⁽¹⁷⁾, alairo*...

⁽¹²⁾ tximirrikatxo, tximeletatxo.

⁽¹³⁾ Eskuizkribuetan: *lozez lore, lorerik lozez, lilirik lili*.

⁽¹⁴⁾ neska harrigarri, miresgarri, misteriotsu hori. Jatorrizkoan *jostakatzen billa zautan*, zortzi silabakoa. Egokitzapena ere zortzi silabakoa da.

⁽¹⁵⁾ huts gaberik. Eskuizkribuetan: *usparik*.

⁽¹⁶⁾ goratu.

⁽¹⁷⁾ ete(te)n du. Eskuizkribuetako batean: *autsi du*.

“Oi, nire gurari⁽¹⁸⁾ bizi-bizia...,
 eguneroko jorana⁽¹⁹⁾!...
 Argi-begian⁽²⁰⁾,
 txiruliruka,
 esnatuko nauen kardantxiloa⁽²¹⁾,
 ohetik hurbil, keretatxoan⁽²²⁾,
 leiho zabalean, edukitzea!...”.

Arduraz gorantza* begiz jo nuan*...
 Eguzki izpi batek, nekez,
 erdi izkutuan^{(23)*},
 habitxo* txiker bat agertu zidan...
 Aita abesten dago, bihotz-bihotzez;
 ama jakia
 habian laurdenbanatzen⁽²⁴⁾ darila⁽²⁵⁾...

Igo naiz arin ...
 Ha⁽²⁶⁾ baino politagorikan* ezin!
 Habian zeuden
 lau kumetxoak, elkarren
 aldamenean,
 geldi-geldirik,
 lepotxoak hautsi zorian⁽²⁷⁾,
 ahoa* zabalik...

⁽¹⁸⁾ gura, nahia, gutizia.

⁽¹⁹⁾ nahi bizia, irrika.

⁽²⁰⁾ Argiaren begian, hots, egunsentian, argi urratzean.

⁽²¹⁾ karnaba.

⁽²²⁾ “Kereta”: kanaberak edo kidekoak bilbatuz, josiz, egiten den hesi edo kaiola modukoa. Eskuizkribuetako batean: *kayolatxuban*.

⁽²³⁾ Eskuizkribuetako batean: *doi aqeriyān*.

⁽²⁴⁾ jakia lau zatitan banatzen.

⁽²⁵⁾ ari da. (?)

⁽²⁶⁾ Hura.

⁽²⁷⁾ Eskuizkribuetako batean: *eten-zoriyan*.

Luzatu nuen besoa...
 Guraso gaixoen oihu samina!...
 Izu-dardarez*,
 errukiz baino, beldurrez,
 Ortziren ahakarra⁽²⁸⁾ adi nulakoan*,
 eskua, bat-batez, gelditu nuan*...
 Zein alderdi hartu?... Nola antolatu?
 Etxetik keretatxo⁽²⁹⁾ bat ekarri,
 habia, zegon* lez, keretan sartu,
 ta bertan guztia zintzilika utzi...
 Harrezkeroztik,
 egunero joaten* nintzen basora...
 Burdin tartetik,
 –guraso-maitetasuna*!–
 elikatzen ziren umeak, iaio⁽³⁰⁾,
 aske baleude bezala...
 Gerotxoago,
 hamar-hamabosten bat egun buru,
 izango nuen nork alaiki itzartu⁽³¹⁾.

1917ko irailaren 7/8a

⁽²⁸⁾ errieta, agiraka.

⁽²⁹⁾ Eskuizkribuetako batean: *kayolatxo*.

⁽³⁰⁾ iaioki, trebeki.

⁽³¹⁾ (ni) iratzarri, esnatu.


I. NEURRIA eta ERRIMA:

14A / 14B / 14A / 14B.

14A / 14B / 14B / 14A.

EGOKITU GABEAK:

itzul berriaren: itzuli berriaren. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamalau silabako bertso-lerroari]. *dagon*: dagoen. [+1; “gerrion : dagon” errima hautsiko litzateke]. *be*: bere. [+1]. *dakust*: dakusat. [+1]. *islea*: isla. [-1: egokitzapenaz, hamalau silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *inori*: inor. [-1]. *bezalaxen*: bezalaxe. [Egokitzapenaz, “datorren : bezalaxen” errima hautsiko litzateke].



II
Kabiya

Ori niyon nik,
 zure edertasuna, uspanik,
 goraidu nubalakuan;
 Gat. batex, baño,
 txoni- abes- otjak baroko ixila,
 xupatz- muturian, nere gaitian,
 deten, alairo...
 — «Oi, nere purari bixi- biziya...,
 egunoroko yorana!..
 Arpi- bepiyan,
 txiruliruka,
 esnatuko naban kardintxulua,
 oyetik urbil, geretatxuban,
 leyo zabaluan, idukitzia!..»
 Arduraz goruntza bepi- jo nuban...
 Epuxki- izpi batek, nekek,
 erdi- iskuluban, (¿?)
 Kabitxu txikat bat aperitu zidan...
 Aita abesten daqo, biyotz- biyotex,
 ama, jakiya
 Kabiyan laurdenbanatzen darila...
 Joo naiz arin...
 A baño politaporikan exin!
 Kabiyan zeuden
 lau kumetxubak, alkaren
 aldamenian,
 geld- geldirik,
 Tepotxuba autri- xoriyan,
 aba zabalik...
 Luzatu nuban besua...
 Guraso qaxuen oya samina!..
 Izu- dardarex,
 erukiz baño, bildurax,
 Urzi' ren akara adi nulakuan,
 eskuba, bat- batex, geldifu nuban...
 X Zein alderdi artu?... Nola antolatatu!
 Etxetik geretatxo bat ekari,
 kabiya, zagon lex, geresan sartu,
 ta bertan quziya zintzika utzi...
 Aretxkerotzi k
 egunero juten nintzan basora...
 Burni- kaltetik,
 — guraso- matelasuna! —
 alikatzen ziran umiak, yayo,
 azke ba' leude bezela...
 Gerotxubago,
 amar- amabosten bat egun buru,
 izango nuban nork alaiki izartu.

“Habiato” olerkiaren eskuizkribu bat

II. NEURRIA eta ERRIMA:

5, 8 eta 11 silabako neurrien konbinatze aldakorra. Neurtitzen bukaera hoskide zenbait, antolaketa finkorik gabe.

Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoaren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

alairo: alaikiro. [+1]. *gorantza*: gorantz. [-1]. *nuan*: nuen. [“nuan / ezkutuan / zidan” hoskidetasuna murriztuko litzateke]. *erdi izkutuan*: erdi ezkutuan. [+1: egokitzapenak sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke bost silabako neurtitzari]. *habitxo*: habiatxo. [+1]. *politagorikan*: politagorik. [-1]. *aboa*. [Jatorrizkoan *aua/aba* denez, bi silabakoa, *aboa* egokitzapena ere bi silabatan neurtu eta ahoskatu behar da]. *dardarez*: dardaraz. [“dardarez : beldurrez” errima hautsiko litzateke]. *nulakoan*: nulakoan. [+1]. *nuan*: nuen. [“nulakoan / nuan” hoskidetasuna hautsiko litzateke]. *zegovn*: zegoen. [+1]. *joaten*. [Jatorrizkoan *juten* denez, bi silabakoa, *joaten* egokitzapena ere bi silabaz neurtu eta ebaki behar da]. *maitetasuna*: maitasuna. [-1].

Nire maiteak ditu –edo– “Axeria dantzan...”⁽¹⁾

Nire maiteak ditu
 begiak orlegi...
 Nigua bihotzan*, begietan udaberri...

Euskadiko zelai ta
 basoen argiak
 margotu ei⁽²⁾ dizkio berari begiak...

Nire maiteak ditu
 mehe-meheak ezpainak,
 euskaraz mintzatzeko bakarrik eginak.

Ez zadazue* eskatu,
 arren, hortzen berri,
 ez baitizkit hozkirri bidez⁽³⁾ erakutsi.

Nire maiteak ditu
 beste lau maitale,
 ta ni baino gehiago edozein du maite!

* * *

Zenbat maite zaitudan
 inoiz esan dizut?
 Kanpandoja⁽⁴⁾ ximela baino nahiago zaut*!...

⁽¹⁾ “Nire hirian esaten da hori eguzkiak bat euri zaparrada denean” [Egilearen oharra]. “Azeri(en) ezteia”, “azeri(en) ezkontza”, “azeri(en) bataioa” ere esan ohi da.

⁽²⁾ omen.

⁽³⁾ hotzikararen bidez; hotzikara sentitzean, ahoa irekiak batera, hortzak estutu eta erakusteko egin ohi den imintzioaren bidez.

⁽⁴⁾ “Kanpandoja”: errege-sagar espezieko sagar mota bat. Testuinguru honetan, eta *ximela* adjektiboaz ñabartua datorrenez, seguru asko, kolore hori-berdea (arrez tantotua), azal fin, gogor eta latza, eta zapore gazi-gozoa duen mota da.

Baina, zuk niretzako*
ez duzunez gero
behazuna ta ozpin garratz-mina baino,
nire malkoak arren
ez bainauzu maite...
negarra beharrean egin* dezadan barre!

* * *

Nire maiteak ditu
begiak orlegi...
Bigun balitzaizkit, bizia udaberri!

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 13A. Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoaren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

bihotzan: bihotzean. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamahiru silabako bertso-lerroari]. *zadazue*: iezadazue. [+2]. *zaut*: zaitut. [+1]. *niretzako*: niretzat. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *egin*. [Jatorrizkoan *ein* denez, silaba batekoa, *egin* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ahoskatu behar da].

Maitasunaren hileta

Maitetasun* gaixoa...
 Inoiz nik neskaxa bati
 eskainitako bakarra!...
 Jaioberriari,
 amaren bularra⁽¹⁾,
 bidekatuari*,
 nekez hiltzer* zela⁽²⁾ aurkitutako
 abaraska⁽³⁾ bera baino
 gozoago izan zinidan⁽⁴⁾ ametsa...
 Hil zinen, gaixoa!

 Hil, bai... Baina hilotza*
 –hobitzat bihotza–
 nigan dirau oraindik⁽⁵⁾,
 lurrintsu-ustelgaitza...

 Nire maitetasun-hilotz gaixoa...
 Inoiz behin oroipen⁽⁶⁾ maitetsu baten indarrak,
 –noizbait Josuren deiak bezala⁽⁷⁾–
 hobi-harria jaso ohi dik...
 Ordun* dariok hik⁽⁸⁾,

⁽¹⁾ Jaioberriari amaren titia (baino gozoago izan zintzaizkidan ametsa).

⁽²⁾ *bidekatuari* (...) *zela*: bidegabetuari, bidea galdu zuenari, nekaduraz hiltzear, hilzorian zelarik.

⁽³⁾ “Abaraska”: ezti orraza, hots, erleek ezta gordetzeko erlauntzaren barruan argizariz egiten dituzten zulo txiki hexagonalen multzoa.

⁽⁴⁾ zenidan: “zintzaizkidan” forma beharko luke.

⁽⁵⁾ *Baina* (...) *oraindik*: baina hilotzak, gorputz hilak, hots, maitasunaren gorputz hilak, hobitzat bihotza duenak, bihotzean hilobiratuta dagoenak, nigan dirau oraindik.

⁽⁶⁾ Jatorrizkoan: *oroikun*.

⁽⁷⁾ San Joanen Ebanjelioan jasotzen denez, hartzuloko harlauza kenarazi ondoren, “Lazaro, atera zaitez kanpora!” oihu eginez biztu zuen Jesusek lau egunez hilobiraturik zegoen gizona.

⁽⁸⁾ jariatzen duk, isurtzen duk. “Jario” aditzaren “dariok” adizkia, hemen, “du” (hik hura) aditz motaren eradura dago erabilia. “Zaio” (hura hiri) aditz motaren arabera: darik hiri.

bularraren zabalean, atxon⁽⁹⁾ zoragarria!...
Ordun ikusten haut nire maitasun-hilotza,
garbi-eder-ustelgaitza!...
Betiko horrela banengo,
ene-enetxoa⁽¹⁰⁾!...
Ez balitz inoiz hobia itxiko!...

.....

Bart, maite izan nuena
dut, ametsetan, ikusi...
ta amets honek hobi-harria
jaso dit...
Geldi!, geldi!, neure buru hau!,
ez dadin gehiago jausi!,
hildako maitasunaren oroiaz
hobe baiteritzot buru honi⁽¹¹⁾!...

Betiko horrela banengo,
ene-enetxoa!...
Ez balitz inoiz hobia itxiko!...

Agudo, ordea,
jausiko da harria, ta ilun itunak,
eguneroko ilunak,
nigan bere hego itzalkorrek zabalduko ditu...

Nire maitetasun-hilotz gaixoa...
abal babinduket⁽¹²⁾ nik berpiztu!*

⁽⁹⁾ urrin, usain on; (haize on).

⁽¹⁰⁾ laztan-lasztana, maite-maitea.

⁽¹¹⁾ ez (...) honi: ez dadila hobi-harria erori!, hildako maitasunaren oroipenarekin hobe irizten baitiot neure buru honi, hobeto ikusten, aurkitzen baitut neure buru hau.

⁽¹²⁾ ahal (izango) bahindut (hikako neutroa, nik hi). Zuka: bazintut.

NEURRIA eta ERRIMA:

Neurri askotariko bertso-lerroen segida: 3, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 14 silabakoak (?). Neurtitzen bukaera hoskide zenbait, antolaketa finkorik gabe. Lehenengo sei olerkien neurkera berezi edo ezohikoaren azalpenerako, ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurreko 3.4.3.1) atala.

EGOKITU GABEAK:

Maitetasun: Maitasun. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Silaba bateko galera, orobat, aurreragoko hamaika silabako beste bi neurtitzetan]. *bidekatuari*: bidegabetuari. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *hiltzer*: hiltzear. [+1]. *hilotza*: hilotzak. [Egokitzapenaz, “hilotza / bihotza / ustelgaitza” hoskidetasuna murriztuko litzateke. Lizentzia poetikoa, agian]. *Ordun*: Orduan. [+1]; orobat bi lerro aurrerago]. *babinduket*: bahindut. [-1].

Maiteder

(Aselea)⁽¹⁾

Maiteder,
Maiteder!...
Ha⁽²⁾ zen eguzkia!
Ha zen ederrenetan ederra!
Izar nagusia...
Iñularraz aurrena agertzen dena lakoa⁽³⁾!...
Ez zinan⁽⁴⁾,
Maiteder,
eusko neskatilik*
eder-bakalduntza lapurtuko⁽⁵⁾!
Euskadiko izanik
ederrena, berriz, baihintzenan* ludi⁽⁶⁾ guztiko...

⁽¹⁾ Elezaharra. Egiaztatzea lortu izan ez den arren, alegiazko kontakizun honetan (jasoa ala asmatua den ere ezin izan da ziurtatu), Irurtzun (Nafarroa) ondoko bi haitz ezagunei (“Bi ahizpa”, “Biaizpe”) eta bien artetik (“Aitz-bitarte” / “Atxitarte”tik) doan Larraun ibaiari buruz ari da agian Lizardi, haien sorrera elezahar poetiko eta harrigarritzko baten bidez azaltzeko asmoz. Badira, noski, irakurketa honekin bat ez datozen xehetasunak: haitz bihurtzen direnak ipuinean anaiak dira, ez ahizpak (“Bi ahizpa” haitzak, bestalde, generorik gabeko “Aitzbi” izenez ere ezagunak dira); aselean ur-jauzia dena, Aralarko Aitzarreta kobazulokoa iturburu da. Hala ere, badira proposatutako irakurketa hori, erabat bermatu ez arren, neurri batean bederen ahalbidetzen duten datuak: bi anaiak, bizkiak, Urden eta Garden, haitz bihurtzen dira, eta Maiteder, berriz, ibai; istorioa *nafarren bizkera garden-eresdunaz* entzuna izan daiteke eta gertaera harrigarri hau Nafarroan kokatzen da, *Aitzarre mendian* zehazkiago. Aralar iparraldeko isurialde edo aurpegian, Iribas inguruan, Aitzarreta kobazuloko iturburu urtsua aurkitzen da; iturburu horretatik Ertzilla ibaia jaiotzen da, beste zenbait ur-lasterrekin Larraun ibaia ur-sorgunea osatzen duena. Honela, datu ziurragorik ezean, iradokizun egiantzeko gisa soilik proposatzen den interpretazio honen arabera, Maiteder Larraun bihurtzen da eta bi bizkiak “Aitzbi”.

⁽²⁾ Hura.

⁽³⁾ Ilunabarra iritsiz gero, aurrena agertzen den izarra bezalakoa.

⁽⁴⁾ zinan (hikako neutroa, noka, hark hiri hura). Zuka: zizun.

⁽⁵⁾ *eusko (...)* lapurtuko: (ez zinan) ezein, inongo eusko neskatilarik edertasunaren erregetza lapurtuko.

⁽⁶⁾ lurbira, mundu.

Ez zinan⁽⁷⁾
 Aitzarrek⁽⁸⁾
 lotazilan⁽⁹⁾ biltzen
 hire aurpegiaren elurra...
 Ez din⁽¹⁰⁾ erakusten
 eguzkiak, goizean, hire ilien* urrea...

Ortziak
 bekaitzik
 izan ahal baliken^{(11)*},
 ez zinan⁽¹²⁾ bere urdina agertuko,
 ez aitortzearren
 hire begiena zela guztiz ederrago...

Oihanan*
 txorien
 txirulira^{(13)*} baino,
 hire marrubizko ezpainetan
 zoragarriago
 euskarazko mintzaera bigunak zitunan⁽¹⁴⁾...

* * *

Hauxe zen
 Maiteder.
 Inoiz, irakurle,

⁽⁷⁾ zinan (hikako alokutiboa, noka, hark hura). Zuka: zuen.

⁽⁸⁾ Aitzarre mendiak.

⁽⁹⁾ abenduan.

⁽¹⁰⁾ din (hikako alokutiboa, noka, hark hura). Zuka: du.

⁽¹¹⁾ *izan ahal baliken*: baldintzazko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. Errimak jatorrizko forma mantentzea eskatzen du. Zuka: (inbidiarik) izan ahal balu.

⁽¹²⁾ zinan (hikako alokutiboa, noka, hark hura). Zuka: zuen.

⁽¹³⁾ txirulirua (txoriaren kantua onomatopeia).

⁽¹⁴⁾ zitunan (hikako alokutiboa, noka, haiek). Zuka: ziren.

Aitzarre mendian bidekari⁽¹⁵⁾,
ekaitzaren menpe
aurki baduk hire burua, auzotik urruti,
ta ikazkin
txabolan,
(zahato mardulari,
azaleko bustia ahaztu nahian,
zurrut bat... ala bi
kenduta) abitu* bahatzaio⁽¹⁶⁾ hari berriketan,
nafarren
hizkera
garden-eresdunaz⁽¹⁷⁾,
Maitederren asele mingatza
entzunik haiz, ausaz⁽¹⁸⁾,
ateko⁽¹⁹⁾ euri hots nahigabetsuaz nahastuta...

* * *

Maiteder
bizi zen
antzina-antzinean*
gutziz zorionsua zelarik,
bere bihotzean
ez baitzeukan Maitederrek maitasun kezkarik.

⁽¹⁵⁾ bidazti, ibiltari.

⁽¹⁶⁾ abiatu, hasi bahatzaio.

⁽¹⁷⁾ musikalaz, melodiatsuaz.

⁽¹⁸⁾ agian, beharbada.

⁽¹⁹⁾ kanpoko.

Behinola
 mutil bi,
 Urden eta Garden,
 egun bai ama bateko seinak⁽²⁰⁾,
 neska zardenaren⁽²¹⁾
 ederrak bihurtu zitun* bere maitaleak...

Anaiok
 elkarri
 isildu zioten
 bihotzeko berri, maitasunez...
 Neskak bazekien...
 Emekirik, sorrarazi dun* sua igarri ez⁽²²⁾!...

Maitasun
 zalantza!...
 Maitakari* biak
 berdinean ziren maitagarri...
 Ezin, ba, bihotzak
 maitasun auzi hau zuzenbidez erabaki...

“Berama
 zoriak⁽²³⁾!...”
 Ta haitz goren batetik
 zabalari burua damaio⁽²⁴⁾,
 oi hu hau jaurtirik:
 “Hartuko nauenak izango nau beretzako*!”

⁽²⁰⁾ bai egun berean eta bai ama beragandik jaiotako haurrak, umeak; bizkiak, alegia.

⁽²¹⁾ Ierdenaren, lirainaren.

⁽²²⁾ Testuinguruak interpretazio bat baino gehiago onartzen du. Bi, besteak beste. Jatorrizko testuak dakarren koma errespetatuz eta *Emekirik* “emeki, emazteki izanik” adieraz ulertuz: emazte, emakume izanik, sorrarazi duen sua nola ez (duen) igarri(ko)! Komaren etena gainditu eta *Emekirik* adjektiboz eta atzizkiz osaturiko adberbio gisa irakurriz: emekiro, leunkiro sorrarazi duen sua igarriko ez du bada!

⁽²³⁾ Eraman, bidera beza zoriak; erabaki dezala halabeharrak.

⁽²⁴⁾ dama(k)io, hots, bere burua espazioari ematen dio; bere burua espaziora, haitzetik behera botatzen du.

Besoak
zabalik,
maitale bizkiak
basahuntzaren arinak daramaz^{(25)*}...
Une lazgarriak!
Zeinek eutsiko ote erorki⁽²⁶⁾ kuttuna*, laztanaz?...

Maiteder
[...]⁽²⁷⁾
Haize zabalean
ur-jauzi bihur da. Bizkiak haitz
haitz nagusipean⁽²⁸⁾!...
Maitetasun* azken gorri⁽²⁹⁾!... Zori errukigaitz!

Betiko
negarka
dirau Maitederrek...
Bidekari, bere zilarrezko
negarra⁽³⁰⁾ ikusi dek*,
erruz jariatzen bizkiei muin egiteko?...

Ta anaiok,
(maiteki,
goldio* bihurtu
zitzaioten^{(31)*} amak laztanduta)
urrundik begiztu*
dituk, maitearen negarra hartzen asetzeka^{(32)*}?...

⁽²⁵⁾ basahuntzaren arintasunak, lasterrak daramatza.

⁽²⁶⁾ erortzen (ari) den, goitik behera datorren izaki.

⁽²⁷⁾ Estrofa honetan, jatorrizko testuan, bertso-lerro bat falta da; hiru silabako bigarrena, agidanez.

⁽²⁸⁾ haitz bihurtu dira haitz nagusipean.

⁽²⁹⁾ Maitasunaren bukaera latz, izugarri.

⁽³⁰⁾ ur-jauzia, ur-jauziko ura, alegia.

⁽³¹⁾ goroldioa aldatu zitzaien, erantsi zitzaien; goroldioz jantzi ziren.

⁽³²⁾ ase gabe.

Besoak
 zabalik,
 belaunikatuta,
 dirauz* beti; ta artzainek diote
 oraindik dutela
 maiterik Maiteder, elkar gorrotatu gabe.

NEURRIA eta ERRIMA:

3 / 3 / 6a / 10B / 6a / 14B.

EGOKITU GABEAK:

neskatilik: neskatilarik. [+1; egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako bertso-lerroari]. *baihintzenan*: baihintzen. [-1; egokitzapenaz, hamalau silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *ilien*: ileen. [-1]. *baliken*: balu. [-1; egokitzapenaz, “baliken : aitortzearren” errima hautsiko litzateke]. *Oibanan*: Oihanean. [+1]. *txirulira*: txirulirua. [+1]. *abitu*: abiatu. [+1]. *antzina-antzinean*: antzina-antzinan. [-1; “antzinean : bihotzean” errima murriztuko litzateke]. *zitun*: zituen. [+1]. *dun*: duen. [+1]. *Maitakari*: Maitari. [-1]. *beretzako*: beretzat. [-1; “damaio : beretzako” errima hautsiko litzateke]. *daramaz*: daramatza. [+1; “daramaz : laztanaz” errima hautsiko litzateke]. *kuttuna*: kuttunari. [+1]. *Maitetasun*: Maitasun. [-1]. *dek*: duk. [“Maitederrek : dek” errima hautsiko litzateke]. *goldio*: goroldio. [+1]. *zitzaioten*: zitzaien. [-1]. *begiztu*: begiztatu. [+1]. *asetzeka*: asetzeke. [“laztanduta : asetzeka” errima hautsiko litzateke]. *dirauz*: diraute. [+1].

Maiteizaneri⁽¹⁾

Nire gogoko lore bakarra,
nire gauetako izarra...
Samin-eztia zaren oroia⁽²⁾,
nire barre bai negarra...

Nik zu bakarrik maite izan zaitut
maitetasun* bereziaz:
norbere haurren amagaiari
zor zaion gurtze garbiaz...

Nire biziko lorategian
udaberria itzali da...
Gaua da: ilunaz, urretxindorrak
dabesa⁽³⁾ azken abestia...

Agur betiko, nik maite izana...
Bemazu^{(4)*} Jaunak zoria!
Ezpainak "Maiteizane" deritzu⁽⁵⁾,
bihotzak, baina..., "Maitia*"!...

⁽¹⁾ Maite izandako horri poetak "Maiteizane" izena ematen dio.

⁽²⁾ oroitzapena.

⁽³⁾ abesten du.

⁽⁴⁾ bemakizu, eman biezazu, eman diezazula.

⁽⁵⁾ deitzen dizu.

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 8a / 10 / 8a. Hamar silabakoak, bat izan ezik (4. estrofan), zehazkiago: 5+5.

EGOKITU GABEAK:

maitetasun: maitasun. [-1: egokitzapenaz, zortzi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *Bemazu*: Bemakizu. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako neurtitzari]. *Maitia*: Maitea. [Egokitzapenaz, “zoria : Maitia” errima murriztuko litzateke].

Ahaztu, bihotz horrek!...

Bihotz, oroi zahar batek hago nahigabetuta⁽¹⁾,
eztiz ta behazenez nahastutako oroia...
Maitetasun* etsi bat bere gezi zorrotza
heugan sarturik zegok, bihotz maitaria*...

Oroipen⁽²⁾ zahar eztiok zauri sendagabeak*
dituk, ta hi haiz, bihotza, zauridun zoroa...
Hi haiz bere zauriak azkazalaz urratzen
atseginik uste dun^{(3)*} gaixoa lakoa.

Bizitz-bide-ertzan* lore bigun bat⁽⁴⁾ aurkitu huen...
lorau* ezin, ordea, ebaki izan huan*!...
Harrezkero, negarka, sarriegi begiak
bihur dituk, lorea berrikusi nahian!...

Bizitz-bidean*, baina, ez dagikek⁽⁵⁾ atzerantz...
Lore guri-maitea eten ez dezakek!...
Arren, bihotz, bidean atzerantz ez begiztu*,
biderik zorionez ibili nahi badek*!...

Hautsi, bihotz, kemenez, lotzen hauen estuntza⁽⁶⁾,
lore bai arantzazko estuntza zail hori!...
Indargeturik haukan oroi samina ahatz ezak⁽⁷⁾!...
Hegaztia haiz: hegaka, goian galdu hadi!...

⁽¹⁾ Hots, oroitzapen zahar batek nahigabetuta hago; edo, bestela, oroitzapen zahar batek zauriturik, urraturik, hago nahigabetuta.

⁽²⁾ Jatorrizkoan: *Oroikun*.

⁽³⁾ atseginik hartzen duela uste duen.

⁽⁴⁾ Hots, maitasun xamur bat.

⁽⁵⁾ dezakek.

⁽⁶⁾ katea.

⁽⁷⁾ Jatorrizkoan: *aztu zak*.

Entzun: baduk hiretzat beste maitagarririk,
 ta beroni zor diok heure su guztia...
 Aberria!... Berak dun maitetasun jorana*
 ta alferrik dariokeen odol-egarria⁽⁸⁾!

1919ko epailaren 15a

NEURRIA eta ERRIMA:

14 / 13A / 14 / 13A. Olerki osoan, zehazkiago: 7+7 eta 7+6.

EGOKITU GABEAK:

Maitetasun: Maitasun. [-1: egokitzapenaz, hamalau silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Orobat, azken estrofan]. *maitaria*. [Jatorrizkoan *maitariya* denez, “oro-ia : maitar-ia” erriman [maitariya] ahoskatu behar da]. *sendagabeak*: sendatu gabeak. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamalau silabako neurtitzari]. *dun*: duen. [+1]. *Bizitz-bide-ertzan*: Bizitza-bide-ertzean. [+2]. *lorau*: loratu. [+1]. *huan*: huen. [Egokitzapena gauzatuz gero, oraingoan, “huan : nahian” errima hautsiko litzateke]. *Bizitz-bidean*: Bizitza-bidean. [+1]. *begiztu*: begiztatu. [+1]. *badek*: baduk. [“dezakek : badek” errima hautsiko litzateke]. *Berak dun maitetasun jorana*: Berak duen maitasun jorana. [Egokitzapenak bertso-lerroaren neurriari eutsiko lioke, baina hautsi egingo litzateke (8+6) poetak poema osoan zehar zehazki gordetzen duen hamalau silabakoen etena (7+7)].

⁽⁸⁾ *Berak* (...) *egarria*: Bihotza, begira ezak nolakoa den, nolako handia den aberriak duen maitasun nahia, eta hari, alferrik, erantzunik gabe jaria dakiokkeen odol-egarria, hots, bere alde eskainiko den odolaren, ahaleginaren egarria.

Izarkitako sua⁽¹⁾

Neskatxa bat
maite nuen,
ederrago
orril-goiza⁽²⁾ baino...

Maite nuen...
Berak... inoiz
banun* uste
ote nindun maite!...

Hala uste nun...
Bazitekeen
egia izan...
Bazitekeen..., bainan*!...

Ezbai-geziz⁽³⁾
bihotza behin
aurkitu nun
odolez, zauridun...

Ezbai-geziz...
Uste izan nun
ez nindula
maite, lehen bezala!...

Ez nindula
maite!... Jauna...
Zuri ordun*
maitasun hau nizun

⁽¹⁾ Errautsez estalitako sua.

⁽²⁾ maiatzeko goiza.

⁽³⁾ zalantzazko, dudazko geziz.

eskaini... Bai...
 Ongi naroi⁽⁴⁾...
 Hitz hauekaz⁽⁵⁾,
 negarrez ta gauaz*:
 “Arren, ito
 bihotzean,
 maite ez banau,
 maitetasun* gar hau!...”.

* * *

Zenbat⁽⁶⁾ bider
 berpiztu zait
 maite-gar ha⁽⁷⁾
 itotzat neukala!...
 Zenbat bider!...
 Bihotzaren
 oroimena...
 hi besteko zaila⁽⁸⁾!...
 Ai, oroipen
 deunatzai lez
 muin gogoak
 egin* ohi dizutenak⁽⁹⁾!...

⁽⁴⁾ oroitzen naiz.

⁽⁵⁾ hauekin.

⁽⁶⁾ Jatorrizkoan: *Zenbait*.

⁽⁷⁾ hura.

⁽⁸⁾ zaila, nekeza hi adinako izatea; nekez aurki daitekek hi bezalakorik, hire parekorik. “Ni” poetikoa hika ari zaio bihotzaren oroimenari.

⁽⁹⁾ *Ai (...)* *dizutenak*: irakurketa zaileko esaldia. “Deunatz” deun, santu baten hatz, oinatz edo erlikia balitz, honako hau izan liteke interpretazio posible bat: Ai, oroipen, santu(ar)en oinatzai bezala, gogoak muin egin ohi dizutenak!... Hau da: Ai, oroipen, santu(ar)en erlikiei (egin ohi zaien bezala), muin egin ohi dizuten gogoak!... Hemen, *oroipen* oro har dago hartua; aurrerago, plural hurbilez, *zuek oroipenok*, “ni” poetikoarenak dira. (?)

Hauts hozpean,
 igartzeke,
 baitziraudan⁽¹⁰⁾
 txingarrak, bularran*...

Ta, maiz, zuek,
 oroipenok,
 hautsa astintzen
 aurkitu zintuzten^{(11)*}...

Ta, inoiz, hiltzat
 jo nun suak,
 ustekabe,
 berriz nindun erre!...

NEURRIA eta ERRIMA:

4 / 4 / 4a / 6a.

EGOKITU GABEAK:

banun: banuen. [+1: lehenengo bi estrofitan ageri diren jatorrizko bi *maite nuban* adizkiak *nuen* gisan egokitu dira, oztoporik gabe. Gainerako *nun* (bost), *nindun* (bi) eta *nindula* (bi) adizkien egokitzapenek (*nuen*, *ninduen*, *ninduela*) silaba bana erantsiko liokete bakoitzari dagokion neurtitzari. Inoiz, estrofako errima ere hautsiko lukete]. *bainan*: baina. [Egokitzapenaz, “izan : bainan” errima hautsiko litzateke]. *ordun*: orduan. [+1; “ordun : nizun” errima hautsiko litzateke]. *gauaz*: gauetz. [“hauekaz : gauaz” errima hautsiko litzateke]. *maitetasun*: maitasun. [-1: egokitzapenaz, sei silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *egin*. [Jatorrizkoan *ein* denez, silaba batekoa, *egin* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ahoskatu behar da]. *bularran*: bularrean. [+1; “baitziraudan : bularran” errima hautsiko litzateke]. *zintuzten*: zintuztedan. [+1].

⁽¹⁰⁾ irauten baitzidan.

⁽¹¹⁾ zintuztedan.

Gaiztoen itzala

Eguzkiaren
goriari ihestiarren*,
baso-basoan
bidazti ona behin baten*
babespetu zan*.

Zetzala, txori bat dohar⁽¹⁾,
adarririk adar,
isil-urduri,
habira* joranez⁽²⁾, noski,
harra baitakar...

—Ez gaitzik uste...
(leun diotsa*
gizonak errukituta).
Hoake⁽³⁾, maite,
habira, beldurrik gabe.

—Non den ikasi
ta gero lapurtutzeko*?...

—Ezetz, ba, txori!...

—Hoa, ba, ta urrun, nik hori
sinistutzeko*...

* * *

⁽¹⁾ ohartzen, sumatzen, hautematen du.

⁽²⁾ habiara joateko, iristeko, irrikaz, gogo biziz.

⁽³⁾ Joan haiteke.

Gizonak, zutitzen zela,
ilundo⁽⁴⁾ dio:
—*Baten gaiztoa*
edonon aski, galtzeko
ebunen izena! . . .

1919ko garagarrila

NEURRIA eta ERRIMA:

5a / 8a / 5b / 8a / 5b // 8a / 5a / 5b / 8b / 5a // 5a / 5b / 8b / 5a / 8a //
5a / 8b / 5a / 8a / 5b // 8a / 5b / 5a / 8b / 5a.

EGOKITU GABEAK:

ihestiarren: ihestearren [Egokitzapenaz, “Eguzkiaren : ihestiarren : behin baten” errima edo hoskidetasuna murriztuko litzateke]. *baten*: batean. [+I: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako bertso-lerroari; “Eguzkiaren : ihestiarren : behin baten” errima hautsiko litzateke]. *babespetu zan*: babestu zen. [-I: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke; “basoan : zan” errima hautsiko litzateke]. *habira*: habiara. [+1]; orobat hurrengo ahapaldian]. *diotsa*: diotso. [“diotsa : errukituta” errima hautsiko litzateke]. *lapurtutzeko*: lapurtzeko. [-1]. *sinistutzeko*: sinisteko. [-1].

⁽⁴⁾ ilunki, goibelki.

Euskara⁽¹⁾(Sarkundea)⁽²⁾

Gizatza⁽³⁾ jaiotako gauaren goizaldean,
amets-itsaso-zehar hegazti zurian⁽⁴⁾,
soinge nabaitu^{(5)*} nuen buru hau, jakin ezik⁽⁶⁾
nondik irtena nintzen, ez nora nindoan.

Egun urratzearen argixkak ukituta,
noizbait igarri nuen urrunen* lehorra;
ta, harrigarri-susmoak bultzata^{(7)*}, harantz zuzendu
nuen amets-itsasoko ontzi zorakorra. . .

Izan ere, lur haren itzalak, goitik behera,
zilar-gune⁽⁸⁾ garbi bat, argiz, zerakustan⁽⁹⁾,
bat-batez sutu zena, dirdai lilurakorraz,
aurrez aurre eguzkiak muga hautsi zunean*.

⁽¹⁾ Jatorrizkoan: *Euzkera*.

⁽²⁾ Sarrera, sarbidea.

⁽³⁾ Gizadia.

⁽⁴⁾ ontzi, belaontzi (?) zurian. (Ikus azken estrofa).

⁽⁵⁾ soinekorik, janzkirik gabe nabaritu.

⁽⁶⁾ jakin gabe.

⁽⁷⁾ harrigarriaren susmoak eraginda; zerbait harrigarri izango ote zelako, aurkituko ote nuelako susmoak bultzatuta.

⁽⁸⁾ zilarraren distirazko gune.

⁽⁹⁾ erakusten zidan.

Zer zen?... Ausaz⁽¹⁰⁾, urrungo* atsegintegi baten⁽¹¹⁾
 emeder-soinpeango aitzindaria⁽¹²⁾, ala
 sartaldetik harrorik eguzki sortaldarra^{(13)*}
 goitu-lehiaz⁽¹⁴⁾ zetorren eguzki berria?...

Ez ote zen, agian, nik nekusan⁽¹⁵⁾ gunea
 Ortziren begizkuna⁽¹⁶⁾ zetzan lurgunea,
 ala burestunetik eten zitzakiokeen^{(17)*}
 izarrik⁽¹⁸⁾ sortutako tximist* egonkorra?...

Zerk zelai urdinean⁽¹⁹⁾ itsasozti⁽²⁰⁾ gaixoa
 maite-begi-argiak hainbat zeraroran^{(21)?}...
 Itxoin... Nire ontzia, nire hegazti zuria,
 joran hesigaitzaren lasterrak⁽²²⁾ zeraman...

(Jarraitzeko⁽²³⁾).

⁽¹⁰⁾ Agian, beharbada.

⁽¹¹⁾ urruneko atsegintoki baten, urrutiko paradisu baten.

⁽¹²⁾ *emeder (...)* aitzindaria: (urrutiko paradisu baten) aitzindaria, emeder, ninfa baten gorputzean, janzkian, itxurapean ageri zena. (?)

⁽¹³⁾ sortaldean, ekialdean jaiola.

⁽¹⁴⁾ garaitzeko ahaleginaz, irrikaz.

⁽¹⁵⁾ ikusten nuen.

⁽¹⁶⁾ begirada.

⁽¹⁷⁾ koroatik eten zekiokoen.

⁽¹⁸⁾ izarren batek.

⁽¹⁹⁾ Jatorrizkoan *Zerk zelai urdiñan*, zazpi silabakoa. Egokitzen ere zazpi silabakoa da.

⁽²⁰⁾ itsasoz doan bidaiari.

⁽²¹⁾ erorarazten zuen. *Zerk (...)* zeraroran: Zelai urdinean, ametsezko itsasoan, alegia, zerk erorarazten, erakartzen, eramaten zuen itsasozti gaixoa, maitearen begi(ar)en argiak erakartzen duen hainbat?

⁽²²⁾ nahi, irrika mugagaitzaren lastertasunak, abiadak.

⁽²³⁾ Ez zen sarrera-olerki honen jarraipenik argitaratu.

NEURRIA eta ERRIMA:

14 / 13A / 14 / 13A. Olerki osoan, zehazkiago: 7+7 eta 7+6.

EGOKITU GABEAK:

nabaitu: nabaritu. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamalau silabako bertso-lerroari]. *urrunen*: urrunean. [+1]. *bultzata*: bultzatuta. [+1]. *zunean*: zuenean. [+1]. *urrungo*: urruneko. [+1]. *sortaldarra*: sortaldetarra. [+1]. *zitzakiokeen*: zekioken. [-1: egokitzapenaz, hamalau silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *tximist*: tximista. [+1].

Idazkia

“Mendi-Lauta”⁽¹⁾,
Zarautzen

Ai “Mendi-Lauta”,
aiskide* ona
ta adarjotzaile
bikaina...
Banetxekian^{(2)*}
asto nintzela:
txori nintzenik
ez baina!...

Ta uste horretan
bizi izan arren,
ez nian⁽³⁾ poza

⁽¹⁾ “Mendi-Lauta”: Domingo Arruti, Lizardiren herrikide eta adiskidearen izengoitia. “Mendi-lauta”, “Mendilau(e)ta”, berez, Zarautzek ekialderantz, hondartza ondoan zituen hareazko muinoz (dunaz) betetako lur zabal eta hondartsuen izena zen; gaur egun, lur sail horiek eraiki diren etxebizitzetaz daude estaliak. Arrutik, Lizardik bezala, idazlanak argitaratu zituen *Euzko-Deya* hamaboskarian, eta baita Euskaltzaleak elkarteak sustatu zituen hainbat ekintzatan parte hartu ere. EAJ/PNVn gertatutako zatiketa gaindituz, Aberri eta Comuni3n alderdiek bat egin zutenean (1930-11-16), Arruti eta Lizardi izan ziren, hain zuzen, Comuni3n Nacionalista Vasca-ren partetik Gipuzkoa ordezkatuz, EAJ/PNV bateratuaren berrantolatzeaz arduratu zen batzordean aritu zirenak. “Idazkia” olerkia “Mendi-Lauta”k *Euzko-Deya*-n (78. zenb., 1919-11-16, 4) kaleratu zuen artikulua bati emandako erantzuna da. Joandako udaberrian, dio “Mendi-Lauta”k bere artikulutxoan, “goizean goiz entzuten nuen txori abeslaria eta leihora irteten nintzen berari entzuteko pozez”. Txoria, ordea, “hasi zen gutxiago abesten; uda aldera noizean behin abesten zuen, eta orain isildu da”. “Mendi-Lauta”k galdetzen du zer gertatu ote zaion txoriari, eta berriro abesten noiz hasiko den zain dagoen bitartean, orain “ametsetan bezala jaikitzen naiz ohetik leihora txori abeslariari entzuten”. Txori hori Lizardi da, tarteka, hamaboskariaren zerbaki batzuetan ezer argitaratu ez duena. Honela, adibidez, 70., 72. eta 73. zenbakietan poema bana eskaini arren, isilaldi baten ondoren, hurrengo poema 78. zenbakian publikatu du, hain zuzen, “Mendi-Lauta”k bere artikulua atera duen zerbaki berean. Lizardik “Idazkia” bertso-multzo honetan, adiskideari modu jostagarri, zirikagarri eta ironikoz erantzuten dio.

⁽²⁾ Banekian (hikako alokutiboa, toka, nik hura). Zuka: banekien.

⁽³⁾ nian (hikako alokutiboa, toka, nik hura). Zuka: nuen.

makala,
gogoratzean
astoak ere
zerbaiterako*
direla...

Gaur, bat-batean,
ile zakartzat
netxeuzkan^{(4)*} luma
bigunak
harropuztuta
jarri zizkidak⁽⁵⁾
hire zuritze
legunak^{(6)*}.

Baina, gauz* batek,
Txomin nirea,
guztiz samindu
natxiok^{(7)*}...
Alkandora hutsik
leihoratzea,
Txomin, egoki
ez zio!^{(8)*}...

Su-kanpaiarren⁽⁸⁾
balitz ere*... tira!...

⁽⁴⁾ neuzkaan (hikako alokutiboa, toka, nik haiek): erlatibozko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. Egokitzapenaz, bestalde, neurtitzak silaba bat galduko luke. Zuka: neuzkan.

⁽⁵⁾ zizkidak (hikako alokutiboa, toka, hark niri haiek). Zuka: dizkit.

⁽⁶⁾ hire lausengatze, losintxatze leunak.

⁽⁷⁾ naik (hikako alokutiboa, toka, hark ni). Zuka: nau.

⁽⁸⁾ su-kanpaiarengatik.

ez diat⁽⁹⁾ ezer
esaten...
Baina asto bat
ari delako
entzunaldi⁽¹⁰⁾ bat
ematen?...

Alde batetik,
haize gaiztoa...
Bestetik, ausaz⁽¹¹⁾...
hauxe bai!...
atso goiztarrik*
auzoan baduk
berritsukeri*
gairik zai*?...

Ez, Txomin txiki...
Alkandora hutsa
gutzizko jantzi
motza dek*,
ta hi bezalako
zaldun benari⁽¹²⁾...
ez zegokiok⁽¹³⁾
horrexek!

Zer?... Orkatilak
ukitzeraino
badela hire ohe-

⁽⁹⁾ *Diat* adizkiak bi aukera ematen ditu: hikako alokutiboa, toka, nik hura (zuka: dut) ala hikako neutroa, toka, nik hura zuri (zuka: dizut). Testuinguruaren arabera lehenengoa hautatu behar dela dirudi. Orobat azken-bigarren eta azken estrofetan.

⁽¹⁰⁾ kantu saio; kontzertu.

⁽¹¹⁾ agian, beharbada.

⁽¹²⁾ zentzuzkoari, serioari, formalari.

⁽¹³⁾ zegokiok (hikako alokutiboa, toka, hura hari). Zuka: dagokio.

atorra^{(14)*}?...
 Hortaz, Pillipak⁽¹⁵⁾
 berriz ere, jaitan*
 erreko ahal dik
 txokorra⁽¹⁶⁾!

Baina, jolasak
 alde batera,
 ezin garraikek
 honela⁽¹⁷⁾...
 Ala hik ohitura
 txar hori laga...
 ala ni isildu
 bestela!...

Zergatik nagon*
 galdetzen didak
 hain luzaroan
 isilik...
 nire lagunoi
 adirazteke^{(18)*}
 bizirik naizen
 ala hilik?

Txoria banintz
 esango nikek⁽¹⁹⁾
 kaiolatuta*
 nagola,

⁽¹⁴⁾ oherako jantzia, alkandora luze modukoa.

⁽¹⁵⁾ Felipek. Felipe Lizundia *Omuzki*, Lizardiren laguna, segur aski. (Ikus "Agur!" poema).

⁽¹⁶⁾ zigarro purua, zigarro habanoa.

⁽¹⁷⁾ ezin gaitzekek honela jarraitu. "Jarraitu" aditzaren "garraikek" adizkia, hemen, "da" (gu) aditz motaren eredura dago erabilia.

⁽¹⁸⁾ adierazi gabe.

⁽¹⁹⁾ nikek (hikako alokutiboa, toka, nik hura). Zuka: nuke.

lanaren neke
nagigarria
delarik nire
kaiola...

Ta kaiolako
txori lotuak
ez dik abesten
egundo⁽²⁰⁾
askeak hainbat
sarritan... ezta
basoan bezain
bigundo*!

Txoria banintz
esango nitek
zelai kuttun bat
neukala,
ta hantxe bakarrik
abestutzeak*
pozik ematen
zidala...

Behin, ekaitz batek,
hego ekaitzak,
zelai horixe
jo zian⁽²¹⁾,
ta hango txoriek
ihesi zien^{(22)*}
urrun, hegada
bizian...

⁽²⁰⁾ ez dik abesten inoiz, sekula.

⁽²¹⁾ zian (hikako alokutiboa, toka, hark hura). Zuka: zuen.

⁽²²⁾ zitean (hikako alokutiboa, toka, haiek hura). Zuka: zuten.

Baina, zelaian
 haize zakarrak
 baretu diren
 garaian,
 berriz txoriok
 pozaren pozez
 batzartu dituk
 zelaian...

Esan beharrik
 ez diat, noski,
 nongo zelaia
 den hori...
Euzko-Deya⁽²³⁾ duk...
 Nahiko bidertan⁽²⁴⁾
 izan haiz bertan
 herori...

* * *

Agur... Banoak,
 honenbestez, ba,
 jardun ahal diat
 nahikoa...
 Ta nire hotsik
 entzutearren,
 ez gehio* ireki
 leihoa.

⁽²³⁾ Ikus olerki honetako eta "Zelai urdina" poemako 1. oin-oharrak, eta "Lizardiren olerkigintza" sarrerako 1.1. atala.

⁽²⁴⁾ Nahiko bider, aski alditan.

NEURRIA eta ERRIMA:

5 / 5 / 5 / 3a / 5 / 5 / 5 / 3a.

EGOKITU GABEAK:

aiskide: adiskide. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bost silabako bertso-lerroari]. *Banetsxekian*: Banekian. [-1: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *zerbaiterako*: zerbaitetarako. [+1]. *netxeuzkan*: neuzka(a)n. [-1]. *legunak*: leunak. [-1]. *gauz*: gauza. [+1]. *natsxiok*: naik. [-2; “natsxiok : zio” errima hautsiko litzateke]. *ziok*: zegok. [Egokitzapenaz, “natsxiok : zio” errima murriztuko litzateke]. *ere*. [Jatorrizkoan *e* denez, silaba batekoa, *ere* egokitzapena ere silaba bakarrez neurtu eta ebaki behar da. Orobat hiru estrofa aurrerago]. *goiztarrik*: goiztiarrik. [+1]. *berritsukeri*: berritsukeria. [+1]. *zai*: zain. [“bai : zai” errima hautsiko litzateke]. *dek*: duk. [“dek : horrexek” errima hautsiko litzateke]. *obe*. [Jatorrizkoan *oi* denez, silaba batekoa, *obe* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ahoskatu behar da]. *jaitan*: jaietan. [+1]. *nagon*: nagoen. [+1; hurrengo estrofako “nagoela” egokitzapenak ere silaba bat erantsiko lioke hiru silabako neurtitzari]. *adirazteke*: adierazteke. [+1]. *kaiolatuta*. [Jatorrizkoan *kaiolpetuta*; eta hurrengo estrofan, *kaiolpeko*. Egokitzapenerako “kaiolatuta” eta “kaiolako” hautatu dira, jatorrizkoak bezala, hurrenez hurren, bost eta lau silabakoak baita ere]. *bigundo*: bigunki. [“egundo : bigundo” errima hautsiko litzateke]. *abestutzeak*: abesteak. [-1]. *zien*: zitean. [+1]. *gebio*: gehiago. [+1].

Gaztearen otoitza

Jauna, nire otoitzak,
 arren, entzun itzazu...
 Gogo nekatuari
 eman, arren, gentza⁽¹⁾...
 Ostertz-iluna⁽²⁾ hautsita
 gauean izar bat jar...
 Eguzki izpiz argitu
 nire etorkizuna!

Ongi nekien, Jauna,
 umetan⁽³⁾ ikasita,
 zuk duzula bakarrik
 pozkidaren⁽⁴⁾ giltza:
 inoiz ahaztuta ibili
 banaiz, asketsi⁽⁵⁾, Jauna;
 gaur bainator, eztia
 bilatzen Zugana...

Zaurituta, gaixorik,
 gazterik nekatuta,
 liztor-eztiz⁽⁶⁾ aseta
 saminez gogoa,
 zeure eztia nahi dut,
 ezti goitar-gozoa,

⁽¹⁾ bakea.

⁽²⁾ Zeruertzaren, zerumugaren, horizontearen iluntasuna.

⁽³⁾ *seaskan* (1925).

⁽⁴⁾ kontsolamenduaren, nahigabeen aringarriaren.

⁽⁵⁾ barkatu.

⁽⁶⁾ listafinareen, erlabioaren –ez erlearen– eztiz.

ludiko lodiena⁽⁷⁾

ez bezalakoa...

Nire udaberriaren

egunik gozoenak

hega zaizkit, usteta⁽⁸⁾

betiko nitula*...

Eta, ametsak etenda,

zimelduta loreak,

aurkitu dut gogoa

goizegi zahartuta...

Bizitzako bidea

arantzazkoa dela

igartzen hasten garen

bide-unean⁽⁹⁾* nago...

Atzean..., lore etenak

estalita bidea...⁽¹⁰⁾

Aurrez..., goia beltzago

negu gaua baino...

Ta ilunpean, nora da

bidearen zurizka?...

Arren, zein da ta, Jauna,

non *nire bidea*?...

⁽⁷⁾ lurbirako lodiena, munduko trinkoena.

⁽⁸⁾ ustez eta, uste izanik.

⁽⁹⁾ bidearen gunean, puntuan.

⁽¹⁰⁾ *Atzean (...)* *bidea*: neurtitz hauek bi modutara uler daitezke. Lehenengo bertso-lerroaren ondoren geldidunea egin, eta, irakurketa honen arabera, eliditu izan diren adizkiak azaleratuz, pintzelkada inpresionisten gisan: Atzean..., lore etenak [daude], / estalita [dago] bidea... Testuaren ageriko loturari eta jarraikitasunari eutsiz, deklinabide atzizkia egokituz: Atzean..., lore etenez (lore etenek) / estalita bidea...

Ostertz-iluna hautsita
gauean izar bat jar
zazu*... Ta, arren, argitu
nire etorkizuna!...

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 7 / 7 / 6a / 7 / 7 / 7 / 6a. Neurtitz bukaeretan beste zenbait hoskidetasun ageri dira: -ak, -oa, -ago, -na, -ta...

EGOKITU GABEAK:

nitula: nituela. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako bertso-lerroari].
bide-uncan: bide-gunean. [+1: egokitzapenak “-e u-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *zazu*: ezazu. [+1].

Amona

Amonatxo bat bakarra daukat⁽¹⁾
inoiz ez lukeena hil behar...
Itzaltzen, baina, baitakust* eta
barrenak degidat^{(2)*} negar...

Antzin-Orain-arteko^{(3)*} zubia,
ai, zenbatetan⁽⁴⁾ zu-bidez
egun urrunen, egun hobien*
usaina aditu* dut, joranez⁽⁵⁾!

Orri horidun idazti⁽⁶⁾ zaharra
zara, ta zugan bilobak,
ai, zenbat⁽⁷⁾ ipuin bilatu ditun*
eztitasunez beteak!...

Hau neke latza!... Zergatik ote
bihotzak degidat negar^{(8)?}...
Amonatxo bat bakarra daukat...
ene!... eta berak... hil behar!...

(1) Ikus "Bihotzean min dut" poemako 1., 2., 3. eta 10. oin-oharrak.

(2) degit, egiten dit.

(3) Antzinaren eta Orainaren arteko.

(4) zenbat aldiz. Jatorrizkoan: *zenbatzutan*.

(5) nahi, gogo biziz; irrikaz.

(6) liburu.

(7) Jatorrizkoan: *zenbait*.

(8) Jatorrizkoan: *Zergatik ete / bihotzak daqidak negar?*... Bi irakurketa egin litezke. Bata, lehenengo estrofako ereduari jarraituz, "bihotzak" lehenetsiz: "Zergatik ote bihotzak degidat/degit negar?...". hau da, "Zergatik egiten ote dit bihotzak negar?...". Bestea, "degidak" lehenetsiz: "Bihotza, zergatik ote degidak negar?...". hau da, "Bihotza, zergatik egiten ote didak negar?...". Hemen, lehenengoa hautatu da.

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 8a / 10 / 8a. Hamar silabakoak, bat izan ezik (2. estrofan), zehazkiago: 5+5.

EGOKITU GABEAK:

baitakust: baitakusat. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako neurtitzari]. *degidat*: degit. [-1: egokitzapenaz, zortzi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Orobat azken estrofan]. *Antzin*: Antzina. [+1]. *bobien*: hobeen. [-1]. *aditu*. [Jatorrizkoan *aitu* denez, bi silabakoa, *aditu* egokitzapena ere bi silabaz neurtu eta ebaki behar da]. *ditun*: dituen. [+1].

Otoitza

Gurutzean
zakusagu⁽¹⁾
Jauna, geronek^{(2)*} hilda...
Gure eskuek
irain dute
Goikoaren Semea!...
Garbai gara⁽³⁾:
betorkigu,
Jauna, zure laztana...
alferrik hil
ez zinen-ta
besoak zabaldua^{(4)!}...
Ta geurekin⁽⁵⁾
aberri hau,
gure Euskadi kuttuna,
zain zazu* gaur,
joan* gaitezen⁽⁶⁾
bihar Goi Aberrira!...

⁽¹⁾ ikusten zaitugu.

⁽²⁾ gerok, geuk.

⁽³⁾ Damu gara, damu dugu.

⁽⁴⁾ Jatorrizkoan: *zabalita*.

⁽⁵⁾ Jatorrizkoan: *gerekin*.

⁽⁶⁾ Jatorrizkoan: *jun gaitian*.

NEURRIA eta ERRIMA:

4 / 4 / 7a / 4 / 4 / 7a.

EGOKITU GABEAK:

geronek: gerok. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke].
zazu: ezazu. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke lau silabako neurtitzari]. *joan*.
[Jatorrizkoan *jun* denez, silaba batekoa, *joan* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ebaki behar da].

Ihesi...

Behinola, uxo bat, nire ametsen
goi urdinetik jaitsita,
otzan-otzanik geldi zitzaidan
zabaldu nion eskuan.

Haren ederra!... Bihotz-bihotzez
maite izan nuen bertatik...
Ai, nire pozaren poza berak
izan banindu maite ni!...

Baina, bat-batez, atsedenduta,
zabaldu zitun* hegoak,
eta ametsezko zabalaz zehar⁽¹⁾
arin ostendu⁽²⁾ zitzaidan...

Nire ametsen ortzia, geroz⁽³⁾,
urdingetuta⁽⁴⁾ goibel da,
ta nerau beti geldi-geldirik
ortzi mugari begira...

Uxo xuria⁽⁵⁾!... Berriz hatorkit,
arren, amets-goia urratzen!...

.....

Ai, lur astun hau ezin utzia!...
Ai, baneki nik hegatzen!...

⁽¹⁾ espazioaz, espazioan zehar.

⁽²⁾ ezkutatu, desagertu.

⁽³⁾ *urtza*, *barrezkero* (1920) jatorrizkoaren ordeaz, oraingoan, egokitu ondoren bertso-lerroaren neurria hobeto betetzen duen 1925eko aldaera, *ortzea*, *geroz*, baliatu da.

⁽⁴⁾ urdingabetuta; kolore urdina galduta.

⁽⁵⁾ *laztana* (1925). Hoskidetasunez, bi sabaikari adierazkorrak mantendu dira.

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 8a / 10 / 8a. Hamar silabakoak, bat izan ezik (2. estrofan), zehazkiago: 5+5.

EGOKITU GABEAK:

zitun: zituen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako bertso-lerroari].

Goiz-ibiltze⁽¹⁾

Eguzki izpi bat
begitan*... Aupa!
Egun aiskide^{(2)*},
banoa.

Ai, nire esnatze
zoragarria,
Maite oroiaz
batean!...

Lehen gaua nuen
aiskide: loak
ahaztu arazten*
baitzidan...
Gaur maite zaitut,
Egun: eguzkiz
beterik baitut
bihotza...

Ai, gauz* guztien
ongietorri*,
musu bat bezain
gozoa!...
Ai, zein alaiki
darraiket^{(3)*} orain,

⁽¹⁾ Eskuizkribuan: *ibilde*, hots, “ibilte”. “Goiz-ibiltze”, idazkerari dagokionez, *Euzko-Deya*-n 1917-1920 bitartean argitaratutako olerkien tankerakoa da. Eskuizkribuan datarik agertzen ez denez, eta maitasunaren gaiaz ziprztindua dagoenez, edizio honetako lehenengo multzoan maitasunaren gaia ukitzen dutenetako azken olerkiaren (“Thesi...”) ondoren kokatu da.

⁽²⁾ Eguna, pertsonifikatua.

⁽³⁾ jarrai dezaket/dezakedan. “Jarraitu” aditzaren “darraiket” adizkia, hemen, “du” (nik hura) aditz motaren eredura dago erabilia. “Dio” (nik hari) aditz motaren arabera: jarrai diezaioket (bideari).

zurekin⁽⁴⁾, nire
bidea!...

Goiz-ibilde.
Eguzki-izpi bat
begitan... Hupa!
Egun aurkide,
bai-muz.
Si, nere esnatze
iragarriya,
Maite-oroyas
bathar!...

Leu gaba nuben
aurkide: luak
astu-eratan
bai'zidav...
Gaur maite-zaitub,
Egun; eguzkiak
betentz bai'tet
biyotza...

Si, gaur gusiyen
ongi-eteri,
nureu bat berin
gorua!...

Si, zere alaiki
daraiket orain,
Zurekin, nere
bidea!...

"Goiz-ibiltze" olerkiaren eskuizkribua

⁽⁴⁾ Hots, Eguneekin.

NEURRIA eta ERRIMA:

5 / 5 / 5 / 3 / 5 / 5 / 5 / 3. Hoskidetasunen batez kanpo, ez da errima egiturarik nabaritzen.

EGOKITU GABEAK

begitan: begietan. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bost silabako bertso-lerroari]. *aiskide*: adiskide. [+1. Orobat hurrengo estrofan]. *abaztu arazten*: ahatarazten. [-1: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *gauz*: gauza. [+1]. *ongietorri*: ongiatorria. [+1]. *darraiket*: darraikedan. [+1].

Udazken

Hosto ihar bat haizeak
bidali dit leihoraino...
Galena, hala, biziak
dakar⁽¹⁾, giza bihotzaganaino.

Enara talde urdina
erbesterantz badihoa*...
Halatsu urre-ametsek
lagatzen dute giza gogo.

Ez bekit bihotzean,
Jauna, hosto horirik jausi!...
Ez, enara taldeok,
otoi!, niri gogotik ihesi...

Iraun, udaberria,
betiko nire gogoan,
Jauna ta aberriari
eskaintzeko loreak ditzadan!

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 8a / 7 / 10a.

EGOKITU GABEAK:

badihoa: badoa. [-1: egokitzapenez, zortzi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke].

⁽¹⁾ *Galena* (...) *dakar*: Biziak ere, horrela dakar desengainua, etsipena.

Har huts

Tximirrita⁽¹⁾*...
Tximirrita arin-polita...
Atzo, hegaka,
zu zinen eder,
gorri-urdinez jantzita!
Gaur, lurrean
usteltzen zakustanean⁽²⁾...
har hutsa zaren
berria ikasi-
arazi* didazunean...
Tximirrita!
Iaz arin bai polita,
hainbat amets zahar
datozkit, hego
zoragarriak hautsita!...
Zu bezala,
ene tximirrita ustela,
har huts izan, oi!,
ene ametsa!...
har zatar-hegamotela...

1927ko irailaren 5a

⁽¹⁾ Tximirrika, tximeleta.

⁽²⁾ ikusten zaitudanean.

NEURRIA eta ERRIMA:


4a / 8a / 5 / 5 / 8a.

EGOKITU GABEAK:

Tximirrita: Tximirrika. [Egokitzapenaz, “Tximirrita : polita : jantzita” errima murriztuko litzateke. Hirugarren estrofan ere errima ahulduko litzateke. Olerkian, *tximirrita* mantendu da]. *ikasi-/arazi*: ikas-/arazi. [-1: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke].

- II -

BIHOTZ - BEGIETAN



Biotz-begietan. Olerkiak poema bildumaren
jatorrizko edizioaren azala (1932)

Opari:

Maitte: bion haur, hil ta bizi, oroiz⁽¹⁾.

BIHOTZ-BEGIETAN zatzaidate* sortu:
bihotzeanago batzuek*; besteak
betsein-betseinotan⁽²⁾... Bihotz gabe eta itsu,
nork, izan ere, bil olerti-loreak?...

NEURRIA eta ERRIMA:

12A / 12B / 12A / 12B. Eskaintzaren lerroa eta lau neurtitzak, zehazkiago: 6+6.

EGOKITU GABEAK:

zatzaidate: zatzaizkidate. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamabi silabako bertso-lerroari]. *batzuek*: batzuk. [-1: egokitzapenaz, hamabi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke].

⁽¹⁾ Poetak emazteari egindako eskaintza honetan, bion haurrak oroitzen ditu: bi bizkiak eta Xabier (*Nire lehenengo Xabiartxo*, "Xabiartxoren heriotza" poema), hilak; eta Xabier, Jon Mikel, Miren Arantzazu eta Mikel Mirena, biziak.

⁽²⁾ begi-ninion erdi-erdian, muin-muinean.

Jaun errukiorra⁽¹⁾

(Hamalaukoa)

Gazteleratik itzulia⁽²⁾

Txerrenek⁽³⁾ lardaskatuzko⁽⁴⁾ lohidi⁽⁵⁾ higuingarrian
narras dut⁽⁶⁾ gogo: zeure⁽⁷⁾ iduriz sorturiko
arima garbia⁽⁸⁾, zeure eskuek jantziriko
soineko zuria... Jauna⁽⁹⁾, ogen egin nuan*!

Lor-atsekabe⁽¹⁰⁾ larriak sortu zitun* nigan
oganak; minago⁽¹¹⁾ baita, eztizkoa baino.
Beldurrez ninduzun, Jauna, banekielako
tximist-ortzirien^{(12)*} jabe zu zeundela goian.

Ta, zure zigorbidezko oinaztarri⁽¹³⁾ larria⁽¹⁴⁾
usterik⁽¹⁵⁾, jo dizut begiz ortzia⁽¹⁶⁾, izu-izuan...
Ez zenidan, Jainko on horrek, eguzkia jaurti!
Ez zenidan uka ere berorren argia!

⁽¹⁾ *Jaun erruki-suboi!*... (1917).

⁽²⁾ Lizardik "¡Dios de piedad!" sonetoa idatzi zuen 1916an, eta 1917an gaztelaniatik euskarara itzuli.

⁽³⁾ *Txerren*, hemen, izen berezitzat hartuta: Deabru(a)k, Satanek, deabruen printzeak. *Dongiak* (1917).

⁽⁴⁾ *edenduriko* (1917).

⁽⁵⁾ lokatza, basatza, lupetza.

⁽⁶⁾ arrastaka ibili dut.

⁽⁷⁾ Jatorrizkoan: *zere*.

⁽⁸⁾ *gokarbitasuna* (1917).

⁽⁹⁾ *Goikoi* (1917).

⁽¹⁰⁾ Nahigabe, larritasun, buruhauste eta atsekabe.

⁽¹¹⁾ *garratza* (1917).

⁽¹²⁾ ostotsen, trumoi.

⁽¹³⁾ tximista (lurra jotzen duena).

⁽¹⁴⁾ *Ta zeu-asperkunde-tximist-ikaragarriya* (1917).

⁽¹⁵⁾ Hots, jaurtiko, botako zenidala uste izanik. *Uste nula* (1917).

⁽¹⁶⁾ *goya* (1917).

Errukizko izpia⁽¹⁷⁾ zeneriodan⁽¹⁸⁾ artean⁽¹⁹⁾,
ezin agortuzko Maitasun Iturri bizi⁽²⁰⁾!...

1917

NEURRIA eta ERRIMA:

14A / 14B / 14B / 14A // 14A / 14B / 14B / 14A // 14C / 14D / 14E /
14C / 14D / 14E.

EGOKITU GABEAK:

nuan: nuen. [Egokitzapenaz, “higuingarrian : nuan” errima hautsiko litzateke]. *zitun*:
zituen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamalau silabako bertso-lerroari].
tximist-ortzirien: tximista-ortzirien. [+1].

⁽¹⁷⁾ *Erruki-argiya* (1917).

⁽¹⁸⁾ jariatzen zenidan, isurtzen zenidan. “Jario” aditzaren “zeneriodan” adizkia, hemen, “dio” (zuk hura niri) aditz motaren eredura dago erabilia.

⁽¹⁹⁾ *oraindik* (1917).

⁽²⁰⁾ *Maitasun-Iturri bizi amai-ezin orrek!!...* (1917).

Ohea⁽¹⁾

Neke-sendalaria,
buru-argitzailea,
lanaren saria...

Amestegi guria⁽²⁾,
nahigabien* ahazgaia⁽³⁾,
nagien nausia*.

Bitez agur nireak,
afalondun⁽⁴⁾* behintzat,
guztiak zuretzat.

Ta “aitagure” bat ere
bihoa, zu asmatu⁽⁵⁾
zintuenarentzat.

Baina... Lasaitu⁽⁶⁾ nadin
orain, “aitagure”ka
eraso⁽⁷⁾ baino lehen,
jaun zintzo horren baimenaz,
mordoka datozkidan⁽⁸⁾
neurtitzok⁽⁹⁾ esaten...

* * *

⁽¹⁾ Jatorrizkoan: *Oia*.

⁽²⁾ Amestoki biguna, amets egiteko leku leuna.

⁽³⁾ nahigabeen ahazgarria, nahigabeak ahantzarazten dituen.

⁽⁴⁾ afalondo honetan.

⁽⁵⁾ *sumatu* (1919).

⁽⁶⁾ *laxa(tu)*; *asaska(tu)*. Jatorrizkoan: *Lasatu*.

⁽⁷⁾ aitagurea esaten hasi, aitagurea esateari ekin. *Abitu* (1919).

⁽⁸⁾ *erruz datorkizkidan* (1919).

⁽⁹⁾ hitz neurtuok, bertso-lerrook. Lizardik, poemetan eta hitz lauuko artikuluetan, garbiro bereizten du: “neurtitz” (bertso-lerro edo lerro), “ahapaldi” (estrofa) eta “bertso” (bertsolaritza arloko estrofa).

Afaldu dut oparo.
 Betazalok⁽¹⁰⁾, otoika⁽¹¹⁾,
 eskatzen zaudate⁽¹²⁾.
 Aurrean zu, zabalik,
 elurra hainbat zuria,
 begiok zakuste⁽¹³⁾.

Sartu ditzadan lehenen
 estalkiok⁽¹⁴⁾ azpitik,
 dagokion neurritz,
 oinik irten ez daidan*
 gauerdian –ohi baitu!–
 lotsagabekeriz*.

Apatx⁽¹⁵⁾, orain⁽¹⁶⁾!... Bihoaz
 oinetakuok* gora,
 habea⁽¹⁷⁾ jo arte:
 nire pozaren berri
 auzo goi ta behekoek
 ikasi bezate!

Txamarra kendu, bota
 galtzok ere: ez atsedena...
 Horrenbeste neke!...
 Zuhurragoak izanak

⁽¹⁰⁾ *Betazalak* (1919). Era berean, aurrerago, plural hurbilaren formen ordez, *begiyak*, *oñetakuak*, *galtzak* eta *jaumak* (1919).

⁽¹¹⁾ *arrenka* (1919).

⁽¹²⁾ zure eske dagozkit; haiek (-te) zu (za-) eskatzen zaituzte niri (-da-).

⁽¹³⁾ ikusten zaituzte.

⁽¹⁴⁾ ohe-estalkiok; tapakia eta izarok.

⁽¹⁵⁾ Eser nadin. "Apatx": esertzean edo norbait eseraraztean esaten den hitza.

⁽¹⁶⁾ *Apatx, orain!*... zatiaren ordez: *Apalatxo!*... (1919).

⁽¹⁷⁾ "Habe", hemen: sabaiari eusten dion goi-habea, goi-haga horizontala; hedaduraz, sabaia, gelako goialdea.

dituk ene guraso
Adam eta Ebe^{(18)*!}!...
Noizbait! Gerturik nago.
“Aitaren” egin, eta
jo dezadan murgil⁽¹⁹⁾.
Bat, bi, hiru, lau... agudo!,
negu gauaren hotzak
ez nazan bertan hil.

* * *

Horra barruan⁽²⁰⁾, jaunok,
maindire leun artean
bilduta, buru-oin.
Sarrerako hotzikara,
baina, samurtu arte⁽²¹⁾,
arren, pixkat* itxoin.
Oraintxe, ba, muturra
zerbait atera daiket^{(22)*},
berriketa-jarrai⁽²³⁾.
Zu goratzen, maitea⁽²⁴⁾,
logurak hautsi arte
ez dut isildu nahi.

⁽¹⁸⁾ *Zuburragoak (...)* Ebe: biluzik zeudenez ez zuten arropa erantzten nekerik. *Burutsubago ziran, / ziñez, gure guraso / Adan eta Ebe...* (1919).

⁽¹⁹⁾ murgil nadin hondora, estalkien tartera.

⁽²⁰⁾ *Barrenen naiz ba* (1919).

⁽²¹⁾ *bigundu-arte* (1919).

⁽²²⁾ dezaket.

⁽²³⁾ eta berriketan jarraitu.

⁽²⁴⁾ *oe ori* (1919).

Ai, nolako zoroak⁽²⁵⁾
 gauez kalerik kale
 ibil ohi direnak!
 Aurkiko* ahal dituzte
 asun minez beterik⁽²⁶⁾
 inoiz beren ohiak*!...

Atean⁽²⁷⁾ haize latza
 dabil, haserre... Noski!:
 ohirik* ez baitauka...
 Leihoan txingor hotsa
 da, niri loa, nonbait,
 galarazi bila.

Lan gaitza, gaitzik bada⁽²⁸⁾.
 Ateko⁽²⁹⁾ giro txarra
 lotarako onena;
 sehaska hustu⁽³⁰⁾ genuen
 haur samur-hazitxuon^{(31)*}
 llo-llo bigunena⁽³²⁾.

Bihar?... Gogapen txarrok
 urrun! Egun banari⁽³³⁾
 gau bat darraikio⁽³⁴⁾

⁽²⁵⁾ *kertenak* (1919).

⁽²⁶⁾ *jostorratzez josirik* (1919).

⁽²⁷⁾ Kanpoan.

⁽²⁸⁾ Lan gaitzik, zailik inon badago, eguraldiak bere gain hartu duena: ezin baitu bere helburua, loa galaraztea, bete.

⁽²⁹⁾ Kanpoko.

⁽³⁰⁾ *utzi* (1919).

⁽³¹⁾ *polit-azitxuon* (1919).

⁽³²⁾ *sehaska (...)* *bigunena*: kanpoko giro txarra da sehaska hustu genuen samurki koskortutako haurron lo-kantarik bigunena.

⁽³³⁾ bakoitzari.

⁽³⁴⁾ jarraitzen zaio.

eginaz hats hartzeko⁽³⁵⁾,
ez eginkizunarren,
orde, kezkatzeko⁽³⁶⁾.

Ta..., irakurle maitea,
laburrerako oraintxe
berriketan nauzu...
Begiak itxi zaizkit,
burutzar hau moteldu...,
arnasa... ba... kan... du.....

..... Amets dagit basoan⁽³⁷⁾
hil nauela, barreaz,
maitagarri⁽³⁸⁾ batek,
ta, gozorik, hileta
abesten didatela
berrehun mila lorek.....

..... Amets dagit nautela
tximirrikek⁽³⁹⁾ ehortzi
abaraska⁽⁴⁰⁾ baten*,
ta hilobia, lasaiki
ta isilka, ari naizela
barra-barra jaten...

..... Amets... Baina, zer dantzut?
Irakurle guztiok
zurrungaka lorik?

⁽³⁵⁾ egindakoaz arnasa, atsedean hartzeko.

⁽³⁶⁾ ez eginbeharragatik, egiteko dagoenagatik, ordea, kezkatzeko.

⁽³⁷⁾ *oyanan* (1919).

⁽³⁸⁾ "Maitagarri": ipuin harrigarrietan ahalmen miragarriak dituen emakumea.

⁽³⁹⁾ tximeletek, pinpilinpauxek.

⁽⁴⁰⁾ erleen ezti orrazea.

Nire neurtitzok horren
loarazle bizkorrak
uste ez nun* zirenik!

Beraz, gabon, gazteok⁽⁴¹⁾...
Baina... nire buru hau,
jas⁽⁴²⁾!... nola burutu?...
Ohi*-asmatzailearen
onez⁽⁴³⁾ agindutako
“aitagurea” ahaztu!

Gizagaixoa... , noski,
on hutsa bide zenez,
zeruan ahal dago⁽⁴⁴⁾!
Nire “aitagurien”*
beharrik, beraz, ez du,
alegia⁽⁴⁵⁾, izango.

Gauzok hala direla,
laga⁽⁴⁶⁾ dezaket “aita-
gurea” biharko...
Atean euri hotsa... ,
haize-zotin luzeak...
Agur... Da... gi... dan⁽⁴⁷⁾ lo... o... o....

1919ko epaila

⁽⁴¹⁾ *mutillak* (1919).

⁽⁴²⁾ Haserrea adierazten duen interjekzioa: arraiol, demontre!

⁽⁴³⁾ *jas* (...) *onez*: ezin lei burutu!... / *Oe-sumatzalliaren* / *aldez* (1919).

⁽⁴⁴⁾ *Gizagaixoa* (...) *dago*: *Gizajo ori, ordia*, / *otzan-onutza, noski*, / *zanez, goyan dago*... (1919).

⁽⁴⁵⁾ *agiyen* (1919).

⁽⁴⁶⁾ *utzi* (1919).

⁽⁴⁷⁾ Egin dezadan.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 7 / 6a / 7 / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

nahigabien: nahigabeen. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Testuinguruko hoskidetasuna, “nahigabien / nagien”, indargabetuko litzateke]. *nausia*: nagusia. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *afalonduon*: afalondoon. [-1]. *daidan*: dakidan. [+1]. *lotsagabekeriz*: lotsagabekeriaz. [+1; “neurritz : lotsagabekeriz” errima hautsiko litzateke]. *oinetakuok*: oinetakook. [-1]. *Ebe*: Eva. [Egokitzapenaz, “neke : Ebe” errima hautsiko litzateke]. *pixkat*: pixka bat. [+1]. *daiket*: dagiket. [+1]. *Aurkiko*: Aurkituko. [+1]. *obiak*: oheak. [+1]. *obirik*: oherik. [+1]. *hazitxuon*: hazitxoon. [-1]. *baten*: batean. [+1; “baten : jaten” errima hautsiko litzateke]. *nun*: nuen. [+1]. *Obi*: Ohe. [+1]. *aitagurien*: aitagureen. [-1].

Mendi-gaina⁽¹⁾

Maite ditut gailurrak
argiak ez beste⁽²⁾...
Ai, hegaztia banintz,
gainik gain nenbilke⁽³⁾!

* * *

Oi⁽⁴⁾, udaberri goizez
mendiaren gailurra!...
Oi⁽⁵⁾, haren ametsezko
zorakortasuna⁽⁶⁾!...
Zein ezkutuzko indarrez,
zein atsedeen-egarriz,
zein gorago-joranez⁽⁷⁾
narakark higana?...

Egiz*, maitagarriak
dituk hire basotan*?...
Egiz duk arnasgai⁽⁸⁾ bat
ezilkortzen duna⁽⁹⁾*?...
Egiz, eguzkiaren
lehendabiziko muinaz
sortzen duk zorunaren⁽¹⁰⁾
lore ezezaguna?...

⁽¹⁾ *Mendi-gailurra* (1925).

⁽²⁾ argiak berak ere ez ditu nik beste, nik adina, maite; argiak baino gehiago maite ditut.

⁽³⁾ tontorrik tontor, gailurrez gailur, ibiliko nintzateke.

⁽⁴⁾ *Ai* (1925).

⁽⁵⁾ *Ai* (1925).

⁽⁶⁾ zoramena, lilura, txundidura.

⁽⁷⁾ goragoko irrikaz, gorago iristeko nahi biziz.

⁽⁸⁾ arnasgarri bat, aire bat.

⁽⁹⁾ hilezkortzen, hilezkor bihurtzen duena.

⁽¹⁰⁾ zorionaren.

Nik hamestan⁽¹¹⁾ bezala
ote haiz, mendi-gaina?
Goi jauregiko maila⁽¹²⁾?
Gotzonen hurbilgo⁽¹³⁾?...
Egiz, Jaungoikoaren
esku ta handitasuna
ote dituk hor⁽¹⁴⁾ goitik
sumatzen⁽¹⁵⁾ bertago?...

Hire goi urdinaren
urre lainotsupean
beheko txikerkerion
ahazgaia balegok^{(16)*},
arren, aiskide* urruna,
otoi, mendi maitea,
negar-haran beltz honi
kendu nazakiok⁽¹⁷⁾!

* * *

Maite ditut gailurrak
argiak ez beste...
Ai, hegaztia banintz,
gainik gain nenbilke!

1920

⁽¹¹⁾ amesten haudan.

⁽¹²⁾ Goiko jauregira, zerura igotzeko maila.

⁽¹³⁾ Aingeruengandik hurbil dagoen tokia.

⁽¹⁴⁾ *an* (1925).

⁽¹⁵⁾ *nabaitzen* (1925).

⁽¹⁶⁾ *txikerkerion* (...) *balegok*: txikikeria hauen ahazgaia, ahazgarria, balego; huskeria hauek ahatzarazteko gai litzatekeen zerbaite balego.

⁽¹⁷⁾ *negar* (...) *nazakiok*: hik ni negar-haran beltz honi ken nazakiok, hik ni negar-haran beltz honetatik atera nazak. Aditz paradigma desberdinetako osagaiak lotuz osaturiko adizkia.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a // 7 / 7 / 7 / 6a / 7 / 7 / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

Egiz: Egiaz. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari. Orobat hurrengo hiru *Egiz* formetan]. *basotan*: basoetan. [+1]. *duna*: duena. [+1; egokitzapenaz, “duna : ezezaguna” errima murriztuko litzateke]. *balegok*: balego. [“balegok : nazakiok” errima hautsiko litzateke]. *aiskide*: adiskide. [+1].

Zeru-azpia

Pantzeratik⁽¹⁾ *itzulia, mamiz*
(BESSE DE L.⁽²⁾)

I

—Esan, amatxo: aingerutxoek
hegoa urrezko badute,
zeru urdinean urre-dirdira
nik nola ikusten ez ote?...

Barre gozo bat amak eginda,
haurrari hala diotsa*:
—Behetik dakusgun* urdina zeru-
azpia baizik ez baita.

—Ene, ba!, azpia –mutilak dio–
horren ederra delarik,
nolakoxea ote da, gero,
zerua goi alderditik!...

II

Gautu zenean, ortzi zabala
bare-oskarbi zegoen,
ta izar argien zilar-begiek⁽³⁾
haurrari par* zegioten.

⁽¹⁾ Frantsesetik.

⁽²⁾ Alfred Besse de Larzes (1848-1904), bat-bateko olerkiak sortzeko abilezia handiko poeta-bertsolari frantziarra, Marseillan jaio eta Coutances-en (Normandia) bizi izan zena. “Zeru-azpia” “L’envers du ciel”en, neurtzilar honen lanik aipagarrienaren itzulpena da. Besse de Larzesek olerki hori haur baten ehorzketa-segizioarekin topo egitean bat-batean asmatu eta idatzi zuen.

⁽³⁾ zilarrezko begiek.

Haur kezka oro amets eztitu
 bihur ohi diren garaian,
 haurrak, amaren bihotz alboan,
 berriro honela ziotsan^{(4)*}:

—Zerua azpitik horren ederra
 delarik, amatxo maite,
 ai nire poza, zeru-gainkia⁽⁵⁾
 ikustera ahal baningoke⁽⁶⁾!...

III

Haurraren nahia zeruratu zen
 (halatsu otoitz garbia),
 ta aingerutxoek eska zioten
 Jaunari lagun berria.

Eguzkiaren urrezko jaia
 berriro izeki⁽⁷⁾ zeneko,
 begia itxirik zeukan haurtxoak
 zeru-azpia ikusteko.

Sehaska aldean ama gaixoak
 otoi zegien⁽⁸⁾, negarrez,
 semea igoa baitzun*, zeruko
 goikia⁽⁹⁾ ikusi beharrez.

1925

⁽⁴⁾ esaten zion.

⁽⁵⁾ zeruko gainaldea, gaineko alde.

⁽⁶⁾ igo ahal banendi, igo ahal banintz.

⁽⁷⁾ piztu.

⁽⁸⁾ egiten zuen.

⁽⁹⁾ goiko alde, gainaldea.

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 8a / 10 / 8a. Hamar silabako neurtitz guztiak, zehazkiago: 5+5.

EGOKITU GABEAK:

diotsa: diotso. [Egokitzapenaz, “diotsa : baita” errima hautsiko litzateke]. *dakusgun*: dakusagun. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako bertso-lerroari]. *par*: barre. [+1]. *ziotsan*: ziotson. [“garaian : ziotsan” errima hautsiko litzateke]. *baitzun*: baitzuen. [+1].

Aldakeria⁽¹⁾

(Maitezko ipuin mikatza)

I

Leioa. Kaiola, bertan.

Urrezko hariz lotuta, pozik, txoria:

ez margo, ez eztarria⁽²⁾;

ederrik gaixoa nekez ezertan...

Itzalgarrri mahatsondoa.

Ikusgai, berriz, ibai, mendi, baso, zelai,

ta udaren urrea non-nahi...

Bazun* zerk aska-zaletu gogoa⁽³⁾!Mahaitar⁽⁴⁾ zituen txolarre⁽⁵⁾bihurriak, maiz; enarak⁽⁶⁾ aiskide*, berriz;ta irraka⁽⁷⁾ joan-etorritz,iluntzeak ditun* sorbeltzak⁽⁸⁾ ere.

Txolarreak diotsona:

—Oi, ene lagun gaixoa! Lotu gabarik,

heure mahai gizen bera nik!...

Oi, zein maite dudan askatasuna!...

(1) Lizardik, poema hau egin baino urte batzuk lehenago, izenburu eta gai bereko ipuina argitaratu zuen, prosaz: "Aldakeri" (*Euzko-Deya*, 26, 1917-03-16, 6). Honako ohar hau ezarri zuen hasieran: "Edestitxo hau aspaldiko den ala ez, ezin esango dizuet, ezta nork ikasi-behartu zidan, atsegin ez naizelako esateaz; baina, hori berbera ez bada ere, horren antzeko asko behintzat egunero gerta ohi direla, bai, noski". "Aldakeri" jatorrizko izenburua, gaztelaniazko itzulpenean (1932): "Veledad".

(2) kanturako eztarria.

(3) Bazuen bere gogoa askatasunaz zaletzeko eraginik, gairik, motiborik.

(4) Mahaikide, mahaiko.

(5) hormatxori, kurloi, eliza-txori.

(6) Jatorrizkoan: *inarak*.

(7) biraka, jiraka, bueltaka.

(8) txirringiloak, txirrioak, mitxigoak. *Vencejo* (es); *martinet* (fr).

Enarak: —Ene laguna,
errukarri haiz; ez baituk inon habirik*
ume laztanek beterik!...
Oi, zein maite dudan askatasuna!...

Sorbeltzak: —Ez duk biguna
hire zoria. Begitu* nazak, hemen-hor⁽⁹⁾,
laster bai zabalak mozkor⁽¹⁰⁾!...
Oi, zein maite dudan askatasuna!...

Txoriak: —Ez zuen ele⁽¹¹⁾
maitekorrek, ez hemendiko ikuskizunok...
inork ez ezerk, lagunok,
ezin naute eginen askatu zale.

* * *

Leihora, bat-batean, nor?...
Eder-ametsik ezinena, haragituta!
Neskatzak: —Hega —dio—. Ta,
kaiola zabalduz: —Maiteñoa, hator... .

Haren begikun⁽¹²⁾ gozoa!...
Burdin tartetik giltzape beltzean sartzen,
askatasun egunaren
urratzea ez den bezalakoa...

Txoriaren poz-ikara!...
Urontzitxoan murgildu ta astinduz gero,
maitetasunarren* ero,
badoa dei dion aho gorrira.

⁽⁹⁾ orain hemen eta berehalaxe hor; etengabe hegan.

⁽¹⁰⁾ lastertasunak, abiadak bai eta espazioak ere mozkorturik.

⁽¹¹⁾ hitz, berba.

⁽¹²⁾ begirakune, begirada.

—Hega hadi, maiteñoa, arin,
 niri biraka, eskuaz bainegok^{(13)*} erne...
 Lasterrago! Horrelaxe! Ene!
 Ukaldia jaurti⁽¹⁴⁾, ta atzitu⁽¹⁵⁾ ezin!
 Gaiztoa! Geldirik! Hator!...
 Nirea haiz noizbait! Laztan bat; orain bestea.
 Jan nahi haut, ene maitea!...
 Horra, gaurkoz, niri berrehun musu zor...

* * *

Leiho gaineko inarari*,
 hona zein ohar zioskan^{(16)*}, ezin hobeak,
 txolarre lotsagabeak,
 bihurki eraginik begiari⁽¹⁷⁾:
 —Ikus dun⁽¹⁸⁾ hori, laguna?...
 Ez din⁽¹⁹⁾, horratik, horrexek jaso makala,
 ederrez hain motza dala*...
 (Zozoak beleari⁽²⁰⁾..., dakiguna).

⁽¹³⁾ Jatorrizkoan *bainegok* > bainagok: azalpenezko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. “Bainago” beharko luke, baina egokituz gero testuinguruko hoskidetasuna murriztuko litzateke.

⁽¹⁴⁾ eskuz harrapatzeko kolpea, eskutada bota.

⁽¹⁵⁾ atzeman, harrapatu.

⁽¹⁶⁾ ziotsozan, esaten zizkion.

⁽¹⁷⁾ begiz keinu bihurria, maltzurra eginez.

⁽¹⁸⁾ Poetak enara femenino gisa hartzen du eta noka mintzo zaio: dun (hikako neutroa, noka, hik hura). Zuka: duzu.

⁽¹⁹⁾ din (hikako alokutiboa, noka, hark hura). Zuka: du.

⁽²⁰⁾ Esaera zahar ezagunaren etendura, erretizentzia: “Zozoak beleari, ipurbeltz”.

II

Uda joan da. Marduldu zaizka* mordoak⁽²¹⁾
 mahatsondoari. Behinola⁽²²⁾,
 –hegari* mozkorra– jo du kaiola
 gazteenik hildako hostoak.

Agur⁽²³⁾, enarok... Ai, zuen habi* goxoa
 berriz beterik deneko!...
 Ai, zeinen luze zuen hurreneko*
 maitaldiaren beroa!...

Egunek ihes, ta goiz bat, zuriz jantzia,
 dar-dar jaio zen... Negua.
 Zertan hago, gogo minak puztua,
 zer dela-ta itun⁽²⁴⁾, txoria?...

Ohar, baina, non datorren hire maitea!
 Ene!... zerk, ordea, zimur
 eragin ezpainei?... Ene!... nork lapur
 begien irribarrea?...

Leiho-kaiolak zabaldu ditu, bat-bana⁽²⁵⁾...
 Sartu du Neguak sudur
 ospeldu-zorrotza. Txoria, beldur,
 hega da maiteagana...

⁽²¹⁾ Guritu, heldu zaizkio mulkoak, mahats aleen multzoak.

⁽²²⁾ Behin batean, behin batez.

⁽²³⁾ Adio, beste bat arte.

⁽²⁴⁾ *illun* (1929).

⁽²⁵⁾ Leihoa eta kaiola zabaldu ditu bat-banaka, banan-banan, bata bestearen ondoren.

Ai, haren esku, laztankor iaz⁽²⁶⁾ izana.
 Lore-orria arantz* bihur!...
 Lehengoa daitekek, zakarki elur-
 pera egotzi hauena?

Negargarria! Leiho ostean⁽²⁷⁾ itzalia
 bizitz-bizitza huen garra!...
 Hire eguzkiaren ilunabarra!...
 Betiko hil argi guztia!...

Hega, bai, hega! Oro zegok hotz, bai bakar;
 oro, bai, ene!, zuria!...
 Non jana, ta aterperik non, txoria,
 bila arren adarrrik adar?...

* * *

Gose-nekeak* ahuldurik, elur gainean
 etzin⁽²⁸⁾ da; ta arin, geldiak
 deituta⁽²⁹⁾, gogapen negargarriak
 egotzi zaizka* taldean⁽³⁰⁾.

Inoiz ikusi duzue tximirrikarik⁽³¹⁾,
 hiltzeko jausitakoan,
 xomorroek jana nola dagoan*,
 azkenak egin ezinik?

⁽²⁶⁾ lehen.

⁽²⁷⁾ Leiho atzean.

⁽²⁸⁾ etzan.

⁽²⁹⁾ geldirik egoteak eraginda, gelditasunak erakarrira, bultzatuta.

⁽³⁰⁾ oldartu zaizkio multzoan; erasoka etorri zaizkio piloan.

⁽³¹⁾ tximeletarik, pinpilinpauxarik.

Bero gozoa! Jantoki alez betea!
Laztan eztiak goizean!...
Agur, agur!... Oi! Heriotza-aurrean,
etsipenaren nekea!

Inoiz habirik* egin gabeko gaixoa!
Elurretan, hor, txoria,
epelak ohatuta⁽³²⁾, hire habia...
lehenen bai azkenengoa⁽³³⁾!...

* * *

Elur ta elur: elurra, etengabeen.
Iluntze beldurgarria!...
Astindu nahi... Hega nahi... Ai, txoria!,
elurra beti soinean!

* * *

Aleak une, dihardu, nagiz, Aldiak⁽³⁴⁾
jalkitzen artaburua⁽³⁵⁾...
Agurea baita, dar-dar eskua,
logura, berriz, begiak...

* * *

Hil nahi, ezin hil... Gauaren azkengabea⁽³⁶⁾!

* * *

⁽³²⁾ gorputzaren epeltasunak ohea, hots, habia, eginda, moldatuta, atonduta. *Sakonduta* (1929).

⁽³³⁾ Iehenengoa bai eta azkenengoa ere.

⁽³⁴⁾ "Aldi(a)": Kronos, Saturno, izaki mitologikoa, denboraren pertsonifikazioa.

⁽³⁵⁾ *Aleak (...)* artaburua: aleak uneak direlarik, aleak uneak balira bezala, Aldiak nagiz dihardu artaburua jalkitzen, aletzen. *Aletzen* (1929).

⁽³⁶⁾ Bai gau amaigabea!

Eguna?... Bai, nekezkoa;
ur-esnea baino motelagoa...
Eguna noizbait, ordea!

Hil aurreko indar hondarrak suspertu⁽³⁷⁾?... Behintzat,
txoria leihorantz doa,
mozkorki –halatsu udazken-hostoa–,
egun nekez jaioaz bat⁽³⁸⁾.

Mokoz bai hegoz otoikor astindu ditu
leiarki⁽³⁹⁾ lausoz beteak...
Ai, behin ere ez balu zorigabeak
begiaz lainoa urratu!

Margoz, bikaina; eztarriz, abeslaria;
bigunki, barru gozoan,
zatarretsiaren⁽⁴⁰⁾ kaiolatxoan,
lo dago beste txoria...

Errukarria! Behin eta berriz, alena⁽⁴¹⁾*!
Nondiko gezi zorrotza
bat-batez heldu zaik hegan, bihotza
josteko guztiz zuzena?...

* * *

Leiho-harrian jausi zen: lauso⁽⁴²⁾ begiak,
zutiturik errotxoak⁽⁴³⁾,

⁽³⁷⁾ bizkortu ote du?

⁽³⁸⁾ nekez jaiotako egunarekin batera.

⁽³⁹⁾ beiraki, kristal.

⁽⁴⁰⁾ txori gaitzetsi, arbuiatu, ezetsiaren.

⁽⁴¹⁾ Enfasia erantsiz, aurreko izenondoak adierazitako gaitzespena areagotzen duen adjektiboa: errukarria alaena!; errukarria halakoa!

⁽⁴²⁾ lausoturik. *Laño* (1929).

⁽⁴³⁾ hankatxoak.

behatzak bihurri⁽⁴⁴⁾, zabal⁽⁴⁵⁾ hegoak,
harroturik hegakiak⁽⁴⁶⁾...

1925

NEURRIA eta ERRIMA:

I: 8a / 5+8B / 8b / 11A.

II: 5+8A / 8b / 11B / 8a.

EGOKITU GABEAK:

Bazun: Bazuen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako bertso-le-
rroari]. *aiskide*: adiskide. [+1]. *ditun*: dituen. [+1]. *habirik*: habiarik. [+1]. *begitu*: begiratu.
[+1]. *maitetasunarren*: maitasunarren. [-1: egokitzapenaz, zortzi silabako neurtitzak silaba bat
galduko luke]. *bainegok* > bainagok: bainago. [Egokitzapenaz, “-negok, -erne, Ene” hoski-
detasuna murriztuko litzateke]. *gaineko inarari*: gaineko enarari. [+1: egokitzapenak “-o i-”
sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako neurtitzari]. *zioskan*: ziotso-
zan. [+1]. *dala*: dela. [Egokitzapenaz, “makala : dala” errima murriztuko litzateke]. *zaizka*:
zaizkio. [+1]. *hegari*: hegalari. [+1]. *habi*: habia. [+1]. *hurreneko*: hurrengo. [-1; “deneko :
hurreneko” errima murriztuko litzateke]. *arantz*: arantza. [+1]. *Gose-nekeak*: Gose-nekeek.
[-1]. *zaizka*: zaizkio. [+1]. *dagoan*: dagoen. [“jausitakoan : dagoan” errima hautsiko litzateke].
habirik: habiarik. [+1]. *alena*: alaena. [+1].

⁽⁴⁴⁾ bihurriturik.

⁽⁴⁵⁾ zabalik.

⁽⁴⁶⁾ hegatsak, lumak, puztu eta nahasturik.

Xabiartxoren heriotza

*Nire lehenengo Xabiartxoren⁽¹⁾
heriotza egunean:
1925eko lotazilaren⁽²⁾ 24an*

I

Gabon egun goizean
Jaun Aita pozik
jaiki, ta aingerutxoak
horra non bildu ditun*
esanik:

—Poztu, ene txikiok,
gaur, arratsean,
hautxorik ederrena
jaiotzekoa baita
lurrean.

Apaindu, ta zoazte
guztiok behera
berri ona zabalduz,
zuen Jaungoikotxoa
gurtzera.

Zenbat zarete, baina?
Bat, bi, hiru, hamar,
hogei, ehun, mila... Gutxi!
Jai hontako*, gehiago
nik behar!

⁽¹⁾ Ikus 151. orrialdeko 1. oin-oharra. Xabiartxo 1925eko azaroaren 7an jaio zenez, 47 egun besterik ez zituen hil zenean.

⁽²⁾ abenduaren.

Entzun: hega lurreko
sehasketara,
ta haur zoragarrienak,
ene maiteok, bertan
aukera.

Masailean laztan bat,
eztiz betea:
eskutik har, ta abia. . . ,
horrela ugalduz zuen
taldea.

Ta, lurbira guztia
egin ondoren,
jaiez jantziz bihotzok,
bildu, iñularrerako⁽³⁾,
Betleemen.

* * *

Zalaparta bizian,
txalo jo ta jo,
Jainko zaharrari oro
baranoan⁽⁴⁾ hegatu
zaizkio.

Ta, harantz lagun eginda
puska batean⁽⁵⁾,
hemen datoz berriro,
hega-iraulka^{(6)*} pozaren
pozean.

⁽³⁾ ilunabarrerako.

⁽⁴⁾ guztiak inguruan. *Billaldean* (1926).

⁽⁵⁾ *harantz* (...) *batean*: Jainkoari harantzako bidean tarte batean lagundu ondoren.

⁽⁶⁾ hegoak irauliz, astinduz; hegan itzulipurdiak, zilipurdiak, eginez.

* * *

Jaunaren baratze
iturrietan
murgildu, ta ari dira⁽⁷⁾
beren buruon eder-
lanetan⁽⁸⁾.

Gertu ta gero, urrezko
txilibitoak*
ahoratu, ta abia
ziren, zabala harrotuz
hegoak⁽⁹⁾*

Non dira?... Hantxe, urdinaren
sakonenean,
ezer ez duzu ikusten
argizko hauts-irakin
antzean⁽¹⁰⁾?...

Noratsu?... Inon ez. Oro
lehengoraturik⁽¹¹⁾,
begiak ez du jotzen⁽¹²⁾
urdin baztergabea
besterik.

⁽⁷⁾ *asi dira* (1926).

⁽⁸⁾ edertze-, apainketa-lanetan. Olerkiaren hamargarren estrofa honen ondoren, 1926ko testuak 1932koan agertzen ez diren lau estrofa dakartza, Lizardik, Orixeren aholkua ontzat hartuz, inausiak: “Ura jolaska astinduz, / haien (1) argi-harri (2) / joste dizdizaria, / hego bigun-harrotan, / elkarri!... // Hemen-hor, ur-ertze / hosto-itzalpetan, / eguzki izpizko orraziz / dituzu inortzuk, ile / leunketan. // Asko, esku betean / ura jasorik, / mami zuri-gorriak / igurtzika daude, eten- / gaberik... // Ta usain zoragarririk / baitariotel, / hartu ahalan ur mehea / miritz (3) gozo bihur bait- / zaiote (4)...”. (1) aingerutxoen, alegia; (2) harribitxi; uraren astinketaz ateratako ur tantak, zipriztinak, poetak harribitxi bihurtzen ditu; (3) ukendu, gantzu; (4) zaie.

⁽⁹⁾ espazioa hegoekin harrotuz, astinduz eta hanpatuz, nahasiz.

⁽¹⁰⁾ argizko hautsezko irakitearen antzean; irakiten dagoen argizko hautsaren antzerakoa.

⁽¹¹⁾ Guztia lehengo egoerara itzulirik.

⁽¹²⁾ bereizten, sumatzen, nabaritzen.

II

Gabon egun goizean,
sehaskatxoan,
Xabiertxo gaixoa
gaitzak ito zorian
zegoan^{(13)*}.

—Zer duk, eguzki horrek,
gure ederrena?
Nork min egin, esadak,
bihotz biren zatirik
maiteena?...

Itxoin! Ustez, arnasa
baretu zaio:
barre antx gozo batek
ezpaintxoak argitu
dizkio...

—Inoren hitz emeak
entzuten hago⁽¹⁴⁾,
geldi-geldirik eta
bular ez-tian baino
pozago?...

⁽¹³⁾ *Argia* aldizkariaren 1926-12-26ko alean kaleratutako bertsoan, olerkiaren bigarren atal honetan behin bakarrik ageri da elkarrizketa marra (—), hots, solaskide bakoitzaren jardunaren hasiera markatzen duen marra: bigarren estrofan. Solaskide bakarraren jarduna, beraz (emaztea ala senarra?). 1932ko edizioan, berriz, bitan ageri da elkarrizketa marra: bigarren eta laugarren estrofetan. Hortaz, bi solaskideren jarduna: senar-emazteena; emaztearena aurrena?

⁽¹⁴⁾ Ikus bosgarren eta seigarren estrofak.

Ene! Beldur! Ez hil, ez,
arren, txikia!
Ez joan, gure poza,
ez, gure biziaren
argia!

Ene! Gure bihotzon
erdibitzea!
Nekez arterainoan
itotako negarra
lehertzea!...

Ene! Amen begien
negar-hobiak⁽¹⁵⁾
hondoa jo ezinak⁽¹⁶⁾
egin ote ditu Jaun
handiak?...

Bular joritik ez haut,
ene!, ikusiko
zalapartan edaten,
gosea aserik baituk
betiko!...

Eguzkiak inguma⁽¹⁷⁾
bezain maitea,
ala maiteminduak
maite-ezpainek ukitu-
lorea⁽¹⁸⁾!...

⁽¹⁵⁾ negarra biltzen, gordetzen duten begietako hobiak, hutsuneak.

⁽¹⁶⁾ hondorik gabeak.

⁽¹⁷⁾ tximirika, tximeleta, pinpilinpauxa.

⁽¹⁸⁾ *ala* (...) *lorea*: edo maiteminduak maitearen ezpainek ukitu duten *lorea* (bezain maitea). *Maitariak, maiteak, / berriz, mun-egindako / lorea!*... (1926).

Higan ipinitako
ametsak, baina,
hauskorrak ote ziren,
inguma ta loreak
ez aina^{(19)*}?...

III

—Berandu? —Bai, maitea;
iluntzea den^{(20)*}...
Atsekabeak ez din
astiaren neurtzea
jakiten.

—Ixo... Nortzuk daitezkek
atarikuok*?...
Nor zetorkek⁽²¹⁾, algaraz,
minagotzera gure
malkuok?

* * *

(*Ataritik*).

Etxekoandre ona:
kantatzerik⁽²²⁾ nabi?
Jaiotzadunak⁽²³⁾ gara,
begirunez beteak
zure zai...*

⁽¹⁹⁾ *hauskorrak* (...) *aina?*: inguma eta loreak baino hauskorragoak ote ziren?

⁽²⁰⁾ Senar-emazteak elkarriketan, hikako erregistroz.

⁽²¹⁾ zetorkek (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: datorke, etor daiteke.

⁽²²⁾ *abesterik* (1926).

⁽²³⁾ “Jaiotzadunak”: Gabon egunean, Jesusen jaiotzaren irudia etxez etxe, kantari eta eskean, taldean daramaten haurrak. *Jaiotz-zaleak* (1926).

* * *

—Nortzuk dituk?... Esaiek
alde egiteko!
—Gorritz argitutako
jaiotzaz, dun sorta bat
mutiko...

* * *

(Ataritik).

Ettxekoandre ona:
kantatzerik nabi?
Belen-zaleak⁽²⁴⁾ gara,
sari-ustez beteak⁽²⁵⁾
zure zai...

* * *

—Bihoaz! —Ez, maitea;
begira zaien^{(26)*}...
Gurea inoiz, hazita,
hoiek* bezala ibiltzen
ahal luken⁽²⁷⁾!

* * *

⁽²⁴⁾ *Belen*, hemen, jaiotza da, ez hiria. *Jaiotz-zaleak* (1926).

⁽²⁵⁾ saria izateko ustez beteak, sariaren itxaropenez beteak. *Begirunez beteak* (1926).

⁽²⁶⁾ iezaian (hikako neutroa, noka, hik haiei). Zuka: iezaiezu.

⁽²⁷⁾ *Gurea*, inoiz, *hazita* esaten denez, aditz-perifrasi hau geroaldian, alegiazko ondorio gisa irakurri behar da: ibiltzen ahal luken (hikako alokutiboa, noka, hura). Zuka: ibiltzen ahal litzateke. Perifrasirik gabe, ibil liteken. Zuka: ibil liteke.

(Ataritik).

*Etxekoandre ona:
abesterik nahi?
Gabon-zaleak⁽²⁸⁾ gara,
ezin-etsiz beteak
zure zai. . .*

* * *

—Zuzen diok. Haur Onak
onetsi bitza!
Sartu, muttil ederrok,
sehaska-alderaturik⁽²⁹⁾
jaiotza.

Sartu, ta jo, beldurrik
gabe. Gaixoa
lotan duzue, baina
hotsak astindu-gaitza
du loa⁽³⁰⁾. . .

Jo, bai, gaur baita Haur Ona
jaiotzekoa!
Jaiki, bihotz hautsia,
pozezko jaia baita
gaurkoa!

⁽²⁸⁾ *Jaiotz-zaleak* (1926).

⁽²⁹⁾ sehaskara ondoraturik, hurbildurik.

⁽³⁰⁾ *hotsak* (. . .) *loa*: hotsak nekez astintzen, nahasten duen horietakoa du loa.

Jaiki, gure maiteena
 Betleemen baita,
 ortzi izartuan zehar
 hego bigun harroek
 bultzata*!..

Hoska baitago, urrezko
 txilibitoaz*,
 zeuen gabon abesti
 berberok Betleemen jo
 ta joaz.

Jo, bai, maiteñoaren
 oroiz, muttilok.
 Gur gakizkion⁽³¹⁾ Jainko
 haurtxoari⁽³²⁾ biziok
 eta hilok...

* * *

*Aintza goian Jaunari
 askigabea⁽³³⁾,
 ta bere nabia ontzat
 etsitako lurtarroi⁽³⁴⁾...
 bakea!*

1926

⁽³¹⁾ Jatorrizkoan *Gurtu gatzaien*, bost silabakoa. Egokitzapena ere bost silabakoa da.

⁽³²⁾ Gur (...) *haurtxoari*: makur, ahuspez jar gakizkion Jainko haurtxoari; adora dezagun Jainko haurtxoa.

⁽³³⁾ amaigabea.

⁽³⁴⁾ ontzat (...) *lurtarroi*: onetsitako, ontzat eman duten lurtarroi.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 5a / 7 / 7 / 3a.

EGOKITU GABEAK:

ditun: dituen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *bontako*: honetarako. [+2]. *hega-iraulka*: hego-iraulka / hegal-iraulka. [Lehenengo egokitzapenaz hitz elkartuaren hoskidetasuna, “-ga, -ra-, -ka”, murriztuko litzateke / Bigarrenaz, “-a i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako neurtitzari]. *txilibitoak*: txilibituak. [Egokitzapenaz, “txilibitoak : hegoak” errima murriztuko litzateke]. *hegoak*: hegoek. [“txilibitoak : hegoak” errima hautsiko litzateke]. *zegoan*: zegoen. [“sehaskatxoan : zegoan” errima hautsiko litzateke]. *aina*: adina. [+1; “baina : aina” errima aldatuko litzateke]. *den*: dun. [“den : jakiten” errima hautsiko litzateke]. *atarikuok* (...) *malkuok*: atarikook (...) malkook. [“atarikook” eta “malkook” egokitzapenez ez litzateke errima hautsiko baina bertso-lerro bakoitzak silaba bat galduko luke]. *zai*: zain. [“nahi : zai” errima hautsiko litzateke. Orobat aurreragoko beste bi estrofatan]. *zaien*: iezaien. [+2]. *boiek*: horiek. [+1]. *bultzata*: bultzatuta. [+1]. *txilibitoaz*: txilibituaz. [“txilibitoaz : joaz” errima murriztuko litzateke].

Neskatxa urdin-jantzia

Udaberri⁽¹⁾, uste ezik⁽²⁾,
 aurki dut basoan.
 Neskata da, ta urdinez
 jantzita zihoan.
 Urdina janzkia, ta
 begia areago:
 halakorik itsaso
 barean ez dago.
 Begi eder-goseok,
 ase zakidate*!,
 inon ez baititake*
 ederrik, hau beste.
 Mamia⁽³⁾ du nahasian
 oratua⁽⁴⁾, inolaz⁽⁵⁾,
 Lorail-laino⁽⁶⁾ goiztar* ta
 marrubi odolaz.
 Arbazta⁽⁷⁾ iharrarena
 bezain su zolia⁽⁸⁾
 Egunek⁽⁹⁾ biztu dio
 jorik iledia⁽¹⁰⁾.
 Haren oinek ukitzen

⁽¹⁾ Udaberria, izen bereziz pertsonifikatua.

⁽²⁾ ezustean, ustekabeen.

⁽³⁾ muina, barnea; gorputzeko haragia.

⁽⁴⁾ ore, masa egina; osatua, moldatua.

⁽⁵⁾ zalantzarik gabe, dudarik gabe.

⁽⁶⁾ Maiatzeko laino.

⁽⁷⁾ Adar xehe, abar mehe.

⁽⁸⁾ bizia, argia.

⁽⁹⁾ Eguna, izen bereziz pertsonifikatua.

⁽¹⁰⁾ ilajea, adatsa, ile multzoa.

ote dute lurra?
Ezetz diot: ez baita
malgutu⁽¹¹⁾ belarra.
Biluzik zen basoa
negu hondarrean⁽¹²⁾,
neskatxa urdin-jantzia
bertara⁽¹³⁾ denean.
Zebilela, hats epel bat,
usainez joria,
dama⁽¹⁴⁾; ta adar beltzetan
erne da bizia.
Orriz orri janzten da
basoa, gozoro...
Bakan-bakanka⁽¹⁵⁾, lehenen...
Sarri-sarri⁽¹⁶⁾, gero.
Eguzki itzul* berriak
(maitari goiztarrak)
muinkatu du basoa
(muinkatu senarrak)⁽¹⁷⁾...
Emazte ezkonberria
dela uste basoa⁽¹⁸⁾...
Haren dardar* emea...
Haren par* gozoa!

⁽¹¹⁾ tolestu, makurtu, okertu.

⁽¹²⁾ neguaren bukaeran. *Negu-azkenean* (1929).

⁽¹³⁾ *basora* (1929).

⁽¹⁴⁾ ematen, zabaltzen du.

⁽¹⁵⁾ Gutxika-gutxika, apurka-apurka / Mehatz-mehatz, sare-sare; han-hemenka.

⁽¹⁶⁾ Azkar-azkar, arin-arin / Trinko-trinko, itxi-itxi; orriz tapitua.

⁽¹⁷⁾ *muinkatu* (...) *senarrak*: muin egin dio, musu eman dio basoari, senar moduan.

⁽¹⁸⁾ *Emazte* (...) *basoa*: eguzkiak uste du basoa emazte ezkonberria dela.

Ustez, buru gainean
 gaua dut, argia,
 hamaika izar urdinen
 dirdirak josia...
 Ustez, ur orlegiak
 nituen oinean,
 izarrok zirelarik
 islatzen urean...
 Gezur amesgarria,
 lilurak sortua!
 Goian urdina nuen,
 hostoek xehetua*;
 behean, berriz, urrezko
 jarioz argiak
 belarrean ohi ditun*
 begibil zoliak⁽¹⁹⁾.
 Marmarra dabil goian,
 ezin daikezuna⁽²⁰⁾*
 hots ezti den igarri
 ala isiltasuna.
 Bat-batez, ehun txoriek*
 eztarriak eten,
 ta aberaski zabala⁽²¹⁾
 bitxiz jantzi zuten...

⁽¹⁹⁾ *Gezur (...)* zoliak: lilurak poetarengan sortu duen ametsezko irudipena besterik ez da izan; gaua, egiazki, zuhaitzetako hostailak, hosto eta abarren multzoak sortutako itzalgunea, iluntasuna da; izar urdinak, berez, hostailan zehar ikus daitezkeen urdin tarreak, zeru tarreak; ur orlegiak eta izarren isla, berriz, lurreko belar berdea eta hostailaren tartetik filtraturiko argiak belarrean (ihintz tantetan) eratu ohi dituen begi biribil txikiak, zoliak, urduriak dira.

⁽²⁰⁾ dagikezuna, dezakezuna.

⁽²¹⁾ espazioa, ingurua.

Egun-ehunez⁽²²⁾ jantzia
berrikusi nahiez*,
bira ditut begiak,
bira, baina... inon ez!
Non da, non da sorgina,
basoak maitea?
Begiaz dut, alferrik,
jo haren bidea⁽²³⁾.
Joana zen... joana,
niri, bihotzean,
kezka beldur-eztia
josi ondorean...

Maitetasun* hazia,
ene udaberria:
neskatx* tankerakoa
ta urdinez jantzia!...

1927

⁽²²⁾ Egun-argizko ehunez, oihalez.

⁽²³⁾ *Begiaz (...)* bidea: arretaz begiratu, begiztatu dut, alferrik, haren bidea. *Ikus-arterañoan / utsik da bidea...* (1929).

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

zakidate: zakizkidate. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako bertso-lerroari]. *baititake*: baitaiteke. [Egokitzapenaz, testuinguruko hoskidetasuna, “zakidate / baititake” indargabetuko litzateke]. *goiztar*: goiztiar. [+1. Orobat aurreragoko *goiztarrak* forman]. *itzul*: itzuli. [+1]. *dardar*: dardara. [+1]. *par*: barre. [+1; testuinguruko hoskidetasuna, “Haren dardar / Haren par” indargabetuko litzateke]. *xebetua*: xehatua. [+1]. *ditun*: dituen. [+1]. *daikezuna*: dagikezuna. [+1]. *txoriek*: txorik. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *nahiez*: nahiz. [Egokitzapenaz, “nahiez : ez” errima hautsiko litzateke]. *Maitetasun*: Maitasun. [-1]. *neskatx*: neskaxa. [+1].

Bultzi-leihotik⁽¹⁾

Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nere*!...
Oi, goiz eme,
barre gozoz ernea!...

Arto musker⁽²⁾,
mendi, baserri zaharrak,
ale gorritz
abailduta sagarrak⁽³⁾:

oro laino
mehe batek estalia,
urrez oro
eguzkiak jantzia...

Nekazari,
gizandi⁽⁴⁾ bat iduri
soroan zut:
bejondeizula zuri!...

Zure bazter⁽⁵⁾,
gurazko⁽⁶⁾ aberria,
doa zoro
(ta bertan⁽⁷⁾ ni) bultzia...

⁽¹⁾ Treneko leihotik.

⁽²⁾ berde; muskerraren koloreko.

⁽³⁾ fruituen pisuaz makurtutako, okertutako sagarrondoak.

⁽⁴⁾ gizon handi, erraldoi.

⁽⁵⁾ Zure bazterretik, ertzetik.

⁽⁶⁾ desirazko.

⁽⁷⁾ barruan.

Oi, ene lur,
baninduzu zeurea⁽⁸⁾,
zu landu, ta
zure sariz aseal!...

Baina... ezin:
beheko behar goriak⁽⁹⁾
narama... Agur,
soro, sagar, mendiak!...

1929ko dagonila

NEURRIA eta ERRIMA:

4 / 7a / 4 / 7a.

EGOKITU GABEAK:

nerea: nirea. [Egokitzapenaz, ahapaldi osoaren hoskidetasuna eta, bereziki, “nerea : ernea” errimarena ahulduko litzateke].

⁽⁸⁾ Jatorrizkoan: *zere*a.

⁽⁹⁾ behealdeko (gizarte arazoz irakiten dagoen hiriko, kale giroko, ez mendi inguruko) premia biziak, eginbehar estuak. *Beeko bizitz gorriak* (1929).

Parisko txolarrea⁽¹⁾

Txolarretxo, txolarre,
Paris erdikoa⁽²⁾:
Bourse-ko⁽³⁾ iskanbila
(gizon zoro batzarre)
ez ote nahikoa
hi izutzeko, axolagabe biribila⁽⁴⁾?

Farol itzali baten
txapel gailurrera
etorri haiz xuxen
apur ostu bat jaten:
batetik bestera,
txapelaren muturrak arin dituk gaintzen.

Salto banakin^{(5)*}, begi
ernaiak lurrera:
ez haiz hi makala.
Begiraldi luzeegi
gabe, bahator behera:
ez, alearen orde, jasotzera azala.

Kafe-etxean bainago
astiaren⁽⁶⁾ jabe,
zeregin hoberik
(ezer ez gogarago⁽⁷⁾),

(1) hormatxoria, kurloia, eliza-txoria.

(2) Parisko erdigunekoa, hirigunekoa.

(3) *Bourse*: "La Bourse", merkataritzako eta finantzetako eragiketak egiten diren Parisko Burtsa.

(4) erabatekoa, enteroa.

(5) bakoitzarekin.

(6) aisiarako denboraren.

(7) gusturago, gogokoago.

muinak urtu gabe⁽⁸⁾,
zerbait, halarik ere, gogo jolas baizik?

Leihoak lauso dira,
eguraldiaren
antzoz. Barrenean,
giroaren harira,
lo-xuxtak⁽⁹⁾ egiten
morroi mantal-zuriak daude bazterrean.

Begira, behetik gora,
berriz txolarrea.
Keinuka begiak,
irentsi du, gerora
luzatzeka⁽¹⁰⁾, alea*.
Esku –(?)– peko guri bat⁽¹¹⁾ boteaz, . . . han ziak^{(12)*}!

Parisko txolarrea:
zertan haiz berezi
nire herriko batez?
Azalez, soin-arrea⁽¹³⁾;
barrenez, bihurri;
kideago zaitezten. . . , ez dakik frantsesez!

Kanpandorre xaharrean
bata bezain lasai,
bestea da maiztar*

⁽⁸⁾ burmuinak, adimena, alegia, nekatzeraino iritsi gabe.

⁽⁹⁾ lo-kuluxkak, loaldi arin eta laburrak.

⁽¹⁰⁾ luzatu gabe, gerorako utzi gabe.

⁽¹¹⁾ propina, sari bigun eta leun bat: zirina, alegia. Galdera marka, zalantza, “Esku” osagaiari dagokio: gizakiak eskuz eman ohi du propina (hortik, esku/peko); txoriak, ordea, berea, ez eskuz, baizik. . .

⁽¹²⁾ han zoak (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: han doa. Jatorrizkoan: *an'tziak*.

⁽¹³⁾ soineko arrea, jantzi lur ilunaren kolorekoa.

Tuileri⁽¹⁴⁾ goitarrean⁽¹⁵⁾.
Egingo nuke⁽¹⁶⁾, bai,
hangoa lotsa ezetz honantza banekar⁽¹⁷⁾.
Non-nahitar izan minez⁽¹⁸⁾,
ostera, gizona
bai txori baldarra!
Ahaleginak eginez
bebil⁽¹⁹⁾ handik hona:
etxez kanpora beti duk baserritarra.
Labur: nire burua
Parisen ikusiz
hain lotu ta arlote,
otoi nizun⁽²⁰⁾ zerua⁽²¹⁾,
zehatz adiraziz*
gizon baino nahiago nukeela txolarre.

1930

⁽¹⁴⁾ *Tuileri*: "Tuileries" (teileriak, teila fabrikak), Parisko Louvre ondoan kokaturiko jauregi eta lorategi zabalak. Jauregia, 1564-1570. urteetan eraikitzen hasia, Frantziako erregeen egoitza bihurtu zen. 1871n, Parisko Komunaren altxamenduan, su eman zioten eta 1882an erabat suntsitu zen, bi pabiloi ezik. Gaur egun, bi pabiloi horiek besterik ez dira gelditzen.

⁽¹⁵⁾ ospe, izen handikoan.

⁽¹⁶⁾ Jokatuko, apustu egingo nuke.

⁽¹⁷⁾ hangoa, hots, nire herrikoa, lotsa ezetz, hona, Parisa, ekarriko banu.

⁽¹⁸⁾ Edonongoa, edozein tokitakoa edo toki guztietakoa izan nahiz.

⁽¹⁹⁾ ibil bedi.

⁽²⁰⁾ nizun (zukako alokutiboa): nuen.

⁽²¹⁾ otoiztu nuen zerua; otoi egin nion zeruari.

NEURRIA eta ERRIMA:

7a / 6b / 6c / 7a / 6b / 13C.

EGOKITU GABEAK:

banakin: banarekin. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako neurtitzari]. *luzateka, alea*: luzateke, alea. [+1: egokitzapenak “-a a-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *ziak*: zoak. [Egokitzapenaz, “begiak : ziak” errima murriztuko litzateke]. *maiztar*: maizter. [“maiztar : banekar” errima hautsiko litzateke]. *bonantza*: honantz. [-I: egokitzapenaz, hamahiru silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *adiraziz*: adieraziz. [+1].

Otartxo hutsa

*Alaba bakar zuenari,
aita alargunak⁽¹⁾*

Zumezko otartxoa,
bazterrean hutsik...
Noizdanik, gaixoa,
ez duzu lorerik?

Udaberriero*
baitzenkustan⁽²⁾ ikus
loreontzi naro⁽³⁾,
zergatik gaur hain huts?...

Mendian ari da
kukua kantari;
Basoa ta Itzala
elkarren maitari;

mitxeletak, hilkor
ezik beren ustez,
badabiltza han ta hor
lur apaindu gainez⁽⁴⁾...

Zumezko otarñoa⁽⁵⁾:
udaberria izan
ta, nola, gaixoa,
zaude baxterrean?...

⁽¹⁾ Aita alargunak, zuen alaba bakarraren oroipenez, eskainitako bertso-lerroak. Aita da, beraz, mintzo dena.

⁽²⁾ ikusten baitzintudan.

⁽³⁾ jori, oparo, bete.

⁽⁴⁾ lur apainduaren gainean, gainetik.

⁽⁵⁾ *otartxoa* (1930).

Joan* baita, betiko
joan, aitaren poza⁽⁶⁾!
Loreak biltzeko
ez izaki gauza!

Beso bigun haiek
gogortu baitziran*,
ta itzali begiek^{(7)*}
gau etengabean!...

Zumezko otartxo,
erradazu, arren,
huts duzun hondoa.
Ez ote, bederen,

loreño bat ahaztu
zure sabelean,
aita dadin poztu
bere negarrear?

Hondar ximelenik
gabe zen otarra...
Jaso dut geldirik...
Ari dut negarra⁽⁸⁾...

Geroztik, inoizka⁽⁹⁾,
hurbiltzen natzaio:
begira nagoka*,
begira, luzaro...

⁽⁶⁾ *aitaren poza*: hau da, udaberriro bildutako loreez otartxo bat betetzen zuen alaba bakarra, hila.

⁽⁷⁾ eta itzali ziren begiak.

⁽⁸⁾ Arian, ari dela dut negarra; negar dagit.

⁽⁹⁾ noizik behin, inoiz edo behin.

Ta sarri⁽¹⁰⁾ (gogoan
iruditu bizi⁽¹¹⁾)
lore bat, hondoan,
eginik du mami.

Lore bat, gorria,
mardul, heze, beti⁽¹²⁾;
hetsezin zauria
odolezko iduri⁽¹³⁾...

Oroitzezko lore,
laztan bihotzeko,
itzali den nire
izarrarentzako.

1930

NEURRIA eta ERRIMA:

6a / 6b / 6a / 6b.

EGOKITU GABEAK:

Udaberriero: Udaberriro. [-1: egokitzapenaz, sei silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *Joan*. [Jatorrizkoan *Yun* denez, silaba batekoa, *Joan* egokitzapena ere silaba bakar batez neurtu eta ahoskatu behar da. Orobat hurrengo lerrokoa]. *baitziran*: baitziren. [Egokitzapenaz, “baitziran : etengabea” errima hautsiko litzateke]. *begiek*: begiak. [“haiek : begiek” errima hautsiko litzateke]. *nagoka*: nagokio. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari; “inoizka: nagoka” errima hautsiko litzateke].

⁽¹⁰⁾ berehala; bat-batean. Poema bildumak dakarren gaztelaniazko itzulpenean: “de pronto”.

⁽¹¹⁾ gogoan piztutako, eraturako irudipen bizi; gogoan bizirik dagoela iruditu.

⁽¹²⁾ beti mardul eta heze.

⁽¹³⁾ *hetsezin (...)* *iduri*: hetsi, itxi ezin den odolezko zauria dirudiela.

Agur!⁽¹⁾

Adiskide kuttun, lagun zorigabe,
azpildu gabeko⁽²⁾ bihotzaren jabe,
onerako zabal, ederrak subera⁽³⁾:
hatorkit, Onuzki⁽⁴⁾, gaur oroimenera!

Elkar-ordainaren ezti berdina
behin ta berriz uka maitasunak baitik⁽⁵⁾,
t'ez* eskain bizitzak behazuna baizik
(hala baita mikatz sagar bat helduka⁽⁶⁾);
alde egina haiz urrun, lagun bihozbera,
adi-mugaz harantz-erbeste itzalera⁽⁷⁾.

Adiskide laztan, ehun bider gaixoa:
gogapenak elkar bil-hari meheñoa
behinola zaik eten⁽⁸⁾. . . Adi-jauregia⁽⁹⁾!,
jabe dituk, geroz⁽¹⁰⁾, gaua ta nahasia.

⁽¹⁾ Adio! *Onuzki erotu. Agur* (1934).

⁽²⁾ azpildurarik, toleskeriarik, zurikeriarik gabeko.

⁽³⁾ edertasunak erraz sutzen, gogoberotzen duena.

⁽⁴⁾ *Onuzki*: Felipe Lizundia, zarauztarra, Lizardiren laguna. Oraindik gazte zelarrik, burutik gaixotu, nahastu, eta Arrasateko Santa Ageda eritegira eraman zuten. (Ikus "Onkiren bila" poema).

⁽⁵⁾ *Elkar* (...) *baitik*: maitasunak hiri behin eta berriz uka baitik elkarrekikotasunaren, elkarrekiko harremanaren ezti berdingabea.

⁽⁶⁾ heldugabe(a).

⁽⁷⁾ adimenaren mugaz haraindi, bestaldean, dagoen erbeste itzaltsura, ilunera.

⁽⁸⁾ *gogapenak* (...) *eten*: pentsamenduak elkarren artean biltzen, lotzen dituen hari meheñoa behin batean eten zaik.

⁽⁹⁾ Adimenaren jauregia.

⁽¹⁰⁾ geroztik, orduz gero.

Irudimena huen giharra^{(11)*}, joria⁽¹²⁾;
 baina, hega-baldar baitabil txoria
 lurrera-beharka zauri doanean⁽¹³⁾,
 horren antzo zian hark ohi, maizenean⁽¹⁴⁾.
 Odol eri batek hezetua iduri⁽¹⁵⁾,
 beltz-ikusbera⁽¹⁶⁾ huan^{(17)*}, izukoi, urduri. . .

* * *

Gaberik gabeen gaupean⁽¹⁸⁾ baihago,
 gaztetzaro*-ogitik jankide ninduken^{(19)*}
 honen onginahia⁽²⁰⁾ ez baituk sinesten.
 Ai, nik ahal banezaik⁽²¹⁾, nik ahal (eztiago

⁽¹¹⁾ gihartsua, indartsua.

⁽¹²⁾ *Irudimena* (...) *joria*: jatorrizkoan ageri den *uan* aditz formak irakurketa bikoitza onartzen du: hikako neutro modura, "hik irudimena huen gihartsua, joria", eta, hikako alokutibo gisa, "hire irudimena zuan [zen] gihartsua, joria". Testuingurua, gaztelaniazko itzulpena ("tu imaginación") eta poetak adizki hau beste zenbait poematan ere "huen" gisa erabiltzen duela kontuan izanik, lehenengo aukera hobetsi behar dela dirudi.

⁽¹³⁾ *hega* (...) *doanean*: hegatzte, hegada baldarrez baitabil txoria zaurituta lurrera erori beharrean doanean.

⁽¹⁴⁾ *horren* (...) *maizenean*: *zian* aditz formak ere irakurketa bikoitza onartzen du: hikako neutro moduan, "hark hiri horren antzo (egin) ohi zian", eta, hikako alokutibo gisa, "hark horren antzo (egin) ohi zian [zuen]". Oraingoan, goraxeago aipaturiko arrazoi bertsuetan oinarrituz, bigarren aukera hobetsi behar dela dirudi. Hortaz: hark, hots, irudimenak, txori horren antzera egin ohi zian (hegan) maizenik, gehienetan.

⁽¹⁵⁾ Odol gaixo, pozoitu, kutsatu batek hezetua, umeldua balego bezala zirudielarik.

⁽¹⁶⁾ dena beltz ikusteko joerakoa.

⁽¹⁷⁾ Hemen ere, jatorrizkoan ageri den *uan* bi modutara irakur daiteke: hikako neutro moduan, "hik irudimena beltz-ikusbera huen", eta, hikako alokutibo gisa, "(hire) irudimena, (hire) irudimen hori beltz-ikusbera zuan [zen]". Oraingoan, testuingurua eta gaztelaniazko itzulpena kontuan harturik, agian, bigarren aukera da egokiena.

⁽¹⁸⁾ Gabeziarik handieneko, izugarrieneko gauaren pean. Jatorrizkoan: *gabēen*. Dieresi ortografia-markaren arabera bi bokal berdin horiek bi silabatan ebaki eta neurtu behar dira: ga/be/en.

⁽¹⁹⁾ gaztaroko ogitik jaten lagun izan ninduan (hikako neutroa, toka, hik ni). Zuka: ninduzun.

⁽²⁰⁾ hire lagun honen onginahia; poetarena, alegia.

⁽²¹⁾ nik hiri ahal baniezak, ahal izango banik (sar) (hipotetikoa; hikako neutroa, toka, nik hura hiri). Zuka: nik zuri ahal baniezazu, ahal izango banizu (sar). (?)

loak har basoan ilargia baino)
 ene oihu hau sar bihotz hileraino⁽²²⁾!
 Ene oihu hau sar ta bihotza biztu,
 ta itzal-jauregian giza argia izetu⁽²³⁾*!
 Ezin ahal baledi⁽²⁴⁾, Jaun errukiorra,
 barka iezaiozu zizukean⁽²⁵⁾* zorra;
 ta Argi-Aberrian ikus ahal nezake
 lauso ezinezko adiaren jabe;
 ta ahal bezat, Jaun, otoi, besarka⁽²⁶⁾ negarrez,
 beste inon ez hainbat negarra den emez⁽²⁷⁾!

1930

⁽²²⁾ *eztiago* (...) *hileraino*: ene oihu hau sartu hire bihotz hileraino, loak hartutako, loak hartu duen basoan ilargia sartzen den baino eztiago, leunago.

⁽²³⁾ gizakiari dagokion adimen argitasuna izeki, piztu.

⁽²⁴⁾ Ezin ahal balitz.

⁽²⁵⁾ Hots, zurekiko zukeen zorra.

⁽²⁶⁾ ahal dezadan, Jaun, otoi, besarka. *Bezat*: Lizardik darabilen agintera moldeko adizkia (nik hura), nahi, desira indartsu bat gauzatu ahal izateko, aukera biziki eskatzeko. Ikus, orobat, besteak beste, "Hondar gorri" poeman: *Ikus bezat*, *Ikus bitzat*, *Entzun bezat*. Forma hauek, eta antzeko beste batzuk, neurtitzaren neurriari eta morfosintaxiari eusteko, dauden-daudenean utzi dira.

⁽²⁷⁾ (Argi-Aberriaz) beste inon ez hain emea den negarrez.

NEURRIA eta ERRIMA:

12A / 12A / 12B / 12B (/12C / 12C).

12A / 12B / 12B / 12A / 12C / 12C. Neurtitz guztiak, zehazkiago: 6+6.

EGOKITU GABEAK:

t'ez: (e)ta ez. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamabi silabako bertso-lerroari]. *gibarra*: gihartsua. [+1]. *beltz-ikusbera huan*: beltz-ikusbera zuan. [+1: egokitzapenak “-a hu-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke hamabi silabako neurtitzari]. *gatzetzaro*: gaztaro. [-1: egokitzapenaz, hamabi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *ninduken*: ninduan. [Egokitzapenaz, “ninduken : sinesten” errima hautsiko litzateke]. *izetu*: izeki. [“biztu : izetu” errima hautsiko litzateke]. *zizukean*. Neurtitz hau, jatorrizkoan: *barkatu zaiozu zizukean zorra*. Egokitzapenaz, honela beharko luke: *barka iezaiozu zizukeen zorra*. Horrela, ordea, hamabi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Konpon liteke soilik *barkatu mantenduz*, baina, orduan, hautsi egingo litzateke (7+5) poema osoan zehar poetak zehazki gordetzen duen egitura simetrikoa (6+6). Aukeran, egokiena, bai neurria, bai hemistikioen banaketa zainduz, *zizukean* forma mantentzea.

Bihotzean min dut

(Hileta-eresi)

Amona⁽¹⁾ zenaren ebortzegunean

Bihotzean min dut, min etsia,
 negar isila darion mina.
 Amonatxo bat nun^{(2)*}: gaur, enarak
 etorri-garaiez⁽³⁾, alde egina.

* * *

Eguzkirik ez dute
 leihotan* zapiak⁽⁴⁾;
 haur jolasik ez dago
 gaur zure kalean.
 Hodeiek lits urratu⁽⁵⁾;
 itsasoak orro.
 Gizadi bat geldirik⁽⁶⁾.
 Gero, bat-batean:

Hots!

Hots!,

bizion oinok⁽⁷⁾...

⁽¹⁾ Klementina Belauntzaran, Lizardiren amona, amaren aldetikoa; "Amona" (1920), "Asaba zaharren baratzea", "Amona" (1934) eta "Euskal Pizkundea" poemetan ere ageri den amona.

⁽²⁾ Aitaren aldetiko amona, Maria Salome Goikoetxea, Roke Agirrerekin ezkondua, gazterik hil zen. Lizardik ez zuen ezagutu. Horregatik, hemen, *Amonatxo bat nun*, eta, "Amona" poeman (1920), *Amonatxo bat bakarra daukat*.

⁽³⁾ udaberriaren hasieran, beraz. Amona 1928ko martxoaren 31n hil zen.

⁽⁴⁾ *Eguzkirik (...)* zapiak: hots, leihotetan jarritako zapiak beltzak, argirik gabeak, lutozkoak dira.

⁽⁵⁾ "Lits": oihal baten ertzeko puska, bereziki, hari-izpi deslotuak agerian dituena. Beraz: hodeiek, lainoek lits, ertz urratuak dituzte, erakusten dituzte.

⁽⁶⁾ Giza, jende multzo bat dago, geldirik, hilkutxaren atzetik segizioa, ahukua osatuz, hileta elizkizuna egingo den elizarantz abiatzeko zain.

⁽⁷⁾ *Hots (...)* oinok: bizion gizataldea oinez abiatzean entzuten diren oin-hotsen onomatopeia.

Erreska* bi gizonek
argizai* horiak⁽⁸⁾;
gorputza lau bilobok;
atzetik andreak.
Ai, ene lor⁽⁹⁾ arin hau
zein dudan larria!
Besoeak ez lan arren,
bihotzak nekeak...

Hots!
Hots!,
bizion oinok...

Mendea ia betea⁽¹⁰⁾,
ta hain ilaun⁽¹¹⁾, gorputz zahar!
Bezak gogoa goian
hi bezain arina⁽¹²⁾,
ta bezat⁽¹³⁾ nik nirea,
dei nazatenean⁽¹⁴⁾,
ezin-itzal-Argirantz⁽¹⁵⁾
hegatzeke dina⁽¹⁶⁾!

Hots!
Hots!,
bizion oinok...

⁽⁸⁾ *Erreska* (...) *horiak*: erreskada, ilara bitan jarrita, gizonen argizari, kandela horiak daramatzate.

⁽⁹⁾ zama, karga; amonaren gorpuarena, alegia.

⁽¹⁰⁾ Lizardiren amona 1842ko urriaren 23an jaio zen, Zarautzen; beraz, laurogeita bost urte zituen hil zenean.

⁽¹¹⁾ arin; ahul.

⁽¹²⁾ *Bezak* (...) *arina*: poeta amonaren gorputz hilari ari zaio: izan ezak hik hire arima, espiritua, goian hi haizen bezain arina.

⁽¹³⁾ izan dezadan. (Ikus "Agur!" poemako 26. oin-oharra).

⁽¹⁴⁾ deitzen nautenean.

⁽¹⁵⁾ itzali ezin den Argirantz.

⁽¹⁶⁾ hegatzeke adina; hots, aski arina.

Orain laurogei urte,
 kale pozgabeok
 eguzkiak zitun* ta
 zure haur jolasak*
 alaitzen⁽¹⁷⁾. Gaur, harriak
 ere baitira itzal...
 nork lekuskez^{(18)*}, ikusi,
 urte urdin⁽¹⁹⁾ ihesak!

Hots!
 Hots!,
 bizion oinok...

Egun zaharrak joan ta
 berriak etorri,
 gaur poz bihar oinaze,
 noiz burdin* noiz zilar⁽²⁰⁾;
 zenbaitek hondamendi
 baduten katea
 lore sorta bekizu
 goi-muinoak zehar⁽²¹⁾!

Hots!
 Hots!,
 bizion oinok...

.....

⁽¹⁷⁾ *eguzkiak* (...) *alaitzen*: eguzkiak eta zure haur jolasak alaitzen zitu(zt)en.

⁽¹⁸⁾ *lekusazke*; ikus litzake.

⁽¹⁹⁾ *argitsu*, *distiratsu*; *itxaropentsu*, *ilusioz betetako*.

⁽²⁰⁾ Hau da, *bizitzaren*, *egunen joan-etorriaren irudia den katea*, *batzuetan*, *burdinazkoa*, *latza*, *neketsua* izan ohi da; *besteetan*, *zilarrezkoa*, *atsegina*, *gozatsua*.

⁽²¹⁾ *katea* (...) *zehar*: kate hori lore sorta izan bekizu zeruko muinoetan, mendixketan zehar.

Bat-batean eten da
bizion hots⁽²²⁾ hori.
Gorputza laga dugu
nonbait. Al dakit nun^{(23)*!}
Bultza naute barrura⁽²⁴⁾... ,
ñir-ñir⁽²⁵⁾ aunitz argi... ;
hordia antzo⁽²⁶⁾ sar nauzu⁽²⁷⁾,
begi-lauso ta urgun⁽²⁸⁾.

Hots!
Hots!,
enegan, bihotz⁽²⁹⁾!

Amonatxo! Bakarrik
zagoku^{(30)*} atean⁽³¹⁾,
hotz ta gogor, entzuten
zure azken meza!
Zerraldo-oholen artetik
(negu gaua iduri)
ez al datortzu*, uluka,
haize erruki-eza?

Hots!
Hots!,
enegan, bihotz!

⁽²²⁾ oin-hots.

⁽²³⁾ ba ote dakit non; auskalo non.

⁽²⁴⁾ eliza barrura. Amonaren hileta Zarauzko Andra Mari Erreginarenen parroikia-elizan egin zen.

⁽²⁵⁾ ñirñirka, distiratuz.

⁽²⁶⁾ mozkor baten antzera.

⁽²⁷⁾ sartu nauzu (zukako alokutiboa); sartu naiz.

⁽²⁸⁾ herren, balantzaka.

⁽²⁹⁾ *Hots (...)* *bihotz* segizioa eliza barruan dagoelarik, onomatopeiak poetaren bihotzeko taupaden hotsa adierazten du.

⁽³⁰⁾ zu guri zagozkigu; zu zauzkagu.

⁽³¹⁾ hilkutxa elizaren ate ondoan utzi dute.

Begiok ero ditut,
 noranahi doazkit;
 dantza nahasi bat dabil*
 irudimenean.

Gorantz egik, bihotza:
 otoika lasa hadi^{(32)*},
 isila sor badadi⁽³³⁾
 hire⁽³⁴⁾ barrenean!

Hots!
 Hots!,
 enegan, bihotz!

.....

Ordubete luzea
 igaro zen. Noizbait,
 berriro lor ilauna
 besoek... Hurrena,
 muino baten gainean
 hiri⁽³⁵⁾ isil bat aurki...
 Poz-oinaze kateak
 hemen dik etena.

Hots!
 Hots!,
 bizion oinok...

.....

⁽³²⁾ otoitzez lasai hadi; otoi eginez laxa, aska, asaska hadi.

⁽³³⁾ isiltasuna sortzen bada. *Sor baledi* (1930).

⁽³⁴⁾ *nera* (1930).

⁽³⁵⁾ Jatorrizkoan: *uri*.

Ohol bat jaso ta ikusi
dut musu⁽³⁶⁾ ximela:
barre antxa, bizirik
balirau⁽³⁷⁾ bezela*...

(Hots!
Hots!,
leher hadi, bihotz!).

Ordun*, ixar⁽³⁸⁾ bat biztu
du nire gau beltzak.
Begioi malko isil bat
dardarka darie.
Noizbait itxaro-habi*
bihur den bihotzak:

(Hots!
Hots!,
jauzika, bihotz!).

“Agur! (oihuka dio⁽³⁹⁾),
gorputz ximur maite!
Agur, amonatxoa!
Egun Handira arte!...”

* * *

⁽³⁶⁾ aurpegi.

⁽³⁷⁾ iraungo balu.

⁽³⁸⁾ Poemaren bukaeran, sabaikari adierazkor ugari: *ximela*, *barre-antxa*, *ixar* (txikigarria), *ximur*, *amonatxoa*...

⁽³⁹⁾ Hots, poetaren bihotzak.

Bihotzean min dut, min etsia,
 zotirik gabeko negar-mina⁽⁴⁰⁾.
 Halatsu txoriak, uda ondoz,
 negua du galazi* ezina.

1930

NEURRIA eta ERRIMA:

10 / 10A / 10 / 10A.

7 / 6 / 7 / 6a / 7 / 6 / 7 / 6a.

1a / 1a / 5a.

EGOKITU GABEAK:

nun: nuen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako bertso-lerroari].
leibotan: leihoetan. [+1]. *Erreska*: Erreskada. [+1]. *argizai*: argizari. [+1]. *zitun*: zituen. [+1].
jolasak: jolasek. [Egokitzapenaz, “jolasak : ihesak” errima hautsiko litzateke]. *lekuskez*:
 lekusazke. [+1]. *burdin*: burdina. [+1]. *nun*: non. [“nun : urgun” errima hautsiko litzateke].
zagoku: zagozkigu. [+1]. *datortzu*: datorkizu. [+1]. *dabil*: dabilkit. [+1]. *lasa hadi*: lasai hadi.
 [+1: egokitzapenak “-a ha-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke sei silabako
 neurtitzari]. *bezela*: bezala. [“ximela : bezela” errima murriztuko litzateke]. *Ordun*: Orduan.
 [+1]. *habi*: habia. [+1]. *galazi*: galarazi. [+1].

⁽⁴⁰⁾ zotirik gabeko negarra darion mina. (Ikus poemaren hasiera).

Zuhaitz etzana

Zuhaitz bat, urtezua*, lurrera botea...
Zaharra izanagatik bazun* hark osasun beteal!
Ondoan⁽¹⁾ horra ageri, zornak* ezotua^{(2)*},
aizkora ankerraren ebaki sarri-berritua.
Erorkoa^{(3)*} bigundu beharrez hautsiak,
adarretarik zenbait lur urratuan josiak.
Gorantz, luze-luzerik, gainerontzekoak*,
otoi erruki bekiela zeruko Jainkoak^{(4)*}.
Zuhaitz lagunak beha dagozkik⁽⁵⁾ isilik,
erroak dardarati*, adaburua⁽⁶⁾ geldirik.
Lurra nahigabez zegok, haizea zinkuruz⁽⁷⁾;
txoriak urrun alde eginik, izuaren izuz.

* * *

Arbaso bakezale agurgarri horrek
inorentzat onginahia besterik izan ez dek*.
Betidanik, eskale labur, emaile eder:
hire bizi guztian, txarkeri* bat al duk ager?

⁽¹⁾ Hots, zuhaitzaren oinean: mozketa gertatuta, enborraren beheko muturrean eta motzondoan, hau da, enborra moztu ondoren lurrari atxikita gelditu den zuhaitz zatian.

⁽²⁾ “Zorne”: landareen eta zuhaitzen barruko izerdi, isurkari, zuku elikagarria. Beraz: zuhaitz barruko izerdiak hezetua.

⁽³⁾ Erorikoa, erorketa.

⁽⁴⁾ otoi erruki ditzala zeruko Jainkoak; otoi erruki dakiela zeruko Jainkoa.

⁽⁵⁾ Jatorrizkoan *begira agozkik*, bost silabakoa. Egokitzapena ere bost silabakoa da.

⁽⁶⁾ “Adaburu”: zuhaitzaren adar-abarren multzoa.

⁽⁷⁾ zinkurinez, intziriz.

Eskatu?... Haizeari, laztan bat hoxkiro⁽⁸⁾.
 Txoriari, kanta zezala goizetan eztiro.
 Andre lurrari, zertxo? Hezegai ttantta bat.
 Zer eskaturik ez huen, soilki... , gizonarentzat.

Eman, ordea?... Txoriari, abaroa;
 haize adiskideari, hots ezirik non joa⁽⁹⁾;
 lurrari, bustibide eta simaurkigaia;
 har berberek aurki ditek⁽¹⁰⁾ higan babes alaia.

Ta gizonari?... Gehien horrexek hiri zor:
 hari hainbat hik emanik ez zegok inon inor.
 Hire itzala, hire egurra, hire edergarria⁽¹¹⁾
 ta arnaririk hartu ahala⁽¹²⁾, gizonaren zatia⁽¹³⁾.

Azpian duk ikusi haren gorabehera:
 haurtzaroan jolasti, mutiletan amesbera;
 lan-izerdiak eta ondo-atsedena⁽¹⁴⁾;
 ile-urdintze eta aguretzea; ta azkenik... , azkena.

Bitartean, zuraren biribilkietan⁽¹⁵⁾,
 hainbat mende esku sendoaz idazten hiharduan^{(16)*}.
 Hamaika aldiz lurpera gizonak gizonak...
 Zuhaitza bizkor betiere zedukan* Jaun onak.

⁽⁸⁾ hotz, fresko antzean.

⁽⁹⁾ jotzeko lekua; jotzeko bitartekoa.

⁽¹⁰⁾ harrek berberek aurkitu ditek (hikako alokutiboa, toka, haiek hura). Zuka: dute.

⁽¹¹⁾ Bost sinalefak eginez gero, hamabi silabako bertso-lerroa. Agian, ez da zesuran (7+6) sinalefarik egin.

⁽¹²⁾ eta fruiturik har dezakeen guztia.

⁽¹³⁾ horixe duk gizonaren zatia.

⁽¹⁴⁾ lanaren ondoko atsedena.

⁽¹⁵⁾ Hots, zuhaitzaren enborra, gerria ebakitzean ikusten diren eraztun edo zirkunferentzia zentrokideetan.

⁽¹⁶⁾ hiharduen, ari hintzen.

* * *

Izadiari zizkiok kendu ahalak ken⁽¹⁷⁾...
 Haren irentsi beharra ez dik ezerk asetzen.
 Larreko zezena, oihaneko basahuntza,
 hodeietako txoriak... Oro gizonak ehiza...

Azkenik, behartu duk⁽¹⁸⁾ zuhaitz zaharraz ere,
 jauregi bat eraikitzeko zutikako ta habe⁽¹⁹⁾...
 Belarpeko txuloa⁽²⁰⁾ kilkerrak bai eder,
 baina gizontxo –alegia!– ez izaki kilker!

Ta han datorrik behinola⁽²¹⁾, eskuan aizkorez*:
 zitalak nahi hau eraitsi borroka koldar bidez!
 Hark jo ta hik ezin baituk burua geriza,
 amildu haiz goitik, atereaz lehertu-hots gaitza.

* * *

Idiak hor. Kate bat lotu dik itzaiak⁽²²⁾*.
 Zerrak, ozen, urrundik, irrika dizkik erraiak⁽²³⁾...
 Lurra ta biok elkarri muinka zaudete:
 hain adiskide zaharrek azken agurra bai neke!

⁽¹⁷⁾ Gizonak izadiari ken ziezazkiokean guztiak kendu zizkiok (hikako alokutiboak, toka, hark hari haiek). Zuka: diezazkiokeen (...) dizkio.

⁽¹⁸⁾ behartu duk (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: da. Hau da, beharra izan dik: beharra izan du.

⁽¹⁹⁾ zutabe eta goi-habe.

⁽²⁰⁾ zuloa. Sabaikaria mantendu da, txikitetasunaren adierazkortasunari eusteko.

⁽²¹⁾ behin batean, behin batez.

⁽²²⁾ itzainak, idiak zaintzen eta gidatzen dituenak. “Dik” aditz forma bi eratara irakur daiteke: hikako neutro moduan, “Kate bat lotu dik hiri itzainak”, eta, hikako alokutibo gisa, “Kate bat lotu dik [du] itzainak”. “Te ató el boyero una cadena” gaztelaniazko itzulpenak lehenengo aukera hobestera daramala dirudi.

⁽²³⁾ “Dizkik” aditz forma ere, berez, bi eratara uler daiteke: hikako neutro moduan, “irrikatzen, eskatzen dizkik hiri hire erraiak”, eta, hikako alokutibo gisa, “irrikatzen, eskatzen dizkik/ditik [ditu] hire erraiak, barrunbeak”. Bai sintaxiak, bai gaztelaniazko itzulpenak, “la sierra anhela sonoramente tus entrañas”, bigarren aukeraren alde egiten dutela dirudi.

* * *

Baharamakete, eraman⁽²⁴⁾!, zuhaitz eroria...
 Errukia garaituz, betor neurekoikeria.
 Baharamakete, eraman!, bestela, mendia
 ez bainuke⁽²⁵⁾ gehiago begiaren pozgarria⁽²⁶⁾.

1930

NEURRIA eta ERRIMA:
 13A / 15A / 13B / 15B.

EGOKITU GABEAK:

urtezua: urtetsua. [Egokitzapenez, ahapaldiko hoskidetasuna, “Zuhaitz / urtezua / bazun / osasun” eta beste, ahulduko litzateke]. *bazun*: bazuen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamabost silabako bertso-lerroari]. *zornak*: zorneak [+1]. *ezotua*: hezetua. [Testuinguruko hoskidetasuna, “zornak / ezotua” indargabetuko litzateke]. *Erorkoa*: Erorikoa. [+1]. *gainerontzekoak*: gainontzekoak. [-1: egokitzapenez hamahiru silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *otoi erruki bekiela zeruko Jainkoak*: otoi erruki ditzala zeruko Jainkoak / otoi erruki dakiela zeruko Jainkoa. [Lehenengo egokitzapenez, hamabost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke. Bigarrenaz, bertso-lerroaren morfosintaxia aldatzeaz gain, “gainerontzekoak : Jainkoak” errima hautsiko litzateke]. *dardarati*: dardarti. [-1]. *dek*: duk. [“horrek : dek” errima hautsiko litzateke]. *txarkeri*: txarkeria. [+1]. *biharduan*: hiharduen. [“biribilkietan : hiarduan” errima hautsiko litzateke]. *zedukan*: zeukan. [-1]. *aizkorez*: aizkoraz. [“aizkorez : bidez” errima murriztuko litzateke]. *itzaiak*: itzainak. [“itzaiak : erraiak” errima murriztuko litzateke].

⁽²⁴⁾ eraman hazatela, bai, eraman (haiek hi).

⁽²⁵⁾ Jatorrizkoan: *bainikek*: azalpenezko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. Zuka: bainuke. Egokitzapenak neurriari eusten dio.

⁽²⁶⁾ *bestela (...)* *pozgarria*: bestela, hik lurrean jarraituz gero, mendia ez bainuke gehiago izango begiaren, ikusmenaren pozgarria.

Urte-giroak⁽¹⁾ ene begian

I – Bizia lo

Otsail erdi⁽²⁾

Egur hezearen kea
goiak du kolore⁽³⁾:
egunaren atarirantz
zauri bat, gordina,
odol beharrea urre⁽⁴⁾.
Sakoneko lainoz gora
tontorrek elurrez:
itsasoa iduri,
ametsezko ontziez⁽⁵⁾.

Bide-ertzean, ez marrubi
ez belar gizenik.
Otalorea⁽⁶⁾, bakanka,
goiztxo garrasika,
Udaberriari deika.
Hor pago bat, lerdin aski,
iazko apaingarriak
(gaur orbel gorriak)
oso jaregin nahi ezik⁽⁷⁾,

⁽¹⁾ Urtaroak, urte-sasioak. Konposizio aldeaniztun honi buruz, ikus “Lizardiren olerkigintza” sarrerako 1. atala.

⁽²⁾ Otsailaren erdian, erdialdean. *Otsail-erdiruntz ikusia* (1930).

⁽³⁾ *Egur (...)* kolore: goiak, zeruak egur hezearen kea du kolore (kearen kolorea du).

⁽⁴⁾ *egunaren (...)* urre: egunaren sarrerarantz, ekialderantz, goiak zauri bat du, ireki berria, odola izan beharrea urrea duena.

⁽⁵⁾ *itsasoa (...)* ontziez: goitik ikusita, sakoneko lainoek itsasoa dirudite, eta mendi tontorrek itsaso hori zeharkatzen duten ametsezko itsasontziak.

⁽⁶⁾ “Otalorea”: otearen lorea, neguan zehar ere irauten duenez, udaberria hasi baino lehen ikus daitekeena.

⁽⁷⁾ ez dituela erabat libratu, erantzi nahi.

nola baitute ohi
 neskazahar ezin-etsiak*.
 Hostobakandu-sasian⁽⁸⁾
 habi* bat, huts, urratua...
 Arro behetik⁽⁹⁾ errekak hots,
 euriteak bulartua⁽¹⁰⁾...

 Basora naiz⁽¹¹⁾. Han-hor,
 goldiozko* ohean,
 joan-elurte gaitzaren⁽¹²⁾
 hondarrak nabari;
 habidun* usoak, ala
 emazte zuhurraren
 zapiak iduri⁽¹³⁾.
 Haritzak, ehundaka,
 aiher zaizkio goiari⁽¹⁴⁾,
 argi-lehenenkia⁽¹⁵⁾
 egarri baitute,
 harako urrezko zauria⁽¹⁶⁾
 izanik iturri.
 Horregatik daude
 luze-luze eginik,

⁽⁸⁾ Hostoz bakandu, soildu den sasia; hosto gehienak galdu dituen sasia.

⁽⁹⁾ Haitzarteko hondotik.

⁽¹⁰⁾ hazia; indartua.

⁽¹¹⁾ Basoratu, basora iritsi naiz.

⁽¹²⁾ joandako elurte itzelaren, handiaren.

⁽¹³⁾ *habidun (...)* *iduri*: elur hondarrek habian jarritako usoak edo emazte zuhurak eguzkitan zabaldutako zapiak dirudite.

⁽¹⁴⁾ nahi biziz atxikitzen zaizkio goiari; gogo biziz irrikatzen dute goia.

⁽¹⁵⁾ argiaren hasikinak, lehenengo izpiak.

⁽¹⁶⁾ ekialderanzko urrezko zauri hura (ikus 4. eta 5. bertso-lerroak).

artean oinak⁽¹⁷⁾ ilunik,
azken arbazta-begiez⁽¹⁸⁾
udaberrirako
hornitzen biziez.

O, zein haizen eder loa:
heriotzaren anaitzako⁽¹⁹⁾,
bizitzazko ur loa⁽²⁰⁾!...

1930

NEURRIA eta ERRIMA:

8 eta 6 silabako bertso-lerroen konbinatze askea.

Errima egitura finkorik gabea. Hoskidetasun ugari: “kolore : urre”, “elurrez : ontziez”, “bakanka : garrasika : deika”, besteak beste.

EGOKITU GABEAK:

etsiak: etsiek. [Egokitzapenez, “apaingarriak : gorriak : etsiak” errima edo hoskidetasuna murriztuko litzateke]. *habi*: habia. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *goldiozko*: goroldiozko. [+1]. *habidun*: habiadun. [+1].

⁽¹⁷⁾ zuhaitzen beheko aldeak, enborren oinarriak.

⁽¹⁸⁾ adarretako azken abar xeheek, meheek muturretan, puntetan dituzten begien, niniken, puja-hasikinen bidez.

⁽¹⁹⁾ anaiatzat hartutakoa.

⁽²⁰⁾ ur geldia, ur bildu barea, hots, lo dagoen ura.

II – Sagar-lore⁽¹⁾

Lorail bete⁽²⁾

Anitz egunez, ez gara alaitu
lurtarrok. Goian sar egin baitu
Eurik Eguzki⁽³⁾ giltzapean;
jaun horail⁽⁴⁾ eder, lehorteen aita,
katez loturik egona baita
hodei bustien sabelean.

Gaur, horra ageri, tarteka, urdina. . .
Sor zait barruan larrera-mina⁽⁵⁾,
ta, aspaldi ez ta, mendialdi⁽⁶⁾.
Bete ditzadan argiz begiok,
eten zain-gihar⁽⁷⁾ lotuegiok,
bularra asetuz* noan geldi.

Badut zalantza zein giro izaki⁽⁸⁾,
hotzaren ahala denetz ebaki⁽⁹⁾,
ikus ez baitut Udaberri. . .
Baina, bat-batez, gain behera⁽¹⁰⁾, maldan,

⁽¹⁾ Jatorrizkoan: *Sagar lore*, eta gaztelaniazko itzulpenean, “Flor de manzano” (*Eusko Olerkiak, II*, 1931). *Bibotz-begietan*-en (1932), “Sagar-lore”, eta itzulpenean, “Manzano en flor”. Hortaz: Sagar lore, Sagarrondoaren lorea, edo, Sagarrondoa lore, loretan.

⁽²⁾ Maiatz bete.

⁽³⁾ Euria eta eguzkia izen bereziz pertsonifikatuak.

⁽⁴⁾ ile horailaren kolorekoa, horixka.

⁽⁵⁾ larrerako mina, nostalgia; larrera ateratzeko irrika.

⁽⁶⁾ mendirako egokiera, abagunea; mendi giro.

⁽⁷⁾ zainak, hots, tendoiak, eta giharrak, muskuluak.

⁽⁸⁾ zein urte-giro, urtaro ote den.

⁽⁹⁾ hotzaren nagusigoa eten den, hotzaren agintaldia amaitu den ala ez.

⁽¹⁰⁾ goitik behera.

moltso⁽¹¹⁾ zuri bat... Elur ez al dan*,
loreak ote?... Ahal igerri^{(12)*!}

Hari beltz oker nahasi sareak⁽¹³⁾
ehundaka atzitu ditu... loreak?,
elur malutak?, mitxeletak?...

Itxoin: txori bat, zehar, hegaka
dabil, habigai* lorrez⁽¹⁴⁾, esaka:
“Gaur dira gure maite bestak!”

Sagasti berri, sagasti zuri,
inguma atsegintokia iduri,
elurte arian geldia^{(15)!}

Ezin urtuzko txingor ugari,
azpi gizenean duk nabari
zelai-bitxizko lorea⁽¹⁶⁾...

Zertan udalehen den igartzeko^{(17)*}
begi⁽¹⁸⁾ behar diot bide-ertzeko
pago pertxenta⁽¹⁹⁾ gazteari,
ta ikus orbelez den erantzia
ta apaingarri berriez jantzia,
baso zabalen aitzindari?

⁽¹¹⁾ multzo, pilo nahasi.

⁽¹²⁾ Nola, zeinek antzeman!

⁽¹³⁾ Hari, hots, adar beltz, oker eta nahasiz egindako sareak.

⁽¹⁴⁾ habia egiteko gai ez zamatua; habia egiteko gaiak garraiatuz.

⁽¹⁵⁾ *inguma (...)* *geldia*: (hire zurtasunak) tximeleten paradisua, atsegin hartzeko tokia, edo, ari duelarik, airean gelditu den elurtea iduri dik.

⁽¹⁶⁾ *Ezin (...)* *loreia*: hire azpi gizenean, ezin urtuzko txingor ugari, hots, zelaiko bitxiz, lorez osatutako lorategia nabari duk.

⁽¹⁷⁾ udaberri den igartzeko.

⁽¹⁸⁾ begiratu.

⁽¹⁹⁾ lirain, txairo; pinpirin.

Zertan behar dut jakin Itzala,
 pagadiaren ume jaukala⁽²⁰⁾,
 neska koskortzen ari al dan*?...
 Kilker olerkari arloteak
 neurtitz ozenak ditun* boteak
 lurrezko jauregi-atean⁽²¹⁾?...

Bego⁽²²⁾ tximirriken hegaketa,
 beude marrubi loreak, eta
 hirusta⁽²³⁾ saila ere bego:
 dantzari talde, bakotiarrek⁽²⁴⁾,
 nahaspil* zoroan zuti-baldarrak,
 esku goituan ontzia ardo⁽²⁵⁾...

Ene begiok, ez so besteri:
 bide-ertz honetan nadin eseri,
 hiri begira, sagastia...
 Sagasti gazte, sagasti zuri,
 inguma atsegintokia iduri,
 elurte arian geldia!

Zuriaz nahasi, pipil⁽²⁶⁾ gurien,
 leher-gabe-lore zabal-zorien
 gorrixka⁽²⁷⁾, nabari duk sarri,

⁽²⁰⁾ bikaina, zoragarria.

⁽²¹⁾ Hots, bere zuloxoaren atean.

⁽²²⁾ Axola gutxi niri.

⁽²³⁾ "Hirusta": txorten, aila bakoitzean hiru hostoxka dituen belar landarea.

⁽²⁴⁾ "Bakotiar": Bakoren, ardoaren jainkoaren omenez ospatutako jaietan parte hartu ohi zuen dantzaria.

⁽²⁵⁾ *eta* (...) *ardo*: eta bego hirusta saila, belardia ere, zeina, duen kolore gorri-ubelagatik—ardoarenagatik—, haizeak eragindakoa bakotiarrek dantzari taldearen parekoa baita; nahaspila zoroan, zutik, tente egoteko baldarrak diren eta esku jasoan ontzia ardo daramaten dantzari taldearen parekoa.

⁽²⁶⁾ "Pipil": lore-burua, lore-begia, irekitzean lorea ekarriko duena.

⁽²⁷⁾ "Gorrixka": hasieran berdeak, gero, lore zuri bihurtu aurretik, sagarrondoaren pipilek kolore gorrixka, gorriaren antzekoa, hartzen dute.

odol tantoak* antzo⁽²⁸⁾... Begira:
erditze baten aztarnak dira.
Bizi-erditze zoragarri!

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki.
Negu agurea hila da, baiki⁽²⁹⁾,
lurra soil baitago elurrez:
oro dezakeen esku naroak⁽³⁰⁾
erein baititu zuhaitz-soroak
ogi berriaren apurrez...

Bekik⁽³¹⁾ hiretzat oihu alai hau,
sagasti, hiretzat: bereizki* bai hau
jaiez jantzi zorna berriak*!
Bizitza duk ageri garretan⁽³²⁾...
Bizitza, leher-berri, adarretan...
Higan dik sortohea⁽³³⁾ Udaberriak!

1930

⁽²⁸⁾ *Zuriaz* (...) *antzo*: sagastian jadanik lehertu diren lore zuriek erakusten duten zuritasun nabarmenarekin nahastuta, pipil gurien, hots, oraindik lehertu gabe baina zabaltzeko zorian, irekitzear dauden loreen gorrixka –zuhaitzen zuritasun nagusi horretan odol tantak direla dirudiena– nabari duk, sarri, oparo, ugari.

⁽²⁹⁾ egiazki, eiki.

⁽³⁰⁾ joriak, oparoak.

⁽³¹⁾ izan bekik (hikako neutroa, toka, hura hiri). Zuka: izan bekizu.

⁽³²⁾ sugarretan, su-lametan.

⁽³³⁾ sorrerako ohea.

NEURRIA eta ERRIMA:

10A / 10A / 9B / 10C / 10C / 9B. Azken estrofako seigarren neurtitza: 11 silabakoa.

EGOKITU GABEAK:

asetuz: asez. [-1: egokitzapenaz, bederatzi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *dan*: den. [Egokitzapenaz, “maldan : dan” errima hautsiko litzateke]. *igerri*: igarri. [“Udaberri : igerri” errima murriztuko litzateke]. *habigai*: habiagai. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako bertso-lerroari]. *igertzeko*: igartzeko. [“igertzeko : ertzeko” errima murriztuko litzateke]. *dan*: den. [“dan: atean” errima hautsiko litzateke]. *ditun*: dituen. [+1]. *nahaspila*: nahaspila. [+1]. *tantoak*: tantak. [-1]. *bereziki*: bereziki. [+1]. *zorna berriak*: zorne berriak. [“zorna berriak : Udaberriak” errima murriztuko litzateke].

III – Baso itzal

Uzta-uzta⁽¹⁾

Urrun duk, sagasti berri, lorea⁽²⁾.
Harizti, urrunago elurtea⁽³⁾.

Gailurrera igoa dugu Iguzkia^{(4)*},
nondik jaurtiko zutago gezia⁽⁵⁾.
Begi-oheak⁽⁶⁾ nork sakon askiak
gainez ez dakien haren argiak^{(7)?}

Uda! Mendiak hi hau eguerdi,
ta urrezko opor aro, ta abaroaldi...

.....

Gurdibide bakan-ibil-ertzetan⁽⁸⁾
masusta-sasia dago loretan.
Hango kiskal beharra! Hango marmarra!

⁽¹⁾ Uztail mina, bete-betea. *Uzta-erdi* (1931: *Euskal-Esnalea, Euzkadi*).

⁽²⁾ “Sagar-lore” poeman agertua.

⁽³⁾ “Bizia lo” poeman agertua.

⁽⁴⁾ Lizardik, *Bibotz-begietan* bilduman, “eguzki” eta “iguzki” formak darabiltza; inoiz, letra larriz, argizagia pertsonifikatuz eta, izen berezien modura, mugagabe gisa deklinatuz. Gehienetan “eguzki” ageri da, baina, batzuetan, beharrezko neurria lortzearren, “iguzki”: izan ere, aurreko hitza bokalez amaitzen denean, “iguzki” formak sinalefa egiteko eta, horrela, silaba bat gutxiago izateko aukera eskaintzen du. Poeman, aurrerago, *Eguzki erregeri eskainiak*, eta *eguzki gorritan ezin izerdi* irakurtzen bada ere, hirugarren lerro honetan, *Gailurrera igoa dugu Iguzkia*, hamaika silabako neurria bi sinalefa eginez moldatzen da: “-a i-” eta “-u I-”. Lizardik beheranzko diptongoak eta -ui- bikotea (ez -iu-), silaba batean biltzen ditu. Beraz, “Eguzkia” egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako bertso-lerro honi.

⁽⁵⁾ bere gezia nondik botako duen zutago, perpendikularrago, bilatuz.

⁽⁶⁾ Hots, begiak kokaturik dauden zuloak. *Begi-zuloak* (1931: *Euskal-Esnalea, Euzkadi, Euzkerea*).

⁽⁷⁾ *nork (...)* argiak: nork izango ditu behar bezain sakonak eguzkiaren argiak gainez egin, bete ez ditzan.

⁽⁸⁾ Bakanetan, gutxitan igarotako gurdibidearen ertzetan.

Hego-begi izaki ta, haizeak garra⁽⁹⁾:
 irakin diraki⁽¹⁰⁾, beroz ez ezik,
 erleen⁽¹¹⁾ hegoek jo ta nahasirik...

.....

Arro behetik ez dator gaur ur hotsik...

Txoriak abaroetan isilik,
 goiz-jardun⁽¹²⁾ bakarrez etsi baitute.

Egonean daude zuhaitzak ere...
 Sagarrak⁽¹³⁾ eskuan ditu igaliak⁽¹⁴⁾
 Eguzki erregeri eskainiak:
 geldiak gizendu, egonak goza⁽¹⁵⁾;
 nagiak noizbait jalkiaraz⁽¹⁶⁾ bitza...

.....

Beroak zapalduta datza oro:
 bizidun, landare, haitz eta soro.
 Muskerra ta artoa dagotzu⁽¹⁷⁾ soilki
 eguzki gorritan ezin izerdi.

⁽⁹⁾ Hegoari begira dagoen, eguzkiak bete-betea jotzen duen tokia, egutera, izanik, haizeak gar dago, haizea garra dariola dago.

⁽¹⁰⁾ haizea irakiten ari da, irakitan dago.

⁽¹¹⁾ Jatorrizkoan: *erleen*. Dieresi ortografia-markaren arabera bi bokal berdin horiek bi silabatan ebaki eta neurtu behar dira: er/le/en.

⁽¹²⁾ goizean emandako kantu saio.

⁽¹³⁾ Sagarrondoak.

⁽¹⁴⁾ fruituak.

⁽¹⁵⁾ geldi irauteak gizendu egiten ditu fruituak, eta, egonak, gozatu.

⁽¹⁶⁾ fruitu helduak eroraraz.

⁽¹⁷⁾ dagotzu (zukako alokutiboa): daude.

Neguz ontzi lirain, laino gainean,
Txindoki!, orain hagokit aurrean⁽¹⁸⁾,
goriak astundu-tantai harrizko⁽¹⁹⁾,
beheari inoiz baino errotuago.

Beste erpin musker⁽²⁰⁾ bat hor baita ageri,
maldan gora zaizka* zuhaitzak geldí⁽²¹⁾:
oker, hats-estuka⁽²²⁾, lurrari itsatsi-
mendizale makal unatu⁽²³⁾ iduri.

.....
Zigor hontaz⁽²⁴⁾*, Uda, ba al duk aterpe?
Hara zuzen nazak, luzatu gabe!

.....
Leihoak itxitako jauregia
basoak iduri. Lo nagusia⁽²⁵⁾.
Baina, badu norbait –zoragarria–
bidazti-zain⁽²⁶⁾ eder: bai, alegia!
Begira non dudan, atarpean zai⁽²⁷⁾*,
gorputza sotila, betartea* arrai⁽²⁸⁾.

⁽¹⁸⁾ *Neguz* (...) *aurrean*: “Bizia lo” poemaren hasierako irudia berreskuratuz: neguan, elurtutako mendi tontorrek, Txindokirenak tartean, ametsezko itsasontziak ziruditen, sakoneko lainoetz osatutako irudizko itsasoa zeharkatzen. Orain, Txindoki, erabat agerian –ez gailurra soilik– hagokit (hikako neutroa, toka, hi niri) aurrean. Zuka: zagozkit.

⁽¹⁹⁾ bero guztiz handiak astundu duen harrizko erraldoi.

⁽²⁰⁾ Beste gailur, tontor zorrotz, berde.

⁽²¹⁾ zaizkio zuhaitzak gelditu.

⁽²²⁾ arnasestuka, arnasa hartu ezinik.

⁽²³⁾ nekatu.

⁽²⁴⁾ Zigor honetarako; zigor honetatik babesteko, gordetzeko.

⁽²⁵⁾ Jauregiko nagusia lotan.

⁽²⁶⁾ bidaztiari, bidaiariari harrera egiteko zain dagoen izaki.

⁽²⁷⁾ atarian zain.

⁽²⁸⁾ begitartea, aurpegia alai, argi, atsegin.

Itzal! Basoren⁽²⁹⁾ ume jaukal⁽³⁰⁾,
xaloagorik⁽³¹⁾ ezin ahal;
beltxaran, begi bai azal:

Itzal!...

Itzal!...

Sar naun⁽³²⁾ geldixe, taupaka bihotza.
Har⁽³³⁾ maitez, otoi, leher egin arrotza⁽³⁴⁾...
Oihal ilaun⁽³⁵⁾ batez lehortu didan
bekokia. Gero, aldamenean,
hatzaidan* eseri⁽³⁶⁾, andereño otzan,
ta, ai, zein gozo gauden, ahopekotan⁽³⁷⁾!...

⁽²⁹⁾ Itzala eta basoa izen bereziz pertsonifikatuak.

⁽³⁰⁾ bikain, zoragarri.

⁽³¹⁾ maitagarriagorik, atseginagorik, amultsuagorik.

⁽³²⁾ *Sar naun* aditzak irekitzen duen estrofa honetan, bidaztiak, “ni” poetikoak femenino gisa hartzen du *Itzal* eta hitanoz, noka, mintzo zaio. *Sar naun* (hikako alokutiboa, noka); Sartu naiz.

⁽³³⁾ Har (ezan) (hikako neutroa, noka, hik hura). Zuka: har ezazu.

⁽³⁴⁾ Leher egindako, guztiz nekatuta datorren arrotza.

⁽³⁵⁾ arin.

⁽³⁶⁾ *Lehortu didan* eta *hatzaidan eseri* adizkiak, gaztelaniazko itzulpenean “Me secó” eta “sentóseme” formez itzulita daude. Itzulpen horiek ez dira egokienak: bidaztia *Itzali* hitanoz mintzo zaio, ez darabil hirugarren pertsona eta ez da lehenaldian ari.

Irakurketa hau alboratuz gero, testuan ageri diren forma horiek bi moduz uler daitezke. Orainaldiko baieztapen soilaz, “hik niri orain lehortu didan bekokia” (hikako neutroa, noka, hik niri hura; zuka: didazu) / “hi niri orain aldamenean eseri hatzait” (hikako neutroa, noka, hi niri; zuka: zatzaizkit. Edota (testuinguruaren, aurreko *Har* moldearen harira) aginteraz, eskari gisaz, “hik niri lehor(tu) iezadan bekokia” (hikako neutroa, noka, hik niri hura; zuka: iezadazu) / “hi niri aldamenean eseri hakit” (hikako neutroa, noka, hi niri; zuka: zakizkit).

Testuko *didan* eta *hatzaidan* aditz laguntzaileen formek lehenengo aukeraren alde egiten dutela dirudi; testuinguruak, berriz, bigarrenaren alde.

⁽³⁷⁾ isilpeko solasean. *Gauden*: hikako alokutiboa, noka, gu (-n), harridurazko testuinguruan (-en). Zuka: zein gozo gauden gu!

Atsedenaren eliz*, zutoiz* bete,
 hosto pilo ta izar izunak habe⁽³⁸⁾:
 ta hi bertan oihaneko jaupaleme⁽³⁹⁾...

Gure inguru lurra lurrun-jario,
 urre urtuzko jasad baitaragio⁽⁴⁰⁾.
 Euri gori hortaz* basoa ateri⁽⁴¹⁾.
 Gauden⁽⁴²⁾, bada, maite, basoan geldi.

Zuhaitz tartetandiko⁽⁴³⁾ urre nabarra
 bezagun⁽⁴⁴⁾ udaren bitxi bakarra.
 Begoz hemendik ate* hire ederkiak⁽⁴⁵⁾;
 har bitzate besteek laztan goriak.
 Nik hireak⁽⁴⁶⁾ nahiago, oihaneko Itzal,
 ez baitute⁽⁴⁷⁾ egiten odola kiskal...

.....

⁽³⁸⁾ *Atsedenaren (...)* *habe*: basoa atsedenaren eliza da, zutabez, pilarez, hots, zuhaitz-enborrez bete; baso honek goi-habetzat, sabaitzat, gangatzat, hosto pilo eta izar aizunak, gezurrezkoak, faltsuak ditu. (Ikus “Habiatxo” eta “Neskatxa urdin-jantzia” olerkiak).

⁽³⁹⁾ “Jaupari”: apaiza. “Jaupaleme”: apaizemea, emakume apaiza.

⁽⁴⁰⁾ *Gure (...)* *baitaragio*: gure inguruan lurra lurruna dariola dago, urre urtuzko, hots, bero gori eta argitsuzko erauntsiak, euri zaparrada bortitzak eragiten baitio.

⁽⁴¹⁾ Euri kiskalgarri, guztiz bero horretatik basoa ateri dago.

⁽⁴²⁾ Egon gaitezen.

⁽⁴³⁾ Zuhaitz tartetandiko, zuhaitz tartetatik sumatzen dugun.

⁽⁴⁴⁾ izan dezagun. *Bezagun*: agintera moldeko adizkia (guk hura). (Ikus “Agur!” poemako 26. oinoharra).

⁽⁴⁵⁾ *Hire* genitiboak, hemen, udari egiten diola erreferentzia dirudi. Beraz: beude hemendik at, basotik kanpora, hire, hots, udaren gainerako edergarriak (haize kiskalgarria, bero zapaltzailea, urre urtuzko jasa...).

⁽⁴⁶⁾ *hireak*, oraingoan, Itzalenak (atsedena, ahopeko solasa, freskotasuna...).

⁽⁴⁷⁾ Jatorrizkoan *ezpaitiñe* > ez baititen: azalpenezko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. Zuka: ez baitute. Egokitzapenak neurriari eusten dio.

Udal, gar zoragarri, suzko itsaso:
ontzi geriza huntan^{(48)*} nahi haut igaro...

1930

(*Bigarren Euskal Olerti Jaian, Tolosan,
zilarrezko haritz abarrez sariztatua*).

NEURRIA eta ERRIMA:

11A / 11A egituraren segidak.

9A / 8a / 8a / 2a / 2a.

11A / 11A / 11A. Hamaika silabako neurtitz ugari, zehazkiago: 6+5.

EGOKITU GABEAK:

dugu Iguzkia: dugu Eguzkia. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako bertso-lerroari]. *zaizka*: zaizkio. [+1]. *hontaz*: honetaz. [+1]. *zai*: zain. [Egokitzapenaz, “zai : arrai” errima hautsiko litzateke]. *betartea*: begitartea. [+1]. *batzaidan*: hatzait. [-1: egokitzapenaz, hamaika silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke. Testuinguruko hoskidetasuna, “-an, -an, -an, an-, -an, -an” ahulduko litzateke]. *eliz*: eliza. [+1]. *zutoiz*: zutoinez. [+1]. *hortaz*: horretaz. [+1]. *ate*: at. [-1]. *geriza buntan*: geriza honetan. [+2: lehenengo egokitzapenak “-a hu-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke neurtitzari].

⁽⁴⁸⁾ gerizatutako, babestutako ontzi honetan, hau da, baso barruan.

IV – Hondar gorri⁽¹⁾

Azaro lehena⁽²⁾

Uda –suzko itsaso– baitut ibili
gerizpe atsegin bat⁽³⁾ nuela untzi*,
hondoaz lehorra jo dit emeki⁽⁴⁾:
hondarreta bat du, soil eta gorri.

(Itsasoak bai baitu, urrun-ertzean⁽⁵⁾,
urre gorizko bide-goienean⁽⁶⁾,
lehor bat⁽⁷⁾ –odol huts inñularrean⁽⁸⁾–
Eguzki nondik sar atsedenean⁽⁹⁾...).

Aingura bota dut Arratsaldean:
oina dut ezarri Udazkenean...

.....

⁽¹⁾ Jatorrizkoan: *Ondar gorri*, eta egileak egindako gaztelaniazko itzulpenean, “Playa bermeja” (*Eusko Olerkiak, II*, 1931). *Bibotz-begietan-en* (1932), “Ondar-gorri”, eta Orixek egin eta egileak onartutako itzulpenean, “Roja arena”. “Ondar”, batean “Playa” eta bestean “arena”. Hortaz: Hondar(tza).

“Gorri” adjektiboak, hemen, bi adiera izan ditzake: gorri koloreko, edo soil, biluzi, huts. Biak bateragarriak badira ere, aipatutako itzulpenak eta lehenengo estrofako *hondarreta (...)* gorri “playa roja” (1931) eta “rojo arenal” (1932) itzuli direla kontuan hartuta, lehenengo adiera lehenetsi behar dela dirudi. Beraz: “Hondar gorri”, marratxorik gabe, hau da, Hondar(tza) gorri koloreko(a). (Ikus baita ere “Hondartz abestia” konposizioaren laugarren estrofa).

“Eusko bidaztiarena” poeman ageri den *hondarra gorri* espresioa, bestalde, “desnuda arena” itzuli da (1932).

⁽²⁾ Azaro hilabetearen hasiera (1931); azaroaren, hau da, ereintzaren, hazia ereitearen hasiera (1932).

⁽³⁾ basoa, baso barrua, alegia. (“Baso itzal” poema).

⁽⁴⁾ ontziaren azpiak, gilak, lehorra, hondoaz jo dit, geldiro, leunki; ontzia hondartu zait, astiro, leunki.

⁽⁵⁾ urruneko ertzean, urrutian ikusten den ertzean, hau da, zeruertzean, horizontean.

⁽⁶⁾ bidearen goiko ertzean, amaierako alde garaienean.

⁽⁷⁾ Hots, hondartza bat.

⁽⁸⁾ ilunabarrean.

⁽⁹⁾ nondik Eguzki sartzen den, sartu ohi den atsedenean.

Berriro igo nauzu⁽¹⁰⁾ ene mendira,
oroigarri zaharrei maitez begira...
Andre Lurrak jaulki ditu igaliak⁽¹¹⁾;
zurbil dauka aurpegia, itzal begiak.

Gurdibide bakan-ibil-ertzetan⁽¹²⁾
huntza dago oraindik, nagi, loretan.
Hor-hemenka, lore zimel gainetan,
ingumak ari, gozo-miazketan⁽¹³⁾...
Mitxeleta gorri, zarpail hegoak:
maitatzeka^{(14)*} atotu direnetakoak.

Kemenak huts-eta nekez bainoa,
zalantza dut zahartu naizelakoa...
Udazkenak ahulagotzen dit hatsa,
orbelak ozenagotzen oin hotsa,
aldapak larriagotzen bihotza...
Lehenetan⁽¹⁵⁾ ez bezain hautsia natza.

.....

Arro behera itzuli nago⁽¹⁶⁾. Isurkia⁽¹⁷⁾
basoz ta garoz jantzia:
noizbait orlegi, gaur nabar basoa;
tarteka gorri garoa.
Beste gain erpin bat bazen ageri

⁽¹⁰⁾ nauzu (zukako alokutiboa): naiz.

⁽¹¹⁾ bota, jaregin ditu fruituak; Andre Lurra fruituez erantzi da.

⁽¹²⁾ gutxi ibilitakoen ertzetan.

⁽¹³⁾ tximirrikak loreen isurkari gozoa, nektarra, miazkatzen, milikatzen ari dira.

⁽¹⁴⁾ maitatzeka, maitatu gabe. Hamabi silabako bertso-lerroa.

⁽¹⁵⁾ Lehengo denboretan.

⁽¹⁶⁾ itzulita nago, hots, arro beheari begira jarrita nago.

⁽¹⁷⁾ Isurialdea; mendiaren aurpegia.

lehen heze: gaur burdin meatze iduri⁽¹⁸⁾.

Lurraren azala herdoildua da

ala dut odola begietara⁽¹⁹⁾?...

Haizea dabil, busti setatia:

lurrari daragio⁽²⁰⁾ hots negartia.

Larreko xomorro ozenen zantzurik

ez da inon. Aspaldidanik

isil zen olerkari jaun Kilkerra;

oixtian⁽²¹⁾, alfer eder den Txixarra.

Ta zuek, nora, txoriok, saldoka

zoazte, iraduz urrundu beharka⁽²²⁾?

Adiskide Urretxindor hil zaizute*,

ta haren hilkizunetara⁽²³⁾

–hegoak ikara–

berandu-beldurrak⁽²⁴⁾ al zaramazte?

.....

Oi, zein den ituna

behera-behar hau⁽²⁵⁾!

Nik ez nahi⁽²⁶⁾ eguna

bihurtzerik gau!

(18) soil eta gorri dagoenez, burdin meatze bat iduri du.

(19) ala odola begietara pilatzen, biltzen ari zait.

(20) eragiten, eginarazten dio.

(21) arestian, orain dela gutxi.

(22) *Ta (...)* beharka: Eta zuek, txoriok, nora zoazte taldeka, aldraka, eta presaka urrutiratu beharrez, urrutira joan beharrez.

(23) hiletara.

(24) berandu iristeko beldurrak.

(25) behera jaitsi, erori behar hau; gain behera egin behar hau; gainbehera hau.

(26) Bi moduz irakur daiteke: nik ez dut nahi, edo, nik ez nuke nahi. Gaztelaniazko itzulpenak hauxe dio: “¡No deseara yo que el día se trocase en noche!”.

Giroen⁽²⁷⁾ argia galtzerakoan
 lehen-oihartzuna⁽²⁸⁾ dut ozen gogoan.
 Hiru giro izanok, nik dei ta atozte*,
 nork zeuen⁽²⁹⁾ saria ekardazute*:
 batak itxaro, besteak berpizte,
 hirugarrenak bizitza-indar bete.
 Oro⁽³⁰⁾ behar zaituzte ene bihotzak,
 lehen-min baitamada neurtitz zaharren hotsak⁽³¹⁾!

(*Negu*).

Ikus bezat⁽³²⁾, Jauna, behin ta berriro,
 otalore ezin egona⁽³³⁾...

(*Udaberri*).

Bekusat⁽³⁴⁾ sagasti gazte elur-giro⁽³⁵⁾,
 udalehen-sortohe⁽³⁶⁾ dena.
 Ikus bitzat⁽³⁷⁾ harako hirusta sailak⁽³⁸⁾
 eskuan dituztela ardo txanbilak⁽³⁹⁾.

⁽²⁷⁾ Urte-giroen, urtaroen.

⁽²⁸⁾ Lehengoaren, joandakoaren oihartzuna.

⁽²⁹⁾ Jatorrizkoan: *zeren*.

⁽³⁰⁾ Guztiak, hots, hirurak.

⁽³¹⁾ Lehengoaren, igarotakoaren mina, mineria, ematen baitit nire bertso-lerro zaharren musikak, musika-hotsak. Hamabi silabako bertso-lerroa.

⁽³²⁾ Ikus dezadan. (Ikus "Agur!" poemako 26. oin-oharra).

⁽³³⁾ "Bizia lo" poeman azaldutako otalorea.

⁽³⁴⁾ Ikus dezadan.

⁽³⁵⁾ elur-giroko, elurraren antzeko, hau da, zuri.

⁽³⁶⁾ udaberriaren sorrerako ohea.

⁽³⁷⁾ Ikus ditzadan.

⁽³⁸⁾ udaberriko hirusta sailak.

⁽³⁹⁾ ardo ontziak, suilak, anforak.

Entzun bezat inoizko olerkaria⁽⁴⁰⁾,
zelaian baitzuen⁽⁴¹⁾ lur-jauregia...

(*Uda*).

Jainko-muino-gainetara⁽⁴²⁾ baino lehen,
(ederra baita bizia!)
urrezko itsaso bebilt^{(43)*} urduria,
Itzal dudala laguntzaile lerdin.

.....

(*Udazken*).

Ta udazken hatsarreko⁽⁴⁴⁾ goiz batean
esnatu nadin Jainkozko Betean⁽⁴⁵⁾!

1930

⁽⁴⁰⁾ Hau da, udaberrian agertu den olerkaria, Kilkerra: hirurak, hots, sagasti gaztea, hirusta sailak eta Kilkerra, "Sagar-lore" poeman azalduak.

⁽⁴¹⁾ Jatorrizkoan *zelaian baitzun*, sei silabakoa. Egokitzapena ere sei silabakoa da.

⁽⁴²⁾ Jainkozko muino gainetara iritsi.

⁽⁴³⁾ bebilkit, ibil bekit, ibil dakidala inguruan.

⁽⁴⁴⁾ udazken hasierako.

⁽⁴⁵⁾ Betetasunean.

NEURRIA eta ERRIMA:

11, 8, 12 (bi) eta 6 (bat) silabako neurrien eta askotariko errima moldeen konbinatzeak (AAAA, AABB, AABBC, AaBbCCDD...).

6a / 5b / 6a / 5b.

EGOKITU GABEAK:

nuela untzi: nuela ontzi. [+1: egokitzapenak “-a u-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako bertso-lerroari]. *maitatzeka atsotu*: maitatzেকে atsotu [+1: egokitzapenak “-a a-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke hamabi silabako neurtitzari]. *zaizute*: zaizue. [Egokitzapenaz, “zaizute : zaramazte” errima murriztuko litzateke]. *ta atozte*: (e)ta zatozte. [+1: egokitzapenak “-a a-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako neurtitzari]. *ekardazute*: ekardazue. [“atozte : ekardazute” errima ahulduko litzateke]. *bebilt*: bebilkit. [+1].



1931ko Eusko Olerti Jaian, Tolosan, Lizardik “Baso itzal” poemaren saritzat jaso zuen zilarrezko haritz abarra.

Eusko bidaztiarena⁽¹⁾

Miguel Unamuno
jaun argiari, gure ausardia
gorriaz jabetu dadin⁽²⁾

Euskara, jalgi⁽³⁾ hadi kanpora!
Euskara, babil mundu guztira!

(Etxeparek, orain laurehuntsu urte).

BIDAZTIAR-DEI⁽⁴⁾

Aberriaren ahots⁽⁵⁾ eztia,
gogamenaren ezkon⁽⁶⁾ xuria:
ekarzan⁽⁷⁾ esku guria,
hatorkit geldi-geldia,
utzagun⁽⁸⁾, aldikoz⁽⁹⁾, Euskal Herria.

⁽¹⁾ Eusko bidaztiaren, bidaiariaren kantua.

⁽²⁾ Miguel de Unamunok idatzitakoak dira: "Yo quiero mucho a mi pueblo vasco: pero hace mucho tiempo que dejé los entusiasmos románticos" (*Obras Completas*, I, IV, Madril: Escelicer, 1966, 135). "El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida" (I, 1043). "La pérdida del vascuence es inevitable, y lejos de deplorarla debemos desear los buenos vascongados que sea cuanto antes" (I, 1060). "Esta pérdida se debe a (...) la ineptitud del eusquera para convertirse en lengua de cultura" (I, 1043). "En vascuence no se puede pensar con universalidad y el pueblo vasco cuando se eleva a la universalidad, lo hace en español o en francés" (IV, 272-273). Lizardiren jarrera guztiz kontrakoa da, euskararekiko ausart ageri da: hil ez, baizik eta bizi, gai eta eraberi dadin nahi du.

⁽³⁾ irten, ilki, atera.

⁽⁴⁾ Bidazti, bidaiari izateko, bidaia egiteko dei, gonbidapen.

⁽⁵⁾ Hau da, euskal hizkuntza, euskal mintzoa: euskara.

⁽⁶⁾ adimenaren ezkontide, ezkonlagun.

⁽⁷⁾ Poetak hizkuntza, mintzoa, femeninotzat hartzen du. Ekarzan (hikako neutroa, noka, hik hura): ekarn(a), ekar ezan. Zuka: ekarzu, ekar ezazu.

⁽⁸⁾ utz dezagun.

⁽⁹⁾ aldi, denbora mugatu batez.

LARRE-LORE

Eder haunagu*, mintzo joria,
 eder, benetan, garoz jantzia:
 larre-loretik ezta,
 basotik euskal mamia,
 laster sortzen ahal duk⁽¹⁰⁾, Olerkaria!
 Ta, hala Jaunaren gogo baledi⁽¹¹⁾
 nik gogo dudan bezain kartsuki,
 euskotar azal ta mami,
 gure herriaren olerki
 garaia⁽¹²⁾, norbaitek lehenbailehen begi⁽¹³⁾!

ORO-MINTZO⁽¹⁴⁾

Baina nik, hizkuntza larrekoa⁽¹⁵⁾,
 nahi haunat* ere noranahikoa:
 jakite-hegoek igoa;
 soina zahar, berri gogoa;
 azal horizta⁽¹⁶⁾, muin betirakoa*.

⁽¹⁰⁾ sortuko, aterako ahal duk (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: sortuko ahal da (desirazko esanahia).

⁽¹¹⁾ balitz.

⁽¹²⁾ *olerki garaia*: estrofa honetan eta aurrekoan, poeta 1930 inguruko Pizkunde garaian euskaltzaleen ametsa zen poema nazionalaz, *olerki garaiaz*, ari da; poema nagusi honek larre eta baso giroan sustraitua dagoen euskal arima, mamia, jaso behar zuen. Lizardik poema garai hori olerkari batek, *Olerkariak*, lehenbailehen egin dezan nahi du kartsuki. Orixek beteko du lan hori, 1935ean, *Euskaldunak* poema luzea sortzean. Hala ere, Lizardik, hurrengo estrofetan, dei egiten dio euskarari, baso eta baserri girotik atera eta munduan zehar ere, *bazterrik-bazter*, ibil dadin.

⁽¹³⁾ egin beza.

⁽¹⁴⁾ Orotarako, oro jaso eta adierazteko gai den mintzo.

⁽¹⁵⁾ landakoa; mendí, baserri ingurukoa.

⁽¹⁶⁾ hori antzekoa.

AMETS-BIDEETAN BARNA

Ez hadi beldur, nire Maiteder⁽¹⁷⁾:
baserriz landa⁽¹⁸⁾ nahi haunat ager-
arazi*, bazterrik bazter,
harroki, ez baita⁽¹⁹⁾ ezer
lurbiran⁽²⁰⁾ ederrik hi bezain eder!

Gogamenaren ezkon ez-antzu,
eztei ondoko bide dinagu⁽²¹⁾.
Otoi, Jauna, ibilgo-buru⁽²²⁾,
maitasun-edermen-zitu⁽²³⁾,
haur begi-argirik anitz⁽²⁴⁾ bekargu⁽²⁵⁾.

.....

Itsaso bare, zelai urdina,
muga biribil, belar berdina⁽²⁶⁾:
goizaldea duk sorgina⁽²⁷⁾!
Dirdaiez ikus egina
mende-neurle* dugun gurpil arina⁽²⁸⁾...

.....

⁽¹⁷⁾ Euskara emakume, ezkontide maite eta eder gisa pertsonifikatua.

⁽¹⁸⁾ kanpo, at.

⁽¹⁹⁾ Jatorrizkoan *baitun*: azalpenezko perpaus mendekoa denez, ez dagokio hikako alokutiborik. Zuka: baita. Egokitzen ez du neurria aldatzen.

⁽²⁰⁾ munduan, lurrean.

⁽²¹⁾ *dinagu* (hikako alokutiboa, noka, guk hura). Zuka: dugu.

⁽²²⁾ ibilbidearen buruan, ibilaldiaren bukaeran.

⁽²³⁾ maitasunaren eta edertasunaren fruitu gisa.

⁽²⁴⁾ Hau da, poetaren eta hizkuntzaren arteko amodiozko harremanetik sorturiko haur begi-argi ugari: errealitate edo mundu berriak poetikoki abesteko baliabideak, gai jorratu gabeak itzuliko dituzten euskal poemak eta abar.

⁽²⁵⁾ ekar dezagun.

⁽²⁶⁾ *zelai* (...) *berdina*: muga biribilekoa eta belar berdinekoa den zelai urdina, itsasoa alegia.

⁽²⁷⁾ duk (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: da. Hots: bai goizalde sorgindua hirea (itsasoarena).

⁽²⁸⁾ eguzkia, alegia.

Eguzkipean uhartedia⁽²⁹⁾...
 Ur zabalean oiha⁽³⁰⁾ zuria...
 Zuhaitz arrotzen azpia,
 ehun oztinek itzalia⁽³¹⁾!
 Hor bide zetzan Gerbault⁽³²⁾ bakartia...

.....

Lekaro zabal lurraren gerri⁽³³⁾,
 hondardi kiskal heriogarri⁽³⁴⁾:
 bidazti-begie⁽³⁵⁾ sarri
 airean baso ta iturri,
 bertarainokoa hondarra gorri⁽³⁵⁾!

.....

Dagigun⁽³⁶⁾ arraun Izotz herrira,
 zaharren aztarrik denetz⁽³⁷⁾ begira:
 hamaika joan ta bira
 eginik iaz⁽³⁸⁾ baitira,
 eskuan arpoia, soinean zira!

⁽²⁹⁾ irla multzoa.

⁽³⁰⁾ ontziaren haize oiha, bela.

⁽³¹⁾ oiha urdinek itzalpetua, itzalpean hartua.

⁽³²⁾ "Gerbault": Alain Gerbault, belaontzi batean, haize-indar hutsez munduari bira eman zion frantziar bidaiari bakartia. 1923ko apirilean itsasoratua, Europatik Ameriketaraino Atlantikoa zeharkatu ondoren, 1924ko urrian New Yorketik atera, eta, beti sartalderantz ibiliz, 1929ko ekainean Azores uharteetara iritsi zen.

⁽³³⁾ Lurraren gerri, ekuatore inguruan, basamortu zabalak.

⁽³⁴⁾ hilgarri, heriozko.

⁽³⁵⁾ *bidazti* (...) *gorri*: bidaztien begie sarritan, airean, baso eta iturriak ikusi zituzten: bertaraino iristean, ordea, hondar gorri, soil, huts, besterik ez zuten aurkitu. Poeta, lerro hauetan, lilurazko ikuskizunaz ("espejismo" fenomenoaz) ari da.

⁽³⁶⁾ Egin dezagun.

⁽³⁷⁾ ea arbasoen aztarnarik, arrastorik badagoen ala ez.

⁽³⁸⁾ lehen, antzina.

Lehorra zuri, beltz itsasoa:
izotz bat ontzi gure ibilgoa⁽³⁹⁾...
Bakardade jainkozkoa!⁽⁴⁰⁾
Soil, hegazti bat dihoa*
hodeien senide, zabal hegoa...

Kanta ditzagun hango gau luze⁽⁴¹⁾,
hango ilunabar su gorritz bete⁽⁴²⁾;
gizonek elurra aterpe,
lurren gizenik⁽⁴³⁾ gabe;
gure Euskal Herriaz hain guztiz beste⁽⁴⁴⁾!

.....

Hiri nagusi, giza erlauntza⁽⁴⁵⁾;
zorameneko haruntz-honuntza*,
sumabeharra⁽⁴⁶⁾, jakintza,
saleros ekurugaitza⁽⁴⁷⁾,
gure elkar-indarrak itzuli bitza⁽⁴⁸⁾!

.....

Ortzi oro ta egute⁽⁴⁹⁾ oro
jaso, ikus ahala, ta abes gozoro...
Apaindu zernahitarako:

⁽³⁹⁾ izotz bat ontzi gisa harturik egiten dugu gure ibilbidea.

⁽⁴⁰⁾ Jatorrizkoan *Bakarte jaungoizkoa*, zortzi silabakoa. Egokitzen ere zortzi silabakoa da.

⁽⁴¹⁾ Hots, Izotz herriko gau luzeak.

⁽⁴²⁾ beteak.

⁽⁴³⁾ joririk, oparorik, emankorrik.

⁽⁴⁴⁾ bestelako, desberdin.

⁽⁴⁵⁾ "Erlauntza": erle taldearen habia, etxetxea. *Hiri (...)* erlauntza: hiri nagusiak, jendez beteak, zurrunbilotsuak, erlauntzak, giza erlauntzak dira.

⁽⁴⁶⁾ asmatu beharra, sortu beharra.

⁽⁴⁷⁾ salerosi urduria, salerosketa ezin egona.

⁽⁴⁸⁾ errealitate hauek guztiak jaso eta euskaraz adieraz bitza, poesia bihur bitza.

⁽⁴⁹⁾ giro, klima.

hagi gai adirazteko^{(50)*}
gizaki guztien alderdi ta asmo.

GURENTZA⁽⁵¹⁾

Ta, beheko⁽⁵²⁾ gaiok agortuz geroz*,
Eguzkik ezin urtuzko hegoz
(Ikarok⁽⁵³⁾ ez bezalakoz),
goazeman⁽⁵⁴⁾ zerura igoz,
izar urdinetarainoko⁽⁵⁵⁾ asmoz!

1931

⁽⁵⁰⁾ agi(tu) hadi gai; egin, bihurtu hadi gai.

⁽⁵¹⁾ Sublimazio.

⁽⁵²⁾ lur, mundu honetako.

⁽⁵³⁾ "Ikaro": greziar mitologiaren arabera, Ikaro eta haren aita Dedalo lumaz eta argizariz egindako hegoz baliatu ziren Kretako labirintotik, non Minos erregearen aginduz hesiturik baitzeuden, ihes egin ahal izateko. Hegan zihoazela, zoroki eguzkira gehiegi hurbildu zelako, Ikarori hegoen argizaria urtu eta itsasoan amildu zen, hilik. Ikaro zentzugabekiaren eta ausarkeriaren irudia da. Lizardik, euskararekin izarretaraino igotzeko, hego sendoak, ezin urtuzkoak nahi ditu.

⁽⁵⁴⁾ goazeman (hikako alokutiboa, noka, gu). Zuka: goazemazu, joan gaitezen; hega gaitezen.

⁽⁵⁵⁾ urdinetaraino igotzeko.

NEURRIA eta ERRIMA:

10A / 10A / 8a / 8a / 11A. Hamar silabakoak, bat izan ezik (4. estrofan), zehazkiago: 5+5.

EGOKITU GABEAK:

hauna: haugu. [-1: egokitzapenez, hamar silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *haunat*: haut. [-1. Orobat hurrengo estrofan]. *betirakoa*: betikoa. [-1]. *ager-/arazi*: agerrarazi. [Banaketa silabiko zuzena, “age-rrarazi”, aplikatuz gero “Maiteder : ager- : bazter : ezer : eder” errima hautsiko litzateke]. *neurl*: neurtzaila. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamaika silabako neurtitzari]. *diboa*: doa. [-1]. *haruntz-bonuntza*: harantz-honantza. [“erlauntza: honuntza” errima murriztuko litzateke eta estrofako lehenengo bi neurtitzetako hoskidetasuna, “-za, -auntza, -aruntz, -untza” desegingo litzateke]. *adirazteko*: adierazteko. [+1]. *geroz*: gero. [“geroz : hegoz : bezalako : igoz : asmoz” errima hautsiko litzateke].

Asaba zaharren baratzea

Polikarpo Barrena⁽¹⁾
adiskide min eta abertzale
jatorrari, bihotzez

I – Atarian

Asaba zaharren baratza*,
 huntzadun hormek hesia⁽²⁾,
 eguzkiak lehen maitea...
 Hotzaldi zoro baten itzuli⁽³⁾,
 joka nagokik⁽⁴⁾ atea.

Joka nagokik atea,
 ate gorri zurezkoa,
 euri zaharrek usteldua;
 barraskiloez bide bihurri
 dirdaitsuez apaindua⁽⁵⁾.

Bai bainun* amona xahar bat⁽⁶⁾
 zazpi begiko baratzain^{(7)*};
 deiadarkari⁽⁸⁾ iaioa
 marrubi-lapur ninkusanetan⁽⁹⁾...
 Bizi ote dut gaixoa?

⁽¹⁾ “Polikarpo Barrena”: zarauztarra (1881-1943), 1931n PNV/EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari izendatua.

⁽²⁾ huntzez jantzitako hormek hesitua. (Ikus “Gazteren esnatzea” poemako 19. oin-oharra).

⁽³⁾ Hots, urruntze burugabe, axolagabe batetik itzulita.

⁽⁴⁾ nagokik (hikako neutroa, ni hiri, hots, baratzeari).

⁽⁵⁾ *barraskiloez (...) apaindua*: barakuiluek herrestan ibiltzean uzten dituzten muki-arrasto bihurrien dirdirak apaindua.

⁽⁶⁾ Ikus “Bihotzean min dut” poemako 1., 2., 3. eta 10. oin-oharrak.

⁽⁷⁾ zazpi begiz, begi zorrotzez baratzea zaintzen zuena.

⁽⁸⁾ oihukari.

⁽⁹⁾ ikusten ninduenetan.

II – Sarrera

Sar eta... zuhaitz jantziak⁽¹⁰⁾.
Urrats bat egin, ta... adar huts.
Oroipen-txoriez zeuden
beterik: ni ikus ta, bat-batean,
hegoei eragin ziten^{(11)*}.

Nigana datoz, nahasian...
Adiskide min-maiteak!
Barru-muineko gauean⁽¹²⁾,
su itzalitzako zaharra⁽¹³⁾ gar gorri
dabilda⁽¹⁴⁾ bihur nahiean*.

Belar gaiztoak jan ditu
nire bidexka izkutuak*...
Ale bakanak dakartzi*
bide gaineko mahastiak, eta
ortziak peitu du iguzki^{(15)*}.

Urte joanen zitala^{(16)!}
Zuek zarpaildu-itzalia⁽¹⁷⁾
lehenera nork lekardake^{(18)*?}

⁽¹⁰⁾ hostoz jantziak, hostotsuak.

⁽¹¹⁾ *Oroipen (...)* *ziten*: zuhaitzak hostoz beteak zeudela iruditu zaio poetari, baina hostoak, egiazki, txoriak ziren; poeta ikustean txoriek hegoei eragin zieten, hegan egin zuten. Txoriak, bestalde, antzina bizitutakoen oroipenen irudiak ziren, oroipen-txoriak.

⁽¹²⁾ Nire barru-barruko muineko iluntasunean, ilunpean.

⁽¹³⁾ itzalitzat edukitako, ustez itzalita zegoen su zaharra, aspaldikoa.

⁽¹⁴⁾ 1931ko bertsioan (*Euzkadi*, 1931-12-06) *dabilda piztu-naiean*. 1932ko edizioan *dabil da biur-naiean*. Kontuan izanik *dabilt* (“Bihotzean min dut”), “dabilkit” dela, eta *dirudia* (“Izotz ondoko eguzki”) “dirudida*”, *dirudit* (“paréceme”, gaztelaniazko itzulpenean), hemen, koherentziaz: *dabilda* irakurri behar da, hots, “dabilkit”.

⁽¹⁵⁾ falta du eguzki, ez du eguzkirik.

⁽¹⁶⁾ Igarotako, joandako urteen zitalkeria, ankerkeria, bihozgabekeria.

⁽¹⁷⁾ Zuek trauskildu, baldartu eta ilundu duzuen.

⁽¹⁸⁾ lekarkidake, ekarriko lidake; ekar liezadake.

Zabal-naroa⁽¹⁹⁾ nuen baratza,
gaur hain estu, gaur hain gabe⁽²⁰⁾!

III – Lehena

Baratze erdian dut aurki
amona: aldaroka⁽²¹⁾ dator,
begi galduak noranahi. . .
Heriotzak dakar besalagun,
bere buruz ez baita gai.

Amona, zatozkit, otoi:
biloba laztan ezazu,
esan zadazu* “biloba!”.
Hitz hori, soilki, zaharrak dit ondu⁽²²⁾,
ardoa ohi dun* bezala.

Biraka hasi zen, dei ta dei:
aita dei, ta ama; haurtzaroko
lurрак irentsi-lagunak⁽²³⁾. . .
Zaharrez⁽²⁴⁾ birrumetu denez gero,
mendeko darabil lehenak⁽²⁵⁾.

Errukarri! Lausorik du
giza argia⁽²⁶⁾ begietan. . .
Non-nahi aldiaren sitsa⁽²⁷⁾!

⁽¹⁹⁾ joria, oparoa.

⁽²⁰⁾ ezer gabe, huts.

⁽²¹⁾ balantzaka, albo-alboka.

⁽²²⁾ Hitz hori da, bakarrik, denborak, denboraren joanak ondu didana.

⁽²³⁾ *haurtzaroko* (...) *lagunak*: lurрак irentsitako haurtzaroko lagunak.

⁽²⁴⁾ Zahartasunez.

⁽²⁵⁾ mendean darabil iraganak.

⁽²⁶⁾ gizakiari dagokion adimen argitasuna.

⁽²⁷⁾ denboraren sitsaren arrastoa; denboraren igarotzeak eragiten duen higaduraren zantzua.

Zuka, zoroki, mintza zitzaidan,
zaldun arrotza bainintzan*.

Laztan dut. Bera, harrituta,
begi-begira* dagokit.
Gero, geldiro: —Nor zaitut?...—
Euskaraz hark niri galdegina
gogoan besterik ez dut!

Nire begien suz sutu
nahiz* bereak, diotsot:
—Biloba nauzu, zaharrena...
Zure marrubi gorriak inoiz
ostutzen* ohi nituena...

Oroi ote?... Begietan,
zalantza dut tximistarik
iragan zuelakoa.
Burua igurtzi zidan astiro,
esanez: —Zu...? Zu...? Gaixoa!

Ta hasi zen biraka berriz,
hil zaharrei hoska⁽²⁸⁾, negarrez,
heriotzaren egarri...
Bizitzearen hondar aleak
larrainean eultzen⁽²⁹⁾* ari⁽³⁰⁾!

IV – Oraina

Ta, hara, bidean, baldarño,
muttiko bat guregana:

⁽²⁸⁾ aspaldi hildakoei deika.

⁽²⁹⁾ "Eultzitu": laboreak, garia bereziki, larrainean jo, lastoa eta alea bereizteko.

⁽³⁰⁾ *Bizitzearen (...)* ari: bizi-uztaren azken aleak larrainean eultzitzen ari zen, hau da, amona bere bizitzearen azken uneak biltzen, bizitzen ari zen.

hark⁽³¹⁾ birbiloba, nik seme.
Ikus amonak, bertan gelditu,
ta haren eztizko irribarre!

Laztan du, pozak zorutzen:
—Hi haut, orain hakust⁽³²⁾ ongi!
—diotso—. Hi haut, bai, “holako!...”—.
Ta..., nire izenez igurtzi zuen
burutik oinetaraino⁽³³⁾.

Lehena zegoen orainaz⁽³⁴⁾
ele gozoka. Bitzuok⁽³⁵⁾
mintzo beraz ziharduten.
Ene asaben lokarri zaharra⁽³⁶⁾,
Jaunari zor, ez zen eten!

V – Etorkizuna

Ordun* eguzkiz jantzi zen
asaba zaharren baratza;
ordun zuhaitzak igoz⁽³⁷⁾;
ordun baratza leheneratu zen⁽³⁸⁾
mugak berriro zabaliz*.

Ta lehen ikusi gabeko
zuhaitz berri bat zegoen
erdian, guztien buru...

⁽³¹⁾ amonak, alegia.

⁽³²⁾ ikusten haut.

⁽³³⁾ Amonak, birbiloba ikustean, lehena eta oraina nahasiz, poeta mutiko zelarik ikusten duela uste du.

⁽³⁴⁾ orainarekin.

⁽³⁵⁾ Biok, batak eta besteak.

⁽³⁶⁾ Hots, euskara, bereziki.

⁽³⁷⁾ fruituz estali, bete ziren.

⁽³⁸⁾ lehengoratu zen; lehengo egoerara, izatera itzuli, etorri zen.

Haren gerizak herri-baratzak
ezin-hilkor egin ditu⁽³⁹⁾.

Nire Tabor mendi⁽⁴⁰⁾, nire
baratz zaharraren antzalda!,
egi*, mami, bihur hadi:
lehenaren muinak aldatu beza
baratz zaharra baratz berri!

1931

⁽³⁹⁾ 1932ko edizioak dakarren gaztelaniazko itzulpenean, estrofa honen bukaeran honako ohar hau dator: “(1) El patriotismo”. Beraz, zuhaitz berri horren gerizak, hots, abertzaletasunak, ezilkor, hilezin bihurtu ditu baratzak, herriak diren baratzak.

⁽⁴⁰⁾ “Tabor”: Palestinako mendia. Ebanjelioetan datorrenez, Jesu Kristo Tabor mendi honetan antzaldatu egin zen hiru apostoluen aurrean, jantziak zuri-zuri, distiratsu, bihurtu zitzaizkiolarik. Baratz zaharraren antzaldatzeak Tabor mendian gertatutakoa oroitarazten dio poetari.

NEURRIA eta ERRIMA:

8 / 8 / 8a / 10 / 8a.

EGOKITU GABEAK:

baratza: baratzea. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako bertso-lerroari. Orobat 7., 19., 20. eta 21. estrofetan ageri diren “baratz(a)” formen egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bakoitzari dagokion neurtitzari. Zortzigarren estrofakoaren egokitzapenak sinalefa onartzen du eta ez du eraginik neurrian]. *bainun*: bainuen. [+1]. *baratzain*: baratzezain. [+1]. *ziten*: zieten. [+1]. *nahiean*: nahian. [-1: egokitzapenaz, zortzi silabako lerroak silaba bat galduko luke, eta “gauean : nahiean” errima murriztuko litzateke]. *bidexka izkutuak*: bidexka ezkutuak. [+1: egokitzapenak “-a i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako neurtitzari]. *dakartzi*: dakartza. [“dakartzi : iguzki” errima hautsiko litzateke]. *du iguzki*: du eguzki. [+1: egokitzapenak “-u i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako neurtitzari]. *lekardake*: lekarkidake. [+1]. *zadazu*: iezadazu. [+2]. *dun*: duen. [+1]. *bainintzan*: bainintzen. [“sitsa : bainintzan” errima hautsiko litzateke eta “Zu-, zo-, -tza, -tzaidan, -za, -tza, -tzan” hoskidetasuna indargabetuko]. *begi-begira*: begira-begira. [+1]. *nabiz*. [Jatorrizkoan *naiez* denez, bi silabakoa, *nabiz* egokitzapena ere bi silabaz neurtu eta ebaki behar da]. *ostutzen*: osten. [-1]. *eultzen*: eultzitzen. [+1]. *Ordun*: Orduan. [+1. Orobat hurrengo lerroetan]. *zabaliz*: zabalduz. [“igaliz : zabaliz” errima hautsiko litzateke]. *egi*: egia. [+1].

Izotz ondoko eguzki

Izotz ondoko iguzki^{(1)*},
neguaren barre:
olerkariak noizbait
hiri gorazarre⁽²⁾.
Emeki duk itxaroz
piztu garai-larre⁽³⁾:
udaberri-laminek
larreon batzarre⁽⁴⁾.

Behetik nator, ibarrak
izoztuta utziaz.
Mendia jaiez dago
urrezko jantziaz.
Haren barrea dadat⁽⁵⁾
irrika biziaz,
gozatua baitu gaur
ezti bereziaz.

Udalehenak⁽⁶⁾ irria
ohi du zoro ozena;
udak haragikoa⁽⁷⁾;
udazkenak bena⁽⁸⁾;
negu gau oskarbien

⁽¹⁾ eguzki. (Ikus "Baso itzal" poemako 4. oin-oharra).

⁽²⁾ omenaldia eskaini behar dik.

⁽³⁾ mendi garaietako larre(ak), mendi goialdietako zelai(ak).

⁽⁴⁾ larre hauetan batzarra egiten dute.

⁽⁵⁾ edaten dut.

⁽⁶⁾ Udaberriak.

⁽⁷⁾ sentsuala, atsegalea.

⁽⁸⁾ benazkoa, goibela, tristea.

izotz ondorena,
berriz, bakarra duzu⁽⁹⁾:
denetan emeena!

Bai baitator urrundik
Gabonetarako
seme zaharra⁽¹⁰⁾: bidean
elurpe du oro;
etxeko sutondoan
bixkortu ezker^{*},
ikus haren ezpainen
barre antxa gozo!

Bai baitatza eria
ohean⁽¹¹⁾: herio
atzapar itsusia
luzatzen ario⁽¹²⁾;
berpizkunde-berria
maiteak jario⁽¹³⁾,
hitzik ezin ta irria
hain ezti degio⁽¹⁴⁾!

Sagasti soila lotan,
abar makur nahaspil^{(15)*};
zelaiek, orbelpean,

⁽⁹⁾ duzu (zukako alokutiboa): da.

⁽¹⁰⁾ *Bai (...) zabarra*: hots, izotz ondoko eguzkia seme zaharrena urrutitik gabonetarako datorrenean (...) (bezalakoa da).

⁽¹¹⁾ *Bai (...) ohean*: hau da, izotz ondoko eguzkia, gaixoa ohean datzanean (...) (bezalakoa da).

⁽¹²⁾ ari zaio.

⁽¹³⁾ maiteak piztueraren berria, albistea, piztuerazko hitza(k) jario. "Jario" adizkia, hemen, "du" (hark hura) aditz motaren credura dago erabilia. "Zaio" aditz motaren arabera: maiteari berpizkunde-berria dario.

⁽¹⁴⁾ egiten dio.

⁽¹⁵⁾ abar makurren, bihurrien nahaspila.

ametsetan Orril⁽¹⁶⁾;
txori gaixoei ahaztu
gau latzaren hurbil⁽¹⁷⁾;
haizeñoa lilurak
otxanduta⁽¹⁸⁾ dabil.

Haranak mailka* daude
gorantza* jarriak⁽¹⁹⁾;
guztien hondarrean
laino urdin, begiak⁽²⁰⁾;
izotz-arnasa, agian⁽²¹⁾,
baititu iguzkiak*
zernahi tauparazteko
men zoragarriak⁽²²⁾.

Ezkerralde, Oresa,
eskuin, Altzo-muino⁽²³⁾;
non-nahi euskal oihartzun
ortzi mugaraino...
Dabesadan⁽²⁴⁾, ibarrak

⁽¹⁶⁾ *zelaiek* (...) *Orril*: zelaiek, orbelpen daudelarik, Maiatza dute amets.

⁽¹⁷⁾ *hurbila*, *hurbiltasuna*.

⁽¹⁸⁾ *leunduta*, *ematuta*, *goxatuta*.

⁽¹⁹⁾ *Haranak* (...) *jarriak*: poetak, mendiaren goialdean kokaturik, mailaz maila gorantz jarriak dauden behealdeko eta goialdeko haranak, ibarrak, ikusten ditu.

⁽²⁰⁾ *guztien* (...) *begiak*: haran guztien hondoan, sakonean, begiak, begiradak laino urdin bat nabaritzen du.

⁽²¹⁾ *izotzaren arnasa* da, antza, nonbait.

⁽²²⁾ *zernahi* (...) *zoragarriak*: edozer gauza taupadaka jartzeko, biziartzeko, ahalmen, kemen zoragarriak.

⁽²³⁾ *Ezkerralde* (...) *muino*: Lizardi, mendi ibilaldietan, *Berrito igo nauzu ene mendira* ("Hondar gorri"), Tolosatik irten eta Hernio mendiaren magalean dagoen Urkizu auzoranzko bidetik abiatu ohi zen; aldapan gora, Mutitegiko gainean, muinoan zegoen sagastiraino iritsi, eta ondoko zelaigunean hartu ohi zuen atsedean. Handik, ezkerraldera, Oresa herrixka eta, eskuinaldera, Altzo-azpi auzoarekin Altzo herria osatzen duen Altzo-muino auzoa ikusten dira. Hurrengo estrofan irakurriz: *Haran ta muino gainez*, Aralar mendilerroa ageri da. Txindoki erraldoia ere aurrean da ("Baso itzal").

⁽²⁴⁾ *Abes* dezadan.

lainotan daudeino!
 Dabesagun⁽²⁵⁾, lagunok:
 geroak ereino^{(26)*}!

Haran ta muino gainez
 Aralar handia,
 euskotarren zaindari
 Mikelen mendia:
 koskak elur dirdaiek
 bil ta, dirudia⁽²⁷⁾
 amets eder mamitu
 ortzian geldia⁽²⁸⁾.

Jondane goiaingeru⁽²⁹⁾
 garaile goitarra,
 gure arazo latza
 duk bizi beharra;
 hartarako, nagusi
 duan Jaun bakarra
 hire bidez dotoigu⁽³⁰⁾,
 demaigun⁽³¹⁾ indarra.

* * *

Izotzak estali zun*
 gure Euskal Herria;

⁽²⁵⁾ Abes dezagun.

⁽²⁶⁾ geroak ereinotza, erramua (garaileari, irabazleari ematen zaion saria) ekarriko digu.

⁽²⁷⁾ dirudida*, dirudit, iruditzen zait. [Poetaren lizentzia errimari eusteko]. Gaztelaniazko itzulpenean: “paréceme”.

⁽²⁸⁾ *koskak* (...) *geldia*: Aralar mendilerroko koskak elur distirek bilduta daudelarik sortzen den ikuskizuna, dirudit, iruditzen zait amets mamitua, gorpuztua, ortzian, airean geldia.

⁽²⁹⁾ Mikel arkanjelu Jaun Done, Jaun Santu.

⁽³⁰⁾ otoizten, erregutzen dugu.

⁽³¹⁾ eman diezagun, eman diezagula.

mintzo ozenak zabaldu
berpizkun-berria⁽³²⁾.
Itzal-zokondoetan
lore, izotz-bitxia;
baina gainetaz* ari
jauntzen eguzkia⁽³³⁾.

Izotz ondo. Neguak
barre eme. Gizadi
larria⁽³⁴⁾ gailurrerantz,
muinoak mailadi⁽³⁵⁾.
Gazte sail kementsua
goraino badadi⁽³⁶⁾,
izozpetik eguzkik
jare dik Euskadi⁽³⁷⁾!

1931

⁽³²⁾ pizkundearen berria, albistea.

⁽³³⁾ *Itzal (...)* eguzkia: Itzalpeko zokondoetan izotz-kristala oraindik lore eginik, urtu gabe dago, baina mendi gailurrez eguzkia ari da nagusitzen.

⁽³⁴⁾ Giza, jende multzo handia.

⁽³⁵⁾ zurubi, eskailera gisa izanik.

⁽³⁶⁾ goraino igotzen bada; goraino igotzen denean.

⁽³⁷⁾ *izozpetik (...)* *Euskadi*: eguzkiak Euskadi izotzaren menpetik, agindupetik jare, aske, egingo dik; libratua izango dik (gazteleraizko itzulpenean, “habrá libretado a Euzkadi”).

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

ondoko iguzki: ondoko eguzki. [+1: egokitzapenak “-o i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *bixkortu ezker*: bixkortuz gero. [-1: egokitzapenaz, sei silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *nahaspil*: nahaspila. [+1; “nahaspil : Orril : hurbil: dabil” errima hautsiko litzateke]. *mailka*: mailaka. [+1]. *gorantza*: gorantz. [-1]. *baititu iguzkiak*: baititu eguzkiak. [+1: egokitzapenak “-u i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari]. *ereino*: ereintz. [“muino : mugaraino : daudeino : ereino” errima hautsiko litzateke]. *zun*: zuen. [+1]. *gainetaz*: gainez. [-1].

Gure mintzo

*Arana Goireren
oroiz eta eskerrez*

Nirekin jaio nun* abes-mina⁽¹⁾,
ta haurdanik⁽²⁾ min hori dut izan samina...
Kanta nahi, nahi alfer: mintzoa
peitu⁽³⁾, minak behar-eztigai gozoa⁽⁴⁾!
Huts bainun* hosgai guri berexa⁽⁵⁾,
hatsa jaurti arren ezin sor abesa⁽⁶⁾;
amets arteko oihu bailitzan*,
hotsaren zakarrez izu-ikara nintzan*.
Hil zaharki⁽⁷⁾, bizi dugun gizona⁽⁸⁾!
Egunero berpiz⁽⁹⁾ lurpean dagona*!
Bezat onets⁽¹⁰⁾ haren izena,
aberriz ta mintzoz gu jantziarena.
Haren argibidez ni jabetu
enegan bazela norbait atxilotu.
Ordun*, jaitsi nauzu⁽¹¹⁾ leizera,
nork geure muinean⁽¹²⁾ dugun itzalera.

⁽¹⁾ Nirekin jaioa nuen abesteko irrika, nahi bizia.

⁽²⁾ haur nintzenetik.

⁽³⁾ falta.

⁽⁴⁾ abesteko irrikak behar zuen eztigarri, leungarri gozoa.

⁽⁵⁾ Falta bainuen hots egiteko, hotsa sortzeko lehengai, materia guri eta berezia. Poema bildumak dakarren gaztelaniazko itzulpenean, *hosgai*: “materia prima (...) del sonido”.

⁽⁶⁾ ahots musikala, abestia.

⁽⁷⁾ Aspaldi hilik egon arren.

⁽⁸⁾ Hots, Sabino Arana Goiri.

⁽⁹⁾ berpizten da.

⁽¹⁰⁾ Bedeinka dezadan. (Ikus “Agur!” poemako 26. oin-oharra).

⁽¹¹⁾ nauzu (zukako alokutiboa): naiz.

⁽¹²⁾ gutako bakoitzak geure barru-barruan.

Oin kolokak zuhur⁽¹³⁾, begiak joran⁽¹⁴⁾,
zurubi bihurrez⁽¹⁵⁾ poliki ninjoan*.
Guri argi ematearren
itzaliarena⁽¹⁶⁾, eskuan nekarren...

Horra noizbait ere beheraino hel⁽¹⁷⁾,
ta leotza⁽¹⁸⁾ aurki dut hondoaren sabel⁽¹⁹⁾;
ta, leotzean, hil iduri,
gizalaba eder odol gabez zuri.

Ipuin zaharrak, zatozte gogora!
Zatozte erregingai* begizkoak zora⁽²⁰⁾!
Bazterrean ikus nirea⁽²¹⁾,
ene eta asaben ohar-ezak⁽²²⁾ botea...

Adatsa busti diot negarrez,
bihotza berotu nirearen⁽²³⁾ garrez,
ta itolarria arin beharrez
leiho zekenera⁽²⁴⁾ dut nirekin narrez⁽²⁵⁾*

Berriz-jaio-poza suma nuen...
Gesal mugagabez bide gindoazen⁽²⁶⁾:
bizitza-itsaso otxan barea,
goiz-eguzkiaren txinpartez ernea!

(13) Oin irmoki finkatu gabeak zuhur, tentuz, arretaz jarriz.

(14) irrikatsu, irrikaz beteak.

(15) eskailera bihurritz.

(16) itzali zenarena, hau da, Arana Goiriren argia.

(17) heldu, iritsi.

(18) "Leotz": lurpean egindako presondegiko gela, ziega, kalabozoa.

(19) eta hondoaren sabela, zokogunea, leotza dela aurkitu dut.

(20) begizkoak, aztikeriak zoratu, sorgindu dituen erregingaiak, printzesak.

(21) nire erreginagaia.

(22) oharkabekeriak, arduragabekeriak.

(23) nire bihotzaren.

(24) ziztrinera, estu eta meharrera.

(25) narrastu; herrestan, arrastaka eraman.

(26) Gesalezko ur eremu mugagabeen zehar gindoazela zirudien.

Ezpainak dar-dar, lepo-zainak leher
 beharrea, muinki⁽²⁷⁾ dut estu nire eder
 besoetan, ta hatsa jaurtiki:
 ta hura⁽²⁸⁾ bai, egin zen ahoan abesti!

Ahapaldiak⁽²⁹⁾ elkarren ondoren
 jalki⁽³⁰⁾ ta, uso zuri antzean, zetozen
 itzuli⁽³¹⁾, itsaso urdina zehar,
 mokoan, edergai⁽³²⁾, basoaren abar.

Itzuli zetozen ahapaldiak;
 itzuli zetozen nire uso zuriak
 Aberriarentzat damesgun⁽³³⁾
 lehor gizenetik⁽³⁴⁾, jai-hostoa lagun...

* * *

Ene leozpetu jare-berri⁽³⁵⁾,
 eusko orok zaitzagun⁽³⁶⁾ minen eztigarri,
 ta besteren gogo-menpetik
 jare gaitzazu usu, geurea gaiturik⁽³⁷⁾!

1931

⁽²⁷⁾ kartsuki, sutsuki.

⁽²⁸⁾ hatsa, alegia.

⁽²⁹⁾ Estrofak, bertsoak.

⁽³⁰⁾ aletu; isuri.

⁽³¹⁾ atzera bueltan zetozen.

⁽³²⁾ apaingarri gisa.

⁽³³⁾ amesten dugun.

⁽³⁴⁾ lur emankorretik, oparotik.

⁽³⁵⁾ Poetak "jare" "du" (nor-nork) aditz mota gisa darabil. Ikus hiru lerro aurrerago, *jare gaitzazu*, edo aurreko olerkian, *jare dik Euskadi*. Hemen, "jare" aditz horren partizipio denez, adjektibo gisa: ene espetxeratu askatu berri, ene kartzelatu libratu berri.

⁽³⁶⁾ izan zaitzagula.

⁽³⁷⁾ ta (...) *gaiturik*: eta espiritu, asmo arrotzaren menpetik libra, aska gaitzazu azkar, laster, geure espiritua, ahalmena gaiturik. Jatorrizkoan: *yare-gagizu*.

NEURRIA eta ERRIMA:

10A / 12A / 9B / 12B. Hamabi silabakoak, bat izan ezik (7. estrofan), zehazkiago: 6+6.

EGOKITU GABEAK:

nun: nuen. [+1; egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako bertso-lerroari].
bainun: bainuen. [+1]. *bailitzan*: balitz bezala. [Egokitzapenak bertso-lerroaren neurria aldatuko luke eta errima, “bailitzan : nintzan” hautsi]. *nintzan*: nintzen. [“bailitzan : nintzan” errima hautsiko litzateke]. *dagona*: dagoena. [+1; “gizona : dagona” errima murriztuko litzateke]. *Ordun*: Orduan. [+1]. *ninjoan*: nindoan. [“joran : ninjoan” errima murriztuko litzateke]. *erregingai*: erreginagaiak. [+1]. *narrez*: narras. [“beharrez : narrez” errima hautsiko litzateke].

– III –

UMEZURTZ OLERKIAK
eta beste poema batzuk⁽¹⁾



Umezurtz olerkiak poema liburuaren jatorrizko edizioaren azala
(1934)

⁽¹⁾ Hirugarren atal honen antolamenduz, ikus "Edizio egokituari sarrera", 5. atala.

Etxeko sagastia⁽¹⁾

Zenbat bidez, Jaungoiko⁽²⁾,
 gaituzun onera⁽³⁾;
 zenbatez duzun lantzen
 gure barne bera⁽⁴⁾!
 Aurkitu baininduzun
 bakarrez minbera,
 bidelagun ezia⁽⁵⁾
 zenidan aukera.

Loreak zitu⁽⁶⁾ dakar:
 hona lau sagarño⁽⁷⁾.
 Ez dira nire hatsa
 ta haren usain baino⁽⁸⁾.
 Zorion duket⁽⁹⁾, hoiien*
 batzarre dudaino⁽¹⁰⁾.
 Bide bera dabilgun⁽¹¹⁾
 Goiko Mendiraino.

⁽¹⁾ Poema lehenengo argitalpenaren arabera dago jasoa: *Argiaren Egutegia*. Donostia, 1933, 43.

⁽²⁾ *Yaun maite* (*Argia, Yakintza*, 1935).

⁽³⁾ onerutzen.

⁽⁴⁾ barne biguna, moldaeraza, hunkibera.

⁽⁵⁾ Hots, emaztea.

⁽⁶⁾ fruitu.

⁽⁷⁾ Hau da, lau seme-alaba. (Ikus I51. orrialdeko I. oin-oharra). Lau seme-alabok Lizardiren "Etxe barne bizia" (1932) hitz lauuko artikulua ezauguean azaltzen dira.

⁽⁸⁾ *Ez (...) baino: Zer dira arnas nerea / ta aren usai baño?* (1935).

⁽⁹⁾ izango dut; izango dudala uste, espero dut.

⁽¹⁰⁾ *hoien (...) dudaino*: hots, etxekoen lagunartea, elkarganatztea dudan bitartean.

⁽¹¹⁾ ibil dezagun ("ibili" aditza "du" (guk hura) aditz motaren eredura jokatua), erabil dezagun.

Zein ezkutu⁽¹²⁾ gozoa
den odolarena!...
Hobebide-jario⁽¹³⁾,
kate ezin etena...
Maite dut nire haurra,
ta are besterena⁽¹⁴⁾:
su berri batek daukat
ondurik⁽¹⁵⁾ barrena!

Begira ditzat* haurrok
zeruko irria antzo⁽¹⁶⁾;
ez bekiet⁽¹⁷⁾ begien
ur-axala⁽¹⁸⁾ lauso;
entzুকien lotsa are
ez bekiet harro⁽¹⁹⁾.
Nire xagar gorrixkok⁽²⁰⁾,
irrazue zindo⁽²¹⁾.

Nire poza zaretan
karnaba kutunak⁽²²⁾:
amaren eta zeuen
iduri lagunak

⁽¹²⁾ ezkutuki, misterio.

⁽¹³⁾ Hobetzeko bide ugari, hobe izateko aukera asko eskaintzen dituen (da odola).

⁽¹⁴⁾ eta baita beste inorena ere.

⁽¹⁵⁾ oneraturik, zintzoturik, zintzoago bihurturik.

⁽¹⁶⁾ *Begira* (...) antzo: Ikus, zain, errespetatu ditzadan haurrok zeruko irria balira bezala.

⁽¹⁷⁾ Hau da, ez diezaiedala.

⁽¹⁸⁾ "Ur-axal": begiaren aurrealdeko urrezko axala, negargura datorrenean lausotzen dena.

⁽¹⁹⁾ ez diezaiedala, halaber, entzumenaren organoen lotsa harrotu, puztu; ez diezaiedala, orobat, haien belarriek lotsabiderik, lotsatzeko motiborik eman.

⁽²⁰⁾ Hiztegietan jasota ez badaude ere, hoskidetasunez, mantendu egin dira bi sabaikari adierazkor hauek.

⁽²¹⁾ zintzo; sendo, tinko; usteldu, mailatu gabe.

⁽²²⁾ kardantxori, kardantxilo kutunak. *Igali bigunak* (1935).

bitza zuzen erabil
nire gogakunak;
argi bitza, betiko,
aitaren egunak⁽²³⁾.

Nire sagasti hontan^{(24)*}
egurastu nadin;
inorenik ez dezat
nahiaren atsegin⁽²⁵⁾;
ta, ahal baledi⁽²⁶⁾, hots, Jauna,
iraun beza berdin,
hutsik gabe: nik lehenen
dezaket alde egin!

1932

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

hoien: horien. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *ditzat*: ditzadan. [+1]. *hontan*: honetan. [+1].

⁽²³⁾ *amaren* (...) *egunak*: amaren eta zeuen irudi, imajina lagunak erabil, gida bitza zuzen nire gogoetak; irudi honek argi bitza, argi ditzadala, betiko, aitaren egunak.

⁽²⁴⁾ Hots, senar-emazteek eta lau seme-alabek osatutako elkarte honetan.

⁽²⁵⁾ *inorenik* (...) *atsegin*: ez dezadala inoren sagastirik atseginez desira. *Iñorentzat* (1935).

⁽²⁶⁾ ahal balitz.

Argi egidazu

*Onginabiaren ordaingarri apurtzat,
Joseba Markiegi jaunari⁽¹⁾*

Argi egidazu,
izarño dardarti,
gauaren altzoan
hotzikara beti...

Argi egidazu,
sugar urrutia,
beti hil nahika ta inoiz
ezin itzalia⁽²⁾...

Egileaz gero⁽³⁾
zu zara zaharrenik;
gaudi-sabelean⁽⁴⁾,
zerau sabelenik⁽⁵⁾.

Betiaren⁽⁶⁾ begi,
Jainko-geznaria⁽⁷⁾,
belardi beltzeko⁽⁸⁾
loreño xuria⁽⁹⁾:

⁽¹⁾ "Joseba Markiegi": apaiza, idazlea eta itzultzailea, Deban jaio eta Oiartzunen fusilatua (1895-1936). Lizardiren *Hitz lauz* artikulu bildumaren "Hitzaurrea"ren egilea.

⁽²⁾ *beti (...) itzalia*: izarra, egun argiz bistatik desagertuz, behin eta berriz hil nahirik dabil, baina inoiz ez da itzaltzen, gau oskarbietan ostera berragertzen baita.

⁽³⁾ Zeru-lurren egilearen, hots, Jainkoaren ondoren.

⁽⁴⁾ unibertsoaren sakonean.

⁽⁵⁾ zeu, zerori zara barru-barrukoenik, hondo-hondokoenik.

⁽⁶⁾ Betikotasunaren.

⁽⁷⁾ mezularia, mandataria.

⁽⁸⁾ gaueko ortzi beltzeko, alegia.

⁽⁹⁾ Hoskidetasunez, bi sabaikari adierazkorrak mantendu dira.

argi egidazu,
 gau orotan argi;
 bihotz isuria
 nire baitan hazi;
 amesmena⁽¹⁰⁾ goza
 ttantta bat urdinez;
 eduki nazazu
 sorgor⁽¹¹⁾, zure minez...
 Andregaia zena
 bezain, zaitzat^{(12)*} maite...
 Argi egidazu
 bizi nadin arte!

1932

NEURRIA eta ERRIMA:

6 / 6a / 6 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

zaitzat: zaitzadan. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako bertso-lerroari].

⁽¹⁰⁾ irudimena; fantasia.

⁽¹¹⁾ sor eta gor, inongo sentimenik eta sentipenik gabe, gogoia baituta.

⁽¹²⁾ zaitzadan.

Hegamin⁽¹⁾

Jaunarenean⁽²⁾ nago
zentzuak ezin bil,
elizaren sabela
bakar dago ta isil.
Otoitzerako giro,
baina ni txoratil⁽³⁾...
Leihotik, hari xehea⁽⁴⁾,
egun berria haril⁽⁵⁾.

Hari xehea begian
ta irudimenean
ari baitut xirika
kilimaginean⁽⁶⁾,
borroka bat sortu zait
eztia, barnean:
hegamin ta geldimin
naiz, aldi berean⁽⁷⁾.

* * *

⁽¹⁾ Hegatzeko irrika, hegan alde egiteko gogo bizia.

⁽²⁾ Jaunaren etxean, elizan.

⁽³⁾ txoro-txoro eginda; gogoia bildu ezinik, arreta barreiaturik, sakabanaturik. Ikus azken estrofako *txoro egonezin* moldea.

⁽⁴⁾ Leihotik kanpoko argitasunaren hari xehea, mehea, fina sartzen da.

⁽⁵⁾ "Haril": harilko; haria bilduz egindako bola. Egun berria da leihotik sartzen ari den hari, izpi xehe horren harilkoa; hari-bola den egunetik ateratzen da argi-hari fin hori.

⁽⁶⁾ zirika, kilima eginez; zirikatuz, kili-kili egiteko lanean.

⁽⁷⁾ *hegamin (...)* *berean*: "ni" poetikoak hegan joateko, alde egiteko eta bertan gelditzeko gogo bizia du aldi berean.

Badakusat, iduriz⁽⁸⁾,
 gelan lekaidea⁽⁹⁾.
 Haren eginbeharra
 epez⁽¹⁰⁾ ikastea.
 Gorputzean osasun,
 ariman bakea,
 lur-minak⁽¹¹⁾ ditu utziak,
 Jainkoz da betea.

Hegan, leiho aurretik,
 txintaka⁽¹²⁾ txoria;
 haren hurren, ausardiz*,
 mahaira eguzkia⁽¹³⁾. . .
 Mundutikan* ez balu
 beste geznaria,
 uste dezake dela
 atsegintokia⁽¹⁴⁾.

* * *

Hari xehea berriro
 begitaratu⁽¹⁵⁾* zait;
 geldimindua nadin

⁽⁸⁾ irudimenez, imajinazioz.

⁽⁹⁾ fraidea.

⁽¹⁰⁾ patxadaz, lasai, bake-bakean.

⁽¹¹⁾ lur honetako gurariak, desirak; mundu honetako gauzen mineria.

⁽¹²⁾ txorrotxioka, txioka; kantuz.

⁽¹³⁾ Jatorrizkoan *maiera iguzkia*, sei silabakoa. Egokitzapena ere sei silabakoa da: “e” letra/hotsa elidituz, silaba bat galdu da, baina, ordez, sinalefa deseginez silaba bat irabazi.

⁽¹⁴⁾ *Mundutikan* (...) *atsegintokia*: txoriaz eta eguzkiaz gainera, fraideari mundutik ez baletorkio, fraideak ez balu beste mezularirik, mandataririk, uste lezake mundua dela paradisua.

⁽¹⁵⁾ begietaratu, begien aurrera etorri.

beldur dugu⁽¹⁶⁾ nonbait;
badakarzkit gogora
ikuskizun zenbait,
elizaz nondik nora
eragingo gogait⁽¹⁷⁾.

* * *

Bihotzetik datorkit
orain oihartzuna:
“Eliz leiho ñabarrak
iragaz-eguna⁽¹⁸⁾,
atarian zakarra,
barneon biguna;
hemen lore gorri, ta
kanpoan asuna!...”.

* * *

Egun berri makurrak
ezin etsi baitu,
argi-haria uholde
bihurtua dizu^{*(19)}.
Erauntsiak eraso-
ta galdua nauzu:

⁽¹⁶⁾ Hots, beldur da. Egitura kopulatiboa, nolabaiteko alokutibotasun edo solaskidetasun moldez ñabartua.

⁽¹⁷⁾ *elizaz (...)* *gogait*: elizaz nola gogaitaraziko, asperraraziko didan bilatuz.

⁽¹⁸⁾ iragazitako eguna.

⁽¹⁹⁾ dizu (zukako alokutiboa): du.

bizi-ero zait ernatu
gogoan Urkizu⁽²⁰⁾.

Etxeak* mendiaren
bixkar-bixkarrean,
usoak dirudite
teilatu-ertzean⁽²¹⁾;
urruma⁽²²⁾ ta jolasa
elkarren artean,
soin zuriak nabari
zeru gardenean!

* * *

Hegaminak erretzen
“ematen” dut egin⁽²³⁾:
otoi labur bat, eta
atarira nadin.
Zer burubide duk⁽²⁴⁾ hau,
txoro egonezin!
Bake gozoa utzita,
nora duk hegamin?...

⁽²⁰⁾ “Urkizu”: Tolosa inguruko auzoa, Hernio mendiaren magalean kokatua (ikus “Izotz ondo eguzki” poemako 23. oin-oharra). Orain, eliz barruan dagoela, argi-haria zena argi uholde bihurtu delarik, egunaren, argitasunaren erasoaldi, zirikaldi bizia jasaten du eta Urkizurako gogoa iratzartzen, esnatzen zaio: *hegamin* da. Hurrengo estrofan, Urkizu irudizko zertzeladez azaltzen da.

⁽²¹⁾ *Etxeak (...)* *ertzean*: (behetik ikusita) mendialdeko bizkarrak eraikin bateko teilatu-ertza dirudi eta mendi-bizkar horretan kokaturiko Urkizuko etxeek uso zuriak dirudite.

⁽²²⁾ “Urruma”: usoen hots, kantu apal eta errepikatua, beti-batekoa. Etxeak, usoak balira bezala, urrumaka ari dira.

⁽²³⁾ *amore ematen dut, etsi egiten dut.*

⁽²⁴⁾ *duk* (hikako alokutiboa, toka, hura). Zuka: da. Hiru lerro aurrerago, *duk* (hikako neutroa, toka, hik hura). Zuka: duzu.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

ausardiz: ausardiaz. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *Mundutikan*: Mundutik. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *begitaratu*: begietaratu. [+1]. *Etxeak*: Etxeek. [-1].

Etxeko kea

Airean, eder usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxe gain-gorriak⁽¹⁾ emana
kea dun⁽²⁾ ederragoa.

Basalurrez⁽³⁾ bidaiari
ke urdina badut nabari,
ai nire poza!, huraxe baita
gizalur-ezagungarri*.

Aurki, aldean, oiloa⁽⁴⁾;
maldan etzinik⁽⁵⁾, soroa;
etxe zabal teila-gorria,
aurrean intxaurrondoa...

Han dun bero, ta han dun bizi...
Han, haur jolasen garrasi...
Gaez, sutondora bilduta,
eguneko lanen sari...

Nireganago⁽⁶⁾, maiteño,
aurki, bata bestereño⁽⁷⁾:
amets⁽⁸⁾!, iñularreko izarra
zeruan piztu dadino⁽⁹⁾*...

⁽¹⁾ teilatu gorrikoak.

⁽²⁾ dun (hikako alokutiboa, noka, hura). Zuka: da. "Ni" poetikoa noka ari zaio bere maiteari.

⁽³⁾ Basabazterrean, lur auzo gabea; hots, *gizalur* ez den eremuan.

⁽⁴⁾ Kea nabari eta laster, berehala ondoan oiloa azaltzen da.

⁽⁵⁾ etzanik.

⁽⁶⁾ Hurbilago(tu) hakit, hurbilago(tu) hadi niregana.

⁽⁷⁾ bata bestearentzat izango gara. *Bestereño*, agian, "bestearenganaino"ren laburdura, edota "-ño" atzizki afektiboaren erabilera ezohikotik eta aurreko *maiteño*-ren eraginez sortutako forma litzateke.

⁽⁸⁾ egin dezagun amets!

⁽⁹⁾ ilunabarreko izarra zeruan piztu dadin bitartean.

* * *

Eztei-egunez, mahaiean*
indioiloak⁽¹⁰⁾ sailean...
Ortzia bezain urdin, kea
teilatutik, bihurrian⁽¹¹⁾...
Leihotik, hogei baserri,
mendiaren apaingarri;
zenbait zabal⁽¹²⁾ ditun⁽¹³⁾ ageri,
zenbait erdizka nabari.
Batak besteak adina
kea guztiek urdina...
Susmo ninan⁽¹⁴⁾ zeru goxoa
keok ote zen egina!

* * *

Maitetia zait hil atzo,
aretoan gorputz dago.
Leiho zabaletik, mendia;
haizeak, eguzki giro...
Airean, eder usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxegainetan⁽¹⁵⁾ ederrago
biziaren ke mordoa.

⁽¹⁰⁾ "Indioilo": oiloaren familiako hegaztia, jatorriz Amerikakoa, etxeko hegaztien artean handiena. *Pava* (es); *dinde* (fr).

⁽¹¹⁾ kiribilean; kiribilak, espiralak eginez.

⁽¹²⁾ osorik, beren zabalera osoan.

⁽¹³⁾ ditun (hikako alokutiboa, noka, haiek). Zuka: dira.

⁽¹⁴⁾ ninan (hikako alokutiboa, noka, nik hura). Zuka: nuen.

⁽¹⁵⁾ Teilatuetan.

Azti zitala belea⁽¹⁶⁾,
 herio-hondakin zalea...
 Zerraldoa dagon* etxetik,
 hura⁽¹⁷⁾ bezain beltza... kea!

1932ko azaroa

NEURRIA eta ERRIMA:

8a / 8a / 9 / 8a.

EGOKITU GABEAK:

ezaungarri: ezaugarri. [-1: egokitzapenez, zortzi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *dadino*. [Jatorrizkoan *dediño* denez, *maitiño* eta *bestereñorekin* errima egiten duena, *dadino* egokitzapena [dadiño] ahoskatu behar da]. *mahaiean*: mahaian. [-1; egokitzapenez, estrofaren errima, “mahaiean : sailean : bihurrian” murriztuko litzateke]. *dagon*: dagoen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bederatzi silabako lerroari].

⁽¹⁶⁾ Azti doilorra belea, zorigaitzoko igarlea, zoritxarren iragarlea baita.

⁽¹⁷⁾ Hots, belea.

Arrats gorri

Zerk goibeltzen zaitu, maitea, arratsero,
haizea ta txoriak atertuz gero⁽¹⁾?

Begi zabaletan zerk hedatzen dizu
gandu⁽²⁾ delako hori, erdiz negar ta izu?

Eguna aharrausi-nahi hasi-garaiean⁽³⁾*,
mendietako isla zeru bazterrean
non gerezi ta non baxaran denean⁽⁴⁾,
zerk atzi zakida⁽⁵⁾, gaixo, bat-batean?

Nireganantz erne zenuen gogoa
zerk arinduz ta nork emanez hegoa
dihoakit* ihes, ta airean eseki
dakust⁽⁶⁾*, txori lilurarazia iduri?

Beldur naiz, eneño⁽⁷⁾, arrats gorriotan
herio-hoxkirria dabilzun⁽⁸⁾* zainetan;
Egun begi-uridin hiltzer* dagola* ta⁽⁹⁾,
harengana zauden⁽¹⁰⁾ maitez ukituta...

⁽¹⁾ haizea eta txoriak isilduz, mututuz gero; haizeak eta txoriek euren jarduna etenez, amaituz gero.

⁽²⁾ lauso; begia lausotzen duen geruza.

⁽³⁾ Eguna, loguraz, aho-zabaltze egin nahian hasi den garaian, hots, egunaren bukaera aldean, ilunabarrean.

⁽⁴⁾ gerezi edo basaran kolorekoa denean; beraz, batzuetan gorri bizi eta ilun, eta besteetan, beltz-uridin denean.

⁽⁵⁾ zerk atzitu, harrapatu, liluratu zaitu. Datiboak, “-da” partikulak, “ni” poetikoaren gogozko parte-hartzea adierazten du, “nire kaltetan”-edo erantsiko balu bezala.

⁽⁶⁾ *zerk (...) dakust*; zerk arindu du zure gogo hori eta nork eman dizkio hegoak niregandik ihesi joan eta airean eskegirik, zintzilik ikusteko (...)?

⁽⁷⁾ “Eneño”: “ene”ren txikigarria; txerazko, maitasunezko bokatiboa.

⁽⁸⁾ ote dabilkizun (“ibili” aditza “du” (zuk hura) aditz motaren eradura dago erabilia), ote darabilzun.

⁽⁹⁾ hiltzeaz, hilzorian dagoela eta.

⁽¹⁰⁾ (beldur naiz) ote zauden.

Begira: Izkainerantz⁽¹¹⁾, txingar borobila⁽¹²⁾
 noiz egingo dago uretan murgila,
 ta noiz txirtxir-hotsez⁽¹³⁾ itsaso gorria
 bihurtuko lurrunezko hodei zuria...

.....
 (Maitagarriari, betazal-ertzetan,
 oskorriak dirdai, nonbait malko-ihintzetan⁽¹⁴⁾,
 ta mutilak ipuin bat asma⁽¹⁵⁾ ta dio
 laztanari lehen-poza itzul balekio⁽¹⁶⁾...).

* * *

Egun begi-urdirin, sortu berri hartan,
 lurraren gainetik harroa zihoan.
 Inoren ume zenik ez baitzekien,
 hilezintzat bere burua jo zuen.

Eguerdiz gero, zalantza da, larri;
 buru horailean⁽¹⁷⁾ azkura du sarri;
 atzera so, ta, ilaunki⁽¹⁸⁾, aldapa behera
 Gaua darraikio⁽¹⁹⁾ ludiaz jauntzera.

⁽¹¹⁾ "Izkainerantz": ez dirudi *Izkain* leku berezi errealik denik. Aitzitik: Itsas gainerantz, Itsas barrualderantz.

⁽¹²⁾ suzko esfera: eguzkia, alegia.

⁽¹³⁾ "Txirtxir": txingarrak edo suak, uretan sartzean, lurruna, baporea sortuz, atera ohi duten hotsaren onomatopeia.

⁽¹⁴⁾ *betazal* (...) *ihintzetan*: betazalen ertzetan nonbait, dirudienez, atera zaizkion malko-ihintzetan, malkozko tanta xeheetan, oskorriak dirdai egiten dio.

⁽¹⁵⁾ Hurrengo sei estrofetan "ni" poetikoak maiteari Egunaren bilakaeraren, ibilbidearen ipuina kontatzen dio: sorrera, eguerdia eta, bereziki, ilunabarra, Gauaren iristea eta nagusitzea.

⁽¹⁶⁾ ea lehengo poza itzultzen zaion; itzuliko zaion itzaropenez.

⁽¹⁷⁾ buru horixkan, hori-antzekoan; ile horailaren koloreko buruan.

⁽¹⁸⁾ arinki, astuntasunik gabe.

⁽¹⁹⁾ Gaua egunari jarraiki zaio.

Amil-mugan⁽²⁰⁾, bekaitz zimelak⁽²¹⁾ hartu du;
 amorruz damakio⁽²²⁾ hodei sail bati su;
 ta, haren argiz gaua galazi* ustean,
 murgil jo du buruz sartalde-leizean.

Gauaren aginduz, horra sua itzali.
 Hitzok bota dizka⁽²³⁾* Egun joanari:
 “Ai, Eguntto txoro!, ez ezagun ama,
 lehen huts sakonean Bakar ninduana⁽²⁴⁾?... ”

Lurtarrok, ez beldur. Bake, maitaleak...
 Altzoan dakartzat zorion aleak...
 Altzoan dakartzat izar ugariak,
 etorkizun-egun berrien haziak... ”.

Ta, hau esanik, lerden, ereiten hasi zan*
 haziak irraka⁽²⁵⁾* sail beltz gizenean⁽²⁶⁾...

.....
 Arrats gorria hil da... Zeru bazterrean
 ez gerezi dugu, ezta are baxaran!

* * *

⁽²⁰⁾ Sartaldeko amildegiaren ertzean, sartaldean amiltzeko uanean.

⁽²¹⁾ bekaizkeria ziztrinak, inbidia zikoitzak.

⁽²²⁾ dama(k)io, ematen dio.

⁽²³⁾ dizkio.

⁽²⁴⁾ ez (...) *ninduana*: ez al huen ezagutzen hire ama –ni, Gaua, alegia–, lehen, huts sakonean, hau da, denboraren, unibertsoaren hasierako huts hartan, Bakar ninduana? (hikako alokutiboa, toka, ni). Zuka: nintzena. Hasiera hartan Gaua zen zegoen gauza, izaki bakarra.

⁽²⁵⁾ irrakada, besagainka, esku-beteka.

⁽²⁶⁾ *ereiten* (...) *gizenean*: Gaua ereiten hasi zen haziak –izarrak– irrakada, alor beltz gizenean, hots, zeru jorian, ortzi oparoan.

Ipuin gazi-goxoak izan dik ahalmen⁽²⁷⁾:
horra gandua urra ta nabari lurmen⁽²⁸⁾...

Begi zabaletan, irria nagusi:
giro-alda hain usurik⁽²⁹⁾ ez dut ikusi!

Ai, eguzkitara, mutilak ahal balu
auzo-soingainean⁽³⁰⁾ burua atsedendu!...

Baina, Lotsa dauke* tartean jarria,
nahiz, itxuraz, ez den lagun txit lodia.

Izar urruneri⁽³¹⁾* begiak emanik,
ezteietan⁽³²⁾ bihotzak dituztelarik,
elkarrenganago⁽³³⁾ dituen Gauari
horra isil-mintzoz zer dioten eskari:

“Begi-beltz, oin ilaun⁽³⁴⁾, ama Gau naroa⁽³⁵⁾,
ekarkor bekigu zure azaroa⁽³⁶⁾:
egun begi-urdirin betoz ugariak
gure elkarmin honen gainezkagarriak⁽³⁷⁾!...”.

⁽²⁷⁾ indar, eragin.

⁽²⁸⁾ “Lurmen”: elurra urtu zaion lur zatia. Hortaz: maiteari begietako gandua urratu eta begiak garbi, lausorik gabe nabari zaizkio.

⁽²⁹⁾ gogo aldaratearen, umorearen, aldaketa hain azkarrik, lasterrik.

⁽³⁰⁾ albokoaren, maitearen soinburuan, sorbaldan.

⁽³¹⁾ urrunei, urrutiei.

⁽³²⁾ atsegin-pozetan, gozamenetan.

⁽³³⁾ elkarrenganagotu, elkarrengana hurbilagotu.

⁽³⁴⁾ oin arineko.

⁽³⁵⁾ joria, oparoa.

⁽³⁶⁾ emankor bekigu zure ereitea, ereintza.

⁽³⁷⁾ gure elkarrenganako nahi bizi hau, erakarpen hau, gainezka egingo, neurritz gain beteko dutenak.

NEURRIA eta ERRIMA:

12A / 12A / 12B / 12B.

EGOKITU GABEAK:

garaian: garaian. [-1: egokitzapenaz, hamabi silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke, eta errima, “garaian : bazterrean”, murriztuko litzateke]. *diboakit*: doakit. [-1]. *dakust*: dakusat. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamar silabako neurtitzari]. *dabiltzun*: dabillkizun. [+1]. *biltzer*: hiltzear. [+1]. *dagola*: dagoela. [+1]. *galazi*: galarazi. [+1]. *dizka*: dizkio. [+1]. *zan*: zen. [Egokitzapenaz, “zan : gizenean” errima hautsiko litzateke]. *irra*: irradaka. [+1]. *dauke*: daukate. [+1]. *urruneri*: urrunei. [-1].

“Maitea” ren apurñoak

“Maitea”

Poema-haria⁽¹⁾

I

Gaua (osaba) – Gazteren esnatzea – Liorko – Amona – Muno Txikin
– Moilan (N-ren txalupa) – Getariara joatea – Gora-dei.

⁽¹⁾ Lizardik amaitu gabe utzi zuen “Maitea” poema narratibo luzearen haria. Hari horretako izenburu batzuk besterik ez zituen poema bihurtu (ikus “Lizardiren olerkigintza” hitzaurrean 1.4., 3.1. eta 3.2.4. atalak). “Gazte” poeta bera da, Lizardi. “Amona”, Zarauzko amona, “Bihotzean min dut” eta beste zenbait poematakoa. “Onuzki”, Felipe Lizundia, “Agur!” poemako adiskide gaixoa. “Maitea” poetaren emaztea da, Frantziska Izagirre. “Osaba”, Konrado Egaña, Lizardiren osaba, amaren aldetikoa. Paulino, Zarauzko bainuzain bat: behin batean, Moilan igerian ari zirela, Gaztek Onuzki estu eta larri zebilela ikusi eta salto egin zuen haren bila; azkenean Paulinok ere, larrugorrian, uretara sartu behar izan zuen, bi lagunei uretatik ateratzen laguntzera.

“Hondaurtz” Zarautz da, poetaren jaioterria: familia Tolosara aldatu zenean Lizardik, ikasle zelarik eta geroago ere, maiz igaro ohi zituen udako oporrak Zarautzen (ikus “Hondaurtz-abestia” olerkiaren 1. oin-oharra). “Muno Txiki”, Zarauzko frantziskotarren elizatik atera eta, eskuinera hartuz, hondartzaren ertzerantz iristean altxatzen zen begiratoki txiki bat zen, gaur egun, herriak mendebaldera duen “Munoa” plaza irekia edo begiratoki zabala ez bezala, desagertua. “Moila” herriko kai txikia da eta “Sta. Barbara” Zarautzek mendebaldera duen mendi-goitxoa eta bere gailurrean ageri den ermita. “Hirizahar” Tolosa da, Lizardi, Zarautzik atera zenean, bizi izan zen herria. Han jaio ziren bere seme-alabak, han idatzi zituen bere poemak, eta han murgildu zen abertzaletasunean.

Gainerako izen eta laburdurak ezin izan dira argitu. Batzuk, “Liorko” eta “Odolki”, kasurako, lagun arteko izengoitiak dirateke.

II

Onuzkiren bila – Sta. Barbara: Hondaurtz-abestia – Izkainerantz⁽²⁾:
Gazte eta Onuzki – Pilota partidua – Hondaurtzera itsasoz: ereserkia⁽³⁾.

III

Bustialdiak moilan – Onuzki eta Gazte igerian – Paulino larrugorrian – Neskatzak gutaz errukitu – Osabak auzia: zeharo aienatu⁽⁴⁾ eta nik ihes – Gazte Maiteari aurkeztu: “Eguzki, Eguzki maite...”.

IV

Gazte eta Maitea elizan – Liorkok V. ez maite – Odolkiren higuin-garrikeriak (?) – Maiteari agur: malkoak – Itsasoan lagunak: Onuzki erotu – Ama Birjina.

V

Hirizahar – Abertzaletasuna – Hondaurtz ikustera mendiz: lurrari atxiki jausiko ez banintzen – Euskara: dei – Ama: Mta. eta Liorkoren arteko azpikeriak – Hondaurtzeko Ama Birjinari otoi – Konpondu – Ezkondu goizean goiz, bake santuan.

VI

Gaztek M. mindu inoiz, Odolki eta Mta.k isuri-edena⁽⁵⁾ bide – Maitea gaixotu – Jaioberria hil – (Ametz: Maitea hil – Gaubeila⁽⁶⁾ – Ilargi – Hileta-bazkari – Fraide).

⁽²⁾ Itsas gain, Itsas barru alderantz.

⁽³⁾ himnoa; abestia izateko egindako olerkia.

⁽⁴⁾ ezkutatu, desagertu.

⁽⁵⁾ isuritako pozoia, benenoa.

⁽⁶⁾ “Gaubeila”: hildakoaren inguruan, otoitz eginez, kantuak abestuz, haren bizitzako gertaerak eta gorabeherak aipatuz igaro ohi zen gaua. Jatorrizkoan: *Gauila*.

VII

Hori ametsa zen – Maitea osatu egin zen – Haur gehiago izan zituzten – Etxe barneko biziera: mendira, olerki egitera; bakarrik – Gero mahaian etxekoen lagunarte atsegina – Neguko gaua: zirriborroak Maiteari irakurri – Lau haurtxoena – Bizitza-bidea ez da zeharo garratz; ez du beti eguzki, besteetan bezala hodeiak jartzen baitira bitarte. Hondaurtz, antzinako andregai hartu-ez baten antzeko zait orain. Hirizaharrekin egin ditut bakeak, han sortu baitira nire haur eta olerkiak. Gaztetako oroipen zaharrok berritzen ditudan artean, hona gizon heldu. Neguak elurrez zurituko gaitu, baina nire nahia haurrok beti holaxe txiki irautea litzateke.

Lehenengo jalkia⁽¹⁾: Oporraldi hasikinak⁽²⁾

Ama Gau beltxaran...

Mertxika⁽³⁾ guria
jaterakoan,
ez duk lehenen hozka
bezalakorik:
hark gozo-sabela
leherrazten dik;
hark bustitzen ahoa,
gainezkakoan⁽⁴⁾.
Berdin duk oporra:
lehenean, onen;
agortzenago ta
mikatzagotzen.

Gazte dugu gaurko
mertxika jabe.
Bil ezak eskuan,
egiok usai*;
hozka ta milixka⁽⁵⁾,
dukeino garai⁽⁶⁾:
gaur atsegin, badukek⁽⁷⁾
bihar oinaze...
Ama Gau beltxaran,

⁽¹⁾ kapitulua; alea.

⁽²⁾ lehen emaitzak; hasierak.

⁽³⁾ Muxika, presku.

⁽⁴⁾ gainezka egiterakoan.

⁽⁵⁾ milika, miazka.

⁽⁶⁾ garaia duan bitartean.

⁽⁷⁾ izango duk, segur aski.

geroz ernari:
 ekartzen ahal ditun
 anitz haur argi⁽⁸⁾!
 Sapailoan⁽⁹⁾ zuti,
 –gaurko gaugiro!–
 gogo-soinetan⁽¹⁰⁾ duk
 atsegin guri!
 Kezkok jaregina⁽¹¹⁾,
 gaur Hondaurtz⁽¹²⁾ aldi
 duk hasia; gaur buka
 Hirizahar aro.
 Joan duk Negu beltz
 ikastaro zail;
 dei zagun* nagusi,
 Uda jaun horail!

.....
 Oskarbi zen gaua,
 bitxiz joria:
 zilarpil* larria⁽¹³⁾

⁽⁸⁾ *Ama (...)* argi: estrofa honetan, jatorrizkoan, ez da *Ama Gau beltxaran* lerroaren bukaeran komarik ageri; bai, ordea, poemaren azken estrofako errepikan. Komaren bidez, *Ama Gau beltxaran* apostrofe bokatibo bihurtzen da. Poeta hikako neutroz, *ditun* (zuka: dituzun) eta desirazko moldez mintzo zaio Ama Gauari: Ama Gau beltxaran, ernari hagoenez gero (ernari bahago), ekarri ahal ditzaken anitz haur argi!

⁽⁹⁾ Balkoian.

⁽¹⁰⁾ gorputz eta ariman.

⁽¹¹⁾ *Kezkok jaregina*: bi erataria irakur daiteke. *Kezkok* kasu absolutiboa (nor/zer) bada: kezkok jareginda, libre, aske utzita, hots, alde batera utzita, zokoratuta. *Kezkok* kasu ergatiboa (nork/zerk) bada: kezkok Gazte jareginik, libre, aske utzita. Testuinguruak lehenengoa hobestera darama.

⁽¹²⁾ *Hondaurtz Zarautz* da eta *Hirizabar* Tolosa. (Ikus 279. orrialdeko 1. oin-oharra eta baita “Hondaurtz-abestia” olerkiaren lehenengoa ere).

⁽¹³⁾ zilar koloreko pila handia, distira biziko piloa: distira biziko izar piloa / ilargia. (?)

ta diru xehea⁽¹⁴⁾.
Hots isilek laztan
batak bestea;
ilunak emaztegai
aukera argia;
gau-oihalak, zuta
beltzez, zeharra
dirdiraz⁽¹⁵⁾: Jaungoikok
eho beharra⁽¹⁶⁾.

Apoen txirulak
joka dihardu⁽¹⁷⁾,
maitemin apalak
eragina antzo⁽¹⁸⁾.
Lur-axalez gora
jauzten da mintzo⁽¹⁹⁾;
ikusgarri da bihur,
mamia har baitu;
hotsa maiztu ahala
gezi urdinek⁽²⁰⁾
ziztatua dakus*
iluna Gaztek.

⁽¹⁴⁾ Hau da, ortzian, distira bizikoen batera, ikusten diren distira gutxiko puntuak, hots, argitasun apaleko izarrak.

⁽¹⁵⁾ *gau* (...) *dirdiraz*: oihalak hari zutak eta zeharrak, perpendikularrak eta horizontalak dituenek, gau-oihalaren zuta, goitik beherakoa beltzez, tarte edo espazio beltzez osatua da; zeharra, berriz, ezkerretik eskuinera distiraz, izarrez. (Ikus “Onkiren bila” poemako 5. eta 6. oin-oharrak).

⁽¹⁶⁾ ehundu beharreko oihala.

⁽¹⁷⁾ *Apoen* (...) *dihardu*: apoak txirula joka ari dira, ateratzen duten soinua, hotsa, txirularenaren antzekoa baita.

⁽¹⁸⁾ *maitemin* (...) *antzo*: maitemindu, maitasun sentimendu apal batek eragina, joa balitz bezala.

⁽¹⁹⁾ jauzi, salto egiten du txirularen soinuak, hotsak.

⁽²⁰⁾ Hots, apoen txirulak ateratako soinuek, hotsek. Apoak kolorez aldatzen dira ugalketa garaian; arrek urdin kolorea ere hartzen dute.

Gaupean etzina⁽²¹⁾,
 baratza*, behean;
 aurrean, urruntsu,
 mendi izkutua*,
 ilargiak ozta
 gain argitua;
 etxerik, begi-erne⁽²²⁾,
 zenbait, tartean;
 baratzaren mugan,
 dorre bat⁽²³⁾, segail⁽²⁴⁾,
 oro beltz, zilarrez
 ertzak zurikail⁽²⁵⁾.

Gibeletik zer den,
 belarrieri*
 galdetu⁽²⁶⁾. Itsaso hotsak
 ezaugarri du,
 beti bat, ordea
 sarri-berritu⁽²⁷⁾.
 Iduriz dakusagun⁽²⁸⁾
 ez dena ageri:
 hondardi luzean
 uhinak ari,

⁽²¹⁾ etzana.

⁽²²⁾ leihoetan argia erakusten dutelarik, alegia.

⁽²³⁾ Zarauzko Dorre Luzea, XV. mende hasierako eraikin zibil gotikoa.

⁽²⁴⁾ lirain.

⁽²⁵⁾ zurizta(k), zurixka(k).

⁽²⁶⁾ *Gibeletik (...)* *galdetu*: poetak, etxeko balkoian dagoelarik, aurrealdean ikusten duena deskribatu ondoren, orain, atzealdetik dagoena, ageri ez dena, belarritz entzunez eta irudiz imajinatuz nabaritzen duena (itsasoa, hondartza, uhinak) azaltzen du.

⁽²⁷⁾ *beti (...)* *berritu*: beti berdina, monotonoa, baina maiz berritua, errepikatua.

⁽²⁸⁾ ikus dezagun.

gau-oihala astin, ta
dirdaiaraziz.

* * *

Gazteren oporra
zeharoko⁽²⁹⁾ opor:
hiru hilabeteko
zer ta noranahi!
Haize baduk jare,
baduk ere elai⁽³⁰⁾:
eguzki azpian ez
Gazte beste, inor;
nahiz osaba Gartok⁽³¹⁾
lan-lagun ustez
udakide deitu,
urtero ohi zunez*.

Legegizon baitzen
bera⁽³²⁾; ta Gazte
hartarako ari⁽³³⁾...
Oker larria,
bion gaia izanik
olerkaria⁽³⁴⁾!
Gazteren gurasoek

⁽²⁹⁾ erabateko.

⁽³⁰⁾ *Haize (...)* elai: bi baieztapen: Haize(a) baduk jare, aske, eta baduk enara ere bai.

⁽³¹⁾ “Garto”: Konrado Egaña osaba, legegizona, Lizardi abertzaletasunera bideratu zuena; ezkondu aurretik bere amaren, hau da, Lizardiren amonaren etxean bizi zen. Beraz, biek, osaba-ilobek, etxe berean igaro ohi zuten udaldia.

⁽³²⁾ osaba, alegia.

⁽³³⁾ Gazte, Lizardi ere legegizon izateko ikasketak ari zen egiten.

⁽³⁴⁾ *bion (...)* olerkaria: Gazte eta osaba olerkari izateko jaiok ziren nonbait; poesiarako dohaina, gaitasuna edo sena zuten.

poza hartzen dute,
 jakinik oporra
 dukeela jantzi⁽³⁵⁾
 buruan xehatuz
 zenbat-nahi auzi⁽³⁶⁾.

Ez zion Gazteri
 galbide⁽³⁷⁾ horrek
 beldurrik ematen,
 bai baitzekian*
 zerk, udan, osaba
 zeramakian^{(38)*}:
 legegoaz⁽³⁹⁾ besteko
 zenbait jolasek,
 txirripio⁽⁴⁰⁾-ehizak,
 txibia-arrantzak,
 jaun karramarroen*
 atzitze gaitzak⁽⁴¹⁾...

* * *

Txirripio-ehiza...
 Mendilauetan
 hondar-muinoz muino⁽⁴²⁾
 makurka, geldi,

⁽³⁵⁾ jakinbide, aberasgarri gertatuko zaiola osabaren ondoan.

⁽³⁶⁾ nahi adina auzi, auzi asko.

⁽³⁷⁾ arrisku.

⁽³⁸⁾ zeraman, erakartzen zuen.

⁽³⁹⁾ legelariaren lanbideaz.

⁽⁴⁰⁾ "Txirripio", hegaxabal, larretxori: txori arrea, buruan mototsa duena, *Alauda* espeziekoa. *Alondra* (es); *alouette* (?) (fr).

⁽⁴¹⁾ harrapatze zailak.

⁽⁴²⁾ *Mendilauetan* (...) *muino*: ikus "Idazkia" poemako 1. oin-oharra.

eskuan su-iskilu⁽⁴³⁾,
lepoa izerdi:
danba, halako batean,
danbaaa..., birritan;
kepean eguzki;
ta hura soiltzean⁽⁴⁴⁾,
han doaz txoriok
onik, airean!...

Txalupa geldian
txibia-arrantza:
urpean, deigarri,
bitxizko korain⁽⁴⁵⁾...
Ez ahal duk atzitu
afaltzeko lain⁽⁴⁶⁾,
ta, ai, hura goralarri
ta barne dantza!...
Baina, itsaso bada
zeharo bare,
osatzen ahal diat
bazkaria are⁽⁴⁷⁾.

Karramarroena...
Hau ere ez bigun!
Hondarrean ahuspez,
luze-luze sar
harkaizpe doi-doian
beso ta atzapar.

⁽⁴³⁾ eskopeta.

⁽⁴⁴⁾ kea garbitzean.

⁽⁴⁵⁾ "Korain": txibiak eta kidekoak atzitzeko, harrapatzeko, berunezko arrantza-tresna, hiru amukoa.

⁽⁴⁶⁾ *Ez (...)* lain: Afaltzeko adina besterik ez duk harrapatu (eta...).

⁽⁴⁷⁾ *osatzen (...)* are: osatu ahal diat, osa zezakeat, baita bazkaria ere.

Han zegok karramarro:
 atzi dezagun,
 ez haginez aurrez,
 sabeletik bai,
 behatzik hondatu
 ez badugu nahi.

Horrelatsu Gaztek,
 ahoan irri,
 du lehena berritzen⁽⁴⁸⁾
 egunik egun.
 Noizik behin, osaba
 baduke⁽⁴⁹⁾ lagun
 aurtengoan; ez, baina,
 lehen bezain sarri.
 Surpean* ilauna⁽⁵⁰⁾
 denez geroztik,
 gizonak burua
 jare⁽⁵¹⁾ behar dik!

* * *

Mendian, oilarrek
 elkarri “gabon”.
 Loak har baratzen^{(52)*}
 badoa, geldi,
 jaun katu heldekoi⁽⁵³⁾,

⁽⁴⁸⁾ aurreko udetako oporretan bizitutakoa errepikatzen du.

⁽⁴⁹⁾ izango du, seguru asko.

⁽⁵⁰⁾ “Ilaun”: sudurpean bibote hasiberria, mizpira-bilo.

⁽⁵¹⁾ aske, libre.

⁽⁵²⁾ Loak hartutako baratzean.

⁽⁵³⁾ abagune, aukera, zorte bilatzaile; abenturazale.

ozta nabari.
Gaztek galde (artean
goxo baitzegon*):
“Ohera behartu
nahi, dagoneko^{(54)*}?”.

Hitzez ez, egitez
erantzupena:
bizpahiru etxek
betazala, “klixka”,
eraitsi ditek^{(55)*}.
Asistar joareak⁽⁵⁶⁾
gauerdi lehena:
hanka airean dula*
katua geldி;
tan..., *tan...*, hots ozenak;
gero..., isil handi.

Etsi zun* mutilak...
Barnera doa.
Ez pizten argirik...
(Eltxoen lotsa).
Susmo dut ote den
usu bilosa^{(57)*},

⁽⁵⁴⁾ Olerki honetako estrofa luze guztiak hamabi lerroz eta “Neurria eta errima” oharrean adierazitako egituraz antolaturik daudela ikusirik, beharbada, estrofa honetan (hamar lerrokoa) bi bertso-lerro falta dira, *dagoneko*-rekin errimatuko luketenak; eta hurrengo estrofan (hamaika lerrokoa) lerro bat bat falta da, hirugarrena, *bizpahiru etxek* neurtitzarekin bikoa osatuko lukeena.

⁽⁵⁵⁾ *bizpahiru (...)* *ditek*: bizpahiru etxek beren begien betazala, hots, leihoa(k), leiho(eta)ko sareta(k) eraitsi, jaitsi diate, argia itzaltzean, kliska, begien itxi-irekia eginez. Ditek (hikako alokutiboa, toka, haiek hura). Zuka: dute.

⁽⁵⁶⁾ Asistarren, frantziskotarren komentuko ezkilak, kanpaitxoak.

⁽⁵⁷⁾ azkar biluzia.

ta usuago dukeela⁽⁵⁸⁾
 nagusi loa.
 Hor leiho zabala...
 Sar bedi lapur:
 osturen ez dio
 zorion apur!...

.....
 Ama Gau beltxaran,
 geroz ernari:
 etorkizun-haurrak,
 ilun ala argi?...

NEURRIA eta ERRIMA:

6 / 5a / 6 / 5b / 6 / 5b / 7 / 5a / 6 / 5c / 6 / 5c.

EGOKITU GABEAK:

usai: usain. [Egokitzapenaz, “usai : garai” errima hautsiko litzateke]. *zagun*: dezagun. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako bertso-lerroari]. *zilarpil*: zilar-pila. [+1]. *dakus*: dakusa. [+1]. *baratza*: baratzea. [+1; aurreraxeago ere: *baratzaren*: baratzearen. [+1]. *mendi izkutua*: mendi ezkutua. [+1: egokitzapenak “-a i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke bost silabako neurtitzari]. *belarrieri*: belarriei. [-1: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke; “belarrieri : ageri” errima murriztuko litzateke]. *zunez*: zuenez. [+1]. *baitzekian*: baitzekien. [“baitzekian : zeramakian” errima hautsiko litzateke]. *zeramakian*: zeraman. [-1]. *jaun karramarroen* (hiru estrofa aurrerago, *Karramarroena*, eta *Han zegok karramarro*), izen berezizat, pertsonifikaziotzat hartuz gero: jaun karramarro(a)ren. [+1 (?)]. (?) *Surpean*: Sudurpean. [+1]. *baratzen*: baratzean. [+1]. *baitzegen*: baitzegen. [+1]. *dagoneko*: dagoeneko. [+1]. *ditek*: diate. [+1; “etxek : ditek” errima hautsiko litzateke]. *dula*: duela. [+1]. *zun*: zuen. [+1]. *bilosa*: biluzia. [+1; “lotsa : bilosa” errima murriztuko litzateke].

⁽⁵⁸⁾ azkarrago izango duela, seguru asko.

Gazteren esnatzea

Zoridunen⁽¹⁾ etxeak
Eguzkik bai baitakizki,
Gazteren leihoz barne
besoa sartuki,
begiak uki. . .
Gordeka, hala datortzu⁽²⁾
adiskide jostalari.

Etxetik hurbilean,
bizpahiru akazi^{(3)*} luze
zeuden. Bertan, txoriek,
goizero, batzarre.
Nahiz jai nahiz aste,
auzoko belarriak
alferrean ez daudeke⁽⁴⁾.

Batak⁽⁵⁾ begiak uki,
bestetzuek⁽⁶⁾ entzukia⁽⁷⁾,
esnarazpide oro
du Gaztek ukia.
Ez da jaikia.
Ametsik gozoena,
erdi lotan jardukia^{(8)*}.

⁽¹⁾ Zoriondunen, zoriontsuen.

⁽²⁾ datortzu (zukako alokutiboa): dator.

⁽³⁾ "Akazia": lore zuri usaintsuak dituen zur sendoko zuhaitza. *Acacia* (gazt.; fr.).

⁽⁴⁾ ez dira egongo.

⁽⁵⁾ Hots, eguzkiak.

⁽⁶⁾ Hots, txoriek.

⁽⁷⁾ belarria, entzumenaren organoa.

⁽⁸⁾ *Ametsik* (...) *jardukia*: ametsen artean gozoena erdi lotan jarduna, hots, erdi lotan gauzatzen dena.

Begiek, urre gar huts;
 entzumenak, ezti gorri;
 amesmenak sor dizu⁽⁹⁾
 zelai zoragarri.
 Hor duzu⁽¹⁰⁾ jarri
 mutila: babesgai du
 sagarrondo lore-berri⁽¹¹⁾.

Bainan*, izana itxaro
 ametsik ez bezalako⁽¹²⁾!
 Nagiak bota ditu;
 esna duzu oro.
 Zuti da aguro*.
 Goian, barrez, ihesi
 zihoan Eguzki zoro.

Goizaldeak hirira
 ohi duen hots gozo ñabar
 haizeñoak Gazteren
 belarrira dakar:
 hizketa-marmar,
 zaunka ta asto-arrantza,
 sardin-saltzaile* deiadar...

⁽⁹⁾ irudimenak sortu dizu (zukako alokutiboa): sortu du.

⁽¹⁰⁾ duzu (zukako alokutiboa): da. Orobat azken estrofan.

⁽¹¹⁾ loratu berri, duela gutxi loratua; lore berriz jantzia.

⁽¹²⁾ *izana* (...) *bezalako*: izana, egiazko errealitatea, itxaropenezko ametsik ez bezalakoa, oso bestelakoa da.

Esne marmitek, *tinka*⁽¹³⁾,
basagurdia, *kirrinka*⁽¹⁴⁾;
leiho batetik, barre,
kaletik, zirika;
ordu erdika,
joareak⁽¹⁵⁾, laburki,
Jaunaren opa aldarrika⁽¹⁶⁾...

Kalerik ez ageri,
baratza* dago tarteka⁽¹⁷⁾;
beso giharrez*, jotzen
ahal duzu, harrika⁽¹⁸⁾;
Gaztez aurreka,
harako dorre zaharra,
zuti, baratza non buka⁽¹⁹⁾.

Uharte deritzanez
itsas erdiko lehorra,
etxarte zeritzakeen⁽²⁰⁾
ikusgai alorra.
Lur emankorra,
baratze sail itxia,
bake barruti jatorra.

⁽¹³⁾ "Tinka": esne-marmitek elkar jotzean ateratzen duten hotsaren onomatopeia.

⁽¹⁴⁾ "Kirrinka": karranka; basagurdiak, orgak higitzean ateratzen duen hots zoli, bizi eta ezatseginaren onomatopeia.

⁽¹⁵⁾ ezkilak, kanpaitxoak.

⁽¹⁶⁾ Jaunaren oparia, eskaintza jakinarazten du; mezaren berri ematen du.

⁽¹⁷⁾ Etxearen eta kalearen artean baratzea dago, kalea ikustea galarazten duena.

⁽¹⁸⁾ *beso (...)* harrika: beso gihartsuz harria bota eta kalea jotzen ahal duzu (zukako alokutitboa): jotzen ahal da, jo daiteke.

⁽¹⁹⁾ *harako (...)* buka: Zarauzko Dorre Luzea amonaren, *asaba zaharren baratzea* bukatzen zen eta kalea hasten zen gunean zegoen kokatua. Gaur egun ere leku berean dago, noski; baratze saila herri plazatxo irekia eta amonaren etxea, birgaitua, kirolzaleentzako ostatu bihurtuak dira.

⁽²⁰⁾ deitu zitekeen.

Gizalur-ezaugarri,
 Kea dugun mutil alai!
 Etxerik etxe dabil,
 gain gorriez garai⁽²¹⁾.
 Beti goranahi⁽²²⁾,
 kide goitar beharrez
 duzu bihurtzen ortzigai.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 8a / 7 / 6a / 5a / 7 / 8a.

EGOKITU GABEAK:

akazi: akazia. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako bertso-lerroari]. *jardukia*: ihardukia. [+1]. *Bainan, izana*: Baina, izana. [-1: egokitzapenaz, “-a i-” sinalefa sortuko litzateke eta zazpi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *aguro*: agudo. [Egokitzapenaz, “bezalako : oro : aguro : zoro” errima murriztuko litzateke]. *sardin-saltzaille*: sardina-saltzaille. [+1]. *baratza*: baratzea. [+1; orobat estrofaren bukaeran]. *gibarrez*: gihartsuz. [Egokitzapenaz, estrofan nabari den hoskidetasuna, “-rrez, -rri-, -rre-, -rre, -rra”, ahulduko litzateke].

⁽²¹⁾ teiatu gorriez gora, gainetik. (Ikus “Etxeko kea” poemaren hasiera).

⁽²²⁾ handinahi, handizale.

Liorko⁽¹⁾

Bat-batean, txistu-
hots ezaguna,
nahiz iaz hurrenik
Gaztek entzuna⁽²⁾.
—Kaixo, laguna!
Bizkor, beraz?... —Jaufiii,
hau duk eguna!

Liorko zun* Gaztek
hizketakide,
garrasi gaziak⁽³⁾
adirazpide*:
eskuz biltzeke,
mintzoak urruna
nekez dabilke⁽⁴⁾.

Han ageri duzu⁽⁵⁾
leiarri baten^{(6)*},
kokots-masailetan
belar ebaten^{(7)*}...
(Aparra⁽⁸⁾) jaten,

⁽¹⁾ Ikus 279. orrialdeko I. oin-oharra.

⁽²⁾ *nahiz (...)* *entzuna*: nahiz eta txistu-hots hori Gaztek, iaztik geror, entzuten duen hurrengo izan, hau da, lehenengo aldia izan.

⁽³⁾ biziak, garratzak, gozakaitzak.

⁽⁴⁾ *eskuz (...)* *dabilke*: eskuz bildu gabe, mintzoak urruntasuna nekez ibil, gaindi dezake. Hau da: mintzoa, ahotza ahotik irtetean, eskuz, eskuak bozgorailu moduan jarritz, ez bada biltzen, nekez joan, irits daiteke urrunera, urrutira.

⁽⁵⁾ *duzu* (zukako alokutiboa): da.

⁽⁶⁾ beirate batean.

⁽⁷⁾ belarra ebakitzen; bizarra kentzen, mozten, alegia.

⁽⁸⁾ Hots, bizarra kentzeko xaboizko aparra.

hobeto dirudit
ari ote den...).

Adinak berekin
dakar legea:
bizarra labur, ta
gizon-ustea
luze-luzea.
Muino hoiek ebaten^{(9)*}
baduk nekea.

Gazteren kolkoko
adiskidea.
Elkar gabe dute
negu: udatea,
elkar artea.
Maiz gogora dute
batak bestea.

Eguntsu beretan
ikastaldiak
buka ta, ditugu
Hondaurtz atziak^{(10)*}.
Jaioterriak
asetzen dizkie
bihotz-begiak.

Hizketa luzerik,
nabarmenean,
euskaldunak ez du
ohi, maizenean.

⁽⁹⁾ Kokotsa eta masailak ebakitzen, alegia.

⁽¹⁰⁾ Hondaurtz atzituak, atzemanak, bereganatuak; hau da, Hondaurtzera, Zaraurtzera helduak, iritsiak eta bertan murgilduak.

Hoiiek, mahaiean*
elkarri begira:
bizpahiru, urtean.

Hargatik, harira
usu⁽¹¹⁾ jo dute,
elkarri galdetuz
“non” ta “noiz arte”:
—Berehalaxe!
—Muno Txikin⁽¹²⁾ nahi duk?
—Nahi? Nik hala uste!

Bekaitzez Eguzkik
begira die:
—Zuen jolas-lagun
pozik nentorke...
Pozik, halere,
zeregin estu hau
ez banu lege!...

NEURRIA eta ERRIMA:

6 / 5a / 6 / 5a / 5a / 6 / 5a.

EGOKITU GABEAK:

zun: zuen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke sei silabako neurtitzari].
adirazpide: adierazpide. [+1]. *baten*: batean. [+1; estrofako errima hautsiko litzateke]. *ebaten*:
ebakitzen. [+1; estrofako errima murriztuko litzateke]. *hoiek ebaten*: horiek ebakitzen. [+2].
atziak: atzituak. [+1]. *Hoiiek, mahaiean*: Horiek, mahaian. [Egokitzapenak bertso-lerroaren
neurriari eutsiko lioke, baina estrofako errima murriztuko litzateke].

⁽¹¹⁾ azkar.

⁽¹²⁾ Ikus 279. orrialdeko I. oin-oharra.

Amona⁽¹⁾

—Iguzki, Iguzki* maite,
 lilura zoragarria,
 gaurko goizalde diat
 barteko* gauaz⁽²⁾ nahaste,
 oporraldi lehenenkia⁽³⁾!
 Argi zak*, gaur bezala,
 argi zak nire bizia;
 barne egarri bat diat,
 argi zadak* iturria.

.....

Otoi hau egin arte
 gezur-jainko goriari⁽⁴⁾,
 norbait dizu⁽⁵⁾ sumatu,
 xehe⁽⁶⁾ ta bixkorrik, behean,
 urrats usuz⁽⁷⁾ ibiltari.
 Amona du. Gaixoak
 eskuan dakar janari,
 arto-irin oreka ta
 artale gainez isuri⁽⁸⁾.

⁽¹⁾ Ikus “Bihotzean min dut” poemako 1., 2., 3. eta 10. oin-oharrak.

⁽²⁾ “Ama Gau beltxaran” poeman jasotako gauaz ari da. Bai “Gazteren esnatzea”, bai “Liorko”, “Amona” eta “Muno Txiki” olerkiak oporraldietako lehenengo gauaren ondorengo goizari dagozkio.

⁽³⁾ hasikina, lehen emaitza; hasiera.

⁽⁴⁾ gezurrezko jainko goriari, hots, eguzkiari.

⁽⁵⁾ dizu (zukako alokutiboa): du.

⁽⁶⁾ xume, sotil.

⁽⁷⁾ azkarrez.

⁽⁸⁾ artaleak gainezka isuriak.

Andre agurgarriak
 amets etxekoia du min⁽⁹⁾:
 azak eta tipulak,
 udare, marrubiak,
 arrautz-oilo* ta urde... “zikin”⁽¹⁰⁾.
 Jatorriz izan arren
 kaletar andre pinpirin⁽¹¹⁾,
 eusko larre-zumoa⁽¹²⁾
 zainetan dizu berekin.

Mezatatik etorri-
 berri. Jantzi beltz txukuna
 soinean: mantelina⁽¹³⁾
 doi ken⁽¹⁴⁾. . . Hala baitzien
 oiloeri* maitasuna!
 Biloba zaharrenaren
 leihora begirakuna⁽¹⁵⁾
 jasoaz, hitz ezkiez
 onetsi zion eguna.

—Baina, mutil, atorra
 duk, hutsik, gerri gainetik?
 Goizaldeko hoxkirria⁽¹⁶⁾
 xital dela! Behar duk

⁽⁹⁾ maite, gogoko.

⁽¹⁰⁾ Poetaren hitz-jokoa: aipatzera doan urdearen, txerriaren zatia isildu eta honekin zerikusia duen, edo adjektibo gisa hartutako “urde” hitzaren sinonimoa den *zikin* adjektiboz amaitzen du; horrela, errima ere osatzen du.

⁽¹¹⁾ apain, dotore, txukun.

⁽¹²⁾ larreen, landareen barnean dabilen zukua, izerdia, isurkaria.

⁽¹³⁾ “Mantelina”: elizara joatean emakumeek, burua estaliz, eraman ohi zuten buruzapia, *mantilla*.

⁽¹⁴⁾ doi-doi, ozta-ozta kenduta; oraindik erabat kendu gabe.

⁽¹⁵⁾ begirada.

⁽¹⁶⁾ giro apur bat hotza, freskoa, baina atsegingarria.

beldurra, neurriz bederik.
 Ta, gosaltzeke?... Janak
 osasuna gordetzen dik,
 motel! Hator: ez zegok
 gosearekin jolasik.

Gaztek –egi* desagun⁽¹⁷⁾–
 ez du biri-mina⁽¹⁸⁾ beldur;
 urdail-zorroa⁽¹⁹⁾ ere,
 gosariak huts arren,
 artean ez zaio ximur.
 Ezpal berezkoz baina,
 mutila dugu nahiko zuhur⁽²⁰⁾:
 inork laztandu nahi ta,
 ez hakio egin⁽²¹⁾ uzkur.

Murgildu duzu⁽²²⁾, uretan,
 gabe baitzegon*, artean⁽²³⁾.
 Amonak oreata
 bakar gorrian laga⁽²⁴⁾,
 ta atzera dator bidean.
 Oiloak tinko, baina
 biloba are, bihotzean:
 haien goseak, itxoin⁽²⁵⁾;
 honenak ez zezakean^{(26)*}.

⁽¹⁷⁾ egia esan dezagun.

⁽¹⁸⁾ biriketako mina, birikeria, pneumonia.

⁽¹⁹⁾ estomagoa, estomaka.

⁽²⁰⁾ *Ezpal (...)* *zuhur*: Gazte izaera, jite, berezikoa da, baina nahiko zuhurra, arduratsua.

⁽²¹⁾ ez iezaio egin.

⁽²²⁾ duzu (zukako alokutiboa): da.

⁽²³⁾ *Murgildu (...)* *artean*: Gazte uretan murgildu da, garbitzeko, artean txukundu gabe baitzegoen.

⁽²⁴⁾ *Amonak (...)* *laga*: Amonak, oiloentzako oreata dela eta, zeharo alde batera, bakarrik utzi du mutila.

⁽²⁵⁾ itxoin zezakeen.

⁽²⁶⁾ bilobarenak, alegia, ez zezakeen.

Badator behera Gazte,
goiko sukalderi* muzin.
Ezpainak ximurtuki
amona dabil: ez duk
haren ondoan atsegin!
—Neskame bargasta⁽²⁷⁾, non?
Ta alabak, non?... Oro berdin!
Erdi itzalita sua,
ezin esneak irakin!

Han dabilizu⁽²⁸⁾ gaixoa
zerbaiten bila su ta gar,
sutatik ezin baitu
esnerik katilura
atzapar huts gorriez har!
Apalak irauli ta
zoko guztietan aztar^{(29)*}:
eskuan burruntzali... ,
ta haren eske... zora behar!

⁽²⁷⁾ axolagabea, zabarra; ez esanekoa.

⁽²⁸⁾ dabilzu (zukako alokutiboa): dabil.

⁽²⁹⁾ aztertu, arakatu.

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 8a / 7 / 7 / 8a / 7 / 8a / 7 / 8a.

EGOKITU GABEAK:

Iguzki, Iguzki: Eguzki, Eguzki. [+1: egokitzapenak “-i I-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *barteko*: bartko. [-1: egokitzapenaz, zazpi silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *zak*: ezak. [+1; orobat hurrengo lerroan]. *zadak*: iezadak. [+2]. *arrautz-oilo*: arrautza-oilo. [+1]. *oiloeri*: oiloei. [-1]. *egi*: egia. [+1]. *baitzegon*: baitzegoen. [+1]. *zezakean*: zezakeen. [Egokitzapenaz, “artean : bidean : bihotzean : zezakean” errima hautsiko litzateke]. *sukalderi*: sukaldeari. [+1]. *aztar*: azter. [“gar : har : aztar: behar” errima hautsiko litzateke].

Muno Txiki⁽¹⁾

Non-elkarra, ta noiza, are⁽²⁾,
tinel daduzkate^{(3)*}:
Muno Txikin bil ditugu
Liorako ta Gazte;
hondarraz aurre,
jardun gozoari bekiote^{(4)*}.

Ikus-berrikoak labur⁽⁵⁾,
bizkarrekoz nahaste,
bai baita han zerk begimindu⁽⁶⁾
nahiz bata nahiz beste...
Isil da Gazte,
laguna, isil: isil-ederreste^{(7)!}...

Ederberak xerbeldurik⁽⁸⁾,
ardoa bailuten⁽⁹⁾,
luze itotako Hondaurtz-minak
eztanda zegien...
Nork bere barnen*
nabaria⁽¹⁰⁾, mintzoz dute janzten.

(1) Ikus 279. orrialdeko I. oin-oharra.

(2) Non elkartu eta noiz, are; biltzeko lekua eta baita ordua ere.

(3) prest, gertu; jarrita, zehaztuta, erabakita dauzkate.

(4) bekizkio; ekin bieziaiote.

(5) Elkar ikuste berriari buruzkoak, elkarrizketa hastean erabiltzen diren hitzak eta esapideak laburki esan.

(6) zerk begia, ikusmena zaletu, grinatu, eragin.

(7) isiltasunezko eder irizte, mireste.

(8) Edertasunarekiko sentiberatasunak zertxobait eraginik, txolindurik, mozkorturik.

(9) izango balute bezala.

(10) Bakoitzak bere barnean nabaritzen duena.

Itsasoa zabal dager
 lerro zuriz⁽¹¹⁾ ertza;
 zenbait bustizale goiztar*
 gogara⁽¹²⁾ dabilta.
 Gazte da mintza,
 ahoa hainbat zabaliz⁽¹³⁾ bihotza:

—Gogo hazten zaidak hemen
 jan-asez hazia,
 begi-zuloek har ahala
 naro⁽¹⁴⁾ duk argia:
 hau dik ogia
 irudimenak; hau, edaria!

Begi-baxterretik⁽¹⁵⁾ irri
 lagunak dagio^{(16)*};
 osatzaile-gaia izaki⁽¹⁷⁾,
 sailai* dakio
 jakin-jario⁽¹⁸⁾;
 olertiaz axolik* ez dio.

—Gesal⁽¹⁹⁾ ehozko bisutsa
 hemen duk bereizi⁽²⁰⁾;

⁽¹¹⁾ olatuen apar zuriz, alegia.

⁽¹²⁾ nahierara, gogoaren arabera; gustura.

⁽¹³⁾ zabalduz.

⁽¹⁴⁾ jori, oparo, bete.

⁽¹⁵⁾ Begi-ertzetik; zeharka.

⁽¹⁶⁾ degio, egiten dio.

⁽¹⁷⁾ sendagile gaia, medikuntzan ikaslea izanik.

⁽¹⁸⁾ *sailai (...)* jario: bere jakintza sailari ekiten dio, jakinduria dariola.

⁽¹⁹⁾ Kresal, itsas ura.

⁽²⁰⁾ *Gesal (...)* bereizi: Jatorrizkoan: *Gezak eiozko bisutsa. Orotariko Euskal Hiztegi-an* (s.v. “geza”, II, 2: “Agua dulce”), honako irakurketa hau egiten da: [= ‘la bruma tejida por el agua dulce’?]. Ez dirudi testuinguruari erantzuten dion interpretazioa denik; galdera-marka bera zalantzezko irakurketaren seinalea da. Koherenteago: *Gezak* (errata) > *Gezal* / *Gesal* zuzenketaz, esaldia honela irakur daiteke: olatuak lehertzean, itsasertzetik lurrerantz hedatzen den bisutsa, lanbroa, ur-lainoa, ehotako, xehe-xehe egindako gesalez osatua, hemen duk nabari.

beste inon ez hainbatean
odol-bixigarri!
Ttantta bat, gazi,
azal-txulo⁽²¹⁾ banatan dik jarri.
Elkarren lehian dituzu⁽²²⁾
korapilatuak,
nor baino nor piztenago
ametsaren suak;
haien aipuak⁽²³⁾
mordoka darite⁽²⁴⁾ elkar-lotuak.

NEURRIA eta ERRIMA:

8 / 6a / 8 / 6a / 5a / 10a.

EGOKITU GABEAK:

daduzkate: dauzkate. [-1: egokitzapenez, sei silabako bertso-lerroak silaba bat galduko luke]. *bekio*: bekizkio. [Egokitzapenez, “daduzkate: Gazte : aurre : bekiote” errima hautsiko litzateke]. *barnen*: barnean. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bost silabako neurtitzari]. *goiztar*: goiztiar. [+1]. *dagio*: degio. [“dagio : dakio : jario : dio” errima murriztuko litzateke]. *sailai*: sailari. [+1]. *axolik*: axolarik. [+1].

⁽²¹⁾ Poro, hots, azaleko zulotxoetako bakoitza. Sabaikaria mantendu da txikitasunaren adierazkortasunari eusteko.

⁽²²⁾ dituzu (zukako alokutiboa): dira.

⁽²³⁾ adierazpenak, esanak.

⁽²⁴⁾ darizkie, jariatzen zaizkie.

Gora-dei

Horra, ustekabe, jaunak,
 ipuin bat hasia⁽¹⁾:
 antzea bezain, naski,
 gaia dut urria⁽²⁾...

Mutiletako poza
 ta axolagabea⁽³⁾:
 amets ezta dela
 lehenen maitatzea.

Nola baita astuntzen
 gerora bizia;
 ta zein dugun beharra
 noiznahi goi-argia.

Edozein lan hasteko,
 Jaunari bihotza⁽⁴⁾:
 areago, txit bainaiz
 hartarako motza.

Jaungoiko on, euskaldunon
 betiko jabea,
 indazu⁽⁵⁾ nire ipuina
 taxuz jalkitzea⁽⁶⁾.

⁽¹⁾ “Maitea” poema luzea ipuin, narrazio moduan dago taxutua eta moldatua: *Oroitzapen maiteenen* kontakizuna da. Poetak, dagoeneko, lehenengo jalkia du osatua.

⁽²⁾ *antzea (...)* *urria*: artezia, trebetasuna bezain urria, segur aski, dut gaia, mamia.

⁽³⁾ *axolagabetasuna*.

⁽⁴⁾ Jainkoari bihotza altxatu, zuzendu behar, laguntza eske.

⁽⁵⁾ i(n)dazu: emadazu, eman iezadazu.

⁽⁶⁾ modu egokiz, behar bezala adieraztea, isurtzea.

Ez bezakida⁽⁷⁾ ahotik
hitz gaiztorik eror;
ez bedi nire esanik
inorentzat galkor⁽⁸⁾.

Ta zuk, euskara eder,
mintzo zahar joria,
barkako* ahal didazu
nire ausardia...

Oroitzapen maiteenen
ontzia, zeure urrez
landu nahi baitut... Landu,
nire esku baldarrez!

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

barkako: barkatuko. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari].

⁽⁷⁾ bekit; dakidan.

⁽⁸⁾ galgarri; galbide.

Bigarren jalkia

Onkiren⁽¹⁾ bila

Onkiren zoria
bestelako zan*.
Uztail nahiz azaro,
hark beti du lan.
Sartu gaiten*,
oin laburrez, haren
aitaren olan.

Matazak harildu⁽²⁾,
txirrikak bete⁽³⁾...
Mozorkek⁽⁴⁾ anezka⁽⁵⁾
ernal bezate.
Ai, zenbat neke,

⁽¹⁾ “Onki”: “Onuzki”, Felipe Lizundia, “Agur!” poemakoa. Bere aitak bazuen Zarautzen hamabi ehundegiz (ehunak ehotzeko makinaz) hornitutako tela fabrika bat: Lizundia ehun-fabrika, 1911n ireki eta 1937an itxi zena. Harizko ehunak (maindireak, zamauak eta bestelako zapiak) ehotzen zituzten, eta Felipek, anai-arrebetan zaharrenak, ola honetan egiten zuen lan, chungintzan, beraz. Orain dela gutxi arte “Textil Guipuzcoana” lantegia egon den leku berean (Bizkaia kalean) zegoen kokatua enpresa.

⁽²⁾ “Mataza”: euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria. *Madeja* (es); *écheveau* (fr). “Harildu”: matzetako haria ardatzean, edo harilak, hari-pilotak eginez bildu. *Devanar* (es); *dévider* (fr). “Haril”: haria biribilduz egindako hari-pilota, hari-bola. *Ovillo* (es); *pelote, pelotón de fil* (fr).

⁽³⁾ hariletako hariz txirrikak bete; haria txirriketara pasa. “Txirrika”: mutur bakoitzean disko bat duen haga edo hodia, hariak eta kidekoak bertan biltzeko erabiltzen dena; hemen, ehundegian, horizontalki bira egiten duen plateran ezarritako zilindro bertikala; jiratzean haria ardatz horretan bildu, biribildu egiten da, bobina osatuz. *Carrete, (bobina)* (es); *canette, (bobine)* (fr).

⁽⁴⁾ “Mozorka” edo bobina: txirrikak eta bertan biribilkaturiko hariak osatzen duten multzoa. *Bobina* (es); *bobine* (fr).

⁽⁵⁾ “Anezka”: ehundegietan haria daraman tresna, txalupa txiki baten antzekoa, bilbearen hariak irazkiaren gainetik eta azpitik, alde batetik bestera zeharka pasatzeko erabiltzen dena. *Lanzadera* (es); *navette* (fr). “Bilbe”: ehuna egitean, irazkiko harien artetik zeharka pasatzen den haria. *Trama* (es); *trame* (fr). “Irazki”: ehuna egitean, elkarren paralelo ezartzen diren hari zuten, goitik beherakoan multzoa; hari horien artean bilbea igaroaraziz ehuna egiten da. *Urdimbre* (es); *chaîne* (fr).

alferrok atorra
janzteren* truke.

Han dabil anezka
ezker-eskubi*.

Zuta ta zeharra
lotuz elkarri⁽⁶⁾,
ehunduko sarri⁽⁷⁾
ehundegi ardatzak
bil duen hari⁽⁸⁾.

Olaren buruzko
eragilea⁽⁹⁾
bazter gelan dago.
Haren nekea!
Esku betea
kaskoan⁽¹⁰⁾; sudurra
leuntzen, bestea.

.....

Aurreko leihoko
goi-bazterrean,
armiarma ari da
eginahalean.
Noizik behinean,

⁽⁶⁾ *Mozorkek (...) bezate. (...). Han (...) elkarri*: Ehuna ehundegian bilbea (zeharra, zeharkako haria), irazkiko harien (zutaren, hari zuten) artetik igaroaraziz egiten da. Anezka da lan hori gauzatzen duena. Mozorkatik bilbea hartzen duen anezkak, esker-eskuin ibiliz, bilbea irazkiko hariekin lotzen du, horrela ehuna ehoz, eginez. Anezka elikatzen duen mozorka husten denean, ondoan dagoen mozorka-biltegitik beste bat dator automatikoki hustua ordezkatzera: *Mozorkek anezka errial bezate*, ernari jar bezate, berriro bete bezate.

⁽⁷⁾ ehunduko du azkar, berehala.

⁽⁸⁾ ehunak ehuntzeko makinaren ardatzak bildurik duen haria.

⁽⁹⁾ *Olaren (...) eragilea*: Olan buru-lana –ez eskulana– betetzen duena, eragile edo kudeatzaile gisa.

⁽¹⁰⁾ buruan; buruaren goialdean.

hari so degio⁽¹¹⁾
 argi eskean,
 hura baita ehule⁽¹²⁾
 zahar-zaharrenik han.

NEURRIA eta ERRIMA:

6 / 5a / 6 / 5a / 5a / 6 / 5a (/ 6 / 5a).

EGOKITU GABEAK:

zan: zen. [Egokitzapenaz, “zan : lan : gaitean : olan” errima hautsiko litzateke]. *Sartu gaitean*: Sar gaitezen. [-I: egokitzapenaz, bost silabako neurtitzak silaba bat galduko luke; “zan : lan : gaitean : olan” errima hautsiko litzateke]. *janzteren*: janztearen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke bost silabako bertso-lerroari]. *eskubi*: eskuin. [-1; “eskubi: elkarri : sarri : ari” errima hautsiko litzateke].

⁽¹¹⁾ Hots, (eragile horrek) begiratu egiten dio armiarmari.

⁽¹²⁾ ehun egile, ehunak ehotzen dituen langile.

Hondaurtz-abestia⁽¹⁾

Hondaurtz! Behean⁽²⁾ dut ageri,
neskatx* polit bat iduri...
neskatx polit bat iduri...
Erdi etzinik txairo⁽³⁾ baitago,
begi zabaletan argi,
ezpain gorrietan irri.

Hondaurtz! Itsasoa ataurre⁽⁴⁾,
hondardia atari lege⁽⁵⁾...
hondardia atari lege...
Damasko-oihalki urdin joriak⁽⁶⁾
ertzeko litsean urre⁽⁷⁾.

Hondaurtz! Erdi arrantzale,
erdi nekazari ere...
erdi nekazari ere...
Ta, halaz guztiaz* ere, kaletar,
kaletar apaindu zale,
baserri, itsaso ta kale.

⁽¹⁾ “Hondaurtz”: Zarautz. Lizardik “Tristesas de un jocoso sentimental” artikuluan (*Euzkadi*, 1929-02-24), Zarautz bere jaioterria “Hondaurtz” izendatzen du (“Arena inhollada”, hondar ez-oinkatua). (Ikus: Xabier LIZARDI, *Kazetari-lanak*. Donostia: Erein, 1987, 207-209).

⁽²⁾ Hots, itsasoaren mailan, ez gorago edo mendian.

⁽³⁾ Erdi etzanik, lirain eta dotore.

⁽⁴⁾ Itsasoa (dun) atari-aurre, ate aurreko inguru.

⁽⁵⁾ hondartza atari legez, atari gisa, modura.

⁽⁶⁾ “Damasko”: zetazko edo artilezko ehun sendoa, kolore bereko hariak erabiliz egina; alde batean, bilbeak hondoa eta irazkiak marrazkiak osatzen dituzte; beste aldean, alderantziz, hau da, bilbeak marrazkiak eta irazkiak hondoa; hondoa distiratsua eta marrazkiak mateak, distira gabeak dituena aurkia da; hondoa matea eta marrazkiak distiratsua dituena ifrentzua. Hemen, Damasko oihalkiak, oihal zatiak, urdin ugariak, itsaso urdinaren gainaldeko urdinuneak dira.

⁽⁷⁾ Damasko-oihalkiak, itsasertzeko litsean, zerrendan, hondarra ukitzean urre, urre koloreko bihurtzen dira.

Busti, Hondaurtz, oin ta zango,
 kuliskak⁽⁸⁾ ez gogarago⁽⁹⁾...
 kuliskak ez gogarago...
 Lirain askiak ageri ditun⁽¹⁰⁾
 hondar gorri hezea antzo,
 gari helduaren margo⁽¹¹⁾.
 Hargatikan* azala dun⁽¹²⁾
 erreaz batera legun*...
 erreaz batera legun...
 Euskal hirukoitz⁽¹³⁾ zinez⁽¹⁴⁾ jatorra!
 Kaletar, lugin⁽¹⁵⁾, arraindun⁽¹⁶⁾...

NEURRIA eta ERRIMA:

8a (/ 8a) / 8a / 10 / 8a (/ 8a).

EGOKITU GABEAK:

neskatx: neskata. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zortzi silabako bertso-lerroari; orobat hurrengo lerroan]. *guztia*: guztiz. [-1: egokitzapenaz, hamar silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *Hargatikan*: Hargatik. [-1]. *legun*: leun. [-1; orobat hurrengo lerroan].

⁽⁸⁾ "Kuliska": oilagorraren familiako hegaztia, mokoia eta zangoak luzeak dituena, zingira eta paduretan bizi dena. *Limosa limosa*. *Aguja* (es); *barge / ébassier* (?) (fr).

⁽⁹⁾ ez gusturago.

⁽¹⁰⁾ ditun (hikako neutroa, noka, hik haiek). Zuka: dituzu. Neskata bat irudi duenez, apostrofean noka ari zaio poeta Hondaurtzi.

⁽¹¹⁾ koloreko.

⁽¹²⁾ dun (hikako alokutiboa, noka, hik hura). Zuka: duzu.

⁽¹³⁾ hiruko(te); hirutasun.

⁽¹⁴⁾ zinetan, benetan. Jatorrizkoan: *ziñen*. (?)

⁽¹⁵⁾ lur langile, laborari, nekazari.

⁽¹⁶⁾ arrantzale, arrantzari.

Laugarren jalkia⁽¹⁾

Maitale berriak

Eguzkiak horailen⁽²⁾ adatsa dunean^{(3)*},
ikus bide dituzu, egurats-bidean⁽⁴⁾,
inguma⁽⁵⁾ bi xurizta, lur apaindu gainez⁽⁶⁾
lozez loreko ibili gozoak eginez.

Ezin ohar txoroak zerk elkarrengana
darakarkien⁽⁷⁾. Baina, nirez dakidana:
zorion huts geroak letsiken unerik
haien aldi laburrak ez dizu besterik⁽⁸⁾.

Nork lesaieke⁽⁹⁾ poza laster dutenik hil?
Oinaze-heriotzak nork hain dituztela hurbil?

* * *

Halatsu baitzebiltzan Maitea ta Gazte,
ez zioten elkarri aitor “ene maite”;
ta, halaz guztiaz* ere, maitezko mintzoak
betidanik zerizten⁽¹⁰⁾ biñoen⁽¹¹⁾ ahoak*.

⁽¹⁾ Lizardik hirugarren jalkia osatu gabe utzi zuen. Ikus 279. orrialdeko I. oin-oharra.

⁽²⁾ hile horaila, horixka, dutenen.

⁽³⁾ Hots, eguraldi eguzkitsua, distiratsua, denean.

⁽⁴⁾ egurasteko bidean, moduan.

⁽⁵⁾ tximirrika, tximeleta, pinpilinpaxa.

⁽⁶⁾ lur apainduaren gainean, gainetik.

⁽⁷⁾ *Ezin (...) darakarkien*: ezin da antzeman, ezin da sumatu zerk erakartzen dituen inguma txoroak elkarrengana.

⁽⁸⁾ *zorion (...) besterik*: ingumen aldi laburrak geroak etsiko duen zorion huts unerik besterik ez du; ingumen bizialdi laburrak ez du etorkizunak onartuko, eskainiko, duen zorion beteko beste unerik. (?)

⁽⁹⁾ esan liezaieke.

⁽¹⁰⁾ Jariatzen zituzten, isurtzen zituzten. “Jario” aditzaren “zerizten” adizkia, hemen, “du” (haiek haiek) aditz motaren eredura dago erabilia. “Zaio” (haiek haiei) aditz motaren arabera: zerizkien, jariatzen zitzaizkien biñoen ahoi.

⁽¹¹⁾ bien, “-ño” txikigarri afektiboz ñabartua.

* * *

Behinola, bazkalondo sargori zelarrik,
 urre egoki⁽¹²⁾ baitziren asistarranetik⁽¹³⁾:
 —Maitea, Jainko onari otoi bagengio^{(14)*}
 eskariak elkartuz. . . —Gaztek galde dio.

(Bihotzak hala agintzen baitzion, elkarren
 arteko lokarriak zailago⁽¹⁵⁾ zitezen).

—Pozik —erantzun zion Maiteak—. Goazen.
 Ta, masailak gorrituz (zerek* ahal zekien!⁽¹⁶⁾):
 —Baina eska beharrik zer dugu, biona?
 Ta mutilak, zalantzaz: —Elkar-zoriona. . .

“Elkar-zorion” hori ez zen soindun⁽¹⁷⁾ ume,
 lur kiskali lurruna bezain mamitzeke.
 Zorionago zer nahi anartea⁽¹⁸⁾ baino?
 Iraun ahal balezaie biziak arteino⁽¹⁹⁾!

Maitetasuna* dator hazi izkutu* batez,
 guztiok baitaukagu barnean jaiotzez:
 ez edozein eguzkik ernarazgarria⁽²⁰⁾,
 hautuaren⁽²¹⁾ begiek behar dute ukia;
 ta ohartzen ez gara denik ernatua⁽²²⁾
 harik eta bihotz den arte loratua⁽²³⁾.

(12) hurbil samar, nahiko hurbil.

(13) asistarren, frantziskotarren elizatik.

(14) bagengio, egingo bagenio.

(15) estuago, sendoago; iraunkorrago.

(16) ba ote zekien zerk (gorriarazten zizkion masailak).

(17) gorpuzdun, gorpuztutako, gorputza hartutako; gauzatutako, mamitutako.

(18) bitartea; elkarrekin igarotzen ari ziren zoriontasunezko unea, denbora-tartea.

(19) Oxala iraungo balie biziak irauten duen arteraino, bizirik irauten duten bitartean.

(20) ernatu, hozitu dezakeena; ernamuinaren haztea eragin dezakeena. Jatorrizkoan: *ernerazgarria*.

(21) hautatuaren, aukeratuaren; maitearen.

(22) eta ez gara hozitua, ernamuindua denik ohartzen.

(23) harik eta bihotza loratua den arte. Jatorrizkoan: *loreztua*.

* * *

Ur onetsia⁽²⁴⁾ Gaztek eskaini: Maiteak
behatz zuri-gorriak dardaraz beteak. . .
Mutilaren begiak noiz itsatsi zaizka^{(25)*}
ordun* hainbat sakonki, ordun bezain tinka^{(26)!}

Maitari biak, beren urratsak neurturik,
sartu ta jarri dira belaunikaturik.

Jainkoaren etxea erdi ilunik dago,
haur loa bera baino bakez beteago.
Ateko⁽²⁷⁾ sargoriak sarbiderik ez du:
hoxkiro⁽²⁸⁾ bigun batek batzarri dagizu⁽²⁹⁾.

* * *

Jaunarenean dagoen isiltasuna,
otoitzai* hego meheak ematen dizkana^{(30)*!}. . .
Isiltasun bizia, bihotz-taupa duna*;
ez, alegia, hilerrian egoten dena.

⁽²⁴⁾ Ur bedeinkatua, eliza sarrerako ontzi batean egon ohi dena, (be)hatzez ukitu eta gurutzearen seinalea egiteko.

⁽²⁵⁾ zaizkio.

⁽²⁶⁾ tinko(ki), irmo(ki).

⁽²⁷⁾ Kanpoko.

⁽²⁸⁾ hoxkirri, freskura atsegin.

⁽²⁹⁾ abegi atsegin(a), harrera amultsu(a) dagizu (zukako alokutiboa): dagi, egiten du.

⁽³⁰⁾ dizkiona.

Gazte otoi luzeetan hasi baino lehen⁽³¹⁾,
 xerbelduxe baitzegon^{(32)*} maite-ardoarren,
 iraulka zebiltzian⁽³³⁾ bazter orotara
 begi jakin-beharrak⁽³⁴⁾, ororien gogara⁽³⁵⁾.

Etxeko sutondotik alde ibili ondo⁽³⁶⁾,
 oroigarriz betea dakusazu⁽³⁷⁾ oro:
 gabon afariarena bezain gozoa
 lehenaren lurruna zaizu⁽³⁸⁾ gogoan heda.

Zatoz baratz*-leihora ta ikus goi-zokoak⁽³⁹⁾...
 Enara habion erakarki⁽⁴⁰⁾ gozoak!
 Lehenkari⁽⁴¹⁾ minagorik ez baitu geroak:
 enara habi* zaharrok, urtero beteak,
 inoiz udaberrien lekuko maiteak.

⁽³¹⁾ Neurtitz hau, horrela idatzita, hamabi silabakoa da. Poemak, ordea, hamahirukoa izatea eskatzen du. Seguru asko ez da okerra, lizentzia baizik. Lizardik "lehen" hitza, jatorrizkoetan, "len" edo "lên" moldez idazten du, beti: silaba batekoak neurketarako. Baita eratorrietan ere: "lên/ean", "lên/engo", "lên/dabizi"... "Maitale berriak" olerki honetan: "lên/aren", "lên/kari". Salbuespen bakarra olerkian, neurtitz honetakoa: jatorrizkoan, "leen" idazten du, adierazteko "le/en", hots, "le/hen", hau da, bi silabaz ebaki behar dela, horrela hamahiru silabako bertso-lerroa osatuz. Berez, dieresia beharko litzateke, "lêen". Halaxe jokatzten du poetak "Agur!" poeman: jatorrizkoan, "gabêen" forma ageri da, horrela "gabeen" hitza hiru silabako bihurtuz, "ga/be/en". Orobat "Baso itzal" olerkian, "erlêen" forma erabiltzen da, "erleen" hitza hiru silabako eginez, "er/le/en". Aztergai den neurtitz honetan *h* letrak aukerako muga silabikoa ezartzen duenez, testuan ohiko egokitzapena besterik ez da egin.

⁽³²⁾ zertxobait mozkortuta, txolinduta baitzegoen.

⁽³³⁾ zebilzkion (begiak Gazteri) / zerabiltzan (Gaztek begiak). (?)

⁽³⁴⁾ jakin-goseak.

⁽³⁵⁾ oroitzapenen nahierara, erara.

⁽³⁶⁾ alde eginik ibili ondo, urrun ibili ondoren.

⁽³⁷⁾ ikusten du (zukako alokutiboa) / ikusten duzu (poeta Gazteri zuzentzen zaiola). (?)

⁽³⁸⁾ zaio (zukako alokutiboa) / zaizu (poetak Gazteri). (?)

⁽³⁹⁾ teilatut-hegaleko, teilatut-ertzeko azpiko zokoak.

⁽⁴⁰⁾ erakarpen; iradokizun.

⁽⁴¹⁾ Lehenetik gelditu den, iraun duen gauza, objektu.

NEURRIA eta ERRIMA:

13A / 13A / 13B / 13B (/13C / 13C).

13A / 13A / 13A / 13B / 13B. Neurtitz gehienak, zehazkiago: 7+6.

EGOKITU GABEAK:

duncan: duenean. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke hamahiru silabako bertso-lerroari]. *guztiaz*: guztiz. [-1: egokitzapenaz, hamahiru silabako neurtitzak silaba bat galduko luke]. *aboak*: ahoek. [Egokitzapenaz, “mintzoak : ahoek” errima hautsiko litzateke]. *bagengio*: bagenegio. [+1]. *zerek*: zerk. [-1]. *Maitetasuna*: Maitasuna. [-1]. *hazi izkutu*: hazi ezkutu. [+1: egokitzapenak “-i i-” sinalefa oztopatu eta silaba bat erantsiko lioke hamahiru silabako neurtitzari. “Maitasuna” [-1] eta “hazi ezkutu” [+1] egokitzapenak batera gauzatuz gero, neurtitzak hamahiru silabakoa izateari eutsiko lioke, baina, horrela, poeman nagusi den, lehenengo ahapaldietan bederen erabat betetzen den 7+6 egitura, hautsi egingo litzateke]. *zaizka*: zaizkio. [+1; “zaizka : tinka” errima hautsiko litzateke]. *ordun*: orduan. [+1; orobat lerro berean, segidan]. *otoitzai*: otoitzari. [+1]. *dizkana*: dizkiona. [+1]. *duna*: duena. [+1]. *baitzegon*: baitzegoen. [+1]. *baratz*: baratze. [+1]. *babi*: habia. [+1].

Honaino “«Maitea»ren apurñoak”

Euskal Pizkundea

I

Gau luzea, gau latza
gau izar gabea,
nekez gendun* ikusi
haren azkentzea⁽¹⁾.
Gauerdian, hil zaigu
amona gurea;
esku gogortuetan
dauka gurutzea.

II

Goiza lainotan jaio
zen noizbait. Leihoan
apar zuri motela
itsatsi zegoan*.
Begiak gorrituta
sukaldera noan,
nire hezurrek ikara
goitik beherakoan.

III

Gure sukalde zaharra
etxe pizgarria,
bart, lagunarte goxo,
gaur, bakar gorria⁽²⁾.

⁽¹⁾ Hots, amonaren bukaera, azken unera iristea.

⁽²⁾ zeharo, erabat hutsa.

Lehen epela jario⁽³⁾,
orain hotz larria.
Amonarekin batez
duzu utzi bizia!

IV

Amonaren aulkia
hago sutondoan:
haren ipuinik al duk
hik jaso gogoan?
Hik ez? Laratzak⁽⁴⁾? Ezta!...
Ezuste gozoan
geunden, ta gure poza
betiko da joan⁽⁵⁾.

V

Ordun* belaunikatu
nintzen hauts gainera.
Hark gordetako sua
zu're*, hil ote zera*?
Hautsa pitinka urratu
nuen, beldurbera.
Sua bizirik dago!
Galduak ez gera*!

⁽³⁾ epeltasuna zeriola.

⁽⁴⁾ "Laratz": sukaldeko beheko suan, sutondoan, tximiniatik zintzilik dagoen kate kakoduna, pertza edo galdara suaren gainean esekita eduki ahal izateko erabiltzen dena.

⁽⁵⁾ *Ezuste* (...) *joan*: ustekabe gozoan geunden, hau da, ez aulkiak ez eta laratzak ere amonaren ipuinik jasoko ez zutenik; baina ez dute ezer jaso eta gure poza betiko da joan.

VI

Poz-oihuak esnaraz
 nindun* bat-batean.
 Zer dakust* Jaun handia!
 Amona? Benetan?
 Zerau zakust⁽⁶⁾ bizirik
 begi-ninietan!
 Maitez erantzun zidan:
 “Gaixoa! Ametsetan?”.

VII

Geroztik ari nauzu
 hauts zaharrak astintzen,
 aiton-amon* guztien
 ipuinak jasotzen,
 Herriaren bitxiak
 magalean biltzen.
 Ez baita hil gure Herria!
 Zutitu gaitezen!

VIII

Hil ez da ta ez da hilko
 guk ez badugu nahi.
 Bizi irrikaz zegoen
 gure maitasun zai*.
 Haren susper beharrez
 goazen noranahi!
 Bizkor urra ditzagun
 malkar⁽⁷⁾ eta zelai!

⁽⁶⁾ Zeu, zerori ikusten zaitut.

⁽⁷⁾ “Malkar”: aldapa piko eta latz.

IX

Egizue nirekin
aberi-bidea.
Bildu dezagun non-nahi
asaben lorea.
Ta gaurdanik⁽⁸⁾ goritu
gure sukaldea.
Ni nor naizen? Asmatu!
Euskal Pizkundera!

NEURRIA eta ERRIMA:

7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a / 7 / 6a.

EGOKITU GABEAK:

gendun: genuen. [+1: egokitzapenak silaba bat erantsiko lioke zazpi silabako bertso-lerroari]. *zegoan*: zegoen. [Egokitzapenaz, “Leihoan: zegoan : noan : beherakoan” errima hautsiko litzateke]. *Ordun*: Orduan. [+1]. *zu're*: zu ere. [+1]. *zera*: zara. [“gainera : zera : beldurbera : gera” errima murriztuko litzateke]. *gera*: gara. [“gainera : zera : beldurbera : gera” errima murriztuko litzateke]. *esnaraz nindun*: esnarazi ninduen. [+2]. *dakust*: dakusat. [+1]. *aiton-amon*: aitona-amona. [+1]. *maitasun zai*: maitasunaren zain. [+2; “nahi : zai : noranahi : zelai” errima hautsiko litzateke].

⁽⁸⁾ gaurgero, gaurtik aurrera.

ERANSKINAK

– I –

HIZTEGIA⁽¹⁾

- abaildu: pisuz makurtu, okertu.
 abaraska: ezti orrazea, hots, erleek ezti gordetzeko erlauntzaren barruan
 argizariz egiten dituzten zulo txiki hexagonalen multzoa.
 abarrots: harrabotsa, soinu burrunbatsua.
 abes: abestia; ahots musikala.
 adaburu: zuhaitzaren adar-abarren multzoa.
 agitu: egin; bihurtu, bilakatu.
 ahakar: errieta, agiraka.
 ahapaldi: estrofa, bertsoa.
 aharrausi: loguraz-edo, aho-zabaltzea.
 ahazgai*: ahatarazteko gai dena.
 ahopeko: isilpeko solasa.
 aienatu: ezkutatu, desagertu.
 aiher: nahi, gogo biziz atxiki; irrikatu.
 akazia: lore zuri usaintsuak dituen zur sendoko zuhaitza.
 alairo*: alaikiro.
 aldaroka: balantzaka, albo-alboka.
 aldikoz: aldi batez, denbora mugatu batez.
 amesmen*: irudimena, fantasia.
 amestegi*: amestokia, amets egiteko lekua.
 anarte: bitartea, denbora tartea.

⁽¹⁾ Hiztegian, hemen jasotako olerkietan erabilitako adierak lehenesten dira. Izartxo markatutako hitzak, gaur-gaurkoz, ez daude jasota *Euskaltzaindiaren Hiztegi*-an, hiztegi batuan; bai, bakarren bat izan ezik, *Orotariko Euskal Hiztegi*-an.

anezka: ehundegian, haria daraman tresna, txalupa txiki baten antzekoa, irazkiaren gainetik eta azpitik, bilbearen hariak alde batetik bestera zeharka pasatzeko erabiltzen dena.

antzartu*: antza hartu, antzeratu.

apatxl!: esertzean edo norbait eseraraztean esaten den hitza.

arbazta: adar xehea, abar mehea.

argi-begi*: egunsentia, argi urratzea.

argi-harri*: harribitxia.

arian: ari dela.

ario*: ari zaio.

arnari: fruitua.

arnasgai*: arnasgarria; airea.

arrai: alai, argia, atsegina.

arraindun: arrantzalea, arrantzaria.

arrano: erromatar legioen ezaugarri edo entseina, arrano irudikoa.

arre: lur ilunaren kolorekoa.

arro: haitzarteko hondoa, hutsunea.

asele: elezaharra.

asistar: frantziskotarra.

asketsi: barkatu.

askigabe: amaigabea.

asti: aisiarako tartea.

atarpe*: atari(pe)a. (?)

ataurre: atari-aurrea, ate aurreko ingurua.

at(e) (-eko/-ean): kanpo(-ko/-an).

atertu: isildu, mututu.

atsegintegi: atsegintokia, paradisia.

atsegintoki: atsegin hartzen den tokia, paradisia.

atxon: urrina, usain ona.

atzitu: atzeman, harrapatu.

ausaz: agian, beharbada.

azaro: azaro hilabetea / ereintza, hazia ereitea.

azkendu: bukatu, azken unera iritsi.

azpildu: azpildura, toleskeria, zurikeria (egin, erabili).

aztar: aztarna, arrastoa.

aztar*: aztertu, arakatu, arretaz begiratu.

bakalduntza*: erregetza.

bakan-bakanka: gutxika-gutxika, apurka-apurka / mehatz-mehatz, sare-sare, han-hemenka.

bakarte*: bakardadea.

bakotiar*: Bakoren, ardoaren jainkoaren omenez ospatutako jaietan parte hartu ohi zuen dantzaria.

barano: ingurua.

bargasta: lotsagabea; axolagabea, ez esanekoa.

basalur*: basabazterra, lur auzo gabea.

batzarri: abegia, harrera.

begi: zuhaitzaren adar muturreko ninika, puja-hasikina.

begibil*: begi biribila.

begimindu*: begia, ikusmena, zaletu, grinatu, eragin.

begirakun*: begirakunea, begirada.

begitaratu*: begietaratu, begien aurrera ekarri.

begizko: aztikeria, sorginkeria.

begi(z)kun*: begirada.

behinola: behin batean, behin batez.

bekaitz: bekaizkeria, inbidia.

ben: zentzuzkoa, serioa, formala / goibela, tristea, itzaltsua.

benaz: benetan, zinez.

ben-ben: serio-serio; bene-benetan.

betarte*: begitartea, aurpegia.

betsein: begi-ninia.

bidazti: bidaiaria.

bidekari: bidaztia, ibiltaria.

bidekatu*: bidegabetu, bidea galdu.

bigundo*: bigunki.

bilostu*: biluzi.

biño: bi (-ño txikigarri afektiboz ñabartua).

biribil: erabatekoa, enteroa.

biribilki: eraztuna, zirkunferentzia.

biri-min*: biriketako mina, alborengoa.

bisuts: lanbroa, ur-lainoa.

bitzuok: biok, bata(k) eta bestea(k).

bulartu: hazi; indartu.

bultzi: trena.

burestun: koroa.

dabesa*: abesten du.

dadat*: edaten dut.

dager*: ageri da.

dagina: dagiena, egiten duena.

dagio: degio, egiten dio.

dakio: ekiten dio.

dakus(a)t: ikusten dut.

dama*: ematen, zabaltzen du.

dama(k)io*: ematen dio.

damasko: zetazko edo artilezko ehun sendoa, kolore bereko hariak erabiliz egina.

damesgun*: amesten dugun.

dantzut: entzuten dut.

daragio*: eragiten dio.

darrait: jarraitzen dut.

degidat*: degit, egiten dit.

degio: egiten dio.

deiadarkari: oihukaria.

demaigun*: eman diezagun.

deritzu: deitzen dizu.

deten*: ete(te)n du.

deunatz*: pertsona santu baten hatz, oinatz, edo erlikia. (?)

diraki: irakiten ari da.

dohar*: ohartzen, sumatzen du.

dotoigu*: otoizten, erregutzen dugu.

ebaki: eten, amaitu.

eden: pozoia, benenoa.

ederbera: ederberatasuna, edertasunarekiko sentiberatasuna.

edergai: edergarria, apaingarria.

ederki*: edergarria.

ederretsi: eder iritzi, miretsi.

egotzi: oldartu, eraso.

egundo ez: inoiz ez, sekula ez.

egute*: giroa, klima.

eho: ehundu.

ehule: ehun egilea, ehunak ehotzen dituen langilea.

ehun: oihala, tela.

ehundegi: ehunak ehotzeko makina.

ei: omen.

ekurugaitz: urduria, ezin egona.

elai: enara.

emeder*: ninfa.

enetxo: laztana, maitea.

entzuki*: entzutearen organoa, belarria; entzutearen zentzumena.

entzunaldi: kantu saioa; kontzertua.

epez: patxadaz, lasai.

eragile: kudeatzailea.

erakarki*: erakarpena; iradokizuna.

ereino*: ereinotza, erramua (garaileari ematen zaion saria).

eresdun*: musikala, melodiatsua.

ereserki: himnoa; abestua izateko ondutako olerkia.

eresintsu*: melodiatsua, doinuz atsegintsua.
erlauntz: erle taldearen habia, etxetxo.
erorki*: erortzen den, goitik behera datorren izakia, objektua.
erorko*: erorikoa, erorketa.
erpin: gailurra, tontor zorrotza.
erregingai*: erreginagai, printzesa.
errotxo: hankatxo.
eseki: eskegi, zintzilikatu.
eskupeko: propina, esku saria.
estalki(ak): ohe-estalkiak; tapakia eta izarak.
estuntza*: katea.
etxegain: teilatua.
etzin: etzan.
eultzitu: laboreak, garia bereziki, larrainean jo, lastoa eta alea bereizteko.
ezbai: zalantza, duda.
ezilkortu: hilezkortu; hilezkor, hilezin bihurtu.
ezotu: hezetu.

gain-gorri: teilatu gorrikoa.
gainki*: gainaldea, gaineko alde.
gaitz: itzela, handia / zaila.
galen: desengainua, etsipena.
galkor: galgarria.
gandu: lausoa; geruza lausogarria.
garbai: damua.
gaubeila: hildakoaren inguruan, otoitz eginez, kantuak abestuz, eta haren
bizitzako gertaerak eta gorabeherak aipatuz igaro ohi zen gaua.
gaudi*: unibertsoa.
gaurdanik: gaurgero, gaurtik aurrera.
gaztigu: abisua.
geldimin*: bertan gelditzeko gogo bizia.
gelditun*: mugimendurik, higidurarik gabekoa.

- geldu*: harritu, zurtu.
 gelgarri*: miragarria, ikusgarria.
 geltsu*: harrigarria, miresgarria; misteriotsua.
 gentza*: bakea.
 geriztu*: gerizatu, babestu, gorde.
 gesal: kresala.
 gezinari*: mezularia, mandataria.
 gihar: muskulua / gihartsua, indartsua.
 giza argi: gizakiari dagokion adimen argitasuna.
 gizandi: gizon handia, erraldoia.
 gizatza*: gizadia.
 gizen: emankorra, oparoa.
 gogara: nahierara, gogoaren arabera; gustura.
 goiaingeru: arkanjelua, aingeruen gainetik dagoen izakia.
 goiki*: goiko aldea, gainaldea.
 goitar: ospe, izen handikoa.
 goitu: garaitu.
 goraldtu: goratu.
 gorri: gorri kolorekoa / soila, hutsa ; erabatekoa / latza, izugarria /
 ozarra, lotsagabea.
 gotzon*: aingerua.
 gudoste*: gudarostea, gudari taldeen multzoa.
 gurari: gura, nahia, gutizia.
 gurazko: desirazkoa.
 gurentza*: sublimazioa.
 guri: biguna, leuna.

 ha: hura.
 habe: goi-habea, goi-haga / sabaia, gelako goialdea.
 hamestan*: amesten haudan.
 haragikoi: sentsuala, atsegalea.
 haril: harilkoa, haria bilduz egindako hari-bola.

harildu: harilak, hari-pilotak eginez, matazetako haria bildu.

hasikin: lehen emaitza; hasiera.

hatsarre: hasiera.

hats-estuka*: arnasestuka, arnasa hartu ezinik.

hats hartu: arnasa hartu, atsedeen hartu.

hautu: hautatu, aukeratu.

hegaki*: hegatsa, luma.

hegamin*: hegatzeko irrika, hegan alde egiteko gogo bizia.

heldekoi*: aukera bilatzailea; abenturazalea.

helduka*: heldugabea.

heriogarri*: hilgarria, heriozkoa.

hesigaitz*: mugagaitza.

hetsi: itxi.

hezetu: umeldu.

hilkizun: hileta.

hirukoitz: hiruko(te)a, hirutasuna.

hirusta: txorten, aila bakoitzean hiru hostoxka dituen belar landarea.

hondar: harea / bukaera, azkena / kondarra / hondoa, sakona.

hondardi*: hondartza.

horail: ile horailaren kolorekoa, horixka.

horizta: hori antzekoa.

hosgai*: hots egiteko, hotsa sortzeko lehengaia.

hostobakandu: hostoz bakandu, soildu.

hotzantz*: hozkirria, freskoa.

hoxkiro*: hotz, fresko antzean.

hozkirri: hotzikara.

hurbilgo*: hurbil dagoen tokia.

iaz: lehen, antzina.

ibilgo*: ibilbidea, ibilaldia.

idazti: liburua.

igali: fruitua.

- ilaun: arina; ahula / bibote hasiberria, mizpira-biloa.
 iledi: ilajea, ile multzoa, adatsa.
 ilundo*: ilunki.
 inaka*: iseka, trufa, burla.
 indazu*: emadazu, eman iezadazu.
 indioilo: oiloaren familiako hegazia, jatorriz Amerikakoa.
 inguma: tximirrika, tximeleta, pinpilinpauxa.
 inoizka: noizik behin, inoiz edo behin.
 inolaz: zalantzarik gabe, dudarik gabe.
 iñular*: ilunabarra.
 iradu: presa; premia.
 irraka*: biraka, jiraka, bueltaka / irradaka, besagainka, esku-beteka.
 islea*: isla.
 isurki: isurialdea, mendi aurpegia; mendian behera ura jaisten den aldapa.
 itsasozti*: itsasoz doan bidaiaria.
 itsastar: itsasgizona; arrantzalea.
 itsasto*: itsaso handia, ozeanoa.
 itzai*: itzaina, idiak zaindu eta gidatzen dituen.
 itzartu: iratzarri, esnatu.
 izarki*: sua errautsez estali.
 izeki: piztu.
 izetu*: piztu.
 izontzitxo*: itsasontzitxo.
 izun: aizuna, gezurrezkoa, faltsua.
- jaiotzadunak: Gabon egunean, Jesusen jaiotzaren irudia etxez etxe, kantari eta eskean, taldean daramatenak.
- jalgi: irten, ilki, atera.
 jalki*: kapitulua / alea.
 jalki: aletu; isuri / zuhaitzetako fruitu heldua erori.
 jankide*: jaten laguna.
 jare: askatu, libratu; aske, libre.

jaregin: libratu, aske utzi / erantzi.

jas!*: arraio!, demontre!

jasa: erauntsia, euri zaparrada bortitza.

jaukal: bikaina, zoragarria.

jaulki: bota; jaregin.

jaupaleme*: apaizemea, emakume apaiza.

joare: ezkila, kanpaitxo.

joran: nahi bizia, irrika.

jostakatu*: jostatu, jolastu.

kanpandoja*: errege-sagar espezieko sagar mota bat.

kardantxilo: karnaba.

karnaba: kardantxiloa, kardantxoria.

kasko: burua; buruaren goialdea.

kereta: kaiola.

kirrinka: karranka; orgak, gurdiak higitzean ateratzen duen hots bizi eta ezatseginareen onomatopeia.

korain: txibia eta kidekoak harrapatzeko berunezko arrantza-tresna, hiru amukoa.

krazka*: karranka (beleen oihua).

kuliska: oilagorraren familiako hegaztia, moko eta zangoak luzeak dituen, zingira eta paduretan bizi dena.

laga: utzi.

landa: kanpo, at.

laratz: sukaldeko beheko suan, sutondoan, tximiniatik zintzilik dagoen kate kakoduna, pertza edo galdara suaren gainean esekita eduki ahal izateko erabiltzen dena.

larri: handia; astuna.

lasa(i)tu: laxatu, asaskatu.

laster: lastertasuna, abiada.

laurdenbanatu*: lau laurdenetan zatitu eta banatu.

- legego*: legelariaren lanbidea.
 lehenenki*: hasikina, lehenengo emaitza.
 leheneratu: lehengoratu.
 lehengoratu: lehengo egoerara, izatera, itzuli.
 lehenkari*: lehenetik gelditu den, iraun duen gauza, objektua.
 lehi: ahalegina; irrika.
 leiardi*: beiratea.
 leiarki*: beirakia, kristala.
 lekaide: fraidea.
 lekaro: basamortua.
 leotz: lurpean egindako presondegiko gela, ziega, kalabozoa.
 leozpetu: espetxeratu, kartzelatu.
 letxe: legetxe, bezalaxe.
 lits: oihal baten ertzeko puska, bereziki, hari-izpi deslotuak agerian di-
 tuena.
 liztor: erlabioa, listafina.
 lohidi*: lokatza, basatza.
 lohitu: zikindu.
 lor: nahigabea, larritasuna / zama, karga / garraiatzea.
 lorail: maiatza.
 loredi*: lorategia.
 lotazil: abendua.
 lotu: gelditu, geratu.
 lo-xusta: lo-kuluxka, loaldi arin eta laburra.
 ludi: lurbira, mundua.
 lugin: lur langilea, nekazaria, laboraria.
 lurbira: mundua, lurra.
 lurmen: elurra urtu zaion lurzatia.
 lur-min*: mundu, lur honetako guraria, desira.

 mahaitar*: mahaikidea, mahaikoa.
 mailadi: zurubia, eskailera.

maitagarri: ipuin harrigarrietan, ahalmen miragarriak dituen emakumea.

malgotu: tolestu, makurtu.

malkar: aldapa piko eta latza.

malkotza*: malko ugaria.

mantelina: elizara joatean emakumeek, burua estaliz, eraman ohi zuten buruzapia, *mantilla*.

marduldu: heldu, guritu, hots, gizen, sendo eta osasuntsu bihurtu.

mataza: euskarririk gabe, bira handietan bildurik dagoen haria.

men: ahalmena, kemena.

mertxika: muxika, preskua.

milixkatu: milikatu, miazkatu.

miritz*: ukendua, gantzua.

moltso: multzoa, pilo nahasia.

mordo: mulkoa, mahats aleen multzoa.

mozorka*: txirrika eta bertan biribilkaturiko hariak osatzen duten multzoa, bobina.

muinkatu: muin egin, musu eman.

musker: narrasti ezkataduna, lau hankak eta buztan luzea dituen, kolorez berde bizia / berdea, muskerraren kolorekoa.

naro: joria, oparoa, betea.

naroi*: oroitzen naiz.

narrastu, narreztu*: herrestan ibili, arrastaka eraman.

nekusan: ikusten nuen.

neurtitz: bertso-lerroa, hitz neurtuzko lerroa.

non-nahitar*: non-nahikoa, edonongoa, edozein tokitakoa.

ñir-ñir: ñirñirka, distiratur.

ohar-eza*: oharkabekeria, arduragabekeria.

ohatu: ohea egin, atondu.

ohe-atorra: oherako jantzia, alkandora luze modukoa.

- oinaztarri: tximista (lurra jotzen duena).
 oixtian: arestian, orain dela gutxi.
 oldozka*: gogoetaka; gogoeta, pentsaketa eginez.
 oldoztilun*: gogoeta ilunetan, goibeletan, murgildua.
 ondo: zuhaitzaren oina, zuhaitza moztu ondoren, lurrari atxikita
 gelditzen den zuhaitz zatia, motzondoa / ondoan, ondoren.
 opa: oparia, eskaintza.
 oratu: ore a egin, masa moldatu.
 oroi: oroipena, gomuta.
 orridi*: zuhaitzetako hosto piloa, hostaila.
 orril*: maiatza.
 ortziri*: ostotsa, trumoia.
 osatzaile: sendagilea, medikua.
 ostean: atzean.
 ostendu: ezkutatu, desagertu.
 ostertz: zeruertza, zerumuga, horizontea.
 otalore: otearen lorea.
 otxandu: leundu, ematu, goxatu.
 oztin: urdina.
- pantzera*: frantsesa.
 peitu (izan): falta (izan).
 pertxenta: liraina, txairoa; pinpirina.
 pinpirin: apaina, dotorea, txukuna.
 pipil: lore-burua, lore-begia, irekitzean lorea ekartzen duena.
 pozkida: kontsolamendua, nahigabeen aringarria.
 pozkun*: pozgunea, poztasuna.
- saldoka: taldeka, aldraka.
 sapailo: balkoia.
 sarkunde*: sarrera, sarbidea.

sarri(-sarri): maiz, behin eta berriz / azkar-azkar, arin-arin / trinko-trinko, itxi-itxi; tapitua / berehala, bat-batean.

segail: liraina.

sein: haurra, umea.

soindun*: gorpuzduna; gorpuztutakoa; gauzatutakoa, mamitutakoa.

soingain: soinburua, sorbalda.

soinge*: soinekorik, janzkirik gabea.

sorbeltz: txirringiloa, txirria, mitxigoa.

sorgor: sor eta gor, inongo sentimenik eta sentipenik gabe; gogoia bahituta.

sortaldar*: sortaldetarra; sortaldean, ekialdean jaioa.

sortohe*: sorrerako ohea.

subera*: erraz sutzen dena, gogoberotzen dena.

su-iskilu: eskopeta.

sumabehar*: asmatu beharra, sortu beharra.

tamal: nahigabea, zorigaitza.

tantai: erraldoia.

tauparazi*: taupadaka jarri; biziarazi.

tinel: prest, gertu; zehaztuta, erabakita.

tinka*: esne marmitek elkar jotzean ateratzen duten hotsaren onomatopeia / tinko(ki), irmo(ki).

txairo: lirain eta dotorea.

txanbil: ontzia, suila, anfora.

Txerren: Deabru(a), Satan.

txiker: txikia; ñimiñoa, txikitxo.

txikerkeria*: txikikeria, huskeria.

tximirrita*: tximirrika, tximeleta, pinpilinpaua.

txinta: txorrotxioa, txioa.

txirrika: platerean ezarritako hodi edo zilindro bertikala non, jiratzean, haria biltzen, biribiltzen den, bobina osatzeko.

txirripio*: hegatzabala, larretxoria.

txirtxir*: txingarrak edo suak, uretan sartzean, atera ohi duten hotsaren onomatopeia.

txirulira*: txirulirua, txoriaren kantuariaren onomatopeia.

txokor: zigarro purua, zigarro habanoa.

txolarre: hormatxoria, kurloia, eliza-txoria.

txoratil*: txoro-txoro eginda, gogo bildu ezinik.

udalehen: udaberria.

uhartedi: irla multzoa.

uhintzar*: olatu gaitza, izugarria.

unatu: nekatu.

ur-axal*: begiaren aurrealdeko urezko axala.

urdail-zorro: estomagoa, estomaka.

urdingetu*: urdingabetu, kolore urdina galdu.

ur gozo: azukrez eta arrautzaren zuringoz egindako ore zuri, harro, belaki tankerakoa uretan sartu eta urtuz, lortzen den ur gozatua.

urgun: herrena; balantzaka.

ur lo: ur geldia, ur bildu barea.

urruma: usoen hots, kantu apal eta errepikatua.

urrun (-en / -go): urrun (-ean / -eko), urruti (-an / -ko).

urte-giro*: urtaroa, urte-sasoia.

urtezu*: urtetsua.

usu: azkar, laster.

xerbeldu: zerbeldu, edanak edo zerbaitek pixka bat eragin, txolindu.

zabal: espazioa.

zagoz: zaude.

zain-gihar: zainak, hots, tendoiak, eta giharrak, muskuluak.

zakust*: ikusten zaitut.

zarden: lerdena, liraina.

zarpaildu: trauskildu, baldartu.

zatarretsi*: gaitzetsi, ezetsi, arbuiatu.

zegi(e)n: egiten zuen.

zeken: ziztrina; estu eta meharra.

zeneriodan*: jariatzen zenidan.

zerakustan*: erakusten zidan.

zeraroran*: erorarazten, erakartzen zuen.

zindo: zintzoa; sendoa, tinkoa.

zinkuru*: zinkurina, intziria.

zioskan*: ziotsozan, esaten zizkion.

zitu: fruitua.

zoli: zorrotza, argia, bizia.

zorakortasun*: zoramena, lilura, txundidura.

zoridun*: zorionduna, zoriontsua.

zorne: landareen eta zuhaitzen barruko izerdia, isurkia, zuku elikagarria.

zorun*: zoriona, zoriontasuna.

zurikail: zurizta, zurixka.

zurubi: eskailera.

zut: tente, zuzen.

zutikako: zutabea.

zutoi*: zutoina, zutabea, pilarea.

– II –

PERTSONAK ETA LEKU-IZEN BEREZIAK

Aitzarre: Aitzarreta kobazuloko iturburua kokatua dagoen Aralar aldeko mendia. (?)

Aldi(a): Kronos, Saturno, izaki mitologikoa. Denboraren pertsonifikazioa.

Altzo-muino: Tolosa inguruko Altzo herriko auzoa.

Amona: Klementina Belauntzaran, Lizardiren amona amaren aldetikoa (1842-10-23 / 1928-03-31).

Barrena, Polikarpo: zarauztarra (1881-1943), 1931n PNV/EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakaria.

Besse de L.: Alfred Besse de Larzes (1848-1904), bat-bateko olerkien sortzaile frantsesa.

Bourse: “La Bourse”, merkataritzako eta finantzetako eragiketak egiten diren Parisko Burtsa.

Errazti, Joseba Maria: 1916tik 1923ra arte Euskeltzale-Bazkuna-ko kidea. Aberri alderdiari atxikia, BBBko idazkaria eta Bilboko Eusko Gaztedi-ko bokala.

Garto: Konrado Egaña, Lizardiren osaba.

Gazte: poeta bera, Lizardi, gazte zelarik.

Gerbault, Alain: belaontzi batean, haize indar hutsez, 1923tik 1929ra bitartean munduari bira eman zion frantziar bidaiari bakartia.

Hirizahar: Tolosa.

Hondaurtz: Zarautz.

Ikaro: greziar mitologiako pertsonaia. Kretako labirintotik lumaz eta argizariz egindako hegoz ihes egitean, zoroki eguzkira gehiegi hurbildu zelako, argizaria urtu eta itsasoan amildu zen. Zentzugabekeriaren eta ausarkeriaren irudia.

Izkain: Itsas gain, Itsas barru(alde).

Liorko: poetaren lagunen baten izengoitia.

Maitea: Frantziska Izagirre Etxeberria, Lizardiren emaztea.

Markiegi, Joseba: apaiza, idazlea eta itzultzailea (1895-1936), Deban jaio eta Oiartzunen fusilatua. Lizardiren *Hitz lauz* artikulu bildumaren “Hitzaurrea”ren egilea.

Mendilaueta: Zarauzko toponimoa; hondartza ondoko lur sail zabala, hareazko muinoz (dunaz) betea.

Mendi-Lauta: Domingo Arruti zarauztarraren izenordea. Lizardiren herrikidea eta adiskidea.

Moila: Zarauzko kai txikia.

Muno Txiki: Zarautzen, frantziskotarren komentutik hondartzara iristean altxatzen zen begiratoki txikia, gaur egun desagertua.

Odolki: poetaren lagunen baten izengoitia.

Onuzki / Onki: Felipe Lizundia, zarauztarra, poetaren adiskidea, burutik gaixotua.

Orexa: Tolosaldeko herria, Nafarroako muga.

Paulino: Zarauzko bainuzaina.

Pillipa: Felipe Lizundia, *Onuzki*, segur aski.

Santa Barbara: Zarautzek mendebaldera duen mendi-goitxoa eta bere gailurrean ageri den ermita.

Tabor: Palestinako mendia. Ebanjelioan datorrenez, bertan, Jesu Kristo hiru apostoluren aurrean antzaldatu zen.

Tuileri: “Tuileries”, Parisko Louvre ondoan kokaturiko jauregi eta lorategi zabalak.

Urkizu: Tolosa inguruko auzoa, Hernio mendiaren magalean kokatua.

Xabiartxo: Jose Maria Agirre Egaña, *Lizardi*, eta Frantziska Izagirre Etxeberria senar-emazteen semea, 1925eko azaroaren 7an jaio eta urte bereko abenduaren 24an hila.

